

# DIAGNOSTIKO-TXOSTENA, LANBIDEK DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ETA ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIAREN PRESTAZIOAK HOBETO KUDEATZEKO PROPOSAMENAK JASOTZEN DITUENA, 2017

ararteko
Herriaren Defendatzailea
*Defensoría del Pueblo*

www.ararteko.eus

# DIAGNOSTIKO-TXOSTENA, LANBIDEK DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN ETA ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIAREN PRESTAZIOAK HOBETO KUDEATZEKO PROPOSAMENAK JASOTZEN DITUENA, 2017

ararteko

Herriaren Defendatzailea

*Defensoría del Pueblo*

# AURKIBIDEA


Glosarioa .......... 6

I. Sarrera .......... 9

II. Prestazio ekonomikoen kudeaketaren azterketan hauteman diren arazoak .......... 13
1. Herritarrentzako arreta .......... 13
1.1. Aurretiazko hitzordua eta itxarote-epea .......... 13
1.2. Herritarrentzako informazioa .......... 15
1.3. Erregistroa eta eskatzen den dokumentazioa .......... 16
1.4. Bitarteko ekonomikoak justifikatzen eta nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea .......... 17
1.5. Dokumentazioa aurkeztea, zeinaren egiazkotasunaren gainean zalantza egiten den .......... 22
1.6. Eskaerak artxibatzea, eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik .......... 23
2. Lanbideren Zerbitzu Orokorren eta bulegoen arteko harremana .......... 26
3. Prestazio ekonomikoak ebazteko eta ebazpenari errekurtsoa jartzeko fasea .......... 30
4. Eteteko, berrabiarazteko, iraungitzeko, berritzeko eta berrikusteko prozedurak .......... 32
4.1. Eteteko prozedura .......... 32
4.1.1. Aurretik entzuteak duen garrantzia .......... 32
4.1.2. Prestazioak etetea erabakitzen duten ebazpenen arrazoiketa .......... 34
4.1.3. Etetearen iraupena .......... 34
4.1.4. Zigortzeko araubidea ezartzea .......... 36
4.2. Berrabiarazteko prozedura .......... 37
4.3. Iraungitzeko prozedura .......... 38
4.4. Berritzeko prozedura .......... 39
4.5. Berrikusteko prozedura .......... 41
5. Desadostasunak araudia interpretatzeko orduan .......... 41
5.1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunak .......... 42
5.1.1. Egoitza eraginkorra egiaztatzea .......... 42
5.1.2. Titulu gaitzailearen bidez etxebizitza okupatzen dela egiaztatzeko ezintasuna .......... 46
5.1.3. Bizikidetza-unitatearen eraketa egiaztatzea; zehazki, polizia-txostenak eta ezkontideen antzeko harremanak .......... 48
5.1.4. Atzerritar batekin ezkonduta dauden edo atzerritar batekin ezkontideen antzeko harremana duten eta bananduta bizi diren pertsonak .......... 52
5.1.5. Egoitza-zentroetan edo tutoretzapeko etxebizitzetan bizi diren pertsonak .......... 55
5.1.6. Diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungitzea edo berori ez aitortzea, ohiko bizilekua ez den ondasun higiezinen titularrak diren pertsonen kasuan .......... 57

5.1.7. Prestazioa etetea, justifikatu gabeko gastuak hautemateagatik ....57
5.1.8. Urtebeteko bizikidetza independentea egiaztatzea ....58
5.1.9. Familia-indarkeriaren biktimek betekizunak betetzeari eragiten dioten kontu batzuk ....59
5.1.10. Langile autonomoei eragiten dieten kontu batzuk ....62
5.1.11. Guraso bat hilda duten eta bestearen abandonua jaso duten gazteak ....65
5.1.12. Semea edo alaba ardurapean edukitzeagatik Gizarte Segurantzaren prestazioa jasotzen duten eta diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzen duten pertsonak ....65
5.2. Ezohiko diru-sarrerei buruzko aurreikuspenaren interpretazioa, 147/2010 Dekretuaren 20. art. ....66
5.2.1. Ezohiko diru-sarrera eta mailegu bat formalizatzea ....67
5.2.2. Arauzko aurreikuspen horren interpretazioari eragiten dioten beste kontu batzuk ....69
5.3. Desadostasunak prestazioak etetea edo iraungitzea erabakitzeko arrazoien interpretazioan ....71
5.3.1. Enplegu-eskatzaile gisa alta emanda ez egotea, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izanik laneko diru-sarrerak osatzeko modalitatean ....71
5.3.2. EAEtik kanpora egindako irteera baten berri ez ematea ....73
5.3.3. Eduki ekonomikoko eskubideak ez baliatzea ....76
5.3.3.1. Dibortzioko, banantzeko edo guraso eta seme-alaben arteko neurriak ezartzen dituen epai judizialean aitortutako elikagaien pentsioa ez egikaritzea ....76
5.3.3.2. Alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitza bat ukatzea ....78
5.3.3.3. Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak langabezia-subsidioa edo langabeziako prestazioa iraungitzea ....80
5.3.3.4. Enplegu bat nahita ukatzea ....80
5.3.4. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzea lanpostu baterako langileak hautatzeko prozesu batean ez parte hartzeagatik ....81
5.3.5. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak etetea Babestutako Etxebizitzaren Eskatzaileen Erregistroan (Etxebide) izena ez emateagatik ....83

III. Araudia aldatzeko proposamenak ....86
1. Bizikidetza-unitate bereziei dagokien denbora-mugaketa ....87
2. Prestazioen ordainketa etetea eta prestazioak jasotzeko eskubidea etetea eta iraungitzea ....88
3. Bidegabeki jasotako prestazioak itzultzea ....92
4. Enplegurako pizgarriak ....97
5. Gizarte Zerbitzuen koordinatzearen garrantzia ....100
6. Ondare-mugak ....106

IV. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketarako interesgarriak izan daitezkeen beste kontu batzuk ..... 107
1. Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoarekiko harremana ..... 107
2. Dekretuen garapena. Aplikatzeko irizpideak, zirkularrak eta jarraibideak ..... 112
3. Salaketa bat jaso ostean hasten den prozedura arautzeko beharra ..... 115
4. Atzerapena laneko alta eta bajen kasuak eguneratzean ..... 116
5. Prestazioen ordainketen banku-oharretan adierazten diren kontzeptuak ..... 116
6. Prestazioen titularrek jasotzen dituzten diru-sarrerak jakinaraztea Foru Ogasunei..... 116

V. Sistemaren inguruko hausnarketa batzuk ..... 117

Ondorioak eta gomendioak ..... 119
1. Herritarrentzako arreta ..... 119
1.1. Aurretiazko hitzordua eta itxarote-epea ..... 119
1.2. Herritarrentzako informazioa ..... 120
1.3. Erregistroa eta eskatzen den dokumentazioa ..... 120
1.4. Bitarteko ekonomikoak justifikatzen eta nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea ..... 121
1.5. Dokumentazioa aurkeztea, zeinaren egiazkotasunaren gainean zalantza egiten den ..... 121
1.6. Eskaerak artxibatzea, eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik ..... 122
2. Lanbideren Zerbitzu Orokorren eta bulegoen arteko harremana ..... 122
3. Prestazio ekonomikoak ebazteko eta ebazpenari errekurtsoa jartzeko fasea..... 122
4. Eteteko, berrabiarazteko, iraungitzeko, berritzeko eta berrikusteko prozedurak ..... 123
4.1. Eteteko prozedura ..... 123
4.2. Berrabiarazteko prozedura ..... 123
4.3. Iraungitzeko prozedura ..... 124
4.4. Berritzeko prozedura ..... 124
4.5. Berrikusteko prozedura ..... 125
5. Desadostasunak araudia interpretatzeko orduan. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunak ..... 125
5.1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunak ..... 125
5.1.1. Egoitza eraginkorra egiaztatzea ..... 125
5.1.2. Titulu gaitzailearen bidez etxebizitza okupatzen dela egiaztatzeko ezintasuna ..... 126
5.1.3. Bizikidetza-unitatearen eraketa egiaztatzea; zehazki, polizia-txostenak eta ezkontideen antzeko harremanak ..... 126
5.1.4. Atzerritar batekin ezkonduta dauden edo atzerritar batekin ezkontideen antzeko harremana duten eta bananduta bizi diren pertsonak ..... 126
5.1.5. Egoitza-zentroetan edo tutoretzapeko etxebizitzetan bizi diren pertsonak ..... 127
5.1.6. Diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungitzea edo berori ez aitortzea, ohiko bizilekua ez den ondasun higiezinen titularrak diren pertsonen kasuan ..... 128
5.1.7. Urtebeteko bizikidetza independentea egiaztatzea ..... 128
5.1.8. Familia-indarkeriaren biktimek betekizunak betetzeari eragiten dioten kontu batzuk ..... 129

5.1.9. Langile autonomoei eragiten dieten kontu batzuk ................ 129
5.1.10. Guraso bat hilda duten eta bestearen abandonua jaso duten gazteak ................ 130
5.1.11. Semea edo alaba ardurapean edukitzeagatik Gizarte Segurantzaren prestazioa jasotzen duten eta diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzen duten pertsonak ................ 130
5.2. Ezohiko diru-sarrerei buruzko aurreikuspenaren interpretazioa, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20. art. ................ 131
5.2.1. Ezohiko diru-sarrera eta mailegu bat formalizatzea ................ 131
5.2.2. Arauzko aurreikuspen horren interpretazioari eragiten dioten beste kontu batzuk ................ 132
5.3. Desadostasunak araudia interpretatzeko orduan. Desadostasunak prestazioak etetea edo iraungitzea erabakitzeko arrazoien interpretazioan ................ 132
5.3.1. Enplegu-eskatzaile gisa alta emanda ez egotea, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izanik laneko diru-sarrerak osatzeko modalitatean ................ 132
5.3.2. EAEtik kanpora egindako irteera baten berri ez ematea ................ 133
5.3.3. Eduki ekonomikoko eskubideak ez baliatzea ................ 133
5.3.4. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzea lanpostu baterako langileak hautatzeko prozesu batean ez parte hartzeagatik ................ 134
5.3.5. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak etetea Babestutako Etxebizitzaren Eskatzaileen Erregistroan (Etxebide) izena ez emateagatik ................ 135
6. Araudia aldatzeko proposamenak ................ 135
6.1. Bizikidetza-unitate bereziei dagokien denbora-mugaketa ................ 135
6.2. Prestazioen ordainketa etetea eta prestazioak jasotzeko eskubidea etetea eta iraungitzea ................ 136
6.3. Bidegabeki jasotako prestazioak itzultzea ................ 137
6.4. Enplegurako pizgarriak ................ 137
6.5. Gizarte Zerbitzuen koordinatzearen garrantzia ................ 137
6.6. Ondare-mugak ................ 138
7. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketarako interesgarriak izan daitezkeen beste kontu batzuk ................ 139
7.1. Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoarekiko harremana ................ 139
7.2. Dekretuen garapena. Aplikatzeko irizpideak, zirkularrak eta jarraibideak ................ 139
7.3. Salaketa bat jaso ostean hasten den prozedura arautzeko beharra ................ 140

Iturriak ................ 141
Legeria ................ 141
Jurisprudentzia ................ 145
Lanbideren dokumentuak ................ 148
Arartekoaren ebazpenak ................ 148
Bibliografia ................ 153

## GLOSARIOA

1/1994 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Segurtasunari buruzko Lege Orokorra onesten duena = Gizarte Segurantzaren 1994ko Lege Orokorra

1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilarena = Prozedura Zibilari buruzko Legea

147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa = maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua

18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa = abenduaren 23ko 18/2008 Legea

190/1996 Errege Dekretua, otsailaren 9koa, Espetxeetako Erregelamendua onartzen duena = Espetxeetako Erregelamendua

2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa = otsailaren 20ko 2/1998 Legea

2/2010 Dekretua, urtarrilaren 12koa, etxebizitzarako gastuetarako prestazio osagarri buruzkoa = urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretua

30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena = azaroaren 26ko 30/1992 Legea

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena = urriaren 1eko 39/2015 Legea

4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa = Atzerritarren Lege Organikoa

4/2011 Legea, azaroaren 24koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duena = azaroaren 24ko 4/2011 Legea

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena = urriaren 1eko 40/2015 Legea

557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa; Errege Dekretu honen bidez onartu egiten da 4/2000 Lege Organikoaren Araudia, Espainian dauden atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzkoa, 2/2009 Lege Organikoak hori aldatu ostean = apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua

8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena = Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra

Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa = Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua

artikulua = art.

Diagnóstico con propuestas de mejora sobre la gestión de las prestaciones de la RGI- y PCV- por Lanbide, 2013 = 2013ko diagnostiko-txostena

Diagnostiko-txostena Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituenak, 2017 = 2017ko diagnostiko-txostena

Diru Sarrerak eta Gizarteratzea Bermatzeko Euskal Sistema = Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema

Euskal Autonomia Erkidegoa = EAE

Errege Dekretua, 1889ko uztailaren 24koa. Kode Zibila = Kode Zibila

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa = EEZP

Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua = Etxebide

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Saila = Enplegu eta Gizarte Politika Saila

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila = Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Gizarteratzeko Errenta Aktiboa = RAI

Lanbide = Euskal Enplegu Zerbitzua

Lanpostuen zerrenda = LZ

or. = orrialdea/orrialdeak

Prestakuntzazko Eguneratze Profesionalaren gaineko Programarako = PREPARA

Renta de Garantía de Ingresos y Prestación Complementaria de Vivienda: criterios diciembre 2014 = 2014ko abenduko irizpideen agiria

ZO = Zuzenbideko oinarriak

Zuzenean = Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Zerbitzua

# I. SARRERA

Diru Sarrerak eta Gizarteratzea Bermatzeko Euskal Sistemak (Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak) berezkoak dituen prestazio ekonomikoak Euskal Enplegu Zerbitzuak (Lanbide) nola kudeatzen dituen aztertu nahi du *Diagnostiko-txosten* honek, *Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituenak* (2017ko diagnostiko-txostena), 2013-2017 aldiari dagokionez, eta erakunde honek aurretik xede berberarekin egin zuen diagnostiko-txostena eguneratzea dakar horrek, Lanbidek ahal hori hartu eta 2013ra arteko aldia aztertu baitzen hor.

Jakina denez, 2011ko abenduaren 13an indarrean jarri zen azaroaren 24ko 4/2011 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 8/2008 Legea aldatzen duena (azaroaren 24ko 4/2011 Legea), 2011ko urtarrilaren 1ean Euskadiri eskualdatu ondoren laneko legedia betearazteko eskumenak, enplegu-politika aktiboen eta enplegurako lanbide-heziketaren arloan. Bada, horrekin, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren prestazioak kudeatzeko eredua aldatu zen, Eusko Jaurlaritzak hartu baitzituen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren (Lanbideren) bidez, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio ekonomikoa prestazio ekonomikoak izapidetzearekin eta ebaztearekin zerikusia duten eskumenak, bai eta gizarteratze aktiborako hitzarmenak egiteko, proposatzeko, negoziatzeko, sinatzeko eta horien segimendua egiteko eskumenak ere.

Lege garrantzitsu horrek sendotu zuen Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema, eta legez ezarri diren betekizunak betetzen dituzten pertsonen eskubide subjektibotzat hartzen du diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarrirako sarbidea. Garrantzitsua da une honetan bertan adieraztea prestazioen kudeaketa-modalitatea aldatu izanak, foru-aldundietatik (udaletako Gizarte Zerbitzuen partaidetzarekin) Eusko Jaurlaritzara eskualdatu baitzen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari egotziz zeregin horiek, erronka handia ekarri zuela, hainbat zailtasunekin batera. Beste zeregin batzuk ere bazituzten 43 bulego zeuden prestazioak izapidetzeko, prestazioa aurretik izapidetu ez zuten langileekin, eta aurretik planifikatzeko denborarik gabe. Ondorioz, zailtasun eta arazo ugari sortu ziren, txosten honetan islatzen den bezala, konpontzen joan direnak. Hala ere, berrikusi eta hobetu beharko liratekeen alderdi gakoak daude oraindik ere.

Bai krisi ekonomiko bereziki larriaren iraunkortasunarengatik, bai, lehen adierazi dugun bezala, prestazio ekonomiko horien kudeaketa-ereduan hain aldaketa handia egin izanak ekarri zituen antolakuntza-zailtasunen ondorioz, milaka hartzaile daude egun (135.000 inguru). Antolakuntzari begira, kudeaketa oso konplexua izatea ekarri du horrek, eta, gainera, askotan muturrekoa izaten den beharrizan- eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonei eragiten die.

Egokia da adieraztea Lanbidek urte horietan egin duen kudeaketak zer-nolako bilakaera eduki duen egiaztatzea ahalbidetuko digutela bi txostenek, eta, horri esker, hobetu daitezkeen kontuak plantea ditzakegula. Horretarako, hainbat proposamen egingo dira, eta ondorioei eta gomendioei buruzko atalean jaso.

Argi utzi nahi dugu balorazio honen helburua ez dela Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema oro har aztertzea; izan ere, Arartekoak urte hauetan jaso dituen milaka kexen berri ematea eta herritarrei laguntzeko bulegoetan egin diren kontsulten edukiaren diagnostikoaren berri ematea da xedea, modu apalagoan. Bestetik, egindako ofiziozko jardueren eta Lanbideren bulegoetara egin ditugun bisiten berri emango dugu, modu zuzenagoan ezagutu ahal izan baitugu, horiei esker, bere funtzionamendua.

Aipatutako prestazioen kudeaketan eman diren aurrerapausoak jasotzen dira 2017ko diagnostiko-txosten honetan. Aurretiaz onartzen dugu ez dugula egin Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioen gainean egin duen kudeaketaren analisi xehea, Arartekoak esku hartu duen kexa-espedienteak izapidetzetik eratorri diren kontuak aztertu dira-eta. Beraz, jaso diren kexetan hautemandako kasuistikara mugatu gara. Eta, zentzuzkoa denez, Arartekoak esleituta dituen legezko zereginak direla-eta, herritarrek zein gizarte-bazterketaren eremuan lan egiten duten gizarte-erakundeek salatu dituzten eragozpenak eta zailtasunak izan dira jo-puntua.

Ondorioz, ez ditugu aztertu ez praktika onak, ez jarduera eraginkor eta bermatzaileak, ez Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak bazterketaren prebentzioan eta pobrezia saihesteko orduan duen oinarrizko eginkizuna. Gainera, adierazi beharra dago, Estatistikaren Institutu Nazionalaren 2015eko inkestaren arabera, non bizi-baldintzak aztertu ziren, Euskadi pobrezia-tasa txikienetakoa duen herrialdea dela Europan, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari esker dela hori horrela, beste faktore batzuen artean.

Arartekoak, nola ez, Lanbidek kudeatzen duen Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioen garrantzia babesten du, baita gainerako zereginak ere, eta gizarte-kohesiorako elementu giltzarritzat hartzen du horren merezimendua.

Are gehiago, gabeziak hauteman dira **Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren legitimazioan**, eta berori hobetzeko ahalegin handiagoa egin beharko litzatekeela balioesten dugu, hausnarketa lasaia egin beharko litzatekeela, biztanleriaren sektore batzuetan sistema horren gainean ezarri den pertzepzio negatiboa desagerrarazte aldera.

Duela gutxiko datuen arabera, 2016ko maiatzetik, non titular-kopuru handiena erregistratu zen (65.657), zifrek behera egin dute; hala, irailean 64.281 hartzaile zeuden, eta abenduan 63.797.

Oinarrizko gizarte-babesa denez, gizarte-adierazle oso garrantzitsua da hartzaileen kopuruaren **bilakaera**, euskal gizartearen egiazko ongizatea eta herritarrek dituzten zailtasunak balioesteari begira. Edonola ere, ikerketetako datuek, hala nola *Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkestan* edo berriagoa den *Behar Sozialei Buruzko Inkesta 2014* delakoan agertzen direnek nabarmendu egiten dute diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio ekonomikoa/gizarte larrialdietarako laguntzak/ prestazioen sistemak eragin positiboa duela pobrezia-egoera larrienek gora egitea prebenitzeko orduan. Aipatutako azken inkestaren arabera, *"EAEko sarrerak bermatzeko sistema pobrezia-arriskuan egon ziren biztanleen %72,9raino heldu zen 2014. urtean (...). Laguntzak eskuratzean 80.499*

*pertsona benetako pobreziatik irten da 2014. urtean, EAEko biztanleen %3,7 eta arriskuan dauden biztanleen %38,7"* (7. or.).

Alabaina, bazterketa-egoeran egon arren, herritarren zati batek ez ditu prestazio horiek jasotzen, hainbat arrazoi tarteko; baina, batez ere, eskatzen diren betekizunekin dauka harremana horrek.

Ondorioz, kudeaketaren bilakaera funtsezkoa bihurtzen da **hobetzeko alderdiak** hauteman ahal izateari begira; besteren artean, bazterketa-egoeran dauden herritar guztiengana iritsi ahal izateko, eta sistemara sartu ahal izan daitezen horiek, bai diru-sarrerak bermatzeko alderdian, bai laneko aktibazioaren alderdian.

Hortaz, azpimarratzeko modukoa da aipatutako sistemak bazterketa-egoera larriagoak prebenitzeko unean duen **garrantzia,** eta era berean nabarmendu ditzakegu bazterketarako arriskuan dauden pertsonengana iristean dituen **ondorio inklusiboak.** Hainbat arrazoirengatik egon daitezke pertsonak arrisku horretan, bai lan duin bati eusteko edo berori lortzeko zailtasunengatik, bai osasunetik zein gizarte-zailtasunetatik erator daitezkeen beste mugaketa batzuengatik, eta, pertsona horientzat, modu duinagoan biziraun ahal izateko bitartekoa da Euskadin dugun gizarte-babeserako sistema.

Beste alde batetik, Lanbidek lan-txertaketan egiten duen lana funtsezkoa da bere hiru alderdietan: lanerako orientabidean, prestakuntza-ekintzetan eta laneko bitartekaritzan. Eginkizun horiek gora egin dute azken urteotan; hala ere, Lanbidek Lanpostuen Zerrendara (LZ) egokitzeko egin zuen berregituraketaren ondorioz, garapen hori moteldu egin zen 2015aren amaieran eta 2016aren hasieran. Hala ere, 2016aren amaieran, bitartekaritza-tasa %25 hazi zen, 2015arekin alderatuz gero.

Europara begiratuta, bai Europako Kontseiluak bai Europako Batzordeak babesten dute pobreziari eta gizarte-bazterketari aurre egiten dieten eta gutxieneko diru-sarrerak eta lanean txertatzeko programak konbinatzen dituzten estrategiak egoteko beharra, bai eta emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bermatzen duten jarduerak egoteko beharra ere.

*Europa 2020* estrategiak (COM(2010) 2020 final) edo Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren aurkako Europako Plataformak eta Europako Batzordearen hainbat komunikaziok, besteren artean, *Towards a job-rich recovery* (COM(2012) 173 final), delakoak, aurreko konbinaketa egotearen garrantzia adierazten dute behin eta berriz.

Zeregin horiek indartzeko eta gizarteratze aktiborako hitzarmenak edukiz betetzeko beharra azpimarratu nahi du Arartekoak, azaroaren 24ko 4/2011 Legearen 65. artikulutik 75. artikulura arteko aurreikuspen legalak kontuan hartuta. Ezinbestekoa da Lanbidek titularrei eta bizikidetza-unitateko kideen artean lan egiteko adina dutenei laguntzea, lanpostu bat lortzeari edo laneko egoera hobetzeari zuzendutako jardueren bidez. Bestetik, **eskubide subjektiboa** dela azpimarratu nahi dugu: gizarteratzeari eta laneratzeari bideratutako laguntza pertsonalizatuez gozatzeko eskubidea da (Diru-sarrerak eta Gizarteratzea Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen (abenduaren 23ko 18/2008 Legea) 3. artikulua.

Atal hau amaitu aurretik, garrantzitsua da dagoeneko aipatu dugun ideiara itzultzea; hau da, azterketa juridikotik eta kexaren xede izan den kasuistikatik (bizi-egoera oso zehatzak jasotzen dituen kasuistikatik) eratorritako informazioaren eta hausnarren berri ematea da 2017ko diagnostiko-txosten honen xedea, bai eta Ararteko erakundearen beste esku-hartze batzuetatik eratorritakoen berri ematea ere, eta **sistema hobetzeko proposamenak** egitea, eskubideak babesteko erakunde bati dagokion ikuspegi bermatzailetik eta inklusibotik abiatuta.

Diagnostiko-txosten honek jasotzen dituen proposamen guztiak markatzen ditu asmo horrek, eta kapitulu, atal eta idatz-zati guztietan errepikatuko da asmoa.

Egiturari dagokionez, *Diagnóstico con propuestas de mejora sobre la gestión de las prestaciones de la RGI- y PCV- por Lanbide, 2013* izenburuko txostenaren (2013ko diagnostiko-txostena) egitura berari eutsi nahi izan zaio. Lehenengo blokean, prestazioen kudeaketan hauteman diren arazoak jasotzen dira; besteak beste, gai hauen ingurukoak: herritarren arreta, dokumentazioa aurkeztea eta erregistratzea, Lanbideren Zerbitzu Orokorrek eta bulegoek duten harremana eta koordinazioa, izapidetze-, ebazpen- eta errekurtso-faseetan egon diren arazoak eta eteteko, berrikusteko, berrabiarazteko eta berritzeko prozeduretan agertu diren arazoak.

Ezartzekoa den araudiaren gaineko interpretazioan egoten diren desadostasunei buruzkoa da beste kapitulu bat; hala nola, gai hauek jorratzen dira bertan: diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko eskatzen diren betekizunak, prestazioak etetea edo iraungitzea eragiteko arrazoiak, seme-alabak ardurapean edukitzeagatiko prestazioak edota legezko agindu batzuen interpretazioa (ezohiko diru-sarrerak arautzen dituena, adibidez).

Hurrengo kapituluan, araudia aldatzeko proposamenak egiten dira, eta hainbat gairen inguruko aurreikuspenei eragiten diete horiek; hala nola, hauei: bizikidetza-unitate berezien denbora-mugei, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea eteteko eta iraungitzeko denbora-mugei, prestazioak itzultzeko epeei, ondare-mugei, Gizarte Zerbitzuekiko koordinazioari eta, erakunde honen ustez, alderdi giltzarria den beste gai bati: enplegurako pizgarrien denbora-mugei.

Azkenik, intereseko beste kontu batzuk aipatzen dira; hala nola, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarekiko (EEZP) harremanari eragiten diotenak, araudiaren garapena, edo berrikuspen-prozedura arautzeko beharra, salaketa baten bidez hasten denean. Sistemaren eraketari eragiten dioten hausnarketa batzuekin amaitzen da txostena, debatea behar duten hausnarketa batzuekin, alegia, eremu politikoari eta gizarteak parte hartzeko eremuari dagokienez.

Ondorioei buruzko kapituluak ixten du diagnostiko-txostena. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari (Enplegu eta Gizarte Politika Saila) bidaltzen zaizkion gomendioak zehazten dira.

Ezin dezakegu sarrera hau amaitutzat jo Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak euskal gizartearen ongizatean duen garrantzia errepikatu gabe, edota ikerketa honen xedea **Lanbideren kudeaketa hobetzen laguntzea** dela azpimarratu gabe.

2016-2020 legegintzaldi berriak, seguru asko, politika publikoetarako proposamen berriak ekarriko ditu, bai eta araudi-aldaketak ere, eta sistemaren eraketari eragingo

diote horiek. Arartekoak, txosten honen bidez, Lanbideren egoeraren inguruko diagnostiko egokiagoa egiten lagundu nahi du. Txostena itxi zen egunari heltzen dio diagnostikoak (20127ko otsailari).

# II. PRESTAZIO EKONOMIKOEN KUDEAKETAREN AZTERKETAN HAUTEMAN DIREN ARAZOAK

## 1. HERRITARRENTZAKO ARRETA

### 1.1. Aurretiazko hitzordua eta itxarote-epea

Lanbideren funtzionamenduari dagokionez, hauxe da aztertu beharreko lehenengo alderdia: oinarrizko beharrei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez duen eta langabezian dagoen edo enplegu ezegonkorra duen pertsona batek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskatzea erabakitzen duen unea.

Honako hau ezartzen du abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 59. artikuluak: *“lege honetan aurreikusitako prestazio ekonomikoak eta, hala badagokio, gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak lortu nahi izanez gero, interesdunak erroldatuta dagoen eta benetan bizi den udalerriko udalari eskaera egin beharko dio aurretik, eta dagokion gizarte-zerbitzuaren aurrean aurkeztu; gizarte-zerbitzu horrek eskaera izapidetzeko beharrezkoa den informazio eta orientazio guztia emango die eskatzaileei”.*

Legeak berak 22. artikuluan dioenez, "*eskabidea aurkezten den egunaren biharamuna*" denez prestazioak **aitortzeko eguna**, eskubide horiek eskatzen dituzten pertsonentzat oso garrantzitsua da eraginkorrak izatea **aurretiazko hitzorduen esleipenetan.**

Azaroaren 24ko 4/2011 Legearen arrazoien azalpenak autonomia-mailako kudeaketarako jauziaren alde egiten zuen, "*...prestazioak organismo bakar batek kudeatzeak gobernantzari, efizientziari eta kontrolari begira dituen abantailez baliatzeko xedez...*", zereginak Lanbideri eskualdatzeari buruz aritzean. Alabaina, hasierako fasean, eskatzaileen kopuru handiak eta ezarri berri zen sistemaren gabeziek gainditu egin zuten organismo hori, eta, ondorioz, herritarren arretan zein eskaeren ebazpenean gertatzen ziren atzerapenak bihurtu ziren, une hartan, Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren kudeaketa-eredu berriko alderdi eztabaidatuenak.

Eskaerak aurkezteko telefono bidezko aurretiazko hitzorduen sistema zentralizatua ezarri zen, Lanbideren bulegoetan *in situ* eskaintzen ziren hitzorduen kopurua mugatua zen, eskatzaileen kopurua handituz zioan eta Lanbideko langileek ez zuten esperientziarik diru-sarrerak bermatzeko errentaren izapidean; beraz, bulegoek gainezka egin zuten (Euskadiko hiru hiriburuetan, batez ere), atzerapen-egoera onartezinak gertatu ziren, eta bulegoetako ateetan ilarak egiten ziren bulegoak ireki aurretik; ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuaren (Zuzenean) bidez aurkeztu zuten eskatzaile askok beren eskaera, eta desberdintasun-egoerak sortu ziren prestazioak aitortzeko ondoriodun datei dagokienez, eskaera Lanbiden aurkeztea erabaki zutenen eta eskaera Zuzeneanen egitea erabaki zutenen artean, hitzorduaren zain egon behar baitziren lehenengoak.

Hein handi batean zuzenduz joan bada ere, arreta-atzerapenari buruzko kexak jasotzen jarraitu zuen Ararteko erakundeak 2016an, baina bulego oso zehatzen ingurukoak ziren. Horregatik, erakunde honetako langileek 2016ko apirilean Lanbideren bulego batzuetara egindako bisitetan, alderdi horren egungo egoera ebaluatu nahi izan zen; besteren artean, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren kudeaketari zegokionez.

Hiru Lurralde Historikoetako Lanbideren bulegoetara hamabi bisita egin ondoren egiaztatu ahal izan da une hartan prestazioen eskaera gauzatzeko **hitzorduak emateko hiru sistema zeudela aldi berean**: bisitatu ziren hamabi bulegoetatik zazpitan, telefono bidezko aurretiazko hitzordu-sistema erabiltzen zuten bakar-bakarrik, Lanbideren Zerbitzu Orokorrek xede horretarako prestatutako *call center* delakoaren bidez; hiru bulegok metodo mistoa ezartzen zuten, telefono bidezkoa batetik, eta, bestetik, egunero ordu-tarte bat gordetzen zuten bulegora bertaratzen zen eta zenbakia eskuratzen zuen edozein erabiltzaile artatzeko; azkenik, bisitatutako bi bulegok esklusiboki erabiltzen zuten *in situ* arreta-metodoa, aurretiazko hitzordurik gabea. Azken bulego horietan, langile-kopurua egokia zen, eta zuzeneko arretak erabiltzaile guztiak artatzea ahalbidetzen zuen, salbuespenik egin gabe, eta itxarote-eperik erregistratu gabe.

Hitzordua telefonoz kudeatzen denean, hitzordua eskatzen denetik gertatzen den arteko epea **bost egun eta lau aste bitartekoa izaten da**, eta Lanbidek ebazpena egiteko behar duen denborari gaineratu behar zaio hori.

Adierazi den bezala, aitortzaren ondorioek atzera egiten dutenez, eskaera gauzatu zen unera arte, gehiegizkoa iruditzen zaigu itxarote-epe hori, are gehiago kontuan hartzen badugu gizarte-bazterketarako arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen kolektiboari daudela bideratuta prestazio horiek.

Gauza bera esan dezakegu etete baten ostean prestazioa berrabiarazteko eskaeren kasuan ere, edota Lanbideri inguruabarrak aldatu direla jakinarazteko kasuan, jaso beharreko prestazioaren zenbatekoan eragiten baitute aldaketa horiek.

Bisitatutako bulego bakarreko arduradunak baieztatu du aurretiazko hitzordua telefono bidez eskatzen den eguna hartzen dela kontuan prestazioaren aitortzaren xedeetarako.

Edonola ere, jasota utzi behar dugu Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio ekonomikoa prestazioen kudeaketa bere gain hartu zuenetik hona nabarmen hobetu dela egoera, albo batera utzi gabe, lehen adierazi den bezala, **telefono bidezko aurretiazko hitzordu-sistema bakarrik erabiltzen duten bulegoetako batez besteko itxarote-epea mugatzeko beharra.**

Zentzu horretan, gure ustean, alderdi hauek hobetu behar dira:

– Hausnartu egin behar da, eskaera Zuzeneanen egitearen edo bulego batean hitzordua eskatuz egitearen arabera **aitortza-datan sortzen diren desberdintasunen** inguruan.

– Bulegoen artean, hitzorduak emateko **epeetan dauden desberdintasunak**.

– Aurretiazko hitzorduetarako **doako telefono-zenbakia** ezartzeko aukera, erabiltzaile guztiek ez baitute kosturik gabeko tarifarik.

Azken batean, aurrera egin beharko litzateke pertsona guztiei antzeko arreta ematea ahalbidetuko duen **arreta-ereduaren** ezarpenean, eskaera aurkezten den eta iristeko errazagoa den bulegoa edozein izanda ere.

Aurretik jada, 2014an egindako bisiten ondoriozko espediente baten harira, arreta-eredu bakarra ezartzeko nahia helarazi zigun Lanbidek, LZ ezarri ondoren. Gauzak horrela, funtsezkoa da arreta-eredu bakarra ezartzea, sistema egonkortu dadin.

### 1.2. Herritarrentzako informazioa

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak jasotzeko eta horiei eusteko, betekizun eta betebehar jakin batzuk bete behar dira. Arartekoaren ustez, garrantzitsuak dira bai informazioaren edukia, bai informazioa eskatzen dutenei ematen zaien tratua. **Gabeziak** hauteman dira pertsonei ematen zaien **informazioan**, bete behar dituzten betekizunei eta betebeharrei dagokienean, edo beste administrazio batzuei datuak zein txostenak eskatzeko baimena emateak duen irismenari eta horren ondorioei dagokienean. Adibidez, Babes Ofizialeko Etxebizitza bati uko egiteak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea dakar. Araudian adierazten da, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria esleitzeko jakinarazpenean pertsonei adierazten zaie, eskubide ekonomikoak baliarazteko betebeharra dagoela. Bada, hartzaileek diote ez dakitela eskubide ekonomiko bat baliarazteko betebeharra ez betetzea ekar dezakeela Babes Ofizialeko Etxebizitza bati uko egiteak.

Batzuetan, informazioak ez du bat egiten aurreikuspen arautzaileekin, edo, bestela, ez da informazio osoa eta nahikoa ematen. Gauza bera gertatzen da eskatzaileek, kasu bakoitzaren arabera, prestazioak berriro jaso ahal izateko egin behar dituzten jardueren inguruan. Adibidez, ez da behar beste adierazten prestazioa ez berritzea erabakitzen duen ebazpenaren ostean beste eskaera bat egin daitekeela etetea eragin zuen arrazoia desagertzen denean, edo berrabiaraztea eska daitekeela kasu horretan bertan, edo administrazio-errekurtsoak aurkezteko eskubidea dagoela.

Ezinbestekoa da prestazioetarako eskubideari eusteko egin behar diren jarduerei buruzko informazio egokia ematea, bai eta datu pertsonalen inguruko baimena emateak zer-nolako irismena duen azaltzea ere. Batzuetan, hizkuntza oso teknikoa eta administratiboa erabiltzeak zaildu egiten du ematen den informazioaren pisua ezagutzea.

Erakunde honek gizarte-elkarteekin eduki dituen bileretan, hala nola, ijitoen eskubideak defendatzen dituzten elkarteekin edukitakoetan, aurretiazko informazio egokiak duen garrantzia helarazi digute, prestazioak etetea edo iraungitzea ekar dezaketen jarrerei dagokienean. Horrek saihestu egingo luke prestazioaren abonua etetea familiaren ongizatearen aurka egiten duen erabaki bidegabe eta apetazkotzat hartzea.

Beste alde batetik, arretaren hobekuntzan, lehentasuna izan beharko litzateke pertsona bakoitzaren zailtasunen eta egoera zehatzaren aurrean tratu egoki eta sentikorra adieraztea.

Pertsonei arreta emateko bulego askotan jasaten den intimitate-ezak, eremu pribatuari eragiten dieten eta intimitate pertsonal eta familiarraren eremura sartzen diren kontu eta egoera sentikorrak komunikatzen direnean, edo denbora-mugaketak (dakigunez, Lanbideren bulegoren batean ikusgai dago erabiltzaile bakoitzari emango zaion gehieneko denbora 15 minutukoa izango dela dioen kartela) ez diote arreta egokiari laguntzen.

Udaletako Gizarte Zerbitzuak eta hirugarren sektoreko erakundeak, askotan, informazio-gabezia hori osatzen dute, baina, gure iritziz, Lanbidek eman beharko luke arreta hori, eta hobetu.

### 1.3. Erregistroa eta eskatzen den dokumentazioa

Abiarazi zenean, hasierako fasean, Lanbideren bulegoak gainezkatu ziren, kolapsatu ez baziren, eta faktore batek lagundu zuen horretan; hots, bulego batzuek ez zuten dokumentuak jasotzeko **erregistrorik** aurretiazko hitzordua zuten arretetan izapide hutsezko kudeaketak murriztu ahal izateko.

Hau da, orientatzaileak prestazioen eskatzaileari edo titularrari dokumentu bat aurkeztea eskatzen zionean, bai, eskaera osatze aldera, aurretiazko fasean, bai gero, prestazioen berrikuspen-, berrabiarazte- edo berritze-fasean, erregistrorik ez zegoenez, hitzordu pertsonal eta banakatua eskatzea eskatzen zitzaion, edo Zuzeneanera bertaratzeko. Azken hori baliozkotzat hartzen zen, baina subsidiariotzat, bide alternatibo eta iragankor gisa.

Horretaz gain, erregistro-zerbitzurik ez egoteak galarazi egiten zion interesdunari entregatutako dokumentu guztien ziurtagiria aurkeztea.

Aurkeztutako dokumentuak zeintzuk ziren jasotzen ez zenez, eta erakunde honetan izapidetutako kexetan egiaztatu ahal izan zen bezala, Lanbideren eta interesdunen artean desadostasunak sortzen zirenean, espedientean aurkeztutako dokumentuei dagokienez, prestazioei uko egin izanaren ebazpenak, eteteko ebazpenak edo ez berritzeko ebazpenak agertzen ziren, herritarrek ez zutelako aukerarik edukitzen egiaztatu ahal izateko Lanbidek eskatutako dokumentuak aurkezteko betebeharra bete zutela.

Beraz, Lanbideren bulego guztiek **dokumentuen erregistro-zerbitzua** edukitzea ezinbestekoa zela ondorioztatu zen, erabiltzaileek aurkeztutako dokumentuen ziurtagiria eduki ahal izan zezaten, iraunkorra, bulego-ordutegian edo ohiko lan-ordutegian.

Lanbidek ondo hartu zituen gogoeta horiek, eta erregistroaren funtzionamenduari buruzko informazio-orriak egiteko asmoa adierazi zion erakunde honi. Arartekoak oso ondo ikusi zuen hori. Era berean, bulegoek **zuzeneko arreta-zerbitzua** edukitzeko ahaleginak egin zituela jakinarazi zuen Lanbidek, **erabiltzaileek aurretiazko hitzordurik gabe aurkeztu ahal izan zezaten dokumentazioa.**

Lanbideren bulegoetara bisitak egin ondoren, Arartekoak pozez baiezta dezake dagoeneko guztiek dutela dokumentuen erregistro-zerbitzu iraunkorra (kasuren batean, duela oso gutxi jarri dute), eta, adierazi dutenez, interesdunak aurkeztutako dokumentu guztien zerrenda zehatza jasotzen duen ziurtagiria ematen dute horren bidez, eta, batzuetan, aurkezteko falta direnak ere jasotzen dira. Hala ere, kexak izapidetzetik ondoriozta daitekeen analisitik abiatuta, ikusi ahal izan dugu bulego batzuetan ez direla modu xehean jasotzen aurkeztutako dokumentuak.

Bada, bulego bakoitzeko giza-baliabideen arabera, erregistroko zereginen artean dago aurkeztu diren dokumentuen edukiaren gaineko gutxieneko oharrak jasotzea; izan ere, bestela, dokumentuak jasotzera eta aurkeztutako dokumentuen zerrenda biltzen duen ziurtagiria ematera mugatzen da erregistroa, dokumentuak Lanbidek eskatutakoari egokitzen zaizkion ala ez adierazi gabe. Arartekoaren ustez, **aurkeztutako dokumentuak jasoz, horien kopia zigilatua emanez eta ziurtagiria emanez** beteko litzateke erregistroaren zeregina.

Eskatzen denaren edukiari dagokionez, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 59.3. artikuluak aurreikusten du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (azaroaren 26ko 30/1992 Legea) 35.f) artikuluarekin bat eginez [egun, 39/2015 Legea da, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa (urriaren 1eko 39/2015)], kasu bakoitzean eskatzen diren betekizunak betetzen direla egiaztatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu behar dela eskaerarekin edo eskaerekin batera, baina ez dela aurkeztu behar **administrazioak dagoeneko eskura duen edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez zuzenean eskuratu daitekeen** dokumentazioa.

Horri dagokionez, bisitatutako bulegoetako arduradunek ziurtatu egin dute **ez dutela eskatzen Lanbidek dagoeneko eskura duen dokumentaziorik**, ezta zuzenean begiratu ditzaketen datuen inguruko dokumentaziorik ere (adibidez, erroldaren, ogasunaren... ingurukoa). Alabaina, erakunde honetan izapidetu ditugun kexetatik ezin dezakegu ondorioztatu jarduteko modu hori orokorra denik.

Beste alde batetik, artikulu hauetan dago berariaz aurreikusita, eragindako pertsonaren baimena jaso ostean, informazioa beste fitxategi publiko batzuetan begiratuz eskuratzeko ahala: abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 63. artikuluan eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua) 29.4. eta 65. artikuluetan. Elkarte batzuek adierazi digute komenigarria litzatekeela azalpen eta informazio egokia ematea, prestazioen eskatzaileei beren datuak begiratzeko eta beste administrazio publiko batzuen laguntza eskatzeko eskatzen zaien baimenaren irismenaren gainean.

### 1.4. Bitarteko ekonomikoak justifikatzen eta nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea

Bereizita aipatu behar dugu atzerritarrei beren jatorrizko herrialdean **zein bitarteko ekonomiko dituzten justifikatzeko dokumentazioa** eskatzeko jarduera.

Oro har, jatorrizko herrialdeko *ondasunen ziurtagiri* izendatutakoetarako, hasieran nahikoa izaten da ziurtagiriak eskatu direlako zinpeko adierazpena aurkeztea, eta, une horretatik aurrera, Lanbidek sei hileko epea ematen dio interesdunari, aurkez ditzan.

Ziurtagiria, jatorriz, ingelesez, frantsesez, alemanez, gaztelaniaz, italieraz edo portugesez igorrita badago, **ez da itzultzea eskatzen.**

Gainerako hizkuntzetan, zinpeko itzultzaile batek itzul ditzala eskatzen da.

Agiri hori igortzen ez duten herrialdeen zerrenda daukate Lanbideren bulegoek, eta, kasu horietan, nahikoa izaten da ondasunik ez duelako zinpeko adierazpena aurkeztea interesdunak.

Orokorrean, kontsultatu ditugun Lanbideren bulegoetako arduradunentzat ez da kontu bereziki arazotsua; dena dela, aurkeztu diren dokumentuen baliozkotasunaren gaineko zalantzak sortzen badira, Zerbitzu Orokorretara bidaltzen dira, azter ditzaten.

Edonola ere, Arartekoak Lanbideri askotan helarazitako iritzi bera dauka, hau da, **hausnarketa bat egin beharko litzateke pertsona immigranteei dokumentu horiek eskatzeari dagokionez**. Izan ere, pertsona horietako batzuek bere jatorrizko herrialdeak utzi dituzte indarkeria edo txirotasunarengandik ihes edo gatazka historikoek edo hondamendi naturalek suntsitutako lurraldeetatik ihes, errefuxiatu estatusa edo babes subsidiarioa lortu duten gorabehera. Hori dela-eta, nekez sinestekoa da baliabide ekonomikoak dituztela. Hausnarketa horrekin batera, eraginkortasunaren ebaluazioa egin beharko litzateke, hau da, administrazio-egituran dauden desberdintasunak eta atzerritarrek lortzeko dituzten zailtasunak kontuan hartuta, zentzuduna ote den eskakizun hori mantentzea, lortzen den informazioa aintzat hartuta.

Eskakizun hori maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3. artikuluarekin lotu beharra dago. Horren arabera, honako baldintza betetzen duela ziurtatu beharko du eskubidea eskatzen duen pertsonak:

> *"Nahikoa baliabiderik ez edukitzea. Horrelako baliabiderik ez daukala iritziko da, honako baldintza hauek guztiak betetzen direnean:*
>
> (…)
>
> *b) Inolako ondasun higiezinik ez edukitzea…".*

Zentzu horretan, Lanbidek eskatzaileei edo titularrei baldintza hori betetzen dutela egiaztatzeko eskatzen die, horretarako ondasunen ziurtagiri egokia aurkezteko eskatuz, hau da, duten ondarea jasotzen duena.

Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen (Prozedura Zibilari buruzko Legea) 323.2. artikuluak prozedura judizial batean erregulatzen du atzerriko dokumentuen baliozkotasuna. Araudiak bereizketa egiten du Nazioarteko Ituna egotearen ala ez egotearen artean. Lehenengo kasuan, itun horrek zehazten

du dokumentuaren froga-indarra. Bigarrenean, bi betekizun bildu beharko ditu, dokumentu publiko izateko:

- lehenengoa, *"agiria egiletsi edo egitean, berori zein herrialdetan egiletsi eta bertako eskakizunak bete izatea, agiriak epaiketan froga osoa eratu ahal izateko";*

- eta, bigarrena, *"agiriak izatea Espainian kautotzat jotzeko legeztapena edo apostila, eta beharrezkoak diren gainerako betekizunak"*.

Oro har, atzerriko dokumentu publiko guztiak legeztatu behar ditu aurretik dokumentu hori igorri duen herrialdean jurisdikzioa duen Espainiako Bulego Kontsularrak edo, hala badagokio, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak. Hori horrela izango da, herrialde igorleko agintaritza eskudunak dokumentu horretan oharrak egin baditu izan ezik, 1961eko urriaren 5eko Hagako Hitzarmenaren arabera, eta dokumentu hori legeztatzeaz salbuetsita badago izan ezik, Nazioarteko Hitzarmenaren arabera.

Une honetan, ondasunen-gabezia egiaztatzen duen dokumentazioa aurreko kanonen arabera legeztatuta egon dadila ari da eskatzen Lanbide, eta Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren 56/2016 Epaia, martxoaren 11koa, hartzen du erreferentziatzat.

Kasu batzuetan, jatorria Nigerian dutenen kasuan adibidez, Afrikako herrialde horretako Espainiako Enbaxada ez da dokumentua legeztatzen ari; beraz, eskatutako izapideak jarraitu arren, berenak ez diren arazo batengatik, ezin ditzakete dokumentu horiek aurkeztu.

Lanbideri askotan adierazi zaion bezala, **dokumentu hori eskatzeak kostu altua eragiten die atzerritar eskatzaileei**. Hala, dokumentu hori eskuratzea zaila da pertsona hori luzaroan egon denean bere herrialdetik kanpo (edo ezinezkoa, jatorria Nigerian edo beste herrialde batzuetan duten pertsonen kasuan).

Horren ondorioz, aztertu egin beharko litzateke dokumentu hori ez aurkeztea justifikatzen duen arrazoirik dagoen eta neurtu egin beharko litzateke gainerako dokumentuekin baldintzak betetzen diren. Helburua da, dokumentu bat aurkeztea ezinezkoa denean, hori ez aurkeztearen ondorioz eskubidea ez murriztea; izan ere, batzuetan espedientearen inguruabarrak eta dokumentuak aztertuta, pertsonak bizitzeko gutxienekoa bermatzen duten prestazioen titularra izateko beharrezko baldintzak bete ohi ditu.

Nolanahi ere, Lanbidek aurkeztutako dokumentua baliozkotzat ez jotzeko arrazoiak azaldu behar dituzte, baita hori onartzeko izan behar dituen ezaugarriak ezarri ere.

Beste alde batetik, denbora honetan, Lanbideren bulegoetan ez da irizpide homogeneorik egon, eta ez dira betekizun formal eta material berberak eskatu. Legezko euskarri egokiago baten falta sentitzen da, edo oro har ezagutzen den irizpideren batena, eskakizun horri eta eskaeraren izapidean baliozkotasuna edukitzeko bete behar dituzten dokumentuen betekizunei dagokienez. Eremu honetan, Nazioarteko Lankidetza Juridikoari buruzko uztailaren 30eko 29/2015

Legea aipatu behar da, agintaritza espainiarren eta atzerritarren arteko lankidetza juridikoa arautzen baitu, zuzenbide zibilaren eta merkataritza-zuzenbidearen arloan.

Lege horretan, oso modu zabalean erabiltzen da nazioarteko lankidetza juridikoaren kontzeptua; horri esker, zentzu hertsian, adierazitako kontzeptuarenak ez diren eta tradizionalki beste arau-multzo batzuetan arautu diren gaiak sar daitezke. Besteak beste, Prozedura Zibilari buruzko Legean edo Botere Judizialari buruzko 6/1985 Lege Organikoan jorratzen dira, eta gai hauek hartzen dituzte: nazioarteko auzibitartea eta lotura, epaien aitortza edo horien exekuzioa eta atzerriko zuzenbidearen froga.

Gainera, Auzitegi Nazionalaren duela gutxiko epai bat aipatu nahi dugu (Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. atala); 2016ko uztailaren 7ko 453/2016 Epaia, alegia. Horren bidez, zalantzan jartzen zen elektronikoki bidalitako aurrekari penalen ziurtagiri baten aurrean jokatzeko modua:

> *"No le es imputable al promotor del expediente una determinada práctica administrativa en la forma de determinarse el contenido y forma de los certificados emitidos por las autoridades de su país de origen y si dicha certificación permitía dudas acerca de su interpretación en los hechos certificados debería haber sido complementada por la propia oficina del Registro Civil conforme los arts. 30 de la LRC y 89 del RRC, sin que, como hemos visto, en ningún caso se haya requerido a la promotora a tales efectos con claro incumplimiento de lo preceptuado en el art. 71-1 de la LRJ-PAC"* (2. ZO).

Araudian aurreikusten denaren arabera, Administrazio Publikoek dokumentuak aurkeztea eska dezakete, baina interesdunek beste dokumentu batzuk aurkez ditzakete.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeakk, bere 28 artikuluan, zera aurreikusten du berariaz:

> *"Administrazio-prozeduran interesdun direnek ekarritako dokumentuak:*
>
> *1- Interesdunek administrazio-prozedurara ekarri beharko dituzte administrazio publikoek aplikatzekoa den araudiaren arabera eskatzen dituzten datu eta dokumentuak. Komenigarritzat jotzen duten beste edozein dokumentu ere ekar dezakete interesdunek…"*.

Eskatzaileak egoki jotzen dituen beste dokumentu batzuk aurkezteko aukera aurreikusten du maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 29.1.l) artikuluak, eta, m) letraren arabera, Administrazioak egokitzat jotzen dituen beste dokumentu batzuk eskatzeko aukera dago, betekizunak betetzen direla egiaztatze aldera.

Ondorioz, Lanbidek beste dokumentu batzuk eska ditzake betekizunak betetzen direla egiaztatze aldera, baina, Arartekoaren iritziz, botere hori moldatu egin daiteke, proportzionaltasun-printzipioa kontuan izanik eta froga bere osotasunean balioztatuz, ondasun higiezinak eta baliabide ekonomikoak nahikoak ote diren zehazteko. Dokumentu bat ezin aurkezteak ez luke eskubidea ematea baldintzatu beharko.

Pertsonek administrazio-prozedura bati hasiera emateko ahalmena dute euren eskaerak legeak ezartzen dituen irizpideak betetzen baldin baditu. Lanbidek amaitu arte izapidetu beharko du, eskaerak eta aurkeztutako dokumentuek modu argian, zehatzean eta zalantzarik gabe egiaztatzen badute eskatutakoak ez dituela betetzen araudiak exijitzen dituen aurrekontu materialak; hau da, eskariak ez baditu betetzen berori eskaritzat hartzeko irizpideak, eta ez bada gabezia konpondu.

Lanbidek kontrolatu behar du betekizunak betetzen direla, beharrezko zeregina izaki hori prestazioaren kudeaketa egokia izan dadin; alabaina, batzuetan, dokumentu jakin bat eskatzeak, prestazioaren titularra izateko betekizunak betetzen direla egiazta dezaketen eta aurkeztu diren gainerako dokumentuak kontuan hartu gabe, oinarrizko beharrei eta gizarteratze-prozesutik eratorritako gastuei lotutako gastuak estaltzeko behar besteko diru-sarrerarik ez duten bizikidetza-unitateetako kideei prestazioak ukatzea ekartzen du.

Eremu horretan lan egiten duten elkarteek hainbat aldiz adierazi dute atzerritarrek dokumentu horiek aurkezteko zailtasunak edukitzen dituztela. Lanbidek erabiltzen duen justifikazioaren arabera, bertakoei ere egiaztapen hori eskatzen zaielako eskatzen zaie atzerritarrei egiaztagiri hori aurkez dezatela. Hala ere, gailendu nahi dugu Lanbidek eskatzen duena **Administrazio Publikoek** bai bertakoei bai atzerritarrei **gauzatzen dizkien** egiaztagiriak eta ziurtapenak direla.

Hau da, bertakoei dagokienez, inoiz ez zaio beste estatu bati eskatzen gizarte prestazioen eskatzaileak edo onuradunak ondasunak ote dituen egiazta dezala. Datu hori oso garrantzitsua da berdintasun-printzipioa ezartzeko xedeetarako; izan ere, Euskadiko herritarrek ondasunak eduki ditzakete beste estatu batzuetan ere, ez baitago ondasun higiezinen erregistro bakarrik.

Horri dagokionez, adieraz dezakegu, egin ditugun bisitetan, Lanbideren bulegoren bateko arduradunak adierazi duela ez dela horrelako bidegabekeriarik gertatzen bertako eskatzaileekin, eta, are, adibide bat aipatu du, non Alemanian hainbat urte egin dituen jatorri espainiarreko eskatzaile batek zegokion ziurtagiria aurkeztu behar izan zuen. Hala ere, orain artean, ez dugu horrelako kexarik izapidetu; beraz, gure ustean, irizpide hori ez da oro har ezartzen.

Ondorio gisara, kostu handiko eskakizuna da hori atzerritar askorentzat, eta prestazioa jaso ahal izatea zailtzen ari da. Beraz, Arartekoak egoki ikusi du hausnarketa hau helaraztea, eta legezko euskarri egokiagoa edo oro har ezagutzen den irizpide bat egoteko beharra errepikatzen du, bai eskakizun horri dagokionez, bai dokumentuen betekizunei dagokienez, eskaeraren izapidean baliozkoak izan daitezen.

Aurreko kontuari dagokionez, **atzerritarrak** atzerritarren txartela edo indarrean dagoen pasaportea eskatuz **identifikatzeko beharraren** inguruko arazoa aipatzen dugu. Indarreko pasaportea aurkeztu ezin bada, Lanbidek prestazioen eskaerak edo horien berritzea ukatzen du.

Arartekoak atzerriko pertsonak ukitzen zituzten kexa batzuk izapidetu ditu, horien enbaxadek pasaportea igortzen ez zutelako. Hori da, hain zuzen ere, jatorriz Ekuatore Gineakoak diren pertsonen kasua; hala, jatorrizko herrialdera badoaz

bakarrik igortzen du pasaportea herrialde afrikar horri dagokion agintaritza nazionalak. Lanbidek ez du onartzen pasaporte fisikoaren gabezia azaldu eta justifikatzen duen ziurtagiria. Ezin dugu ahaztu lekuz aldatu behar izatea eragozpen handia dela, bai duen kostuagatik, bai Espainian sartzeko dituzten zailtasunengatik, egoitzako administrazio-baimena ez dutenean.

Beste kasu batzuetan, atzerapena egoten da pasaportea berritzean, besteak beste, Aljeriako Enbaxadaren kasuan; izan ere, pasaporte biometriko berria eskuratzeko betekizunak aldatu ditu horrek. Beraz, jadanik zegoen atzerapenaz gain, betekizun gehigarriak eskatzen ditu; hala nola, atzerritarrak Espainiara sartzea eta bertan bizitzea gidatzen duen legeriatik ondorioztatutako eskakizunak (Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa (Atzerritarren Lege Organikoa), honako lege-testu hauek aldatu dutena: abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoa, azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa, abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa, uztailaren 27ko 10/2011 Lege Organikoa eta apirilaren 20ko 16/2012 Legegintzako Errege Dekretua), Estatuko Administrazio Orokorrari (Barne Ministerioari) egoitza-baimena eskatu ahal izateko, bertan finkatuta egoteagatik. Aljeriako Enbaxadaren atzerapena zenbait pertsona ukitzen ari da; horien artean, sahararrak. Izan ere, Aljeriak pasaporte bat igortzen die Saharako herritarrei, bidaiatu ahal izan dezaten, su-etena ezarri zenetik saharar desplazatuak errefuxiatuen esparruetan bizitzera behartzen dituen gatazka ebatzi artean. Hala, su-etena ezarri zen, Mendebaldeko Saharan erreferenduma egiteko misioa abiarazi zutenetik Nazio Batuek (MINURSO).

Oztopo horiek ez daukate zer ikusirik pertsonak indarreko pasaporte bat eskuratzeko duen borondatearekin, ezta jokabidearekin ere. Izan ere, oztopo horiek dira azken finean prestazioa jasotzea eragozten dutenak.

### 1.5. Dokumentazioa aurkeztea, zeinaren egiazkotasunaren gainean zalantza egiten den

Zentzu horretan, erakunde honek bere kezka adierazi nahi du **errugabetasun-presuntzioa bezalako oinarrizko eskubidearen** urraketa izan daitekeelako; batez ere, Lanbidek zigor-bidean salaketa jarri dela jakin eta prestazioa eten, iraungi edo berritzen ez duen kasuetan.

Aurkeztu diren dokumentuen egiazkotasunaren gaineko zalantzek horiek aurkaratzea ekar dezakete, eta salaketa jartzea, zigor-prozesu batean. Horrelakoetan, zigor-eremuko erabaki judizialari itxaron gabe amaitzen du administrazio-prozedura, prestazioetarako eskubidea ukatuz, etenez edo iraungiz.

Lanbidek salaketa penal bat dagoela dakienean, pertsonari jakinarazten dizkio dokumentuaren egiatasunaren inguruan dauden zalantzak; hala, hitzordua ematen dio dagokion entzunaldi-izapiderako, bertan jasotakoa egiaztatzen duten edo ez duten beste dokumentu batzuk aurkeztu ahal izateko. Oro har, diru-sarrerak bermatzearekin eta gizarteratzearekin lotutako prozedura baten instrukzioan aurkezten den edozein dokumenturen eztabaidatze-penalarekin batera, eskaera ukatu ohi da. Hau da, entzunaldi-izapide horren ostean, prozedura bukatutzat

jotzen da eta interesdunari jakinarazten zaio, prozedura penalaren emaitzaren arabera, eskaera berri bat egin dezakeela.

Hortaz, ordura arte ezin du beste prestaziorik jaso, eskatzailearen identitatearen edo beste edozein dokumenturen egiazkotasunaren inguruko zalantzak baitaude. Lanbidek erabaki bera hartzen du dokumentuak faltsutzeagatik bide judizialean salatu denean prestazioaren titular bat. Aintzat hartu behar da salaketa penal batek soilik ez duela pertsona hori erruduna denik esan nahi, Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluak jasotzen duen errugabetasun-presuntzioa bezalako oinarrizko eskubidea ezarriz. Prozedura penalean argituko den kontua erabakigarria bada prestazioen eskubideari eragiten dion erabakian, Lanbidek administrazio-prozedura **eten beharko luke** prozedura penalean hartzen den erabakia jakin arte. Hala, prestazioa jasotzeko eskubidea berriz aitortuko edo iraungiko du, bai epai penalaren epaitzaren arabera, bai abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.1.d) artikulua ezarriz: *"Etenaldi-egoera mantentzea, modu jarraian, hamabi hilabetez baino gehiagoz".*

## 1.6. Eskaerak artxibatzea, eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik

Erakundean, kexen xede izan da **Lanbidek prestazioen eskaerari uko egin zaiola adieraztea**, interesdunak eskatu den dokumentazioa ezarritako epean aurkeztu ez duela balioetsi ostean.

Adierazi den bezala, interesdunak egindako eskari baten bidez espediente bat agintzeak datu zehatz batzuk ematea eta eskaria ebazteko beharrezko dokumentazioa aurkeztea eskatzen du. Lanbidek prozedura agintzeko nahitaezkoak diren eta eskaria ebazteko aukera emango dioten beste dokumentu batzuk aurkezteko eskatu dezake, prestazio horiek esleitzeko ezarritako aurreikuspen arautzaileak kontuan hartuz.

Oro har, interesdunak hala eskatuta hasten diren eskaerek, kasu honetan bezala, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66. artikuluan aurreikusten diren datuak jaso beharko dituzte (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. artikulua). Bertan, ereduak ezartzeko aukera aurreikusten da.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko baldintzak egiaztatzeko eskariarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa agertzen den inprimaki bat bete behar da prestazioa eskatzeko. Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 28 eta 29. artikuluek eskaria eta hari gehitu behar zaion informazioa aurkezteko modua ezartzen dute.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluak (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluak) aurreikusten duenez, prozedura hasteko eskabidean baldintzak edo aplikagarri den berariazko legedian eskatutakoak betetzen ez badira, interesdunari eskakizuna egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako terminoetan eman beharko delarik.

Bestalde, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 30.3. artikuluak ezartzen duenez, eskaeran akatsak edo kontraesanak hautemanez gero, edo osatugabe badago edo aipatutako dekretuaren 28. eta 29. artikuluetako betekizunak betetzen ez baditu, espedientea osatzeko edo konpontzeko xedez beharrezko ikusten duen bestelako edozein datu, dokumentu edo txosten eskatuko zaio eskatzaileari berari edo beste erakunde publiko zein pribatu batzuei. Edonola ere, eskatzaileak hamar eguneko epea izango du eskaera udalak eskatutako moduan konpontzeko edo osatzeko, eta ez badu hori egiten, "...*eskaeran atzera egin duela joko da, udalak aztergai den zirkunstantzia, izandako gertakariak eta aplikatzekoak diren arauak adierazten dituen ebazpen bat eman ondoren.*"

Erakunde honek kexa-espedienteak izapidetu ditu, non kexagileek adierazi duten Lanbidek egindako dokumentazio-errekerimenduei erantzuteko dokumentazio ugari aurkeztu dutela. Hala ere, kexa-espediente horietan, Lanbidek ez die adierazi zein dokumentazio falta duten entregatzeko, eta, beraz, ez dakite zein dokumentazio aurkeztu behar duten prestaziorako eskubidea izan dezaten. Adibidez, Arartekoaren 2015eko otsailaren 26ko 2015R-1516-14 Ebazpena eta Arartekoaren 2016ko maiatzaren 26ko 2016R-695-15 Ebazpena aipatzen dira.

Beste batzuetan, eskatu den dokumentazioa ez da maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 28. eta 29. artikuluetan aurreikusitakoa, edo, bestela, honelako jaso izanaren agiria eman da: *"201X/RGI/XXXX espedientean eskatutako dokumentazioa eman da"*. Beraz, interesdunak ezin dezake jakin zein dokumentazio falta zaion, edo dokumentaziorik falta zaion ere.

Adierazi den bezala, alde batek eskatutako eskariak izapidetzeko ezarrita dagoen prozedurak eskariarekin batera dokumentazioa ere aurkeztea aurreikusten du, eta, hala badagokio, eskaria ebazteko nahitaezkoa den dokumentazioaren errekerimendua egitea administrazioak. Garrantzitsua da kontuan izatea Lanbidek eskatu dezakeen dokumentazioa **ebazpena egiteko nahitaezkoa dena** dela.

Gauzak horrela, Auzitegi Gorenaren epai bat (Administrazioarekiko Auzien Sala, 6. atala) aipatzen da, 1997ko uztailaren 7koa. Horren arabera, "...*la omisión de datos y errores exige, según el artículo 71, que el órgano administrativo competente se lo haga saber al interesado, señalando dichos errores y omisiones y concediéndole un plazo de diez días para la subsanación, con la advertencia de que si no lo hiciere se archivará el expediente con los efectos prevenidos en el artículo 42, pero como advierte la Sentencia de esta Sala (antigua Sala Cuarta) de 16 de marzo de 1988, la Administración no puede arbitrariamente exigir cualquier documentación, sino aquella que sea indispensable para fijar los datos en base a los cuales ha de dictarse la resolución y esos datos han de ser ignorados por la Administración, ya que si ésta los conoce, por haber presentado el interesado los documentos que se le piden, no tiene alcance la indicada consideración, tratándose de datos suficientes para resolver y para dictar la correspondiente resolución...*" (4. ZO).

Ondorioz, Lanbidek ezin du dagoeneko aurkeztu den dokumentazioa emateko eskatu, ezta gaiaren funtsaren gainean adierazpen bat egiteko nahitaezkoa ez den dokumentazioa ere.

Era berean, kontuan hartu behar da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluaren (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikulua) helburua. Artikulu horrek espedientean nahitaezkoa den dokumentu bat ez aurkezteagatik eskari bat ukatzea saihesten du, eta administrazioak espedientea beharrezkoa den informazio guztiarekin ebaztea bilatzen du. Arauzko aurreikuspen horrekin, **pertsonen eskubideak eta interesak babesten ditu administrazio-prozedurak.** Pertsonek administrazio-prozedura bati hasiera emateko ahalmena dute, beren eskaerak legeak ezartzen dituen irizpideak betetzen baldin badituz. Administrazioak, kasu honetan Lanbidek, amaitu arte izapidetu beharko du, eskaerak eta aurkeztutako dokumentuek modu **argian, zehatzean eta zalantzarik gabe** egiaztatzen badute eskatutakoak ez dituela betetzen araudiak exijitzen dituen aurrekontu materialak, hau da, eskariak ez baditu eskari bezala kontuan hartzeko irizpideak betetzen, eta ez bada gabezia konpondu.

Administrazioaren jarduera gidatzen duten printzipioen artean, *in dubio pro actione* delakoa eta irizpide antiformalistak daude; Auzitegi Gorenaren (Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. atala) 1455/1989 Epaia, 1989ko azaroaren 14koa: *"...los arts. 54, primero, y 71, después, lo que nos conduce a un análisis de las normas expuestas como inspiradas en principios antiformalistas tendentes a la consecución de un resultado final de eficacia tuitiva de los derechos e intereses en juego, situación que se avala con la conclusión definitiva prevista en el art. 24.1 de la Constitución..."* (3. ZO).

Hortaz, aurkeztutako dokumentazioa zehaztasunez egiaztatzeak espedientea prestasunez ebatziko dela bermatzen du. Baina egiaztatze horrek zuhurra izan behar du, eta dokumentazio gehiago eskatzeko errekerimenduak oinarria duten zalantzei eman behar die erantzuna, eta, aldi berean, pertsonek aurkeztu ez dituzten eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko aurkeztu behar dituzten dokumentu zehatzen inguruko informazioa eman beharko litzateke.

Espedienterako dokumentazio ugari aurkeztu den kexak izapidetu ditu Arartekoak, non Lanbidek espediente horiek artxibatzea ebatzi duen, interesdunek beren eskaerari uko egin diotela adierazi ostean. Kasu horiek, ordea, ez dute bat egiten pertsonen jarrerarekin eta borondatearekin, legezko epean aurkeztu baitute eskatutako dokumentazioa, eta, are, dokumentazio hori aurkeztu dutela egiaztatzen duen agiria baitaukate.

Errekerimenduari erantzunez aurkeztu den informazioa aztertu ostean, dokumentazio osoa aurkeztu ez dela pentsatzen jarraitzen badu Lanbidek, gainerako dokumentazioa aurkezteko eskatu beharko luke uko egin izanaren adierazpena egin aurretik, edo, bestela, espedientea ebatzi beharko luke, kontuaren mamia ezagutzera sartuz.

Beste alde batetik, garrantzitsua da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 76. artikulua) **ezarritako aurreikuspena** kontuan hartzea. Horren arabera, interesdunaren jarduera onartu behar da, eta ondorio legalak edukiko ditu horrek, epea igarotzat jotzen duen ebazpena jakinarazten den eguna baino lehen edo egun horren barruan gertatuko balitz.

Hala ere, ez da legezko aurreikuspen horren berri ematen, eta interesdunek ez dute ezagutzen, eta, beraz, dokumentazioa eskaerari uko egin zaiola adierazi aurretik aurkeztu izan arren, espedientea artxibatzea erabakitzen da. Beste eskaera bat aurkeztea dakar horrek (eta ebazpena atzeratzea).

Kexen izapidean egiaztatu egin da aurrerapausoa egin dela dokumentazioa erregistratzeari eta artxibatzeko ebazpenen arrazoiketari dagokienean, non eskaerari uko egin izana adierazten den; dena dela, **hobetzeko tarte** handia dago, hala nola, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan jasotzen den legezko aurreikuspenaren **informazioa**, edota **xehetasunez adieraztea zein dokumentazio eskatu den eta zein ez den aurkeztu**, eskaerari uko egin izanagatik artxibatzen diren ebazpen guztietan.

## 2. LANBIDEREN ZERBITZU OROKORREN ETA BULEGOEN ARTEKO HARREMANA

Aurreko diagnostikoan hauteman ziren disfuntzioen bilakaera egiaztatze aldera, eta Lanbideren bulegoek egiten duten kudeaketaren ikuspegi ahalik eta osoena edukitzeko xedez, Arartekoko langileek egindako bisitetan bulegoetako arduradunei egindako galderen artean, modu espezifikoan galdetu genuen bulego horiek Zerbitzu Orokorrekin duten harremanaren inguruan.

Erakunde honek egin zuen 2013ko diagnostiko-txostenean, Lanbidek gai horren inguruan zuen iritzia jaso zen, ***"…en gran medida con la propia percepción del personal del área de Renta de Garantía de Ingresos de Lanbide y de sus responsables"*** (16. or.), eta hainbat bulegotara egindako bisitetan adierazi zituzten urruntasuna, isolamendua eta laguntza- zein aholku-gabezia.

Horrela, jasotako iritzien izendatzaile komuna eratzen duten ohar batzuk nabarmendu ditzakegu:

a) **Harremanaren despertsonalizazioa:** bisitatu genituen bulego ia guztietan azaldu ziguten Erabiltzaileen Arretarako Zerbitzuaren bidez jorratzen direla kasu zehatzei irizpideak ezartzeko unean sortzen diren zalantzak. Kontsulta egin ondoren, erantzunak ez du idatzita jasotzen erantzun duen pertsonaren izenik, ezta berori identifikatzen duen sinadurarik ere, eta, ondorioz, posta elektroniko anonimo soil baten babesarekin egiten ditu bulegoko arduradunak prestazioa ukatzeko, eteteko, iraungitzeko edo ez berritzeko ebazpen-proposamenak, baita Zerbitzu Orokorrek igorritako irizpenak bulegoko arduradunaren irizpidearekin bat egiten ez duenean ere.

   Oro har, lurraldeetako bulegoek (Bizkaian, oraindik ez zegoen abian bisita egin genuenean) Zerbitzu Orokorren eta bulegoen arteko baliozko solaskideak izateko balio dezaketelako itxaropena dago.

b) **Lanbideko Zuzendaritzak onartutako irizpideetan egin diren aldaketen sistematizazio-eza:** irizpideei buruzko azken dokumentua, Lanbidek barne-erabilerarako onartu duen eta diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko balio duen dokumentua, 2014ko abendukoa da: Renta de Garantía de Ingresos y Prestación Complementaria de Vivienda: criterios diciembre 2014 (2014ko abenduko irizpideen agiria).

Ordutik, bertan jasotako interpretazio asko aldatu dira, eta aldizka komunikatu zaizkie aldaketa horiek bulegoetako arduradunei, barne-mailako jarraibideen eta zirkularren bidez (Arartekoko langileek bisitak egin zituztenean, aipatu dokumentuaren hamarretik gora aldaketa aipatu ziren).

Kudeaketan garrantzi handia duten alderdiak dira; hala nola, bidegabeko kobrantzak itzultzeko zirkularrak, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan (Etxebide) ematen diren bajak eta denboran bilakaera izan duten beste irizpide batzuk. Bada, aldaketa horiek ez dute dokumentu berri sistematizaturik izan (ez behintzat txosten hau ixtean), barne-mailan erabiltzeko tresna gisara eta diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria kudeatzeko unean esku hartzen duten eragileei lana errazte aldera, eta horrek zaildu egiten du Lanbideko langileek zein irizpide ezarri behar dituzten jakitea. Publizitate-gabeziak dakarren arazoa gaineratu beharko litzaioke horri (III. kapituluko 2. idatz-zatian aztertzen da).

c) **Prestakuntza-gabeziak:** bisitetan jaso dugun informazioaren arabera, Lanbideko langileen prestakuntzak eskasa izaten jarraitzen du, eta diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko eduki teorikoen inguruko saio batzuk baino ez dira egiten, Zerbitzu Orokorren egoitzan bertan ematen direnak gehienbat, eta, batzuetan, bulego bakoitzean izendatutako pertsona batek ematen dituenak. Funtsean, abenduaren 23ko 18/2008 Legea, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua eta Lanbidek 2014ko abenduan onartu zituen irizpideen erabilera aztertu dira saio horietan.

Bulegoetako arduradunak kexu dira, ez dutelako erabaki jakin batzuk hartzeko behar diren titulazioa eta prestakuntza juridikoa, zuzenbide zibilaren, lan-zuzenbidearen edota zerga-zuzenbidearen arloko kontzeptu nahiko konplexuak ezarri behar baitira horietan.

Herritarrekiko egoera zailak (tentsioa, ahozko erasoak, hizkuntza-zailtasunak...) maneiatzeko orduan ere, bulegoetako langileen prestakuntza-eza hautematen jarraitzen da, eta laneko baja-indize nahiko handia egotea ekartzen du horrek, nahiz eta gero eta txikiagoa izan. Horren ondorioz, laneko giroa etsaia izan daiteke (estresa, antsietatea...).

Beraz, hobetzeko tarte handia dago langileen etengabeko prestakuntzari dagokionez. Irizpide komunak ezartzeak lagundu lezake, eskaerak eta horien ebazpena kudeatzea zailtzen duten zirkular edo jarraibide berriak egoten baitira, eta ezarpen eta interpretazio ezberdinak egon baitaitezke araudi beraren inguruan.

d) **Lanpostuen Zerrendaren egokitzapen-gabezia**

2015eko urritik, 918 lanpostu dituen Lanpostuen Zerrenda berria daukate Lanbideko langileek; 104 lanpostu gehiago, aurreko langile-taldearekin alderatuz gero.

Bertan jasotako aurreikuspenak ezarri ostean, eta bulego askok izendun enplegatu-kopuruari eutsi badiote ere, eta batzuek kopuru hori handitu badute

ere, bisitatu diren bulegoetako arduradun ia guztiek adierazi dute garapen horrek ez duela ekarri funtzionamendua hobetzea, aurreko egoerarekin alderatuz gero.

Alde batetik, lanpostu jakin batzuen behin betiko atxikipena egitea falta da, eta, bitartean, abian diren langile-hornidurarako prozesuak amaitzen dira.

Beste alde batetik, lanpostua estali bada ere, lanpostua hartu duen pertsonak ez dauka, oraingoz, diru-sarrerak bermatzeko sistemaren kudeaketak eskatzen dituen eskakizun-mailak estaltzeko adinako prestakuntza edota esperientzia.

Gainera, esleitu diren lanpostuek eta herritarren eskariek bat egiten ez dutela adierazi digute, edota prestazioaren kudeaketak giza-baliabide asko bereganatzen dituela.

Ondorioz, aztertu diren bulego askotan, langileek "denetik" egiten dute.

Horrela, bada, eskarmentu gehien duten enplegu-teknikariek eta lanbide-aholkulariek izapide-lanak egiten dituzte, edo jendea artatzen dute, diru-sarrerak bermatzeko errentaren arloan, eta, ondorioz, rolak balio-aniztasunaren alde lausotzen direlako sentsazioa dago, eta inork ez duela egiten benetan dagokion hori, Lanpostuen Zerrendan lanpostuen gainean egiten den definizioa hartzen bada erreferentziatzat. Zentzu horretan, diru-sarrerak bermatzeko errentak lan-aktibazioa xurgatu duela da bulegoetako arduradunek gehien errepikatzen duten esaldietako bat.

Bisitatu diren bulego ia guztietan bajan dauden langileak daudela gaineratu behar zaio aurreko guztiari, eta Lanbideko langileen mugikortasun-indizeak sobera gainditzen dituela administrazio autonomoaren beste sail batzuetan dauden mailak.

Azkenik, bulego batean baino gehiagotan aurpegiratu da ez dagoela korrelaziorik langileen kopuruaren eta bulego jakin batek artatu behar duen biztanleriaren kopuruaren artean. Alderdi horri dagokionez, lurraldez lurralde nolabaiteko desoreka dagoela adierazi da, eta biztanle-ratio ezberdina dutela esleituta antzeko bitartekoak dauzkaten bulegoek.

e) **Tresna informatikoen konplexutasuna eta funtzionaltasun eskasa**

Izenak berak dioen bezalaxe, kudeaketa-lanak egiteaz arduratzen diren Lanbideko langileen zerbitzura jarritako tresnak izan beharko lirateke tresna informatikoak, eta beren lana egitea erraztu beharko lukete, eta fidagarritasun-maila handiagoa eman sistemari, pertsonen eskubideen bermean.

Alabaina, duela oso gutxi, prestazioen titularrei eragin zaizkien babesgabetasun-egoera batzuen oinarrian egon dira Lanbidek erabiltzen dituen kudeaketa-ezarpenetan gertatu diren mugaketak eta disfuntzioak.

Jakinarazpen asko ez dira behar bezala egiten, ez direlako erregistratzen interesdunek komunikatutako bizileku-aldaketak; izan ere, elkarren artean lotuta ez dauden datu-baseak daude.

Zoritxarrez, eta azken urteetan hobekuntzak egin diren arren, Lanbideko langileek erabiltzen dituzten ezarpen informatikoek hutsuneak dauzkate oraindik ere.

2016ko apirilean Lanbideren bulegoetara egindako bisitetan egiaztatu ahal izan dugu arduradun gehienek uste dutela ez direla oso eraginkorrak.

2012ko maiatzean ezarri zen prestazioaren aitortza kudeatzen zuen ezarpena, baina, adierazi dutenez, ez zen behar bezala funtzionatzen hasi 2013aren amaierara arte.

Gaur egun, oraindik, Lanbideko langileen iritziz, funtzionamendu korapilatsua du, eta erabiltzailea etengabe identifikatzea eskatzen du, NANaren bidez, ezarpena eratzen duten datu-base bakoitzean.

Pertsona fisikoen datu-base bat dago, eta hortik elikatzen dira lan-bitartekaritzako eta prestazioetako datu-baseak.

Datuak lehenengo datu-basean aldatzen badira bakarrik islatzen dira aldaketak beste bietan, baina bigarrenetako batean egiten badira aldaketak, ez dira lehenengoan erregistratzen; beraz, informazio-erregistroek ez dute bat egiten, eta jarduten ari den pertsonaren zehaztasun-mailaren arabera sartzen da edo ez dagokion informazioa.

Era berean, sistemak ez dauka alarmarik adierazten duenik aldaketaren bat egin dela interesdunaren datuetan, eta baliteke funtsezko informazioa izatea (hala nola, onuradunaren edo eskatzailearen bizileku-aldaketa), eta, azken buruan, eskubidea galtzea, etetea edo ukatzea ekar dezake horrek, ez badio Lanbideren geroko errekerimendu bati erantzuten. Ondorioz, bidegabe jasotako kopuruak sor daitezke.

Horregatik, ofiziozko jarduera berri bat abiarazi zuen Arartekoak, jaso ditugun kexak izapidetzetik, Lanbidek gure informazio-eskaera batzuei eman dizkien erantzunetatik eta Arartekoak Lanbideren bulego batzuetara egin dituen bisitetatik abiatuta hauteman ditugun gabezia batzuekiko kezka helarazteko xedez Lanbideri.

Nahiz eta badakigun, egindako bisitetan halaxe jaso delako, eta aurreratu den bezalaxe, aurrerapausoak egin direla diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketari euskarria ematen dioten garapen informatikoen ezarpenean, ez dirudi arazoak behin betiko konpondu direnik.

Arartekoak azaldutako kontuei erantzunez, ezarpen informatikoak erabiltzen dituen datu-base ezberdinak bateratzeari dagokionez, horretan lan egiten ari direla adierazi du Lanbidek, eta beste erakunde batzuen datu-baseak (EEZPrenak bereziki) bateratzeko beharrak zailtasunak sortzen dituela.

Ezarpena maneiatzeko zailtasunei dagokienez, Lanbidek egonkortzat jo du erabilera, etengabeko hobekuntza-egoeran dagoen arren, ezarpenak hamabi zerbitzurekin jarduten baitu, baina elkarreragingarritasun-arazoak ekartzen ditu horrek.

Hortaz, hobetzeko tarte handia dagoela ikusten da oraindik ere, kontu garrantzitsua izaki; izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko tresna nagusia da Lanbiden.

## 3. PRESTAZIO EKONOMIKOAK EBAZTEKO ETA EBAZPENARI ERREKURTSOA JARTZEKO FASEA

Oro har, bi hilabeteko epearen barruan izapidetzen dira diru-sarrerak bermatzeko errenta berri bat aitortzeko eskaerak, halaxe ezartzen baitu abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 62.2. artikuluak. Eskatzaileek dokumentazio gehigarria aurkeztu behar izaten dutenean atzeratu ohi dira eskaeren ebazpenak. Hortaz, baiezta daiteke, diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketari dagokionez, alderdi horretan ikus daitekeela argien hobekuntzak sartu direla.

Berraztertzeko aukerako errekurtsoen ebazpenari dagokionean, ordea, gabeziak ikusi dira, bai horiek ebazteko datan, bai horien edukian. Lanbidek ez du betetzen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 117.2. artikuluak horretarako ezartzen duen hilabeteko epea (aurreikuspen hori, egun, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 124. artikuluan dago jasota). Ebazteko epeetan hobekuntza egon dela hauteman bada ere, **ebazteko epea laburtzeko beharra** dagoela baloratzen dugu oraindik. Egiaztatu ahal izan da, bai berraztertzeko aukerako errekurtsoa eduki duten kexa-espedienteak izapidetzeko orduan dugun eskarmentuagatik, bai Arartekoko langileek Lanbideren bulego batzuetara egindako bisiten ostean, sei hilabetetan dagoela, egun, errekurtso horiek ebazteko gutxieneko epea; beraz, Lanbidek ez ditu aurreikuspen arautzaileak betetzen zentzu horretan.

Bestetik, interesdunek jartzen dituzten errekurtsoen ebazpenetako edukia aipatu behar dugu.

Erakunde honek ofiziozko jardunbide bat egin du kontu horren inguruan, batez ere, kexak izapidetu ondoren; izan ere, errekurtsoak balioetsi ostean, Lanbidek ez zituen automatikoki betearazten kexagileek Lanbideren ebazpenen aurka jarritako errekurtsoetan azaltzen zituzten nahiak.

Arartekoan kexa jarri duten hainbat pertsonak emandako dokumentazioaren arabera, berraztertzeko errekurtsoa balioesten zenean, *"espedientea ebazpenaren aurreko berehalako unera atzera eramatea zen ondorio bakarra"*. Esaldi horren aurretik, honako hau adierazten zuen testu bat egoten zen aurretik: *"sakoneko kontu guztien gainean eta prozedurak dioen moduan ebazteko behar den dokumentazioa falta denez, administrazio honek ezin du erabakirik hartu nahiaren egokitasunaren inguruan"*. Ondorioz, berrikuspen-prozedura abiarazten zuen Lanbidek, errekurtsoa balioetsita zuen pertsonak diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizun guztiak betetzen zituela egiaztatzeko xedez.

Jarduteko modu horrek atzeratu egiten zuenez prestazioen esleipena, edota beste ondorio kaltegarri batzuk zituenez, eta, Arartekoaren ustez, atzerapen hori justifikatuta ez zegoenez, beharrezkoa ez zen moduan luzatzen baitzuen errekurtsoa balioetsi izanaren ondorioen data, ofiziozko jarduera abiarazi zen. Horren bidez, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 113.2. artikuluko aurreikuspena gogorarazi genion organismo autonomoari. Artikulu horretan, administrazio-

errekurtsoak une zehatz batera eramateko ondorio bakarrarekin balioesteko aukera ezartzen zen, egitate hori halabeharrezkoa izanez gero. Hala, aipatutako arauak honela dio: *"forma-akats bat dela-eta edukiari buruzko ebazpena ematea egokitzat jotzen ez bada, prozedura akatsa egin zen urratsera atzeraegitea aginduko da. Horretan, salbuespen izango da 67. artikuluan ezarritakoa".* urriaren 1eko 39/2015 buruzko Legean, aurreikuspen bera jasotzen da 119.2. artikuluan.

Lanbideri adierazi genion agindu horrek kasu batzuk bakarrik hartzen dituela barne; hots, forma-akatsaren ondorioz administrazioak benetan ezin dituenean ezagutu espedientearen inguruko uzia betearazteko behar diren elementu guztiak. Hau da, Lanbidek uziei arreta emateko behar dituen elementuak ez dituen kasuetan bakarrik ezar liteke, baina ez oro har, ezta izapidean egin den akatsa baiesteko ebazpenaren oinarriaren zati denean eta Lanbidek hori onartzen duenean ere.

Arartekoak 2014ko uztailaren 17ko ebazpena egin zuen jardunbide horren harira, zeinetan Lanbideri gomendatu genion aukerako berraztertzeko errekurtso baten ebazpena aldekoa zenean Lanbidek bertako nahiei errekurtsoaren ebazpenean bertan erantzuteko, orokorrean berrikuspen-espediente berri bat abiarazi gabe irizpide guztiak bete direla egiaztatzeko asmoz.

Zentzuzkoa denez, horrek eragotzi egiten du Lanbidek egokitzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ahal izatea, aldeko errekurtsoa eduki duten pertsonen uziei arreta emateko elementuak dituenean.

Lanbidek gomendio hori onartu zuen, adieraziz, ahal izatekotan, *"kautela bereziarekin behatuko dela ebazpenak kexagileak aurkeztutako nahiekin bat etortzea"*.

Hala ere, gaur gaurkoz, erakunde honek dakiela, ez dago **espedientearen ondorioak errekurritutako jardunera atzeratzera mugatzen ez den aldeko ebazpenik.** Diagnostiko hau egin aurretik amaitu zen bisita-errondaren ostean, Lanbideko langileek berek berretsi zuten inguruabar hori.

Hauteman daitekeen aldaketa bakarra formaren ingurukoa da. Goian transkribatu dugun testua, *"espedientea ebazpenaren aurreko berehalako unera atzera eramatea zen ondorio bakarra"*, errekurtsoen aldeko ebazpenekin agertzen zena, esaldi honek ordezkatu du: *"errekurtsoa baiesten dugu, albo batera utzi gabe ebazpen berrian gainerako betekizunak eta betebeharrak betetzen diren aztertzeko aukera; izan ere, errekurritu den espedienteak aipatzen dituen prestazioei eragiten dien araudiak etengabe eskatzen ditu horiek".*

Ebazpen berria berrikuspen-prozedura baten emaitza da; beraz, prozedura amaitu artean, ez zaie arretarik emango kexagilearen uziei. Erakunde honek izapidetu dituen kexa batzuetan, prestazioen aitortza eskatu zenetik 16 hilabetera eman da aitortza bera. Hortaz, ondoriozta dezakegu eremu horretan ez dela aurrerapen nabarmenik egin, gure gomendioa onartu bazuten ere.

Erakunde honen ustez, **hobetzeko tarte** handia dago diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren kudeaketaren alderdi horretan. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko betekizunak betetzen dituzten pertsonek prestazio horretarako duten eskubideari eragiten zaio (eten, iraungi, aldatu edo ukatu egiten da),

errekurtsoa baietsi den arren, betekizunak berrikusteko izapidea egiten den bitartean. Errekurtso horiek izapidetzeak dakarren gehiegizko iraupena gaineratu beharko genioke inguruabar horri, adierazi dugun bezala, ez baita sei hilabetekoa baino txikiagoa izaten. Egiaztatu ahal izan den bezala, jokatzeko modu horren ondorioz diru-sarrerak bermatzeko errenta eten, iraungi, alda edo uka daiteke, horretarako arrazoirik egon gabe, eta eragindako pertsonak, betekizun eta betebehar guztiak bete arren, sei edo zazpi hilabete itxaron behar izaten ditu Lanbidek neurri egokiak hartu arte, diru-sarrerak bermatzeko errenta bati eragin zion ebazpenaren aurkako errekurtsoa balioetsita egonda. Ondorioz, eskaera ebazteko epea eta errekurtsoa ebazten igaro diren hilabeteak gehituz gero, hamasei hilabeteko atzerapena gerta daiteke, erakunde honek izapidetu dituen hainbat kexa-espedientetan gertatu den bezala.

## 4. ETETEKO, BERRABIARAZTEKO, IRAUNGITZEKO, BERRITZEKO ETA BERRIKUSTEKO PROZEDURAK

### 4.1. Eteteko prozedura

#### *4.1.1. Aurretik entzuteak duen garrantzia*

Arartekoaren esku-hartze ugariren xede izan da prestazioak eteteko edo iraungitzeko espediente bat ebatzi aurretiko entzunaldia, bai Lanbideri dagokionez, bai aurretik prestazio horiek kudeatzeko eskumena zuten foru-aldundiei dagokienez. Arartekoaren iritziz, prozedura horietan prebentziozko izaera zuen oinarrizko bermea zen hori, oinarrizko beharrak estaltzen dituen prestazio bati eragiten baitio. Erakunde honek askotan adierazi du oso garrantzitsua dela entzunaldia egitea prestazioaren abonua eten aurretik. 2013ko diagnostiko-txostenean, gomendio hau eman zen berariaz:

> *"13ª que se apliquen los arts. 53 y siguientes del Decreto 147/2010 y, en concreto, que se aplique el **trámite de la audiencia previa** con relación a todos los procedimientos de suspensión, modificación o extinción del derecho a la prestación"* (52. or.).

Oro har, Lanbidek errespetatu egiten du aurretiko entzunaldia; beraz, egun, idazki bat bidaltzen da prestazioetarako eskubidea eten aurretik. Idazki horren bidez, eteteko arrazoi posible bat dagoela esaten zaio eragindakoari, alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

Beraz, alderdi horretan, hobekuntza handia izan du prestazioaren kudeaketak, ordenamendu juridikoak ematen dituen bermeak ezartzen baitira.

Batzuetan, zuhurtziazko neurri gisa hasten da eteteko prozedura, eta prestazioaren abonua etetea erabakitzen da.

Prestazioaren titular izateko **betekizunak galdu izanaren zantzuak** daudenean bakarrik da bidezkoa kautelazko etetea erabakitzea. Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 27. artikuluak kasu hauetan aurreikusten du kautelazko etetea: Lanbidek *"…zantzuren batzuk detektatzen baditu prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzeko edo mantentzeko eskatutako baldintzetakoren bat galdu dela adierazten dutenak…"*. Hau da, kautelaz eten ahal izango da, diru-sarrerak bermatzeko

errentaren onuraduna den bizikidetza-unitate batek prestaziorako eskubidea galdu duelako susmoa dagoenean (zantzuetan oinarritutakoa), titularra izateko betekizunetako bat galtzeagatik, baina ezingo da eten, zenbaitetan ikusi den bezala, betebehar bat bete ez duela uste denean.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 4. atalaren 53. artikuluak eta hurrengoek ezartzen dute diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea eteteko edo iraungitzeko prozedura gidatu behar duen araudia. Prozedura horretan, aurretiko entzute-izapidea eta ebazpena ematea aurreikusi da, eta ez da bereizketarik ezarri kautelazko eteteen prozedurari dagokionez. Beraz, uler daiteke etete bat adostuko den prozedura guztietan ezar daitezkeela aurreikuspen horiek, etetea kautelazkoa izan edo ez.

Administrazioaren prozedura zuzentzen duen araubideak behin-behineko (kautelazko) neurriak hartzea aurreikusten zuen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 72.3. artikuluan, eta, **gaur egun**, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 56.4. artikuluan. Behin-behineko neurriek **muga** garrantzitsua dute; izan ere, *"ezin da behin-behineko neurririk hartu interesdunei kalte erreparagaitza edo erreparaezina dakarkienik edo legeek babestutako eskubideak urratzen dituenik".*

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak araubidea aldatu du behin-behineko neurriei eta oso behin-behinekoei dagokienez. Neurri horiek, oraingo legediaren arabera, “arrazoituz” hartu behar dira eta proportzionaltasun-printzipioa aintzat hartu behar da (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 56.2. artikulua).

Arartekoak jarrera bermatzailea izan du aldez aurreko entzunaldi-izapidearen garrantzia babestuz, **bai betekizunak galdu izanari buruzko zantzuak dauden kasuetan, bai betebeharrak betetzen ez diren kasuetan.** Hala, aldez aurreko entzunaldi-izapidean, prestazioa eten edo kautelaz bertan behera utzi aurretik jakingo lukete kaltetuek erabaki horren oinarrian zein lege-oinarri edo gertaera egon den, eta babesteko alegazioak aurkeztu ahalko zituzten. Beharrizan oinarrizkoenei aurre egiteko prestazio bat da, eta, horrenbestez, ordainketa eteteko arrazoi argudiatuak egon behar dira, eta aldez aurretik jakinarazi behar da; horrez gain, salbuespen kasuetan salbu (betekizunak galdu izana eta prestazioaren iraungitzea argi geratzen den kasuetan), aldez aurreko entzunaldi-izapidea prozedura guztietan eman beharko litzateke.

Hala ere, beste eduki bat eman beharko litzaioke izapide horri; izan ere, eginbide formala edo ez hain formala baino ez da izaten, eta ez da aldatzen berori abiarazi zuen asmoa. Gainera, izapidean eteteko balizko arrazoia desagertzen denean, etetea ez erabakitzea balora liteke, galera handiak ekartzen baititu horrek; batez ere, adingabeak daudenean, adingabeen interes gorenaren printzipioa ezarri behar baita horrelakoetan, Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrean adierazi zen bezalaxe.

Aurretik adierazi dugun moduan, hobekuntza handia egin da alderdi horretan, ohikoa baita izapide hori betetzea, prestazioak eteteko edo berrikusteko hasten diren prozeduretan.

### 4.1.2. *Prestazioak etetea erabakitzen duten ebazpenen arrazoiketa*

Arartekoak askotan adierazi du ebazpenak oinarritzen dituzten egitateak eta zuzenbideko oinarriak xehe aipatu behar direla ebazpenetan (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. artikulua), bai kexa-espedienteen izapidean, bai 2013ko diagnostiko-txostenean, eta, gainera, Arartekoaren urtarrilaren 20ko 1/2014 Gomendio Orokorraren xede izan zen.

Azken urte hauetan etete ebazpenak arrazoitzean hobekuntza nabaritu bada ere, oraindik hobetzeko tartea ikusten da.

Prestaziorako eskubidea eteteko oinarritzat erabiltzen diren zuzenbideko oinarrien adierazpenean egongo litzateke, funtsean, hobetzeko tarte hori; hau da, xehe adierazi beharko litzateke zein aurreikuspen arautzaile zehatzek ezartzen duen betebehar bat ez betetzeko edo betekizun bat aldi batez galtzeko jarrera edo jarduera, horixe izanik eskubidea etetea erabakitzeko arrazoia. Eteteko ebazpenak arrazoitzen dituzten egitateak aipatu ohi dira ebazpen horietan, baina ez da horrela gertatzen zuzenbideko oinarriekin, eskura eduki ditugun oso ebazpen gutxitan aipatzen baita berariaz oinarritzat duten agindua.

### 4.1.3. *Etetearen iraupena*

Etetearen iraupenarekin dauka zerikusia hobetzeko beste alderdi batek. Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 26.3. artikuluak hauxe ezartzen du, oro har: "*diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean, prestazioa sorrarazteko baldintzak une horretan badauden ala ez egiaztatuko da, ofizioz edo interesdunak eskatuta, eta, baldin badaude, prestazioaren zenbatekoa ezarriko da. Prestazioa hura eteteko arrazoiak desagertzen diren egunaren biharamunetik aurrera sorraraziko da.*"

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak ere ez du zorroztasunez jasotzen zer-nolako iraupena eduki behar duen etenaldiak titularrak edo bizikidetza-unitateko kide batek betebehar bat betetzen ez duenean.

Azken batean, ez da aurreikusten zein izango den betebeharrak ez betetzeagatik hitzartuko den etetearen iraupen zehatza, kasu jakin batzuetan salbu.

Horrela, bada, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 45. artikuluak honako aurreikuspena ezartzen du, etetearen iraupenari buruz:

> *"1.- Ordainketa etetea eragin duten zirkunstantziek irauten duten bitartean jarraituko du eteteak, gehienez ondoz ondoko hemezortzi hilabeteko aldirako, eta, hori igarotakoan, prestaziorako eskubidea iraungiko da.*
>
> *Etenaldi-kasu bat gertatu bada, baina etendura egiteko garaian kasu hori desagertu bada edo berehala desagertzekotan badago, prestazioa eten ahal izango da kasuaren ezaugarrien arabera ezarriko den aldi batez, eta aldi hori ez da inola ere ez-betetzearen kausa den iraupena baino handiagoa izango.*
>
> *2.- 43. artikuluaren 2. paragrafoko a), d) eta e) idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, etendura hilabetekoa izango da lehen aldiz gertatzen denean eta 3*

*hilabetekoa ondoren berriro gertatzen bada, behin gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua egin behar duten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatzen dutenean, hala dagokionean Lanbiderekin koordinatuz, Gizarteratze Hitzarmenean itundutakoa ez dela betetzen".*

3 - (agindua ondoriorik gabe geratu da, azaroaren 24ko 4/2011 Legea indarrean jarri ostean).

Ondorioz, aipatutako maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 45. artikuluak aurreikusi du, prestazioa eteteko arrazoiren bat gertatu denean, prestaziorako eskubidea eten ahal izango dela.

a) Etetea eragin duten zirkunstantziek iraun bitartean.

b) Eteteko arrazoia gertatu den kasuetan, baina desagertu egin bada eteteari ekiteko unean, edo berehala utzi ahalko balio gertatzeari, prestazioa aldi batez eten ahal izango da. Tartean dauden zirkunstantzia espezifikoak aintzat hartuta zehaztuko da aldi hori, eta inola ere ezingo du iraun berori eragin duen ez-betetzearen ondorioak baino gehiago.

c) Segidan adieraziko diren arrazoiak gertatzen direnean, hilabetez etengo da lehen aldiz gertatzen denean, eta hiru hilez berriro gertatuko balitz:

- Bizikidetza-unitatearen eraketan edo baliabideen mailan egondako aldaketak ezarritako epean jakinarazten ez direnean.
- Aplikatzekoa denean, enplegurako prest ez egotea, enplegu-eskatzaile gisa etengabe izena emanda ez egotea edota enplegu egoki bati uko egitea 12.2.b) artikuluak enplegu egokia definitzen duen terminoetan.
- Aplikagarria denean, diru-sarreren maila hobetuko luketen lan-baldintzetan aldaketak egiteari ezetz esatea.

Garrantzitsua da nabarmentzea azaroaren 24ko 4/2011 Legearen 28.1.i) artikuluak arrazoi hau ezartzen duela prestazioa iraungitzeko arrazoitzat: aplikatzeko modukoa denean, behin uko egitea, arrazoi justifikaturik gabe, indarreko legediaren arabera egokia den enplegu bati edo diru-sarrerak handitzea ekar lezakeen lan-baldintzen hobekuntza bati. Era berean, prestazioa indarrean dagoen bi urteko aldian ez-betetzeren bat egiteagatiko bi etete daudenean; beraz, dekretuaren ezarpenak bat egin behar du aurreko legean aurreikusitako aldaketarekin.

Kexak izapidetzean, etetearen iraupenaren inguruko **desberdintasun ugari** egiaztatu dira, aurreko aurreikuspen arautzailean edo jarreran azaltzen ez zirenak. Beraz, proportzionaltasun-printzipioa eta segurtasun juridikoaren printzipioak urratzen dira.

Arartekoak **hobetzeko tarte** handia ikusten du bai eteteko arrazoien iraupenaren erregulazioari dagokionez, bai betebeharrak ez betetzea eragiten duten jarduerei eta jarrerei dagokienez. *"III. Araudia aldatzeko proposamenak"* atalean garatzen dugu alderdi hori.

### 4.1.4. Zigortzeko araubidea ezartzea

Arartekoak askotan adierazi du egokia litzatekeela prestazioak etetea edo zigortzeko araubidea ezartzea (edo bi ondorioak) ekar dezaketen egoerak eta jarrerak argitzea. Erakunde honek eskura duen informazioaren arabera, Lanbide ez da ari zigortzeko prozedurarik izapidetzen.

Arartekoaren ustez, bizikidetza-unitateak jarrera gaitzesgarria duenean baina prestazioak jasotzeko betekizunak betetzen dituenean, zigortzeko araubidera jotzeko aukera edukitzeak zigor proportzionala ezartzea ahalbidetuko luke, prestazioak eten edo horien abonua eten beharrik gabe. Ardurapean adingabeak daudenean, haurrak pobretzeko prozesuak eta gizarte-bazterketako egoera larriak abiaraztea saihestuko litzateke. Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrak gomendio hau egin zuen: *"Prestazioen etete- edo iraungitze-prozedura batean adingabearen interes gorena gordetzeko xedez prestazioaren (edo prestazioen) eskubidea mantendu behar dela ondorioztatzen denean, dagokion zigor-prozedura abiaraztea betebeharra ez betetzeari dagokionean".*

Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen *"Arau-hausteak eta zehapenak"* VII. tituluak, 99-108. artikuluetan, arau-haustetzat hartzen diren ekintzak edo omisioak eta zehapenak ezartzen ditu. 108. artikuluak ezartzen du erregelamendu bidez finkatuko dela zigortzeko prozedura, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean (otsailaren 20ko 2/1998 Legea) ezarritako printzipioekin bat eginez. Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak zigortzeko prozedura erregulatzen du 59-62. artikuluetan.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek edo onuradunek jarrera gaitzesgarriak dituztenean, etetea (eta, hala badagokio, iraungitzea) izaten da oro har ezartzen den neurria, neurri bakarra balitz bezala. Zigortzeko prozedura izapidetzeak, ordea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen (urriaren 1eko 40/2015 Legea) 25-31 artikuluetan erregulatutako zehatzeko ahalaren printzipioak betetzea ekarriko luke (azaroaren 26ko 30/1992 Legea, 127. artikulutik 138. artikulura), bai eta otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritako aurreikuspenak betetzea ere (oraindik ez zaizkio erregulazio berriari egokitu).

Eteteko prozedurarako aurreikusi ez diren berme batzuk ezartzea dakar prozedura horrek. Horrela, bada, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen VII. kapituluak, besteren artean, jarrera gaitzesgarriak tipifikatzen ditu, gradu ezberdinetako arau-haustetzat jotzen ditu, graduaren araberako zigor ekonomikoak ezartzen ditu eta horien preskripzioak ezartzen ditu.

Aurrerago esan dugun moduan, gabezia handiak dauzka prestazioen etetea erregulatzen duen araudiak, prestaziorako eskubidea etetea ekartzen duten jarduerak mugatzeko orduan. Ez dira behar bezain argi zehazten prestaziorako eskubidea etetea saihesteko errespetatu behar diren jarrerak eta betebeharrak, eta ez da etetearen iraupena zehazten. Bestalde, arrakalak daude proportzionaltasun-printzipioa betetzeko orduan. Hobetzeko tarte handia dago, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak betebeharren ez-betetzeei eta arau-hausteei eman

beharko lizkiekeen erantzunei buruzko hausnarketa egin beharko litzateke. Arartekoaren ustez, zehaztasunez mugatu beharko lirateke prestazioa eteteko kasuak, edo zigor bakarra ezarri beharko litzateke. Beste alde batetik, jarreraren larritasunaren arabera (adibidez, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 104. eta 43.3. artikuluetan aurreikusitako arau-hauste bat baino gehiago eginez gero), bi zigorrak ezartzeko aukera aurreikus liteke; hots, prestaziorako eskubidea etetea eta zigor ekonomikoa ezartzea.

Lanbidek adierazi du ados dagoela abenduaren 23ko 18/2008 Legean aurreikusten den zigor-araubidea erregelamendu bidez garatzeko aukerarekin, baita hori ezartzearekin ere. Hala ere, ez dakigu ezarpen horretan aurrerapenik egin ote den.

## 4.2. Berrabiarazteko prozedura

Erakunde honek duela gutxi Lanbideren bulegoetara egin duen bisita-errondaren ostean, eta arrazoi horrengatik egon den kexa-kopurua txikitu egin denez, berrabiarazteko prozedurei arreta emateko orduan hobekuntza egon dela egiaztatu da, nabarmen murriztu baitira berrabiarazteari ekiteko denborak.

Ohar negatibo gisara, adierazi beharra dugu, aintzat hartuta egitateei buruzko komunikazio orok dakarrela berrikuspen-prozedura irekitzea, etenda dagoen diru-sarrerak bermatzeko errenta bat berrabiarazteko eskaerak, batzuetan, araudian aurreikusitakotik hara luzatzen direla denboran; izan ere, oro har, berrikuspena amaitzeko zain egoten da Lanbide, prestaziorako eskubidea sortzeko betekizunak betetzen diren egiaztatze aldera. Hala, eragindako pertsonak zentzu horretan aurkezten duen eskaera izapidetzeko denborak diru-sarrerak bermatzeko errenta etete-egoeran edukitzea ekartzen du, eta, ondorioz, prestazioaren abonua etetea, egokia litzatekeena baino denbora luzeagoz, nahiz eta gero atzerapenak abonatzen diren, berrabiarazteko eskaera egin zen egunetik zenbatzen hasita. Data horrek bat egin ohi du etetea eragin zuen arrazoia desagertzeko datarekin, baina baliteke bat ez egitea ere; izan ere, ohikoa izaten da interesdunak berak aurkeztea eskaera eta ofizioz ez hastea, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 46. artikuluko aurreikuspena hor egon arren.

Lanbideren Zuzendaritza Nagusiak bilera ugaritan adierazi du modu automatikoan berrabiarazten dela etetearen iraupena araudiak zehazten duenean (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 45.2. artikuluan daude jasota kasu horiek). Hala ere, ikusi denez, Lanbidek berrikuspen-espedienteak ireki ditu kasu horietan ere, betekizunak betetzen ote diren egiaztatze aldera, eta, beraz, etendako diru-sarrerak bermatzeko errenta berrabiarazteko epea luzatu egiten da, legegileak nahiko lukeena baino gehiago, etetea eragin zuen arrazoia desagertu den arren, adierazi dugun bezala, edo maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 45.2. artikuluak mugatutako kasu horietako bat izan arren; hots, iraupen mugatuko etetea izan arren.

Ondorioz, erakunde honen ustean, hobekuntza-tartea dago, etetea eragin zuen arrazoia desagertu ostean edo aurreikusitako etete-aldia igaro ostean ahalik eta azkarren berrabiarazi behar baita prestazioa, prestazioaren abonuaren etenaldia luzatzea saihesteko xedez.

### 4.3. Iraungitzeko prozedura

Atal honetan, kexa-espediente batzuk nabarmentzen dira, zeintzuetan Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungitzea erabaki zuen, eta, Arartekoaren ustez, eteteko arrazoitzat jo zitekeen prestazioa iraungitzea eragin zuen jokaera. Beste espediente batzuetan, iraungitzearen ondorioak eta eskaera baten ukapenaren ondorioak berdintzen ziren.

Araudiak tasatzen ditu diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio ekonomikoa iraungitzeko kasuak; hortaz, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28. eta 43. artikuluek (azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazketan), maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 49. artikuluak eta Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 28. artikuluak ezarritako tartean bakarrik hartu ahalko da neurri hori.

Garrantzitsua da iraungitzeen arrazoiketaren garrantzia azpimarratzea, eteteekin egin dugun bezalaxe, aipamen-gabeziak (batez ere, zuzenbideko oinarriak ez aipatzeak) ziurgabetasun-egoerak eragiten ditu-eta. Adierazi dugun bezala, araudiak tasatzen ditu iraungitzeko arrazoiak, eta, beraz, babesgabetasun-egora larriak eragiten ditu eskubidea iraungitzea oinarritzen duen agindua ez aipatzeak.

Lanbidek berariaz aipatu behar du abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28. artikuluak eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 49. artikuluak tasatutako zein kasu erabiltzen ari den hain neurri larria hartzeko oinarri gisa.

Jokatzeko modu horren ondorioz, iraungitzea bera baino ondorio larriagoak egon daitezke. Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3 artikuluak ezartzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta bat iraungitzen bada "*...betebeharrak ez betetzeari edo hutsak egiteari lotutako kausengatik, titularrak ez duela izango aukerarik diru-sarrerak bermatzeko errenta, bere ezein modalitatetan, berriro eskatzeko urtebetean, iraungitze-datatik zenbatzen hasita...*".

Arartekoaren ustez, prestazioa iraungitzea erabakitzeko ebazpena eta horren ondoriozko ezintasuna, hots, prestazioa urtebeteko epean eskatzeko ezintasuna, aurreikusitako kasuetan bakarrik ezarri behar da, **hedapenezko** edo "analogiazko" **interpretaziorik egin gabe**, Lanbidek erakunde honi erantzun izan dion bezala espedienteren baten ondorioz. Izan ere, espediente horietan, prestazio-eskaera ukatzea ebazten zuen, ohartaraziz ezin zezaketela prestazioa urtebeteko epean eskatu berriro. Ezin daiteke onar agindu murriztaile baten interpretazio analogikorik egitea; hala nola, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3. artikuluaren hedapenezko interpretaziorik egitea.

Sakonegiak izateko asmorik gabe, gogorarazi egin behar dugu kasu zehatzetan ezartzeko sortutako arau bat kasu horietatik kanpo ezartzeak mugak dauzkala. Funtsean, Kode Zibilaren 4.1. artikuluak ezartzen du muga hori, honako hau esaten baitu: *"Arauen aplikazio analogikoa bidezkoa izango da, arauok kasu zehatza arautu ez arren, horren antzeko beste bat arautzen dutenean, bi kasuon oinarria berbera bada".* Aipatu ditugun kasuetan, ez dago horrelako hutsunerik, eskatzaile batek diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunak betetzen ez dituenean, prestaziorako eskubidea ukatuko baitzaio, besterik gabe (edozein

eskaera orokorrekin gertatzen den moduan). Arartekoaren 2016ko abenduaren 16ko 2016R-687-15 Ebazpenean, prestazioa iraungitzeko ondorioak zituen eskaera-ukapen bat aztertu genuen (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 50.2. artikulua), bai eta, horren ondorioz, iraungitzeko egunetik zenbatzen hasita urtebeteko epean diru-sarrerak bermatzeko errenta edozein modalitatetan berriro eskatzeko ezintasuna ere, eta ukapen-ebazpena berrikustea eskatu zen.

Amaitzeko, iraungitzea erabakitzen den eguna argitzeak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu; izan ere, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3. artikuluan aurreikusten diren kasuetan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu ezin denean hasten da zenbatzen urtea, eta aldi horretan ezin daiteke diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu. Data horrek bat egin beharko luke prestazioa abonatzeari uzten zaion hilabetearekin; bestela, aurretik prestazioa etetea eta prestazioaren abonua etetea erabaki bada, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3. artikuluan aurreikusi dena baino gehiago luzatuko litzateke prestazioa berriro eskatzeko ezintasuna.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 53.2. artikuluko aurreikuspena gaineratu beharko litzaioke horri, entzuteko izapidea deitzea eskatzen baitu, prestazioa iraungitzea erabaki aurretik. Kasuren batean, izapide hori alde batera utzi dela egiaztatu da, berme konstituzionala den arren (Espainiako Konstituzioaren 105. artikulua).

### 4.4. Berritzeko prozedura

Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 23. artikuluak, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazketan, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen aitortza aurreikusten du, modalitate guztietan, prestazioa ematea eragin zuten arrazoiek bere horretan irauten badute eta lege horretan aurreikusten diren betebeharrak betetzen badira. Bi urterako emango da, eta bi urterik behin berritu ahalko da, baldin eta arrazoi horiek bere horretan badiraute eta prestazioa eskuratzeko baldintzak –ekonomikoak edo beste izaera batekoak– betetzen jarraitzen bada.

Artikulu horretan aurreikusten denez, izapidea hasi behar duela jakinarazten zaio titularrari, eta prestazioa iraungi baino hiru hilabete lehenago hasi behar duela.

Bizikidetza-unitate jakin batzuentzat, luzapen automatikoa aurreikusten du araudiak; hala nola, pentsiodunentzat edo bazterketa-egoera altuan dauden pertsonentzat. Azken horien kasuan, lan-merkatura sartzeko egoeran ez daudela pentsatu behar du Lanbidek; hala badagokio, Udaleko Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan.

Erakunde honen lanetik eratorritako informazioaren arabera, Lanbidek ez du adierazitako epean jakinarazten izapidea prestazioa iraungi baino hiru hilabete lehenago hasteko beharra. Hala ere, prestazioa ez da iraungitzen bi urteko indarraldia amaitzen denean. Titularrek eskatzen dute berritzea, bai norberaren ekimenez, bai banaka adierazi zaielako aipatutako berritzea hasi behar dutela.

Hauteman dugun arazoak zerikusia dauka prestazioaren berritzea kudeatzen ari zela eteteko arrazoia egon dela ikusi den kasuekin. Horrelakoetan, Lanbidek prestazioa

ez berritzea erabakitzen du, eteteko arrazoia desagertu ala ez. Lanbidek adierazi digu ezarpen informatikoan ez dela beste izapiderik aurreikusten, eta, beraz, kasu horietan ez berritzea izaten dela "irtenbide bakarra", eteteko arrazoia desagertu ala ez.

Espediente batzuetan ikusi ahal izan denez, ez berritzea erabakitzen zuen ebazpenaren arrazoiketa ez zen egokia, ez baitziren azaltzen ez berritzeko arrazoiak, edo adierazten baitzen "ez berritzeagatik" iraungitzen zela prestazioa, edo "iruzurragatik" ez zela berritzen. Era berean, pertsonari ez zitzaion jakinarazten diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskaera berria aurkez zezakeen. Horren ondorioz, iraungitzeko ebazpena jasotzen zuen prestazioa berritzea eskatzen zuen pertsonak, baina ebazpen horretatik ezin zitzakeen modu argian ondorioztatu horretarako arrazoiak, edo ez zioten azaltzen etetea eragin zuen (eta ez berritzea eragin zuen) arrazoia desagertuta prestazioa berriro eskatzeko eskubidea zuela.

Arartekoaren ustez, Lanbidek betebehar bat bete ez dela hautematen duenean, etetea eragin duten arrazoiak (egitateak eta oinarri legalak) jakinarazi behar dizkio pertsonari, eta eteteak dituen ondorioak azaldu beharko lizkioke. Espedientea berritze-fasean badago, prestazioa berritzea egokia ez izateko arrazoien berri eman behar dio, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunak betetzen jarraitzen badu, berriro ere prestazioaren titularra izateko behar diren jarduerak gauzatu ditzan. Jarrera horrek berekin badakar prestazioa hilabete batzuez etetea, epea igarotakoan (edo, bestela, etetea erabakitzeko arrazoia desagertzen denean) prestazioa berriro eska dezakeela jakinarazi beharko lioke.

Berritze-prozedura izapidetu bitartean desagertzen bada prestazioa etetea erabakitzeko arrazoia, Lanbidek espedientea berritu beharko luke, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 26.3. artikuluan ezarritako legezko aurreikuspenarekin analogia eginez.

Arartekoak 2015eko azaroaren 4ko 2015R-1948-14 Ebazpenean helarazi zuen iritzi hori.

Beraz, berritzeko izapidean **hobetzeko tartea** dagoela hauteman da betebehar bat bete ez dela ikusten den kasuetan, bai prestazioa kudeatzen laguntzen duen ezarpen informatikoari dagokionez, zeinak kasu hori aurreikusi beharko lukeen, bai mamiari buruzko erabakiei dagokienez. Eteteko arrazoiren bat dagoela hautemateak ez luke automatikoki ekarri beharko prestazioa ez berritzea edo prestazioa iraungitzea.

Berritzeko izapidean hautematen denean eteteko arrazoia egon dela, baina arrazoia dagoeneko desagertu egin dela, ez berritzeak babesgabetasun-egoeran uzten ditu pertsonak. Arartekoaren ustez, prestazioa berritzea erabaki behar da eteteko arrazoia desagertzen denean. Kontuan hartu behar da abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 23.1. artikuluan ezarritako aurreikuspena: *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea, errentaren modalitatea edozein izanik ere, aitortuta gelditzen da errenta hori ematea eragin zuten arrazoiek bere horretan irauten bitartean eta lege honetan jasotzen diren betebeharrak betetzen diren bitartean. Bi urterako emango da, eta bi urterik behin berritu ahalko da, baldin eta arrazoi horiek*

*bere horretan badiraute eta prestazioa eskuratzeko baldintzak –ekonomikoak edo beste izaera batekoak– betetzen jarraitzen bada".*

Eteteko arrazoirik egon bada, eta iraupen zehatza duen etetea ekarri badu, etetearen iraupenaren berri eta prestazioa berriro eskatzeko dataren berri eman beharko luke Lanbidek. Etetea eragin duen jarrera urratzailearen ondorioz aurreikusi den epea igarotakoan, prestazioa berriro eska daitekeela jakinarazi beharko luke.

Azkenik, berritze-prozesuetan informazioa hobetzeko beharra azpimarratu nahi dugu. Ez berritzea erabakitzen duten ebazpenek ez dute adierazten diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunak betez gero prestazioa berriro eskatzeko eskubidea dagoela. Araudiak ez du galarazten eskaera berririk aurkeztea, berariaz hori aurreikusten den kasuetan izan ezik; hortaz, Arartekoaren ustez, ebazpenean bertan eman beharko litzateke eskubide horren eta eskubidea erabiltzeko dataren berri.

### 4.5. Berrikusteko prozedura

Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 24. artikuluak, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazketan, honako hau ezartzen du: *"Lanbidek prestazioaren kontrol telematikora gehituz doazen eskakizunen gaineko berrikuspena egingo du, hiru hilabetetik behin; nolanahi ere, egokitzat jotzen den behar adina berrikuspen egin ahalko ditu, prestazioa ematea eragin duten kausek bere horretan dirauten egiaztatze aldera".*

Horretarako, gainerako Administrazio Publikoei eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sisteman laguntzen duten beste erakundeei eskatu ahal dizkie berrikusteko eta gainbegiratzeko zereginak behar bezala egiteko behar-beharrezkoak diren datuak eta txostenak.

Ondorioz, legeak ahalmen zabalak ematen ditu prestazioen hartzaileek betekizunak eta betebeharrak betetzen dituztela berrikusteari dagokionez. Berrikuspenak ofizioz egin daitezke, edo prestazioen titularrek egitateak komunikatzetik erator daitezke, edo, bestela, partikularren salaketek susta ditzakete. Bestetik, berrikuspenak egiten dira administrazio-errekurtsoak balioetsi ostean.

Lanbidek ez-betetze bat hautematen duenean, normalean, aurretiko entzute-izapidea egiten du, eta, horren ondoren, prestaziorako eskubideari eustea edo berori etetea zein iraungitzea erabakitzen du.

*"Prestazio ekonomikoak ebazteko eta ebazpenari errekurtsoa jartzeko fasea"* 3. atalean adierazten den bezala, prozedura horiek azkarrago egin ahal izatea komeniko litzateke. Prestaziorik abonatzen ari ez den kasuetan, muturreko egoerak sortzen ditu epeen luzapenak. Gainera, izapidetze-epeak luzatuz gero, bidegabeko prestazioak sortzen zaizkio prestazio ekonomikoen hartzaileari, kopuru handietan.

Berrikuspen-prozesuak abiarazten dituzten gainerako Administrazio Publikoetatik jasotzen diren txostenen artean, udalek ematen duten informazioa nabarmentzen da, etxebizitza batean bizi diren pertsona bati edo batzuei buruzkoa (5.1.2. idatz-zatian aztertzen da hori), edo Etxebideren Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen

Erregistroaren inskripzioarekin zerikusia duena (5.3.5. idatz-zatian aztertzen da hori).

## 5. DESADOSTASUNAK ARAUDIA INTERPRETATZEKO ORDUAN

Askotariko kexak izapidetzean, desadostasunak sortu dira Lanbiderekin, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunei eragiten dieten xedapenen interpretazioan. Atal honetan, Arartekoak kexa-espedienteen ebazpenean ezberdin aztertu eta interpretatu dituen kontu batzuk aipatzen ditugu.

### 5.1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunak

Idatz-zati honetan, prestazioaren titularra izateko betekizunak betetzeari eragiten dioten desadostasunak aztertzen dira. Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9. artikuluan erregulatzen dira betekizun horiek. Aurreikuspen horrek baldintza-kopuru handia jasotzen du, eta inguruabar jakin batzuk hartzen ditu kontuan. Izapidetu ditugun kexa-espedienteetatik eratorritako batzuk aztertzen dira hemen, betekizun hauei eragiten diotenak: egoitza eraginkorra egiaztatzea, etxebizitza titulu gaitzailearen bidez okupatzen dela egiaztatzea, bizikidetza-unitatearen eraketa egiaztatzea (zehazki, polizia-txostenak eta ezkontideen antzeko harremanak, bizikidetza-unitate bereziak, bananduta bizi diren ezkondutako atzerritarrak edo ezkontideen antzeko harremana dutenak, egoitza-zentroetan edo tutoretzapeko pisuetan bizi diren pertsonak), diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungitzea edo ez aitortzea bi ondasun higiezinen titularrak diren pertsonen kasuan, urtebeteko bizitza independentea egiaztatzea, eta, azkenik, egoera jakin batzuetako betekizun espezifiko batzuk biltzeko beharrari dagokiona (hala nola, familia-indarkeria jasaten duten pertsonak, pertsona autonomoak eta umezurtzak).

#### *5.1.1. Egoitza eraginkorra egiaztatzea*

Legegile autonomikoak betekizun gisa erabiltzen du egoitza eraginkorra kontzeptua, eta berori egiaztatzea eskatzeak interpretazio ezberdin ugari ekarri ditu gaur arte.

Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.b) artikuluak, azaroaren 24ko 147/2010 Legeak aldatu duenak, bai eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.2. artikuluak ere, hau ezartzen dute diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko baldintzen artean: *"Prestazioa eskatu den udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizitzea eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenagotik gutxienez (...)".*

Horrela, erroldan inskribatuta egoteaz gain, egoitza eraginkorra egiaztatzea ere eskatzen da. Gure ustez, erroldan inskribatuta dagoen baina bizileku eraginkorra Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalerrietatik kanpo duen pertsona bat diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuraduna izatea saihestea da legezko aurreikuspen horren xedea. Intereseko datu gisa, egoitza eraginkorra egiaztatzen duten baina erroldako inskripzioa aurkeztu ezin dezaketen pertsonek (adibidez, espetxean kondena betetzen ari direnek, ez baita onartzen horiek udalerrian erroldatzea), batzuetan, prestazioa jasotzeko arazoak edukitzen dituzte, eta ezintasun horrek ez dauka inolako zerikusirik beren borondatearekin.

Hala ere, egun, xedapen arautzaile batek ere ez du aurreikusi nola egiaztatu beharko den egoitza eraginkorra. Interes handiko kontzeptua da hori, eta gero eta garrantzi handiagoa dauka Europar Batasunaren xedapenetan[1]. Erroldako inskripzioaren ziurtagiria eranstea baino ez du aurreikusten azterketaren xede den araudiak, baina ez du adierazten zeintzuk diren egoitza eraginkorra egiaztatzeko behar diren betekizunak eta aurkeztu behar den dokumentazioa.

Hala ere, deigarria da elementu erabakigarri gisa erabiltzea egoitza eraginkorraren kontzeptua, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea aitortzeko orduan.

Gauzak horrela, Kode Zibilaren (KZ) 40. artikuluak hau ezartzen du: "*eskubideak egikaritu eta betebehar zibilak betetzeko, pertsona fisikoen egoitza da euren ohiko bizilekuari dagokion tokia, eta, hala denean, Prozedura Zibilari buruzko Legeak zehazturikoa...*".

Era berean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16.1. artikuluak zera dio: *" Udalerriko errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira. Zehaztasun horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira administrazio-ondorio guztietarako...".*

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 43. artikulua hori bezain argigarria da, eskubidearen aldi baterako etetea ezartzen baitu prestazioa aitortzeko eskatzen diren betekizunetako bat galtzen den kasuetarako; besteak beste, ohiko egoitza EAEko lurralde-eremutik kanpoko udalerri batera aldi batez aldatzen denerako bat.

Beraz, artikulu horren gaineko interpretazioa *a sensu contrario* egiten bada, eskatzen den betekizuna **ohiko egoitza** dela ondoriozta daiteke.

Kexa askotan, eskubidea ukatu edo iraungi da, Lanbidek pentsatu duelako EAEtik kanpora irteerak egin izanagatik galdu dela egoitza eraginkorra.

Hain zuzen, erakunde honek aukera izan du kontu eztabaidagarri horri heltzen dioten erabaki judizial batzuk ezagutzeko.

Zehazki, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren 191/2012 Epaiak, urriaren 4koak, hau adierazi zuen: *"...que un viaje al extranjero de dos meses de duración no implica forzosamente cambio de residencia o cambio de domicilio habitual, que permanece y sigue siendo el mismo"* (3. zuzenbideko oinarria).

Hau adieraziz jarraitzen du: *"...la administración está vinculada por el principio de legalidad, de tal manera que si una norma le habilita y le faculta para retirar la ayuda ésta podrá y deberá hacerse efectiva, pero, si por el contrario no existe una*

[1] *Guía práctica sobre la legislación aplicable en la Unión Europea (UE), el Espacio Económico Europeo (EEE) y Suiza (2013)*. 492/2011 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011ko apirilaren 5ekoa; 883/2004 Erregelamendua (EE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa; 987/2009 (EE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko irailaren 16koa; 465/2012 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko maiatzaren 22koa eta 997/2009 (EE) Erregelamendua.

*norma que directa y claramente determine el cese de la asistencia, esta no podrá realizarse por meras sospechas..."* (4. ZO).

Hauxe ezartzen du zuzenbideko 4. oinarri berberak: *"...la cual [en referencia a la normativa aplicable en la materia] no prohíbe ausentarse de España, ni resulta incompatible la ayuda social con abandonar el domicilio por espacio de dos meses, siempre que mantenga su empadronamiento y fijada su residencia en el mismo sitio"*.

Arrazoiketa bera berresten du, berriro ere, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren 84/2014 Epaiak, maiatzaren 12koak, hauxe baitio: *"pues bien, [xxx] se encuentra empadronado en el Ayuntamiento de [xxx] desde el 27/9/2009, siendo que con anterioridad y desde 30/1/2009 estuvo empadronado en Vitoria, por lo que claramente cumpliría el requisito mínimo de tres años de empadronamiento que prevé el art. 16.b) Ley 18/2008; a lo que se debe añadir que no se puede acoger sin más y compartir con la administración que la residencia efectiva deba entenderse quebrada porque [xxx], se haya ausentado de la CAPV durante tres meses en 2011, pues un viaje al extranjero de tres meses de duración no implica forzosamente cambio de residencia o cambio de domicilio habitual, que permanece y sigue siendo el mismo desde el 27/8/2009, y el cual se encuentra sito en la calle [xxx] especialmente si tenemos en cuenta que en el ejercicio 2011 [xxx] formuló la declaración del IRPF, lo que denota que tenía residencia habitual en Álava, y que desde 20/9/2009 era titular por cesión del contrato de arrendamiento sobre la vivienda en la que viene residiendo desde entonces..."* (2. ZO).

Amaitzeko, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren 7/2015 Epaian, urtarrilaren 14koan, eta 114/2015 Epaian, maiatzaren 20koan, jasotzen da berriro ere interpretazio hori. Horietan, berariaz baieztatzen da, Arartekoaren hainbat ebazpenekin bat eginez, Arartekoaren 2013ko urriaren 15eko Ebazpenarekin eta 2014ko ekainaren 2ko 2014R-2177-13 Ebazpenarekin bat eginez zehazki, horren ondorioz eta Arartekoaren gomendioak jarraitzen duen bezala, interpretazio sistematikoa egin behar dela diru-sarrerak bermatzeko errentarekin lotura duen araudiaren gainean, ondorioztatu ahal izateko egoitza eraginkorra ez dela galtzen hiru hiletik beherako irteeretan.

Horrela, Arartekoaren 2013ko urriaren 15eko Ebazpenean, ez duenak alde eragileak emandakoaren aurka egiten, eta irizpide berari jarraikiz, atzerrira hiru hiletik gorako irteerak eginez gero, hau da, 90 egunez gorako irteerak eginez gero, egoitza eraginkorra gal daitekeela balioesten du.

Are gehiago, langabeziagatiko prestazio eta sorospenen kasuan, Auzitegi Gorenak, doktrina bateratzeko hainbat kasazio-errekurtso ebazteko eman zituen epaien bidez[2], adierazi du 90 egun baino gutxiagoko irtenaldiek ezin direla ohiko bizilekuaren aldaketatzat hartu, eta, hortaz, ezin dutela, inola ere, prestazioa azkentzea ekarri.

---

[2] Besteren artean: Auzitegi Gorenaren 2012ko urriaren 18ko Epaia (Lan Arloko Salako 1. atala), Auzitegi Gorenaren 2014ko irailaren 22ko Epaia (Lan Arloko Salako 1. atala) eta Auzitegi Gorenaren 2015eko urtarrilaren 19ko Epaia (Lan Arloko Salako 1. atala).

Egun, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren) 51.2. artikuluak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra) onartzen duenak, hau aurreikusten du berariaz: *"...se entenderá que el beneficiario tiene su residencia habitual en España aun cuando haya tenido estancias en el extranjero, siempre que estas no superen los noventa días naturales a lo largo de cada año natural"*, o *"...cuando la ausencia del territorio español esté motivada por causas de enfermedad debidamente justificadas..."*.

2013an aurreko diagnostiko-txostena egin genuenetik, Lanbidek azaldu dugun irizpidea onartu duela ikusi ahal izan da. Zehazki, gertakari hau Lanbidek 2014ko abenduaren irizpideen dokumentuan erabilitako irizpideetako bat bezala barne hartu da, hau da, egoitza eraginkorra galtzen da pertsonak urte batean 90 egun baino gehiago alde egiten duenean (59. irizpidea, 40. or.). Aurretik, egoitza eraginkorra irteera txikiagoengatik galtzen zen.

Aldiz, Lanbidek ulertzen du ez dela benetako egoitzaren irizpidea egiaztatzen pertsona urte batean EAEtik kanpo 90 egun baino gehiago egon denean.

Aurrerapen bat bada ere, garrantzitsua da gogoeta egitea honen gainean, zera da, denbora irizpide bat benetako egoitza egiaztatzeko modu bat izatea. "Denboraren" irizpidea ezartzen da, pertsona etxebizitzaren alokairua abonatzen ari bada ere, edo seme-alaben eskolatzeari eutsi arren; hau da, pertsonaren edo familiaren asmoa egoitza bizileku eta udalerri horretan edukitzen jarraitzea dela ondorioztatzea ahalbidetzen duten datuak egon ala ez.

Irizpide hori ezartzen bada, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio ekonomikoa iraungitzen da, eta berriro eskatzeko ezintasuna ezartzen da, eskaera egin aurreko berehalako hiru urteetan erroldan egon arte, edo aurreko berehalako urtean erroldan egon arte, ordaindutako lan-jardueran bost urte egin badira (pentsiodunen edo familia-indarkeriaren biktimen kasuan, urtebeteko errolda bakarrik egiaztatu behar da).

Salbuespenak daude irizpide horretan, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 43.1. artikuluaren arabera, kausa hauen ondorioz gertatzen bada absentzia: aldi baterako lanak, pertsonen zaintza, egoitza-zentroetan sartzea, banantzea edo aldi baterako premiakotzat jotzeko moduko bestelako edozein arrazoi.

Datu garrantzitsu gisara, nabarmendu egin behar da 90 egunetik gorako absentzia egon al den aztertzen dela pertsonek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskatzen dutenean, eta EAEtik kanpora 90 egunetik gora egin direla ondorioztatzen bada, egoitza eraginkorra egiaztatzeko betekizuna betetzen ez dela balioesten dela, eta prestazioen eskaera ukatzen dela. Kasu horietan, Lanbidek ez du inolako salbuespenik aplikatzen; hau da, ez du maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 43.1. artikulua ezartzen. Arartekoaren ustez, egoitza eraginkorra egiaztatzeko betekizunaren interpretazio hedatua da hori. Adierazi dugun bezala, pertsonek eutsi egiten diote erroldako inskripzioari eta beren bizilekuari, 90 egunez hortik kanpo egon badira ere. Prestazioa eskatu ahal izateko, 3 urtez erroldan egoteko betekizuna eskatzeaz gain, urtebetean 90 egunetik gorako leku-aldaketarik egon ez izana ere eskatzea oso irizpide murriztailea da. Esan dugun

bezala, araudiak ez du argitzen noiz jotzen den betetzat aipatutako betekizuna, ez eta zein dokumentazio aurkeztu behar den ere betekizuna egiaztatzeko.

Zentzu horretan, egokia da Arartekoaren ebazpen bat aipatzea. Bertan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu izana berrikusteko eskatu genuen, ukapenerako arrazoia baitzen kexagileak ez zuela bete **erroldatuta egotearen eta egoitza eraginkorra izatearen baldintza,** EAEtik kanpo egon zelako 62 eguneko aldian. Arartekoaren iritziz, bi hilabete baino zertxobait gehiago modu ez-jarraituan EAEtik kanpo igarotzeak ez du hausten EAEn bizi izatearen jarraitutasuna, ezta errolda-erregistroan jasotako inskripzioaren presuntzioa ere. Era berean, ez du esan nahi eginbeharren bat ez duenik bete, kexagileak artean ez baitzuen diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu, eta, beraz, ezin zitzaion eskatu eskubidearen titulartasunak dakartzan eginbeharrak bete zitzan (2015R-2659-14 Ebazpena, Arartekoarena, 2015eko urriaren 19koa).

Hala ere, ezin dezakegu aipatu gabe utzi, azaldutakoarekin harremana baitauka, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 43.1.f) artikuluak hau bakarrik aurreikusten duela eteteko arrazoitzat: "*ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko lurralderen batean izatea aldi batez, baldin eta aldaketa hori hemezortzi hilabete baino denbora-tarte luzeagorako baldin bada eta aldi baterako lanak, pertsonaren bat zaindu beharrak, aldi batez egoitzaren batean sartzeko, bereizteko edo aldi baterako premiakotzat jotzeko moduko arrazoiren batengatik baldin bada. Ezaugarri horiek dituen edo ez Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak erabakiko du, kasuan kasuko txosten teknikoa idatzita...*".

Beraz, aipatutako artikuluaren bigarren paragrafoak adierazten duen bezala, "*kasu horietan, adierazitako **hemezortzi hilabeteak igaro baino lehen** Autonomia Erkidegora itzuliz gero, **dekretu honen 9.2 artikuluan eskatutako betebeharra betetzen jarraitzen dela joko da***".

Ondorioz, erakunde honen ustez, legegileak erroldaz gain beste elementu bat sartu izanak berori egiaztatzeko tresna ere aurreikusi beharko zukeen. Legegileak aurreikusi ez duen denbora-irizpidea ari da ezartzen Lanbide, eta prestazioen titularrei nahiz prestazioen aitortza eskatzen dutenei ezartzen die. Lanbideren interpretazio hedatu horrek ez dauka legezko babesik; hortaz, Arartekoaren ustez, *ad hoc* egindako legezko aurreikuspen batean sartu beharko lirateke irizpide espezifikoak eta egoitza eraginkorra egiaztatzeko aurkeztu behar den dokumentazioa, bai araudia aldatzen denean, bai araudiaren garapenean, segurtasun juridiko handiagoa emateko sistemari.

### *5.1.2. Titulu gaitzailearen bidez etxebizitza okupatzen dela egiaztatzeko ezintasuna*

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatu, eten edo iraungi izan du, etxebizitza okupatzen dela dioen titulu gaitzailea ez edukitzeagatik. EAEn zaila da etxebizitza batera sartzea, merkatu pribatuan prezioak oso altuak baitira, eta ezinezkoa delako babes publikoko etxebizitzen eskari guztiari arreta ematea etxebizitza egonkorra ez duten pertsona guztientzat. Bada, horren ondorioz, egoera batzuk sortu dira, non geure buruari galdetu diogun ea Lanbidek diru-sarrerak

bermatzeko errentarako eskubidea ukatzeko legezko babesik duen, hain oinarrizko prestazioa izanik eta gizarte-bazterketari aurre egitera bideratuta egonik.

Gure ustez, Euskadin sortutako prestazio *baldintzatuaren* araudia eta eredua aztertzetik eratorri da okupazioaren eta etxebizitzaren gozamenaren titulua egiaztatzeko exijentzia. Prestazioa izapidetzean, hainbat administraziok eskatu dute aipatu titulu gaitzailea prestazioa jasotzeko betekizunak egiaztatzeko bide gisa; adibidez, bizikidetza-unitate bat osatzen duten kideak egiaztatzeko.

Alabaina, zaurgarritasun-egoera batzuk kanpo uzten zituen sistemak, eta hainbat sistemek –adibidez, etxebizitzakoak, diru-sarrerak bermatzekoak eta gizarte zerbitzuetakoak– koordinatutako erantzuna behar dute egoera horiek.

Arazo horren inguruan jaso ditugun kontsulten artean, eraikin edo etxebizitza batean bizi diren baina horretarako baliozko titulu juridikorik ez duten pertsonenak aipa ditzakegu. Batzuetan, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak izan dira pertsona horiek, eta, beste batzuetan, lehen aldiz eskatu dute.

Honela laburtu dezakegu Lanbidek kasu horietan eduki duen jarrera: diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa ezin zitekeen eman, eskatzaileak ez zuenean egiaztatzen bizi zen etxebizitza legez okupatzeko gaitzen zuen titulurik edukitzea.

Lanbideren 2014ko abenduko irizpideen agirian (bizilekuei buruzko azalpenen irizpidea, 18. or.), hau ezartzen zen: *“no se puede cobrar la RGI estando como okupa en una vivienda”.*

Bada, kexa-espediente batzuen izapide-xedea izan zen etxebizitza bat okupatzen duten baina titulu gaitzailea ez duten pertsonek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea, eta, zehazkiago, ofiziozko espediente bat irekitzea justifikatu zuen.

Egoitza eraginkorra higiezin batean edo horren zati batean edukitzea egiaztatzen bazen, etxebizitzaren jabea berori okupatu izanaren aurka agertu ez izana, Arartekoaren ustez, interes handiko datua da, eskatzaileak betekizunak betetzen dituen ala ez baloratzeko unean. Prestazioa jasotzeko betekizun guztiak betetzen dituzten baina bizileku bat okupatzeko titulu gaitzailea aurkeztu ezin dezaketen pertsonez ari gara, jabearen aurkakotasunik ez dagoenean.

Zentzu horretan, eta ipatu dugun ofiziozko espedientea egin bitartean, Lanbidek adierazi zuen *“en la siguiente revisión de los criterios internos se va a proceder a modificar el criterio al que nos venimos refiriendo, en el sentido de que será de aplicación a todas la personas que acrediten la residencia efectiva mediante título fehaciente o ‘prueba consistente’”,* 2012ko abenduaren 28an Euskadiko Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 991/12 Epaiak jasotzen duenaren arabera.

Duela gutxiago, eta tesi horri lagunduz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera baten ukapena aztertu zuen Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren 2016ko azaroaren 10eko 242/2016 Epaiak. Jabeak bizilekuan bizitzeko baimena eman ez izana zen kontua, baina aipatu epaitegiak ondorioztatu

zuen egokia zela diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea aitortzea, egoitza eraginkorra egiaztatuz gero.

Lanbidek ez dio irizpidea berrikusteari ekin; beraz, arazo horren inguruko kexak jasotzen jarraitzen dugu.

### *5.1.3. Bizikidetza-unitatearen eraketa egiaztatzea; zehazki, polizia-txostenak eta ezkontideen antzeko harremanak*

Diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarrirako eskubidearen eraketan, erdiguneko elementutzat hartzen du abenduaren 23ko 18/2008 Legearen arrazoien azalpenak bizikidetza-unitatea. Hasieratik bertatik, bizikidetza-unitatearen zehaztapena hau dela esaten du: *"...ereduaren oinarrizko osagaietako bat da, horren definizioa erabakigarria baita prestazio bakoitzak eskainiko duen babes-mailarekin".*

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. artikuluan zorrotz jasotzen da bizikidetza-unitateen modalitate posibleen eraketa. Gainera, aipatutako 4. atalak aukera hau aurreikusten du: "*Eusko Jaurlaritzak, bere ekimenez edo beste Administrazio Publiko batzuek proposatuta, bizikidetza-unitate kasu edo suposizio berriak definitu ahal izango ditu gizarte-bilakaeraren arabera, eta bereziki, familia-egiturako ereduen bilakaeraren arabera*". Beraz, ez da zerrenda itxia, eta gaur arte aurreikusi ez diren bizikidetza-unitate berriak sar daitezke.

Ildo berean, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen arrazoien azalpenak berariaz jasotzen du, xedetzat hartuz, hau: *"...kontrol-neurriak jartzen dira, bizikidetza-unitatea osatzeko baldintzak itxuraz formalki bete arren benetan betetzen ez dituztenek prestazioa eskuratu ez dezaten"*, eta hau aurreikusten du abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.4. artikuluak: *"lege honen ondorioetarako, artikulu honetan aipatzen diren bizikidetza egiazkoa edo bizikidetza-eza aztergai izan beharko ditu administrazio eskudunak, kasuaren arabera beharrezkoa denean".*

Bizikidetza-unitatearen eraketa kontrolatzeko zeregin horretan, desadostasun gehien sortu dituen elementuetako bat izan da horien egiaztapena eta horretarako erabiltzen den tresna: bizikidetza egiaztatzeko polizia-txostenak.

Gauzak horrela, bizikidetza existitzen dela egiaztatzeko betekizuna froga da, eta egoera hori arrazoitu duenari dagokio horren zama (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 60. artikulua eta Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 217. artikulua).

Bada, frogarik ez egotea honakoa izango litzateke: *"...por sí solo un argumento de suficiente peso en orden a la anulación de la resolución administrativa"* [Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi Nagusiaren 132/2013 Epaia, apirilaren 15ekoa (Administrazioarekiko Auzien Sala, 2. atala), 4. ZO].

Horretarako, gero eta ohikoagoa da Lanbidek bizikidetza egiaztatzeko polizia-txostenak egiteko eskatzea, prestazioa jasotzen duten edo prestazioa aitortzea eskatu duten pertsonen kasuan.

Bizikidetza egiaztatzeko txostenak tentuz egin beharrekoak dira, gizarteratzea helburu duten prestazio sozialak ere hala diren hein berean, izan ere, horien edukien ondorioak garrantzitsuak izan daitezke.

Egiaztatu ahal izan dugunez, txosten horien irismenak eta garrantziak maiz diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea erabaki dezakete, eta, askotan, diru-laguntza horiek ezinbestekoak izaten dira titularren eta bizikidetza-unitateko kideen oinarrizko beharrei arreta emateko.

Jakitun gara, bizitza pribatua eremu intimoan garatzen denez, zaila dela froga eskuratzea. Hain justu ere horrexegatik, froga zuzenez gain, presuntzioetatik ere ondorioa atera daiteke, frogatutako egitate batetik abiatuta beste egitate bat ondorioztatu ahal denean ziurtasunez, bien artean lotura zehatz eta zuzena baldin badago. Hala ere, behar diren bermeak ematen dituen araubide juridiko baten mende dago bizikidetza egiaztatzeko txostenetan jasotzen den edukia.

Bizikidetza-egiaztapenari buruzko txostenek legezkotasun eta egiazkotasun presuntzioa daukate, autoritatea aitortuta duen funtzionario publiko batek egin baditu. urriaren 1eko 39/2015 Legearen 77.5. artikuluak (azaroaren 26ko 30/1992 Legea, 137.3. artikulua) hau ezartzen du:*"egitateen frogatzat hartuko dira, kontrakoa egiaztatzen ez bada, agintari-kondizioa aitortzen zaien funtzionarioek formalizaturik dauden eta, dagozkien legezko eta betekizunak gorderik, haiek egiaztatutako egitateak jasotzen dituzten dokumentuak".* Era berean, hau jasotzen du urriaren 1eko 39/2015 Legearen 26.1. artikuluak (azaroaren 26ko 30/1992 Legea, 46.4. artikulua): *"administrazio-dokumentu publikotzat joko dira administrazio publikoen organoek baliozko moduan emandako dokumentuak. Administrazio publikoek idatziz emango dituzte administrazio-dokumentuak, bitarteko elektronikoen bidez, non eta haien izaerak ez duen eskatzen adierazteko eta jasota geratzeko beste modu egokiagoren bat aukeratzea".*

Zentzu horretan, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137.3 artikulu aipatua interpretatzeko aukera izan zuen Konstituzio Auzitegiak apirilaren 26ko 76/1990 Epaian (osoko bilkuran), abenduaren 28ko Zergei buruzko 230/1963 Lege Orokorraren 145.3. artikuluaren aurka jarri zen konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoaren harira. Zerga-ikuskaritzak egindako aktak eta eginbideak agiri publikoa diren ala ez jorratzen bazuen ere erreklamazioak, berori aipatzea interesatzen zaigu, Konstituzio Auzitegiak ezartzen baitu azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137.3. artikuluko edukia taxutu behar duen interpretazio-kanona. Horrela, hau adierazi zuen Konstituzio Auzitegiak: *"...ese valor probatorio sólo puede referirse a los hechos comprobados directamente por el funcionario, quedando fuera de su alcance las calificaciones jurídicas, los juicios de valor o las simples opiniones que los inspectores consignen en las actas de diligencia".*

Hortaz, administrazio-agiri publikoa baldin bada erabateko froga-balioa ematen zaio bertan jasotzen den egitate, ekintza nahiz egoerari, dokumentatzea egiten den datari eta fede-emailearen eta, hala badagokio, horretan parte hartzen duten gainerako pertsonen nortasunari. Aitzitik, Konstituzio Auzitegiak adierazi duen bezala, **idazten diren interpretazio eta iritziei ez zaie erabateko froga izaera hedatzen.**

Jurisprudentziak hainbat aldiz jaso du gai hori, eta bizikidetza egiaztatzeko polizia-txostenen balio osoa zehaztu du bertan dagoen edukiaren arabera.

Batzuk aipatzearren, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren abenduaren 28ko 991/2012 Epaiak (Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. atala), bizikidetza egiaztatzeko txostenean baieztapen bakarra zegoenez ezkontideen edo ezkontideen antzeko bizikidetzari buruz, hau balioetsi zuen: *"...sin mejor precisión e información de sus fuentes no son por sí solo suficientes para dar por acreditada la convivencia de ambas personas en el mismo domicilio* (...). *Y el informe policial no deja constancia más que de la convivencia de ambos en una o con relación a una determinada fecha, esto es, una prueba meramente indiciaria del hecho en cuestión* (...). *En definitiva, no se ha acreditado con certeza la integración de XX en la unidad de convivencia de la recurrente"* (2. ZO).

Jarraian, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren uztailaren 8ko 418/2013 Epaiak (Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. atala) hau argudiatu zuen: *"en ocasiones precedentes esta misma Sala y Sección ha puesto de manifiesto el carácter meramente indiciario que pueden ofrecer informaciones policiales como las que el expediente refleja que vienen además adornadas, –en contra de lo que la Administración foral supone–, de una acusada ausencia de detalle acerca de los hechos de propia observación, o de referencia cierta, recogidos por los indeterminados agentes que la suscriben, –folios 42-43–, y se limita a una afirmación apodíctica de la convivencia en dicho domicilio del citado XXX, a la sazón padre de la hija menor de la actora"* (2. ZO).

Horrela, bada, bizikidetzari buruzko txostenak berak xehetasunak falta zituenez, honako hau adieraziz amaitu zuen auzitegiak: *"la consecuencia es que si, en ocasiones, esas informaciones policiales pueden constituir instrumentos útiles para fundar una investigación más contrastada, (propia de las actuaciones cautelares), no pueden erigirse en soporte exclusivo de una medida definitiva de denegación (o extinción del derecho) si a esa falta de precisión se une el potencial indiciario de signo contrario que cabe asimismo atribuir a la concurrencia de actuaciones, incluso públicas, que atestiguarían la ruptura convivencial* (...). *Todo ello, conlleva que la certeza judicial no se produzca en las claves del artículo 217 LEC, al aparecer el fundamento relevante de la denegación como dudoso y altamente controvertido por otros indicios"* (2. ZO).

Gainera, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak berak, otsailaren 14ko 64/2014 Epaian ezarri zuen, bizikidetza-txostenei froga balioa "*iuris tantum*" emateko, txostenak ondorengoa jorratu behar duela: *"...de hechos constatados por los funcionarios..."* (2. ZO).

Eta, epaitutako kasuari dagokionez, hau adieraziz amaitzen du: *"...el informe no describe tal situación sino que lo que describe son conclusiones inferidas de unas actuaciones previas que se omiten pues aparecen descritas por una frase genérica, ambigua, imprecisa, y que desde luego no describe hecho concreto alguno que puedan deducirse razonablemente aquellas conclusiones. El informe se limita a expresar que se han practicado las 'comprobaciones correspondientes'"* (2. ZO).

Beraz, bere ustez, bizikidetza egiaztatzeko txostenaren edukian *"se debería haber descrito cuáles han sido éstas y el resultado que cada una de ellas ha ofrecido para poder así verificar si puede o no deducirse la conclusión última. Tal ausencia de hechos objetivos constatados por los funcionarios impide dotar al informe de valor alguno"* (2. ZO).

Horrela, aurreko doktrina ezarriz, Lanbidek, edonola ere, bere ebazpenak arrazoitu beharko lituzke, txostenetan azaldutako egitateak adieraziz, eta agenteen balorazioei eta interpretazioei baliozkotasuna ematea saihestuz.

Ildo horretan bertan, 2013tik gai horrekin zerikusia duten kexek gora egin dutela ikusi dugu. Kexa askotan, bizileku bateko ohiko egoitza-gabezia zehaztera iritsi zen, edo, are, data batetik aurrera bizileku berean bizi zen pertsonarekin ezkontideen edo ezkontideen antzeko harreman zuela adieraztera.

Are gehiago, 2014ko abenduko irizpideen agiriak berariaz ezartzen du hau: *"no se aceptará que una persona perceptora comparta una cuenta bancaria con otra persona que no esté incluida en su UC. En estos casos se debe hacer un trámite de audiencia para que explique las circunstancias, pero de mantenerse la situación, se tendrá que suspender el expediente por no poder definir la unidad de convivencia"* (9. irizpidea, 11. or.).

Paradoxikoki, 2014ko abenduko irizpideak onartu aurretik, gai horren inguruan mintzatzeko aukera eduki zuen Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak, abenduaren 26ko 215/2014 Epaian. Zehazki, honako hau adieraziz amaitu zuen: *"…pese a que haya una convivencia y dicha arrendadora figure como autorizada en una cuenta bancaria del recurrente, tales datos constituyen meras sospechas insuficientes para dar por acreditado que exista una relación sentimental entre ambos…"* (2. ZO).

Inguruabar berberean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak urtarrilaren 20ko 9/2014 Epaian adierazi zuen, ezkontzazko*more uxorio* bizikidetza egoteko, hau eskatzen dela: *"…concurra una comunidad de vida y de intereses a la manera de unión matrimonial, siendo preciso para apreciar su existencia que se dé una convivencia que reúna las notas de habitualidad, estabilidad y permanencia en el tiempo, con la creación de apariencia similar al conyugal, no siendo suficiente la convivencia esporádica, circunstancial u ocasional, ni tampoco la simple relación afectiva, aunque sea prolongada en el tiempo, sino va acompañada de esa comunidad de vida, con las notas indicadas, que permita asimilarla a la marital"*.

Azaldutakoari erreparatuta, beraz, *more uxorio* harreman edo izatezko harremana dagoela zehaztu ahal izan dadin, ez da nahikoa izango bankuko kontua partekatzen dutela baieztatzea, edo, are, denboran luzatutako errentamendu- edo azpierrentamendu-kontratua egotea ere; izan ere, bi pertsonen artean bizitza- eta interes-komunitatea dagoela egiaztatu beharko da, eta ohikotasun-, egonkortasun- eta iraunkortasun-ezaugarriak bildu beharko ditu komunitate horrek, ezkontideen antzeko harremana sortuz horrela.

Azaldutako guztiagatik, argi dago ezin daitekeela bazter utzi txostenean bertan jasotako edukia diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzeko, eteteko edo

iraungitzeko bezalako erabaki garrantzitsuetan. Hala ere, azaldutakoaren arabera, Lanbidek epai proportzionatua egin behar du txostenen edukiaren inguruan, baliozkotasuna emanez egitateei eta horiek eskuratzeko moduari, eta kasu zehatz bakoitzean neurtuz edukian txertatu diren interpretazioen, balorazioen edo iritzien baliozkotasuna.

### *5.1.4. Atzerritar batekin ezkonduta dauden edo atzerritar batekin ezkontideen antzeko harremana duten eta bananduta bizi diren pertsonak*

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izateko betekizunen artean, bizikidetza-unitatea osatzekoa dago. Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. artikuluan erregulatzen da kontzeptu hori. Berezitasunak eta hainbat modalitate dauzka, familia-harremanen, pentsiodun izatearen edo zaurgarritasun-egoeraren arabera: familia-indarkeriaren biktimak izateagatik, adingabeak ardurapean edukitzeagatik edo beste arrazoi batzuengatik; hala nola, banantzeko izapideak hasi izanagatik eta abar.

Araudiak ezartzen du ezkontza bidez edo ezkontideen antzeko harreman iraunkor baten bidez lotuta dauden pertsonak **elkarrekin bizi behar** direla bizikidetza-unitate bat izateko (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.1.a) artikulua). Immigranteen kasuan, araudiak aurreikusten du bizikidetza-unitate bat izateko betekizuna betetzen dutela bi urtez gehienez ere. Hori horrela izango da senarra/emaztea edo ezkontideen antzeko harreman iraunkor bat duen pertsona Espainian bizi ez den arren (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.1.a) artikulua).

Bi urteko epe hori igarotakoan, senarra/emaztea edo bikotea etxe berean bizi ez bada, ezingo dute diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea berritu.

Aurreikuspen horrek atzerritarrei bakarrik eragiten die. Pertsona nazionalen kasuan, ez badira ezkontidearekin bizi, ez daukate diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubiderik hasieratik bertatik.

Kontua da, askotan, senarra/emaztearekin edo ezkontideen antzeko harreman iraunkor bat duen pertsonarekin ez bizitzeak ez daukala zer ikusirik bikotearen borondatearekin, baizik eta gaur egun zenbait jatorri nazionaletako pertsonek dituzten zailtasunekin, estatuetatik zirkulatzeari, mugak gainditzeari edo jatorrizkoa ez den beste herrialde batean ezartzeari begira.

Atzerritarren Lege Organikoak eta horren garapen-erregelamenduak gidatzen dute Espainiarako sarbidea eta bertako egoitza. Apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak onartzen du Espainian Atzerritarrek dauzkaten Eskubideei eta Askatasunei eta beren Gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua, 2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatu ondoren (apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua, ).

Araudi hori dela-eta, **atzerritarrek Estatuko Administrazio Orokorrari eskatu behar diote Espainian sartzeko, bizitzeko, lan egiteko edo jatorrizko herrialdean bizi den bikotekidearekin elkartzeko baimena.**

Baimen horiek eskuratzeko bete behar diren baldintzak zailak dira lortzen. Oro har, bikotekideetako bat Espainian bizi bada eta bestea jatorrizko herrialdean bizi bada, ez da biek bananduta bizi nahi dutelako. Orokorrean, lehen aipatu dugun araudiarekin dauka zerikusia. Gainera, gerta daiteke *de facto* banandu behar izatea baina izapideen zailtasunaren ondorioz izapidetzea ez burutzea (jatorrizko herrialdeko dokumentazioa aurkeztu behar da, bikotearen etxebizitza ezagutu behar da, etab.).

Azken batean, honen menpe dago jatorrizko herrialdean bizi den bikotekideak familia berriro elkartzeko aukera: legezko zenbait baldintza bete behar dituzte eta dagokion administrazioak berriro elkartzeko baimena eman behar die. Espainian bizi den atzerritarra administrazio-egoera erregularrean egon behar da, eta familiari eusteko behar besteko diru-sarrerak zein bizileku egokia egiaztatu behar ditu (lehen aipatutako apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren 52. artikulua eta hurrengoak). Baldintza horiek betetzea zaila da. Hori dela eta, beste bikotekidearekin berriro elkartzeko baimena eskatu duten bikotekide askok **ez dute lortu**. Praktikan, familia berriro elkartzeko eskatzen duten pertsonak langabezian baldin badaude edo laguntzen titularrak baldin badira, ez dituzte berriro elkartzeko bete beharreko baldintzak betetzen (apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren 54. artikulua).

> *"1. El extranjero que solicite autorización de residencia para la reagrupación de sus familiares deberá adjuntar en el momento de presentar la solicitud de dicha autorización la documentación que acredite que se cuenta con medios económicos suficientes para atender las necesidades de la familia, incluyendo la asistencia sanitaria en el supuesto de no estar cubierta por la Seguridad Social en la cuantía que, con carácter de mínima y referida al momento de solicitud de la autorización, se expresa a continuación, en euros, o su equivalente legal en moneda extranjera, según el número de personas que solicite reagrupar, y teniendo en cuenta además el número de familiares que ya conviven con él en España a su cargo:*
>
> *a) En caso de unidades familiares que incluyan, computando al reagrupante y al llegar a España la persona reagrupada, dos miembros: se exigirá una cantidad que represente mensualmente el 150% del IPREM* (...).
>
> (...)
>
> *4. No serán computables a estos efectos los ingresos provenientes del sistema de asistencia social, pero sí los aportados por el cónyuge o pareja del extranjero reagrupante, así como por otro familiar en línea directa en primer grado, con condición de residente en España y que conviva con éste* (...)*".*

Lanbide, hasiera batean, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.1.a) artikuluaren 4. paragrafoan jasotako aurreikuspen arautzailearen aldeko interpretazioa egiteko prest agertu zen, **diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi edo uka ez dadin**, Estatuko Administrazio Orokorrak ezkontidearekin elkartzeko administrazio-baimena ukatzen duenean, baina diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuraduna izateko gainerako betekizun guztiak betetzen direnean.

Hala ere, **ez da aldeko interpretazio hori ezarri**; izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta nahitaez iraungitzen da bi urtera, lehen azaldutako arrazoien ondoriozkoa izan arren ezkontidearekin elkartzeko ezintasuna. Pertsona nazional baten ezkontidea edo bikotekidea bere jatorrizko herrialdean edo beste estatu batean bizi bada, hasieratik ez da ematen diru-sarrerak bermatzeko errenta (jakina, ezta etxebizitzarako prestazio osagarria ere), betekizunak betetzen ez dituela balioesten baita.

Arartekoak ezagutu dituen egoera larrienen artean, ardurapean adingabeak dauzkaten guraso bakarreko familienak daude. Horrelakoetan, maiatzaren 20ko 147/2010 Dekretuaren 5.2.c) artikulua lehentasunez ezartzea litzateke **aukera**, eta ardurapean adingabeak dituen bizikidetza-unitatea dela ulertzea. Horrela, bizikidetza-unitatea osatzeko betekizuna beteko litzateke. Lanbidek ez du onartu eskubideari eusteko aldeko interpretazio hori.

Arartekoak Lanbideri helarazi dio, egindako zenbait esku-hartzetan, uste duela senar-emazte atzerritarrak familiarekin elkartzeko dituzten zailtasunak hartu beharko liratekeela kontuan.

Kontua da bikotea atzerritarra denean, araudiak ezarritako zenbait baldintza bete behar dituela; hau da, familia berriz elkartzea ez dago familiaren esku, hemengo bikoteen kasuan bezala. Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko akordioan jasotako estatuetako nazionalitaterik ez duten pertsonei Espainian sartu eta bertan bizi ahal izateko baldintzak ezartzen dizkiete bai Atzerritarren Lege Organikoak (aldaketekin), bai Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzko otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuak ere. Ondorioz, zailago bihurtzen da bizikidetza egiaztatzeari buruzko baldintza betetzea.

Arartekoaren ustez, bizikidetza egiaztatzeko eskakizuna, familiarekin elkartzeko eskaera ukatu zaion atzerriko pertsona batekin ezkontideen antzeko harremana duten edo ezkontideen harremana duten pertsonek osatutako bizikidetza-unitateen kasuan, bete ezin duten betekizun bat betetzea eskatzea da, daukaten borondatea eta interesa gorabehera. Gainera, kontuan hartu behar da ahultasun egoeran daudela. Batzuetan, behar besteko bitarte ekonomikoak ez egiaztatzeagatik ukatzen da familiarekin elkartzeko eskaera, eta, hain zuzen ere, bikoteak bitarteko ekonomikorik ez duelako zantzua izaten da hori, eta horrexegatik eskatzen zaie elkarrekin bizi behar izatea prestazioa jaso ahal izateko.

Arartekoak 2015eko maiatzaren 5eko 2015NI-1065-14 Ebazpenean aztertu zuen egoitzagatik nazionalitate espainiarra lortu zuen aljeriar baten egoera.

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa ukatu zion ezkontidearekin ez bizitzeagatik, Aljerian bizi baitzen hura, eta ezin baitzen familiarekin elkartu, horretarako baldintzak betetzen ez zituelako.

Ebazpen horretan ondorioztatu zenez, ezkontideek bizikidetza-unitate bat osatzeko elkarrekin bizitzeko exijentzia, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.1.a) artikuluan aurreikusitakoa, bertokoak atzerriko ezkontidea duen kasuetan, berdintasun-eskubidearen (Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua) aurka doa, eta

diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubide subjektiboa edukirik gabe uzten du (abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 12. artikulua). Lege-aurreikuspen hori aplikatuz, jaiotzez beste estatu batekoa den baina espainiar nazionalitatea duen (eta, kasu honetan gainera, desgaitasuna duen) pertsona bati tratu ezberdina ematen ari zaio beste espainiar batzuen aldean.

Schengen akordioaren parte ez den estatu bateko ezkontidea edukitzeko aukera handiagoa dute pertsona horiek. Hori dela eta, Euskadin elkarrekin bizitzeko irizpide legal zehatz batzuk bete behar dituzte. Era berean, bere ezkontidearekin bizitzeko ezintasunagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa ukatzeak tratu ezberdina ematea dakar, ezkontide edo bikoterik ez duten, baina gizarte-bazterketa egoera berdinean diru-sarrerak bermatzeko errenta lor dezaketen beste pertsonen aldean.

Ustez neutroa den lege-aurreikuspen hori ezartzean lortutako emaitza neurrigabekoa da, subjektiboa den eskubide bat lortzea galarazten duelako (diru-sarrerak bermatzeko errenta lortzekoa, adibidez), oinarrizko beharrei eta gizarteratzeko edo lan prozesutik sortutako gastuei aurre egitea helburu duena.

Bukatzeko, adierazi genuen migrazio-mugimenduek bizikidetza-kasu berriak sortzen ari direla, kexan aipatutako kasuan bezalaxe, non etorkin batek Espainiako nazionalitatea lortu duen, beste nazionalitate bat duen bere ezkontidearekin berriz elkartu aurretik. Hortaz, gure iritziz, Eusko Jaurlaritzak, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.4 artikuluan ezarritako aurreikuspena aplikatuz, berak hala erabakita edo beste herri-administrazioek hala proposatuta, bizikidetza-unitate kasu berriak ezarri beharko lituzke gizartearen garapenari erantzuna emanez, eta, zehazki, familia-egitura ereduen bilakaerari erantzunez.

Arartekoaren ustez, interesgarria da legezko aurreikuspen hori eta horren interpretazioa bikoteen egoeran edukitzen ari den ondorioei buruzko **hausnarketa** proposatzea, estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko akordioaren parte den estatu bateko nazionalitatea ez duenean kideetako batek.

Bertako bikoteen edo aipatutako estatuetako bateko nazionalitatea duten bikoteen egoera oso ezberdina da, zirkulazio askerako eskubideaz gozatzen baitute horiek. Bikotearen kideetako baten jatorria Europar Batasuneko kidea ez den hirugarren estatu batean dagoenean, ezkontideek edo ezkontideen antzeko harremana duten horiek betekizun jakin batzuk bete behar izaten dituzte elkartu ahal izateko, eta betekizun zailak izaten dira. Ondorioz, ezin izaten dute bete araudi horretan elkarrekin bizitzeko ezartzen den betekizuna, eta, beraz, ezin izaten dute diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio ekonomikoa jaso.

Arartekoaren iritziz, betekizunaren interpretazio bermatzaileagoa egin liteke. Horrela, familia elkartzeko eskaera ukatzen denean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izan ahalko litzateke, oinarrizko beharrei aurre egiteko prestazioa baita hori. Edonola ere, bizikidetza-unitate kasu berriak zehaztu ditzake Eusko Jaurlaritzak (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.4. artikulua). Interesgarria litzateke aukera hori aztertzea, bai berdintasun-printzipioa betez, bai justizia materialeko kontua delako.

### 5.1.5. *Egoitza-zentroetan edo tutoretzapeko etxebizitzetan bizi diren pertsonak*

Erakunde honek 2013an egin zuen diagnostikoan adierazi zen oso modu murriztailean ezartzen direla maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.5. eta 6. artikuluak; izan ere, eskaerak ukatzen dira (edo eten edo iraungi), horrelako kasuetan. Horren ondorioz, erakunde honek gogorazi zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta ez dela oinarrizko beharrei lotutako gastuetara bakarrik bideratzen, eta beste gastu batzuetara ere bideratzen dela; hala nola, **gizarteratze-prozesu batetik edo lanean txertatzeko prozesu batetik eratorritako gastuetara.**

Lanbidek aurrera egin du aldekoagoa den interpretazioan, eta, beraz, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea eduki dezakete pertsona horiek. Hala ere, egoitzako ostatu- eta mantenu-beharrei aurre egiteko jasotzen dituzten bestelako laguntzak ere kontuan hartzen dira zenbatekoa kalkulatzeko unean; gizarte-laguntzak, sanitarioak edo soziosanitarioak izaten dira horiek.

Askatasuna gabetzeko zigorra betetzen ari diren pertsonei dagokienez, espetxetik atera daitezke hirugarren graduan daudenak, eta gizarteratzeko eta lanean txertatzeko prozesua has dezakete. Berez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileak izan daitezke. Salbuespena gertatzen da, ordea, Espetxeetako Erregelamendua onartzen duen otsailaren 9ko 190/1996 Errege Dekretuaren 182. artikulua ezartzen denean. Toxikomanietarako tratamendua jasotzen ari diren eta harrera-pisuetan edo komunitate terapeutikoetan dauden pertsonei buruzkoa da hori. Lanbideren ustez, horrelakoetan, tratamendu-fasean dauden bitartean, ezin daitezke prestazioen hartzaileak izan (gizarteratze-fasean daudenean, berriz, bai). Dena dela, bizi-araubidea hirugarren graduko berbera da ondorio guztietan, eta, egoera horretan, hirugarren graduko gainerako modalitateetan diru-sarrerak bermatzeko errenta ematea justifikatzen duten arrazoi berberak daude. Hasieratik bertatik, gizarteratzeari begirako neurrien edo alderdi sozio-hezitzaileekin zein soziolaboralekin zerikusia duten neurrien xede izaten dira pertsona horiek. Ohitura galarazteko tratamendua jasotzeko betebeharra da alde bakarra.

Aurrerapen handia egin da betekizun hori betetzeari dagokionez, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea aitortzen baitzaie establezimendu kolektiboetan bizi direnei (2014ko abenduko irizpideen agiriko 14-18. irizpideak, 13-17. or.). Salbuespenezko kasu batean bakarrik eusten zaio ezarpen zorrotzenari, pertsonak hirugarren graduan daudenean eta Espetxeetako Erregelamenduaren 182. artikulua ezar daitekeenean.

Interesgarria litzateke kasu horietan irizpide berberak ez ezartzeko arrazoien gaineko hausnarketa egitea, ez baitago arrazoirik justifikatzen duenik kolektibo horrek diru-sarrerak bermatzeko errenta ezin eskatu ahal izatea, arretan ez baitago hirugarren graduan dauden besteekiko inolako ezberdintasunik, osagai sanitarioa kenduta. Guztiek dauzkate estalita behar oinarrizkoenak, **baina ez gizarteratze-prozesutik eratorriko gastuak**.

2013ko diagnostiko-txostenean, Auzitegi Gorenaren (Lan Arloko Sala) 2010eko irailaren 29ko eta 2011ko urtarrilaren 17ko Epaiak aipatu genituen. Horietan, oinarrizko beharrak estalita zituzten baina beste gastu batzuk estali gabe zituzten pertsonen egoera jorratzen zen, jasotzen zuten prestazioan kopuru bat

deskontatzeko aukera aurreikusten baitzen (kasu horretan, kotizaziorik gabeko baliaezintasunarena zen prestazioa).

Arartekoaren 2016ko abenduaren 22ko 2016R-564-16 Ebazpenean, gomendio baten xede izan zen kontu hori.

### *5.1.6. Diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungitzea edo berori ez aitortzea, ohiko bizilekua ez den ondasun higiezinen titularrak diren pertsonen kasuan*

Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.c) artikuluak eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3. artikuluak betekizun hauek ezartzen dituzte prestazioaren titularra izateko betekizunen artean: *"ondasun higiezinik ez edukitzea, ohiko etxebizitza izan ezik, betiere etxebizitza horrek aparteko baliorik ez badu, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan".*

Kexak aztertzean egiaztatu da prestazioak ukatu edo iraungi direla aparteko baliorik ez duen ondasun higiezin bat edukitzeagatik (landa-ingurunean lursail bat edukitzeagatik, adibidez), inolako etekinik eman ez eta, merkatuaren egungo egoeragatik, likidaezina izan arren. 2013ko diagnostiko-txostenean (31. or.), arazo hori aipatu zen, horren gainean hausnar zedin eta, ondorioz, hobetu zedin. Hala, adierazi genuen kasu horretan, eta bigarren higiezinaren salmenta burutzea ezinezkoa izanez gero, honako paradoxa honekin topo egiten dugula: dohainik lagatzea edo hirugarren bati dohaintzan ematea izaera ekonomikoa duen eskubide baten ukapentzat jotzen da, eta horrek ere diru-sarrerak bermatzeko errentaren ukapena edo etetea eragin dezake.

Lanbidek irizpide horren interpretazioa malgutu du etxebizitza ez diren eta diru-sarrerarik ez edukitzekotan egokituko litzatekeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren urteko zenbatekoa baino txikiagoa den balioa duten ondasun higiezinen kasuan. Baita, hainbat ondasun higiezin izan arren, horien guztien katastro-balioak lehen adierazitako kopurua gainditzen ez badu ere. Arartekoak ondo baloratzen du araudiaren gaineko interpretazio hori, prestazioa jasotzea ahalbidetzen baitu.

Gainera, betekizun hori salbuestea aurreikusi du Lanbidek, gainokupazio-, bizigarritasun- edo irisgarritasun-arazoak dituen etxebizitza bat jabetzan edukita, alokairuan bizi bada bat. 2014ko abenduko irizpideen agiriko 53. irizpideak (36. eta 37. or.) baldintza zehatz batzuk ezartzen ditu (inguruabarrak egiaztatuko dituen txosten bat egon behar da, Etxebiderena, Etxebideren eskura jarri behar da, edo, bestela, saldu...).

Eskubidea aitortzeari begira, eta aurreko irizpideetan araudiaren aldeko interpretazioa egitea ahalbidetzen duen aurrerapena egin bada ere, segurtasun juridikoaren printzipioa eta gardentasun-printzipioa betez, legezko tresna egokian islatu beharko litzateke araua, oro har ezagut dadin.

### *5.1.7. Prestazioa etetea, justifikatu gabeko gastuak hautemateagatik*

Kexa batzuetan, gehiegizko gastuak hautemateagatik eteten zen prestazioa; izan ere, Lanbideren ustez, ez zeuden justifikatuta (hala nola, objektu batzuk erostea, gimnasiora joatea, mugikorren fakturak edo jatetxe bateko gastuak). Lanbidek

alderdi hori argitu zuen 2014ko abenduko irizpideen agirian, eta gastuaren zenbatekoaren arabera mugatu zituen kasuak. Horren arabera, 200 eurotik gorako gastua bakarrik hartu behar da gastua gehiegizkotzat, heziketarekin zerikusia duen ala ez kontuan hartuta (48. irizpidea, 33. or.). Arartekoak ondo baloratu zuen irizpidea horrela zehaztea. Gainera, ez du kexa gehiago jaso gastu pertsonala zalantzan jartzen duenik eta arrazoi horrengatik diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestaziorako eskubidea eten duenik.

### *5.1.8. Urtebeteko bizikidetza independentea egiaztatzea*

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko eskatzen diren betekizunen artean, behar hau ezartzen du abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.a) artikuluak (azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatzen du lege hori): *"bizikidetza-unitate bat osatzea. Erregelamendu bidez zehaztuko da unitateak zenbat denbora lehenagotik eratua behar duen eta zer salbuespen egon daitezkeen".*

Ildo horretan, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.1. artikuluaren arabera, **eskaera aurkeztu baino urtebete lehenago** eratu behar da bizikidetza-unitatea, araudiak berariaz salbuesten dituen kasuetan izan ezik.

Lanbidek egoki balioesten du aurreko berehalako urtea aipatzen denean ez dela kontuan hartu behar ohiko bizilekua aldatu ote den, bizikidetza-unitatea aldatu den begiratu behar dela baizik.

Dena dela, etxebizitzetan gertatzen diren sartu-irtenek, eta horren ondorioz erroldan ematen diten bajek eta altek, kexa ugari ekartzen dituzten erakunde honetara.

Kasu zehatzetan, Lanbidek uste izaten du familiako kide batek erroldan alta ematen badu arrazoi iragankorren ondorioz (unean-uneko eta salbuespenezko beharrizan-egoera batengatik, adibidez), bizikidetza-unitatearen egitura hausten dela. Horren ondorioz, bizikidetza-unitate horrek diru-sarrerak bermatzeko errenta onartzea eskatzen duenean, *"ez du justifikatzen azken urtean ez dela bizikidetza-unitate hori hautsi"*, eta, beraz, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzen duenak bere familiarena ez den beste bizikidetza-unitate bat aurretik eratu badu ere, bizikidetza-unitatearen hausturatzat hartzen du Lanbidek familiako kide baten aldi baterako egonaldia, eta pertsona horrek bizileku horretatik alde egin eta gero beste urtebete betetzea eskatzen du. Zailtasun bera agertzen da alde egin duen pertsona hori denean prestazioaren eskatzailea.

Arartekoak ez du bat egiten interpretazio horrekin. Familiako kide bat, ordura arte modu independentean bizi izan dena, epe labur batean beste batekin erroldatzea, zeinarekin maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.1.b) artikuluan aurreikusitako loturetako bat duen, ezin daiteke har bizikidetza-unitate nagusiaren egituraren hausturatzat.

Are gehiago, deigarria da horrelako erabakiak hartzea, 2014ko abenduko irizpideen agirian Lanbidek berak balioesten badu honako hau: *"…sí cumplen el requisito del año de constitución de la UC las personas que tienen constituida su unidad de convivencia con anterioridad, pero se ven afectadas por entradas y salidas de su UC de familiares"* (2. irizpidea, 6. or.).

Erakunde honen ustez, zentzuzkoa da araudiak mugaketaren bat aurreikustea, prestazio ekonomikoak eskatzeko xedez seme-alabak familiaren etxetik emantzipatzeari dagokionez, aipatu emantzipazioa ez dadin susta Lanbidek prestazio ekonomikoak ematen dituelako. Alabaina, betekizun horren interpretazioak; hots, aldi labur baterako izan arren pertsona baten bizi-ibilbidearen edozein unetan senide batekin bizitzeko ezintasunaren inguruko interpretazioak [maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.1.b) artikulua], ez du prestazio honekin bat egiten, honela definitzen baitu maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 2.1. artikuluak: *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta aldizkako prestazio ekonomiko bat da, oinarrizko premiei lotutako gastuetarako eta gizarteratzeko eta/edo laneratzeko prozesu batetik eratorritako gastuetarako bideratzen dena, eta gastu horiei aurre egiteko diru-sarrera nahikoak ez dituzten bizikidetza-unitatetan barne hartuta dauden pertsonei zuzendua".*

Erakunde honen ustez, prestazioaren onuraduna izateko eskatzen diren betekizunen interpretazio bermatzaileagoa egitea ahalbidetzen du erregulazioak.

Horregatik, bizikidetza-unitate bereizia eratzeko betekizunari ematen zaion tratuak duen eragina ikusita, ondorioztatu dugu ahal den neurrian hartu beharko liratekeela kontuan kasu bakoitzeko egoera pertsonalak, bere etxean senide bat sartu aurretik bizitza independentea zutela egiaztatzen duten eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko betekizunak betetzen dituzten pertsonak baztertze-egoeran ez uzteko. Arartekoak hainbat ebazpenetan eman du iritzi hori: 2016R-848-15 Ebazpena, Arartekoarena, 2016ko martxoaren 14koa; 2016R-1536-15 Ebazpena, Arartekoarena, 2016ko apirilaren 4koa; eta 2015R-1431-14 Ebazpena, Arartekoarena, 2015eko martxoaren 5ekoa.

Ondorio gisara, aldi batez beste batekin bizitzeak ez du bizikidetza-unitate nagusiaren egituraren eraketa hautsi behar; are gehiago, familia-nukleotik gutxienez urtebete lehenago irten dela egiaztatzen bada. Bestelako edozein kasutan, bizitzaren une batean beharrizan-arrazoiak direla-eta senideekin bizitzen bada, eskaera aurkeztu aurretik urtebetez modu independentean bizi izanaren betekizuna egiaztatu behar da berriro; alabaina, salbuespenezko egoera berean senidea ez den batekin bizitzea erabakitzen bada, ez da betekizun hori bete behar. Beraz, pertsona batzuek betekizuna bete behar dute une batzuetan, eta beste batzuek ez.

Arartekoaren ustez, familiaren etxetik emantzipatu izanaren betekizuna saihestu beharko litzateke, eta **ez litzateke egon beharko berriro ere betekizun hori egiaztatzea eskatzeko aukerarik, aurretik egiaztatu bada.**

Horrelakoetarako, Udaleko Gizarte Zerbitzuek betekizunaren egiaztapenari buruzko txosten bat egiteko aukera aztertzea iradokitzen du Arartekoak.

### *5.1.9. Familia-indarkeriaren biktimek betekizunak betetzeari eragiten dioten kontu batzuk*

Prestazioa jaso ahal izateko araubide aldekoagoa aurreikusten du araudiak familia-indarkeria jasan dutenentzat. Horrela, ez dute aurretik gutxienez urtebeteko bizikidetza-unitatea eratu behar; urtebeteko errolda eta bizileku eraginkorra baino ez dituzte egiaztatu behar, 23 urtetik beherakoak izan daitezke, eta ez dira etekin

jakin batzuk kontuan hartzen, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.2. eta 16. artikuluekin eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.2.b), 9. eta 21. artikuluekin bat eginez.

Lehenik eta behin, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen garapen arautzailea nabarmendu nahi du erakunde honek, gauzatu egin baita. Bertan, babesteko egoeratzat aurreikusten da familia-indarkeriaren biktimen egoera (9.2. eta 16. artikuluak). Lege horrek garatzen duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.2.b) artikuluan, familia-indarkeriaren biktima izandako pertsonak aipatzen dira. Hala ere, 29.1.c) artikuluan aurreikusten da dokumentazioa aurkeztu behar dela, egoera egiaztatze aldera, genero-indarkeriaren biktimei dagokienez. Dokumentu hauek adierazten dira: indarrean dagoen urruntze-agindua, epai irmoa edo Fiskaltzaren txostena.

Jaso diren kexetako batzuetan adierazi da pertsona horiek ezin zutela eskatutako dokumentazioa aurkeztu, baina Gizarte Zerbitzuen arreta jasotzen ari zirela egiazta zezaketela, eta, zenbaitetan, genero-indarkeriaren biktimentzako ostatu-baliabideetan jasotzen zutela arreta hori. Hala, pertsona horiek arazo horretarako bideratutako baliabideak baliatzen ari ziren.

Salaketarik ez jartzeko arrazoiak zentzuzko azalpenekin azal daitezke, egiaztatu ahal izan bezala; adibidez, erakunde honek izapidetu zuen kexa-espediente batean, beste estatu batean gertatu zen indarkeriazko gertakizuna, eta, salaketa penala egon zen arren, artxibatu egin zen, besteren artean, jurisdikzio kontuengatik. Horrek argi erakusten du batzuetan ezinezkoa izaten dela betekizuna aipatu dokumentazioarekin betetzea, indarkeriazko gertakaria gertatu arren.

Arartekoak Lanbideri genero-indarkeriaren biktima-izaera beste froga-baliabide batzuen bidez egiaztatu dela-eta sortutako gogoetak helarazi dizkionean, Lanbidek erakunde honi erantzun dio maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 29.1.c) artikuluaren aurreikuspena aplikatu duela, baita Genero-indarkeriaren aurka Oso-Osoko Babesa Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa ere.

Arartekoak uste du familia- zein genero-indarkeriaren biktima-izaera beste dokumentu batzuen bidez egiaztatzea ahalbidetzen duela araudiak; Gizarte Zerbitzuen txosten baten bidez, adibidez. Interpretazio horrek bat egiten du beste zerbitzu publiko batzuk gauzatzen ari diren jarduerarekin; izan ere, horietan, ez da beharrezkoa izaten indarrean dagoen urruntze-agindua, epai irmoa edo Fiskaltzaren txostena aurkeztea genero-indarkeriaren biktima-izaera egiaztatzeko. Gainera, paradoxa bat dago: pertsona batek euskal herri-administrazioek kudeatzen dituzten zerbitzu publiko desberdinak balia ditzake genero-indarkeriaren biktima gisa, bai eta babes ofizialeko etxebizitza ere (Enplegu eta Gizarte-politika Sailak kudeatzen zuen zerbitzu publikoa), baina ezin du izaera hori Lanbideren aurrean egiaztatu diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa emateko.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren 2006ko urriaren 4ko Aginduaren 3.2. artikulua aplikatuz, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitzaren arloan ekintza positiboen inguruko neurriak hartzeari buruzkoa, *"halaber, genero-indarkeriaren biktima izatea egiazta daiteke oinarrizko gizarte-zerbitzuen edo zerbitzu espezializatuen txostena aurkeztuz gero, genero-*

*indarkeriaren gertakariak izan direla ziurtatuz. Interesdunak Agindu honetan aurreikusitako ekintza positiboko neurriak aplikatzeko eskaera egin aurreko segidako bi urtetan egina izan behar du txostenak, eta txostena egin duen erakundeak idatzitako banakako arreta-plana hartu behar du barnean, emakume horiei zuzendutako laguntzak zehaztuz".*

Arartekoaren iritziz, Lanbidek kontuan hartu beharko luke zerbitzu publiko batek familia- edo genero-indarkeriaren biktimaren izaera baloratzea eta zerbitzu espezializatuek arreta ematea, justifika daitezkeen arrazoiengatik indarreko urruntze-agindurik, Fiskaltzaren txostenik edo epai irmorik ez dagoen kasuetan, **genero-indarkeriaren biktimaren egoera gizarte-txosten batekin objektibatua izan delako.**

Erakunde honek jakin izan du etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioaren Segimendu Batzarraren Erakunde Arteko Talde Teknikotik adierazitako konpromisoa onartu egin dela, araudia aldatzeko proposamenari dagokionez. Hala, aldaketa hori egingo da **etorkizunean** genero-indarkeriaren biktimaren izaera gizarte-txosten baten bidez egiaztatu ahal izateko.

Proposamen hori oso positiboki baloratu da; hala ere, Arartekoak uste du **oraingo lege-esparruak prestazioa jasotzea ahalbidetzen duela araudi hori aldatu arte itxaron behar gabe.**

Maiatzaren 15eko 147/2010 Dekretuaren 29. artikuluak, 1.c) atalean, babes-agindua edo Fiskaltzaren txostena aurkeztea aurreikusten du. Hala ere, artikulu berean, l) atalean, eskatzaileak espedientera gehitu nahi dituen dokumentuen aurkezpena aurreikusi da. Era berean, m) atalean beste dokumentu batzuen aurkezpena aurreikusten da, administrazioak eskatu nahi dituenak, betekizunak betetzen direla egiaztatze aldera.

Zentzu horretan, Lanbidek familia- edo genero-indarkeriaren biktimaren izaera balora dezake, aurkezten diren gizarte-zerbitzuen txostenak aztertu ostean. Horretaz gain, arreta ematen dioten herri-administrazioei eskatu ahal die txosten espezifiko bat eta, hori aztertu ostean, familia- edo genero-indarkeriaren biktimaren izaera egiaztatzen dela jo.

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak familia-indarkeriaren biktimentzako araubide berezia aitortzen du; 9.2.b) artikuluan batetik, bizikidetza-unitatea erregulatzen duenean, eta 16. artikuluan bestetik, eskubidearen titularrek bildu behar dituzten betekizunak ezartzen dituenean. Aurreikuspenen artean, ez da azaltzen baldintza hori egiaztatzeko modua, baina araudiaren garapenean betekizunak egiaztatzeko aurkez daitezkeen dokumentu guztiak adierazi dira, **nahiz eta ez den zerrenda itxi bat.**

Genero-indarkeriaren inguruko beste arazo batzuekin lotutako kexak izapidetzean egiaztatu da Lanbideko bulegoetatik maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 29. artikuluan aurreikusten diren bestelako dokumentu batzuk eskatu direla, Lanbidek dituen egiaztatzeko ahalmenak gauzatuz.

Erakunde honen ustez, lege horren interpretazio sistemikoa egitean, 29.1 artikuluaren c) atala l) eta m) atalekin lotzean, uler daiteke pertsona horrek babes-agindua badauka genero-indarkeriaren biktima dela egiaztatzen duela; hala ere, interesdunak aurkeztutako beste dokumentu batzuekin edo Lanbidek beste herri-administrazio batzuei eskatzen dien txostenen bidez egiaztatu ahal dela uler daiteke. **Aukera hori maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 29. artikuluan aurreikusten da, zeinak bat egiten duen abenduaren 23ko 18/2008 Legearekin**.

Arartekoaren iritziz, Lanbidek kontuan hartu beharko luke tratu txarrak epaitegietan ez salatzeko arrazoien azalpena, bai diru-sarrerak bermatzeko errenta emateko unean, bai familia-indarkeriaren biktimei bizikidetza-unitate bereziaren inguruko aurreikuspena ezartzeko unean. Azalpen hori objektibatu ahal izateko, egokia litzateke beste zerbitzu publiko batzuen laguntza eskatzea; horrela, genero-indarkeriaren biktima den emakume bat artatzen ari den zerbitzu publiko batek txosten bat egiten badu, Lanbidek kontuan hartu beharko luke hori eta arreta berezia eman.

Edonola ere, zaurgarritasun-egoerak dira, eta, beraz, protagonismo handiagoa eduki beharko lukete emakume horiei arreta ematen dieten Gizarte Zerbitzuek. Hortaz, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta berezia emateko protokoloa egin liteke, non, aurreikusten den bezala, erreferentziazko pertsona adieraziko litzatekeen (tutorea), eta kontuan hartuko litzatekeen beste zerbitzu publiko batzuen jarduna eta horien iritzia, prestazioen hartzaile izateko betekizunak betetzeari begira.

Azkenik, familia-indarkeriaren biktimei eragiten dieten beste aurreikuspen batzuei dagokienez, betekizun batzuk eskatzeak ekartzen dituen zailtasunen berri eman diote gizarte-erakunde batzuek erakunde honi (hala nola, dibortzioaren eta gurasotasun-neurrien demanda judiziala formulatzea, edo, jabetzako etxebizitzan bizi ezean, alokairuaren diru-sarrerak edukitzeko betebeharra). Erakunde honen ustez, hausnarketen eta balorazioen xede izan beharko lirateke betekizun horiek, egoera espezifiko hauek duten sentikortasuna eta zaurgarritasuna dela-eta.

### *5.1.10._Langile autonomoei eragiten dieten kontu batzuk*

Idatz-zati honen barruan, norberaren konturako langileen edo langile autonomoen taldeari modu berezian eragiten dioten bi arazo bereizi ditzakegu.

Batetik, **diru-sarrerak bermatzeko errenta laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren modalitatean iraungitzea**, eta, bestetik, krisi ekonomikoaren ondorioz edo beste arrazoi batzuengatik beren diru-sarreretan beherakada izan duten eta **jarduera uztea** erabakitzen duten langile autonomoek egindako prestazio-eskaerak ukatzea.

Hizpide dugun kasua bezalakoetan, Lanbidek prestazioak iraungi edo ukatu izan ditu, eta urtebetez eskatzea debekatu izan du maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko 12.3 artikuluaren itzalpean (enplegu batean borondatezko baja ematea), erakunde horrek onartutako eta "2014ko abenduko irizpideen agirian jasotako irizpideei jarraikiz interpretatuta.

Zehazkiago, dokumentu horren 33. irizpideak hau ezartzen du: *"a la hora de valorar el cese de la actividad por motivos económicos analizaremos el resultado de la*

*actividad. Si el resultado previo a la baja en autónomos fuese positivo, es decir, si declarasen beneficios (ingresos – gastos > 0) se considerará que la baja ha sido voluntaria por lo que no tendrá derecho a la prestación durante un año"* (25. or.).

Interpretazio hori aplikatzearen ondorioz, esan dugun moduan, etekina oso txikia delako jarduera uzten den kasuetan, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi edo ukatu egiten da. Erakunde hau ez dator bat interpretazio horrekin.

Ulertzen dugu autonomo-erregimenean baja eman ondoren prestazioa iraungitzeak edo ukatzeak legeari gehiago lotzen zaion interpretazioa eskatzen duela.

Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen arrazoien azalpenak diru-sarrerak bermatzeko errenta honako eskubide hau dela xedatzen du: *"Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortuko zaiela behar beste baliabide ekonomiko ez dutenei, nahiz eta arazo bakarra hori izan, hau da, beren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gutxieneko diru-sarrerak izatera ez iristea; gerta liteke pertsona horiek gizarte-bazterkeriarik ez jasatea eta, horren ondorioz, gizarteratzeko bestelako laguntzen premiarik ez izatea"*.

Kasu zehatz batzuetan, gerta daiteke jarduerak etekinen bat ekartzea, baina, hala ere, etekin hori nahikoa ez izatea *"bizikidetza-unitateko kide guztien oinarrizko premiei aurre egiteko"* [abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.1.a) artikulua].

Hori dela-eta, gure ustez, abenduaren 23ko **18/2008 Legearen interpretazio egokiagoa litzateke, etekinak egotea alde batera utzita, jasotako diru-sarrerak oinarrizko premiei aurre egiteko** nahikoak diren ala ez aztertzea, euro bateko edo gehiagoko irabaziak dauden gorabehera.

Horri dagokionez, azpimarratu behar dugu, baita ere, azaldutakoa bezalako kasuetan Lanbideren bulegoei egokitu zaien **informazio-eginkizun garrantzitsua**; izan ere, eskubidea aitortzeko eskatzen dutenei, zein dagoeneko prestazioak jasotzen dituztenei, irabaziak gutxi direnean **autonomoen araubidean baja hartzeak izan ditzakeen ondorioak** jakinarazteko eginkizuna daukate, baita kasu horietan lanaren diru-sarrerak osatzeko errenta eskatzeko daukaten aukera azaltzeko eginkizuna ere.

Lanbidek maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 16.3. artikulua sistematikoki aplikatzearekin dauka zerikusia langile autonomoen taldeari eragiten dion bigarren arazo espezifikoak; izan ere, **fikziozko gutxieneko etekina egozten die profesional autonomo guztiei,** aurretiazko zerga-aitorpena eduki ala ez, eta, ondorioz, jasotzen duten prestazio osagarriaren zenbatekoa murrizten du.

Aipatu 16. artikuluaren 2. atalak dioenez, *"hileko etekin garbiak zenbatekoak diren jakiteko, honako eragiketa hau egingo da: zerga-aitorpenaren azken ekitaldiko etekin garbiak zeintzuk diren jakiteko aurreko paragrafoan aipatutako eragiketa egin, eta kopuru hori aitorpenaren erreferentziako hilabete kopuruagatik zatitu".*

Alabaina, aurreko ekitaldiko PFEZren aitorpena eduki arren, artikulu beraren 3. atalean jasotako aurreikuspenak ezartzen ditu Lanbidek oro har, zeintzuen arabera:

*"Aldez aurretik egindako zerga-aitorpenik ez izanez gero, zinpeko aitorpen bat egingo da, azken hiru hilabeteetan batez beste lortutako diru-sarrerak zenbatekoak izan diren jakiteko.*

*Hileko irabazi garbiak batez beste lanbidearteko gutxieneko soldataren %150 baino gutxiagokoak direla dioen zinpeko aitorpena egiten baldin bada, edo inolako diru-sarrerarik ez dagoela edo negatiboak direla esaten baldin bada, aitorpena osorik onartuko da, honako kasu hauetan:*

*a) Norberaren konturako jarduera eskaeraren aurreko sei hilabeteetan hasi baldin bada.*

*b) Eskaeraren aurreko sei hilabeteetan jardueran krisi-egoera bat dagoela ikusi denean.*

*Gainontzeko kasuetan, hilero gutxieneko diru-sarrera batzuk izan direla uste izango da, eta kopuru hori lanbidearteko gutxieneko soldataren %75 bestekoa izango da, baldin eta adierazi diren a) eta b) egoerak aldez aurretik gertatu baldin badira, 6 hilabetetik 18 hilabetera arteko tartean; gutxienez 18 hilabete baino lehenago gertatu badira, sarrerak lanbidearteko gutxieneko diru-sarreraren %150 izan direla ulertuko da".*

Honako hau da horren ondorio zuzena: titularraren aurretiazko zerga-aitorpena eduki arren, hortik eratortzen den etekina lanbidearteko gutxieneko diru-sarreren %75etik beherakoa bada, Lanbidek, besterik adierazi ezean, horixe egozten du, urteko lehen seihilekoan aurreko urteko zerga-aitorpena oraindik ez duelako aitzakiapean.

Hala ere, komeni da adieraztea aipatu agindua urteaz mintzatzen dela, eta ez ekitaldiaz, eta, hortaz, ez dela egokia ekitaldi bakoitzeko lehenengo sei hilabeteetan fikziozko etekina sistematikoki egoztea, interesdunak azken aitorpena aurkeztu badu dagoeneko. Horrek ez du eragozten, hala ere, abian den ekitaldiko zerga-aitorpena aurkeztu ostean, Lanbidek prestazioaren zenbatekoa doitzea, bertan jasotzen diren datuetatik abiatuta.

Norberaren konturako langileak garatutako jardueraren benetako etekina zehazteko xedez, BEZaren eta PFEZren hiru hilez behingo aitorpenak ere erabil ditzake Lanbidek, bai eta galeren eta irabazien kontuaren behin-behineko exekuzioa ere, kontabilitate-fikzio juridiko huts batera jo beharrik gabe, adierazi dugun bezala, gehienetan ez baitu errealitatearekin bat egiten, eta zaurgarritasun-egoera argian uzten baitu prestazioen eskatzailea.

Laburbilduz, Lanbidek titularraren aurreko zerga-aitorpena ez duenean bakarrik da egokia maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 16.3. artikuluaren bigarren paragrafora jotzea, prestazioak eskatzen dituen langile autonomoaren jardueraren fikziozko etekina egozteko. Hortaz, hobetzeko tartea dago Lanbidek eremu horretan erabiltzen dituen irizpideen ezarpenean.

### *5.1.11._Guraso bat hilda duten eta bestearen abandonua jaso duten gazteak*

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak 23 urtetik gorakoa izateko beharra ezartzen du diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzailea izan ahal izateko betekizunen artean. 18 urtetik gorako eta 23 urtetik beherako pertsonen kasuan, umezurtza amaren eta aitaren aldetik izatea eskatzen du, bizirik dagoen gurasoak seme-alaba abandonatu duen aintzat hartu gabe. Araudiak ez du aurreikusten gurasoetako bat hilda duten eta bestearen abandonua jaso duten umezurtzen egoera, eta, beraz, egoera hori jasaten duten eta 18 eta 23 urte artean dabiltzan gazteak ez daude behar bezala babestuta (Gizarte Segurantzaren familia-prestazioak erregulatzen dituen araudiak kontuan hartzen du gurasoen abandonua). Arartekoaren ustez, Lanbidek baloratu beharko lukeen eta legegileak kontuan hartu beharko lukeen zaurgarritasun-egoera da azaldutakoa, Arartekoaren 2015eko uztailaren 7ko 2015S-1213-14 Ebazpenean adierazi genuen bezala.

### *5.1.12._Semea edo alaba ardurapean edukitzeagatik Gizarte Segurantzaren prestazioa jasotzen duten eta diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzen duten pertsonak*

Arartekoak kexa eta kontsulta ugari jaso zituen partikularrengandik zein erakundeetatik. Horien bidez, kexagileek desadostasuna adierazi zuten Lanbidek 18 urte bete dituzten eta %65eko edo hortik gorako urritasuna duten pertsonei ematen dien tratuarekin; pertsona horiek seme-alabak ardurapean edukitzeagatiko prestazioaren eragileak dira, baina ez titularrak.

Lanbidek seme-alabaren baten ardura izateagatik prestazioa jasotzen dutenak umezurtzak diren kasuetan soilik jotzen ditu pentsiodunen bizikidetza-unitatetzat, bai prestazioaren titularrak direnean, bai titularrak ez direnean, legez ezgaituak daudelako.

Erakunde honek esku hartu du gurasoekin bizi diren eta urritasunen bat duten pertsonei eragiten dien arazo baten inguruan, gurasoek urritasun handia duten seme-alabak ardurapean edukitzeagatiko prestazioa jasotzen duten kasuan. Azken urteetan, beren gizarte-babesa murriztu egin dela ikusi dute pertsona horiek.

Enplegu eta Gizarte Politika Sailak, hasiera batean, prestazio horren eragileak diren pertsonak eta pentsiodunak parekatu zituen, jasotzen zuten prestazioa diru-sarrerak bermatzeko errentarekin osatu ahal izateari begira, **lanbidearteko gutxieneko diru-sarrera bermatuta eduki arte** dagokion zatian, gainerako pentsiodunekin gertatzen den bezala, pentsioa osatzen baitie lanbidearteko gutxieneko diru-sarrera osatu arte, beraiekin bizi diren senideek lanagatik jasotzen dituzten diru-sarrerak edozein izanda ere.

Gero, irizpidea aldatu du, eta aipatu osagarria iraungitzen ari da; izan ere, bere ustez, ez da talde babesgabea, bizikidetza-unitateko beste kideek diru-sarrerak badituzte. Beraz, **tratu desberdina** ematen die horiei, gainerako pentsiodunekin alderatuz gero, kontua zera baita, azken horien inguruan balioesten duela beraiekin bizi diren senideena ez den bizikidetza-unitate independentea eratzen dutela, eta ez ditu kontuan hartzen kide horien diru-sarrerak.

Erakunde honek, ordea, pentsatzen jarraitzen du talde zaurgarria dela, eta Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa eskatzen duela horrek. Nazio Batuek eta Europar Batasunak (*Estrategia Europea sobre Discapacidad 2010-2020,* 2010) eskatzen dutenez, ahalegin handiagoa egin behar da bizi-baldintza duinak bermatze aldera, oinarrizko gizarte-babesaren bidez. Norberaren gutxieneko diru-sarrerak edukitzea horretako baldintza da.

Arartekoak Arartekoaren 2015eko uztailaren 21eko 2015R-777-14 Ebazpena egin zuen, eta, bertan, pertsona horiek berezko bizikidetza-unitatetzat hartzea eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren pentsioak osatzeko modalitatearen etete- eta iraungitze- prozedurak berrikustea gomendatzen dio Eusko Jaurlaritzari, ez delako egoera-aldaketarik egon hura aitortu zenetik eta ez direlako eskubideak aitortzen dituzten administrazio-egintzak berrikusteko ezarritako aurreikuspenak bete (azaroaren 26ko 30/1992 Lege **indargabetuaren** 102-106. artikuluak).

Lanbidek, batetik, ebazpen horretan jasotako gomendioei arreta ematea egokia ez dela erantzun du. Izan ere, zenbait arrazoiren artean, uste du laguntza hori ezgaitasun jakin baten zama eramateko baliatzen dela, tradizionalki *familia-nukleoa* izenekoarentzat dena –gurasoek eta seme-alabek osatutakoa–, lotzen dituzten guraso eta seme-alaben arteko harreman estuaren arabera, diru-sarrerak eta gastuak partekatzen dituzten bizikidetza-unitatetzat jo behar dira. Horregatik, bizikidetza-unitate horretako kide guztien ondarea eta diru-sarrerak zenbatu behar dira. Bestetik, prestazio horiek ofizioz eten edo iraungi ez direla jakinarazi du. Prestazioa berritzeko edo berrikusteko prozedura berriei ezarri zaie irizpide berri hori. Gainera, adierazi duenez, ez dira hasi bidegabe jasotako prestazioen itzulketa-prozedurak, eta erakunde honek ondo baloratu du hori.

Arartekoak errepikatu egin dio Lanbideri kolektibo hori babestearen alde dagoela. Ez dugu uste seme-alabak ardurapean edukitzeagatiko prestazioa ezberdina denik; izan ere, legegileak familia izaerako prestazioen artean jaso badu ere, kasu askotan lan-merkatuan sartzeko aukera edukitzea eragotzi dien ezgaitasunen bat duten pertsonei laguntza ematea du xede. Kontuan hartzen zen prestazioa jasotzen duten pertsona ezgaituek gurasoen laguntza izaten dutela kasu gehienetan, eta gurasoek laguntzen ez badiete, oro har, ordaindutakoaren araberakoa ez den elbarritasun-pentsioa jaso dezaketela. Alabaina, egia ere bada abenduaren 23ko 18/2008 Legearen ondorioetarako pentsiodunak diren eta gurasoen laguntza ere jasotzen duten pertsonak daudela; elbarritasun erabatekoa duten pentsiodunak, adibidez.

## 5.2. Ezohiko diru-sarrerei buruzko aurreikuspenaren interpretazioa, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20. art.

Aurreikuspen hori ezartzean, zenbait kontzeptu zenbatzen dira (diru-sarrerak, adibidez), eta, ondorioz, diru-sarrerak bermatzeko errentan jasotzen den kopurua aldatzen da, edo prestazioa iraungitzen da. Arartekoak ez du bat egiten Lanbide kasu batzuetan egiten ari den interpretazioarekin.

### *5.2.1. Ezohiko diru-sarrera eta mailegu bat formalizatzea*

2013ko diagnostiko-txostenean (34. or.), zalantzan jartzen zen Lanbideren interpretazioa, zeinaren arabera, *"…la formalización de un préstamo con una*

*entidad financiera se consideraba como si fuera un ingreso atípico, art. 20.3.f) del Decreto 147/2010, de 25 de mayo".* Artikulu beraren 1. atala ezartzea zekarren horrek, eta, ondorioz, zenbateko hori zenbatzen zen hurrengo hirurogei hilabeteetan. Arartekoaren ustez, –itzuli behar den– mailegu bat eta itzuli behar **ez** den diru-sarrera bat (hala nola, loteria, dohaintza edo jasotako herentzia) **ez dira berdinak.** Gure ustean, bi diru-sarrera mota horiek ez dira konparagarriak, eta, beraz, tratu ezberdina merezi dute. Gogoeta horrek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaerei zein prestazioaren titularrei eta onuradunei eragiten zien. Azken kasu horretan, mailegua formalizatzeak prestazioa etetea dakar, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzultzea edo Lanbidek abonatu beharreko diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa berriro kalkulatzea.

Lanbidek irizpidea aldatu du, eta ez ditu ezohiko diru-sarreratzat hartzen **diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzailea izan aurretik eskatutako** mailegu pertsonalak. Erakunde honek begi onez ikusten du hori. Jaso gabeko prestazioren ondoriozko kopurua zuten espedienteetan Lanbidek abonua egin behar izatea ekarri du irizpide-aldaketa horrek. Lanbidek hasiera batean jakinarazi zigun, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 56.2. artikulua ezarriz, eskubidea iraungi osteko urtebeteari zegokion kopurua bakarrik abonatuko zuela. Gero adierazi du, irizpide-aldaketa egin ondoren, ez duela inolako kopururik abonatuko. Arartekoaren iritziz, Lanbide gaizki ari zen interpretatzen araudia, eta interpretazio horrek ez zukeen inolako ondoriorik eduki beharko. Zentzu horretan, mailegu bat edukitzea eta diru-sarrerak edukitzea berdindu ostean pertsonei abonatzeari utzitako kopuruak itzuli beharko lituzke.

Ondo baloratzen dugu geroko interpretazio- eta irizpide-aldaketa, eta aipatu irizpidearen ezarpena zalantzan zuten espedienteak berrikustea ekarri beharko luke horrek, bai eta zordundutako prestazioen kalkulu berria egitea eta kopuruak abonatzea ere. Lanbidek erakunde honi erantzun dio espediente berriei bakarrik eragiten diela irizpide-aldaketak.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso bitartean eskatutako maileguei dagokienez, mailegua ezohiko diru-sarreratzat hartzen jarraitzen du Lanbidek.

Erakunde honek ez du bat egiten interpretazio horrekin, Lanbideri ebazpen hauetan adierazi izan zion bezala: 2015R-976-15 Ebazpena, Arartekoarena, 2015eko abenduaren 29koa; 2015R-546-14 Ebazpena, Arartekoarena, 2015eko uztailaren 3koa, eta, berriena, 2016R-1192-16 Ebazpena, Arartekoarena, 2016ko azaroaren 30ekoa.

Lanbidek interpretatu du mailegu bat ezohiko diru-sarrera dela, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa jasotzen dutenek jasotzen dituzten diru-sarrerak zenbatzerakoan ezarritako aurreikuspenak ezarri dizkio (maiatzaren 25ek 147/2010 Dekretuaren 20. artikulua).

Zentzu honetan, kreditu bat ezohiko diru-sarrera gisa ulertzen du. Beraz, horiek erabili ahal izan diren egunaren ondorengo hirurogei hilabeteetan, sariaren guztizko zenbatekoa zati hirurogeiren baliokide diren hileroko diru-sarrera gisa konputatuko dira maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20.1 artikuluaren arabera. Lege aurreikuspen horren 3. paragrafoan ezohiko diru-sarrerak zerrendatu dira:

*"a) Edozein motatako kalte-ordainak.*

*b) Elikagaien eta konpentsazio-pentsioen eskubide gisa jasotako atzerapenak, jaso behar ez zirela jasotako prestazioengatik itzuli behar ez diren zenbatekoan.*

*c) Jaraunspenak eta legatuak.*

*d) Dohaintzak.*

*e) Ondarea saltzeagatik sortutako eta ohiko etxebizitzan inbertitu gabeko baliabideak".*

3.f) atalean, honela definitzen da ezohiko diru-sarrera: *"Aurreko ataletan bildu ez diren gainerako diru-sarrerak, erregularrak ez direnak edo bizikidetza-unitateko edozein kidek salbuespen gisa lortu dituenak"*.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak ez ditu maileguak literalki aipatzen, "gainerako diru-sarrerak" baizik. Horien artean pertsona prestazioaren onuraduna den bitartean sinatzen diren maileguak sartzea hedapenezko interpretazioa da, legezko euskarri egokirik ez duena.

Mailegu-kontratutzat jotzen da, Kode Zibilaren 1740. artikuluaren arabera, hau: *"Mailegu-kontratuaren bidez, alderdi batek besteari ematen dio gauza suntsiezin bat, horrek epe zehatzean gauza erabil dezan, eta, ondoren, berari itzul diezaion; kontratu horri komodatu deritzo. Edo, bestela, dirua edo beste gauza suntsikorren bat eman daiteke, horren espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko baldintzapean; kasu horretan, kontratuak mailegu izenari eusten dio soil-soilik...".*

Mailegu hutsa Kode Zibilaren 1753. eta hurrengo artikuluetan arautzen da.

Kontratu horren ezaugarri nagusia itzultzeko betebeharra da, Kode Zibilaren 1753. artikulutik ondorioztatu daitekeen bezala: *"Norbaitek dirua edo beste gauza suntsikorren bat maileguan hartzen badu, horren gaineko jabetza eskuratzen du, eta betebeharra du, hartzekodunari horren espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko".*

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20. artikuluak aurreikusten dituen kasuak errekurtso ekonomiko berriak jasotzen diren horiek dira, baina pentsio, legatu, herentzia edo salmenta baten produktua jasotzeak dakarren betebeharrak eta mailegu bat sinatzetik sortutako betebeharrak oso ezberdinak dira. Azken kasu horretan, negozio juridikoa aurrekoen ezberdina da betebeharra existitzen delako, hain zuzen, hartzekodunari espezie eta kalitate berdinekoa den beste itzultzeko betebeharra.

Gainera, ohikoena da maileguak interesak itzultzeko betebeharra sortzea.

Printzipala eta interesak itzultzeko betebeharra mailegu bat sinatzearen berezko elementua da. Modu horretan, mailegu bat eskatzean, diruaren edo gauza suntsikorraren jabetza eskuratu arren, hura itzultzeko betebeharra ere hartzen dela argi eduki behar da, Kode Zibilaren 1753 artikuluak xedatzen duen moduan. Era

berean, hori ez itzultzeak dakartzan ondorioak ere ezagutu beharra dago, sortutako zorrean errekargua ekarri ohi baitu.

Diru-sarrerak bermatzeko prestazio baten titularrak (diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak, adibidez) mailegu bat gauzatzea ez da ohiko kontua; izan ere, gizarte-bazterketarako arriskuan edo gizarte-bazterketan dauden pertsonei bideratutako prestazioa da. Ildo horretan, betekizunak galdu direlako edo betebeharrak bete ez direlako zantzua izan daiteke. Arartekoaren ustez, mailegu bat dagoela hautematen denean, xede "ikuskatzailearekin" berrikusi beharko litzateke espedientea, eta, dagokion ikerketa egin ostean, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea aitortzeko edo horri eusteko behar den legezko aurreikuspenen bat bete ez den baloratu beharko litzateke.

Amaitzeko, legezko euskarri egokirik ez duen ondorioa da mailegua ezohiko diru-sarreratzat hartzea.

### *5.2.2. Arauzko aurreikuspen horren interpretazioari eragiten dioten beste kontu batzuk*

Agindu horren interpretazioari eragiten dioten kexak izapidetu ditu erakunde honek; zehazki, biziarteko gozamenaren mende dagoen ondasun higiezin bat herentzian onartzeari dagokionez.

Ondarea zehazteko aurreikusi diren arauekin baloratzen du Lanbidek herentzia (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 24. artikulua), eta, bere ustez, ezohiko diru-sarrera da, eta, beraz, 20. artikuluan jasotako aurreikuspena ezartzen du. Ondorioz, hurrengo 60 hilabeteetan zehar zenbatzen du eragiketa horren ondoriozko kopurua. Prestazioaren eskaera ukatzea edo horren zenbatekoa murriztea ekarri du horrek; batzuetan, zenbateko handia izan delarik. Beste batzuetan, prestazioa iraungi du.

Egikaritze zaila edo ezinezkoa duen ondasun higiezin baten titulartasunaren ehuneko bat onartzen denean sortzen da arazoa; adibidez, higiezinek biziarteko gozamenaren zama duten kasuetan. Aurreko balorazioaren ondorioz, eragindakoak ezin dezake diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso, edo berori jasotzeari uzten dio, edo bere zenbatekoa nabarmen murrizten da, ezin duenean higiezina eskuratu, egikaritzeko ezinezkoa delako. Horrelakoetan, negozio juridikoa ez dago bere borondate-esferaren mende soilik, gainerako jabeen jardunaren edo gozamendunaren ukoaren araberakoa baita hori. Arartekoak ebazpen bat idatzi du duela gutxi, eta, bertan, egoera hori eta biziarteko gozamenaren zama duen higiezin baten zati bat heredatzeak dakartzan ondorioak aztertzen dira: 2016R-545-16 Ebazpena, Arartekoarena, 2016ko urriaren 5ekoa.

Ebazpen horretan, legearen espirituarekin eta hitzekin bateragarriagoa den interpretazioa egin litekeela adierazten zen; hots, herentzian edo dohaintzan jasotako ondasun higiezinak ezohiko diru-sarreratzat jo ahal izateko, **egikaritu daitezkeen ondasunak izan behar direla**, beren balioa gauzagarria izan behar dela. Alabaina, ez da hori gertatzen prestazioen onuraduna den bizikidetza-unitateari baliabideak eskuratzea eragozten dion eskubide bat gainean duten higiezinen kasuan.

Horregatik, Arartekoaren ustean, Lanbidek atzeratu egin beharko luke **titularraren ezohiko diru-sarreratzat hartzeko egintza, higiezinaren balioa egikaritu ahal izan arte** eta bizikidetza-unitatearentzat **baliabideak sortu ahal izan arte**, bai berori salduz edo erabilera lagaz (errentamenduko etxebizitza denean, adibidez); izan ere, **hirugarren baten aldeko biziarteko gozamenaren mendeko eta, beraz, ekonomikoki gauzatu ezin daitekeen ondasun higiezin baten jabetza ezdeusa herentzian edo dohaintzan jasotzeak ez dakar, inola ere, bizikidetza-unitatearen gaitasun ekonomikoa handitzea**, oinarrizko beharrei aurre egin eta diru-sarrerak bermatzeko prestazioa alde batera uzteko moduan.

Beharrezkoa da, beraz, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko edo gozatzeko kasu motaren arabera jarduten duten **etekin-muga ezberdinetatik eratorritako alderaketa bidegabe horien egoerak zuzentzea.**

Gauzak horrela, komenigarria dirudi, eta legearen espirituarekin bateragarriagoa dela, ondasun horiek jabeei diru-sarrera edo etekin ekonomikoa sortu ahal izan arte atzeratzea ezohiko diru-sarreren egozpena, eskubidearen titularra izateko baliabide nahikorik ez edukitzeko betekizuna bermatzeko moduan.

Gainera, bestelako tratua ematen da kasu horietan, ondare-mugei buruz hitz egitean 6.6. atalean aipatu dugun araudiarekin alderatuz gero, hots, prestazioa aitortzeko araudiarekin alderatuz gero.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3. artikuluak prestazioaren hartzailea izateko betekizunen artean ezartzen du bitarteko nahikorik ez edukitzea, eta kasu hauetan balioesten du ez dagoela bitarteko nahikorik:

- Hilean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren hileko zenbatekoa baino diru-sarrera edo etekin txikiagoa jasotzen denean.

- Dirua, tituluak, balioak, ibilgailuak eta, oro har, dekretu honen III. kapituluaren 4. atalean aipatutako bestelako edozein ondasun higiezin duenean, eta, baliabiderik ez edukitzekotan, bizikidetza-unitateko kideen kopuruaren eta bizikidetza-unitate motaren arabera egokituko litzatekeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren modalitatearen urteko zenbatekoa lau aldiz biderkatuta ateratzen den kopuruan gehienez ere.

- Dekretu honen 22. artikuluan ezartzen diren kasuetako batean ere ez egotea.

Beraz, 30.000 euro baino gutxiago edukiz gero, bitarteko nahikorik ez duela ulertuko da, eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izan daitekeela. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izanik herentzia bat jasotzen bada, eta, horren ondorioz, ondasun higiezin baten baterako jabe bihurtuz gero, horren balioa kontuan hartzen da hurrengo 60 hilabeteetan, eta diru-sarreratzat hartzen da. Zenbatzen den diru-sarreraren zenbatekoaren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa abonatzen den kopurua murriztuko da, edo prestazioa iraungiko da. Pertsona hori, bitartean, ondasun higiezin baten ehuneko baten titularra baino ez da izango, bere ondarean ondoriorik eduki ez duelarik. Arartekoaren ustez, justifikatuta egongo ez litzatekeen desoreka da.

Ildo horretan, gomendio bat idatzi berri du Arartekoak. Horren bidez, higiezin baten zati den herentzia jasotzeak dituen ondorioak aztertzen dira. Lanbidek ezohiko diru-sarreratzat hartzen ditu, eta hilero jasotzen den prestazioaren zenbatekoa murrizten.

Arartekoaren ustez, zentzu hertsian, egikaritzeko zaila den higiezina saltzen denean bakarrik sortzen da ezohiko diru-sarrera, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20. artikuluaren 3.e) atalean babestuz. Atal horren arabera, ondarea saltzeagatik sortzen diren eta ohiko etxebizitzan inbertitzen ez diren baliabideak sartzen dira diru-sarrera mota horien barruan. Arartekoaren iritziz, kasu horietan, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20. artikulutik 24. artikulura bitartean ezarritako balorazio-arauen arabera egiaztatu beharko litzateke dekretu beraren 9.3.c) artikuluan ezarritako muga gainditzen ote den. Muga gainditzen ez bada, higiezina transmititu eta baliabideak sortu arte itxaron beharko litzateke, bizikidetza-unitateari egotz dakiokeen ezohiko diru-sarrera sortu dela balioesteko (2016R-835-16 Ebazpena, Arartekoarena, 2017ko urtarrilaren 27koa).

## 5.3. Desadostasunak prestazioak etetea edo iraungitzea erabakitzeko arrazoien interpretazioan

### *5.3.1. Enplegu-eskatzaile gisa alta emanda ez egotea, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izanik laneko diru-sarrerak osatzeko modalitatean*

Lanbidek uste du bizikidetza-unitateko kide guztiek dutela enplegu-eskaera aktibo edukitzeko betebeharra, horretarako salbuetsita daudenek izan ezik, are diru-sarrerak bermatzeko errenta laneko diru-sarrerak osatzeko modalitatean jasotzen egon arren; hau da, enplegatutakoei ere eska dakiekeela aktibo edukitzeko enplegu-eskaera.

Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 6.2.1. artikuluak diru-sarrerak bermatzeko errentaren bi modalitate ezartzen ditu, bizikidetza-unitateak laneko diru-sarrerak edukitzearen ala ez edukitzearen arabera:

> *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta. Bi modalitate ditu, bizikidetza-unitatean diru-sarrerarik baden ala ez den kontuan hartuta, eta, sarrerarik baden kasuetan, nondik jasotzen diren kontuan hartuta:*
>
> *a) Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta.*
>
> *b) Laneko diru-sarrerak osatzeko errenta".*

Betebeharren erregulazioan, modalitate horiek aipatzen dira berriro ere. Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.1. artikuluak ezartzen ditu eskatu ahalko diren betebeharrak, diru-sarrerak bermatzeko errenta gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta gisa edo laneko diru-sarrerak osatzeko errenta gisa eskatu gorabehera. Alabaina, mota batekoa edo bestekoa izan dauden betebehar espezifikoak ezartzen dituzte agindu horren 2. eta 3. puntuek.

Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.2. artikuluak honako hau esaten du:

> *"Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren titularrek, 1. paragrafoan jasotakoez gain, beste betebehar hauek ere izango dituzte:*
>
> (...)
>
> *b.- Titularra eta lan egiteko adina duten haren bizikidetza-unitateko kideak lanerako prest egotea. Salbuespen izango dira honako kasu hauek..."*.

Bestalde, diru-sarrerak bermatzeko errenta laneko diru-sarrerak osatzeko modalitatean jasotzen dutenek betebehar espezifiko bakarra dute, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.3. artikuluan jasotzen dena: *"...enplegua hobetzeko gizarteratze-hitzarmena negoziatzea, sinatzea eta betetzea, lege honen III. tituluko I. kapituluan aurreikusitako moduan. Ondorioz, ezin izango dute borondatezko bajarik hartu enpleguan, ez behin betikorik ez aldi baterakorik, ez eta lan-eszedentziaz baliatu ere, justifikatutako arrazoi larririk ez badago".*

Transkribatutako aginduak irakurrita ondorioztа dezakegunez, eragindakoek lanik egiten ez duten kasuetan bakarrik eska daiteke enplegu-eskaera aktibo edukitzeko betebeharra (hau da, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak direnean), eta, beraz, lan egiten dutenek ez daukate enplegu-eskatzaile gisa alta emanda egoteko betebeharrik, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta gisa jasotzen dutenei bakarrik eska dakieke (19.2. artikulua).

Eteteko arrazoi hori xedetzat zuten kexen harira Lanbideri adierazi izan diogun bezala, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.3. artikuluan aipatutako gizarteratze-hitzarmenaren bidez eska liteke betebehar hori; izan ere, enplegua hobetzeko neurrien artean dagoela uler liteke, eskaera aktibo edukitzeak erraztu egin baitezake diru-sarrerak bermatzeko errenta diru-sarrerak osatzeko modalitatean jasotzen duten titularren egoera hobetuko duten lan-eskaintzetarako sarbidea. Arartekoaren ustez, ordea, exijentzia hori ezin daiteke ondorioztatu prestazioa erregulatzen duen arauditik. Arrazoi horren ondotik sustatutako kexa guztien ezaugarri bat da eragindakoek agerian jarritako harridura. Kexagile horiek diote inork ez diela adierazi egoera horretan enplegu-eskaera aktibo edukitzeko betebehar espezifikoa dutenik. Izan ere, uste dute lanean dauden bitartean betebehar hori indargabetu egiten dela. Arartekoaren ustez, kasu horietan enplegu-eskaera aktibo edukitzeko betebeharra berariaz jakinarazi beharko luke Lanbidek, gizarteratze-hitzarmenaren bidez; aurreko gogoeten artean, betebehar hori eratzen baitu hitzarmenak.

Arartekoaren 2015eko abuztuaren 17ko 2015R-337-15 Ebazpena egin du Arartekoak, eta, bertan, aurreko analisia jasotzen da.

Interpretazio horrekin ados ez dagoela adierazi dio Lanbidek erakunde honi, balioesten baitu diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun guztiei eragiten dietela abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.2. artikuluan ezartzen diren betebeharrek, prestazioaren modalitatea edozein izanda ere, lege beraren 6.2.1. artikuluarekin bat eginez. Argudio sendo gisara, erakunde honi adierazi dio enplegatuta ez dauden kideek eratu dezaketela diru-sarrerak bermatzeko errenta

laneko diru-sarrerak osatzeko modalitatean jasotzen duen bizikidetza-unitate onuraduna, eta enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egon behar dutela horiek.

Hala ere, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19. artikuluak eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluak, atal ezberdinetan, modalitatearen arabera jasotzen diren betebeharrak bereizten dituzte. Hauek dira modalitateak: Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta eta diru-sarrerak osatzeko errenta.

Arartekoaren ustez, araudiaren idazketak, hitzez hitz, ez du bat egiten Lanbidek egiten duen interpretazioarekin. Kontuan hartu behar da aginduaren idazketara jotzea eskatzen duela hermeneutikak (Kode Zibilaren 3.1. artikulua): *"Arauak euren hitzez-hitzezko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariei, eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta".*

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren titularrek betebehar ezberdinak dituztela ulertarazten du idazketa horrek (hitzen zentzuak). Ondorio horiek araudiaren interpretazio historiko eta sistematikoarekin bat egiten ez badute, Lanbidek dioen bezala, berrikuspen baten xede izan beharko litzateke betebeharrak erregulatzen dituen artikuluaren idazketa etorkizuneko lege-aldaketa batean.

### *5.3.2. EAEtik kanpora egindako irteera baten berri ez ematea*

Lanbidek orain arte baieztatu du diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen titulartasuna edo onura duen edozein pertsonaren betebehar generikoa dela EAEtik kanpo irteten den aldiro jakinaraztea. Era berean, baimendutako kanpo-egonaldiaren iraupena ezartzen du, 15 edo 30 egunekoa izaki hori, titularrak edo onuradunak lan egiten duen ala ez kontuan hartuta.

Dakigunaren arabera, eskakizun hori 2012ko azaroaren 6an ezarri zuen Lanbidek, **irizpideei buruzko barne-dokumentu** batean, eta, ordutik, ezadostasunak eta kexa ugari ekarri ditu Arartekora, dela legeak edo eskubidea arautzen duten dekretuak betebehar hori aurreikusten ez duelako, edo dela pertsona titular zein onuradunek horren inguruan Lanbideren partetik informaziorik jaso ez dutelako.

Lanbide hasierako irizpidea egokituz joan da, oso murriztailea baitzen, eta EAEtik kanpora irtetea baimendu die lan egiten dutenei eta enplegurako eskuragarri egotetik salbuetsita daudenei (pentsiodunei, lan egitetik salbuetsita daudenei eta abarrei), hilabetez; baita pertsona horien ezkontideei eta seme-alabei ere. Enplegurako eskuragarri egon behar duten gainerakoek 15 egun egin ditzakete kanpoan, prestazioa jasotzen jarraitu nahi badute. Irizpide horien arabera, pertsona horiek egonaldi luzeagoa egiten badute kanpoan, baina ez badituzte 90 egunak gainditzen, prestazioa jasotzeari uzten diote aldi horretan, eta irteera jakinarazten ez bada, hilabetez eteten da prestazioa, eta ez da berrabiarazten, berriro eskatu arte (dagokion izapidea eta berrikuspena egin ostean).

EAEtik kanpo egindako egonaldiak 90 egunak gainditzen baditu, bizileku eraginkorra egiaztatzeko betekizuna **galtzen** dela balioesten du Lanbidek.

Deigarria da Lanbide EAEtik kanpo egiten diren irteerak aurretik jakinarazteko betebeharra betetzea eskatzen egotea, legegile autonomikoak betebehar hori jaso ez bazuen. Bestetik, deigarria da, era berean, Lanbidek onartutako irizpideen dokumentuetan bakarrik jasotzea jarraibide horiek.

Horri dagokionez, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1. Epaitegiak 44/2015 Epaian gai horren inguruko iritzia emateko aukera izan zuen, martxoaren 4an, eta honako ondorio hau adierazi zuen bertan: EAEtik kanpora egindako irteerak ez jakinarazteak ez du eginbehar bat ez betetzea ekartzen.

Zehazki, epaian aztertutako ustezko egoeran, Lanbidek ez zuen prestazioa berritu, eta argudiatu zuen bidaia ez zela Lanbideren bulegoan jakinarazi, *"…como es obligación de todos los perceptores de la RGI, según el artículo 12 del Decreto 147/2010, de 25 de mayo…"* (2. ZO).

Hala ere, honako hau interpretatzen du epaiak: *"…se estima que no estamos ante incumplimiento de obligación alguna conforme al artículo 12 citado por la administración en la actuación impugnada, sin concretar la específica obligación incumplida y sin que el hecho referido pueda subsumirse dentro de la obligación contemplada en el citado precepto de comunicar cualquier cambio relativo al domicilio de residencia habitual de la persona titular…"* (2. ZO).

Termino horietan, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren 77/2016 Epaiak, martxoaren 15ekoak, hau adierazi zuen: *"la cuestión es que no existe ninguna regulación específica respecto de los plazos que puede o no durar una salida, sin perjuicio de los criterios internos que maneje la administración para valorarlo"* (1. ZO).

Azkenik, aurreko epaien ildo beretik, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak, uztailaren 11ko 156/2016 Epaiaren bidez, aipatu egin zuen, eta berretsi, irailaren 30eko 201/2015 Epaiak ezarritakoa:

> *"No encontramos en la legislación autonómica citada motivos o justificación para la retirada de la prestación subvencional por la ausencia de la CAPV de cinco días, pues no contempla la legislación estatal ni autonómica que ante tal ausencia se le deba retirar la prestación…*
>
> *Es la concreta regulación de las ayudas las que nos impiden negar o retirar a quien se haya ausentado de la CAPV cinco días, por mucho que tenga que estar a disposición de Lanbide por posibles ofertas de empleo, manteniendo el empadronamiento y la residencia habitual, razón por la que, no podemos aceptar que retirada de la ayuda social, y debemos estimar el recurso"*.

Beste eskumen-eremu batean (estatu-mailakoan, adibidez), eta Gizarte Segurantzaren arloan, otsailaren 28ko 1/2014 Legearen 6.3. artikuluak berariaz erregulatu zuen eztabaidatutako kontua. Aldi baterako langileak babesteko eta ordena ekonomiko eta sozialean premiazko neurriak hartzeko legea da hori, eta ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren 212.1.g) artikulua gaineratu zuen, zeinaren bidez onartzen den Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina.(Gizarte Segurantzaren 1994ko Lege Orokorra) Zehazki, langabeziagatiko prestazioa eteteko arrazoitzat jo zuen honako hau: *"en los*

*supuestos de estancia en el extranjero por un periodo continuado, o no, de hasta noventa días como máximo durante cada año natural, siempre que la salida al extranjero esté previamente comunicada y autorizada por la unidad gestora…”*.

Egun, hitzez-hitzezkotasunean ukitu gabe dago idazketa hori Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra 271.g) artikuluan.

Horrela, berariaz erregulatzen da ez dela etenaldirik egingo, lurraldetik kanpo hamabost eguneko egonaldia eginez gero, irteera aurretik jakinarazi bada.

Idazketa horretatik ondoriozta daitekeen bezala, langabeziagatiko prestazioaren hartzailea lan-merkatutik kanpo egon daiteke aldi batez, eta, alderdi batzuetan, langilearen urteko opor ordainduen antzeko aldia da hori.

Hortaz, azaldutakotik ondorioztatzen dugu, eta azpimarratzen, araudia aldatu beharra dagoela, eta, hala badagokio, berariaz sartu behar dela EAEtik kanpo egindako edozein irteera aurretik jakinarazteko betebeharra, bai eta EAEtik kanpo irten eta kanpoan luze egoteak ekar ditzakeen ondorioak jaso ere, diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokionez.

Arartekoaren ustez, Lanbidek irizpidea aldatu du; izan ere, EAEtik kanpo egiten diren irteera eta aldi baterako absentzia guztiek ez dute eragina izaten diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidean. Alabaina, irizpide horiek ez dira dagokion araudian ageri, eta ez dira oro har ezagutzen.

Ezin daiteke onar eskubide bat ukatzea, etetea edo iraungitzea eragin dezaketen erabakiek babes arautzailerik ez edukitzea, ezartzekoa den gidaliburuan jasotako irizpidea oso zentzuzkoa izan arren (2014ko abenduko irizpideen agiria).

Arartekoak kexa ugari izapidetu ditu, non pertsonek adierazten zuten ez zekitela EAEtik kanpo egindako irteerak jakinarazteko betebeharra zutela, edo ez zekitela irteera horiek zein epemuga zuten. Arauzko esparru egokirik ez egoteak babesgabetasun-egoerak ekarri ditu; batez ere, kontuan hartuta Lanbidek eguneroko jardunean erabiltzen duen barne-mailako dokumentua dela irizpideen dokumentua.

Gainera, kasu horren harira irekitako kexa-espedienteetan Arartekoari eman zaizkion erantzunetatik ondorioztatu daitekeenez, erakunde honek egindako informazio-eskaerei emandako erantzunetan, alegia, Lanbidek, azkenaldian, enplegurako eskuragarri egoteko betebeharra ez betetzearekin identifikatzen ditu irteera horiek, eta arrazoi hori ez da agertzen diru-sarrerak bermatzeko errentari eragiten dioten ebazpenetan.

Arartekoaren 2016ko abenduaren 15eko 2016R-1312-16 Ebazpenean, kontu hori jorratu zen.

Beste alde batetik, gero eta kexa gehiagotan erabakitzen du Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea etetea, titularrak aurretik jakinarazi arren EAEtik kanpo egindako irteera, Lanbidek emandako 15 edo 30 eguneko epea gainditzeagatik, irizpideen dokumentuarekin bat eginez.

Aurretik, titularrak EAEtik kanpo egindako soberako egunak eteten zituen Lanbidek; egun, ordea, prestazioa eteten du.

Esku-artean dugun kasua bezalakoetan, etetea ebatzi izana oinarri juridikorik gabeko erabakia da eta, gainera, neurriak eragindako eskubideen titularrak baldintzatzen ditu egin ditzaketen jardunbideei dagokienez; izan ere, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutakoaren 28.1.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, bigarren aldiz eteteak eskubidea iraungitzea ekarriko luke, eta titularrak ezingo luke prestazio hori berriro ere eskatu iraungitzea gertatu den egunetik urtebete igaro arteko epean.

### *5.3.3. Eduki ekonomikoko eskubideak ez baliatzea*

Azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutako abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.1.h) artikuluak ezartzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta arrazoi honengatik iraungiko dela: *"lege honen 19.1.b) artikuluan aurreikusitako betebeharra ez betetzeagatik"*.

Zentzu horretan, 19.1.b) artikuluak berak, eskubidearen titularren betebeharren artean, hauxe eskatzen dute: *"Titularrari edo bizikidetza-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, prestazioak irauten duen aldi osoan"*.

Horren azpian dagoen ideia eskubidearen eraketa baino ez da; hala, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 13.1 artikuluan definitzen den bezala, hauxe da horren ezaugarri nagusia: *"...subsidiarioa eta, hala badagokio, osagarria izango da indarreko legerian aurreikusten diren era guztietako baliabide eta prestazio ekonomikoei dagokienez, horiek titularrari edo haren bizikidetza-unitateko edozein kideri legozkiokeenean..."*.

Zentzu horretan, Arartekoak azaldutako gaiaren inguruan jarritako zenbait erreklamazioren berri izan du. Horietan, Arartekoak interpretatu zuen Lanbidek aurreko manuen interpretazio zabala egin zuela, pertsonen eskubideentzako kaltegarria zena. Jarraian, prestazioa iraungi daitekeen honako kasuak eta arrazoiak jasotzen ditugu: dibortzioko, banantzeko edo guraso eta seme-alaben arteko neurriak ezartzen dituen epai judizialean aitortutako elikagaien pentsioa ez egikaritzea; babes ofizialeko alokairuko etxebizitza bat ukatzea eta langabeziako prestazioak ez eskatzea edo Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak horiek iraungitzea.

#### *5.3.3.1. Dibortzioko, banantzeko edo guraso eta seme-alaben arteko neurriak ezartzen dituen epai judizialean aitortutako elikagaien pentsioa ez egikaritzea*

Lehenik eta behin, Lanbidek kexa askotan ebatzi du eskubidearen iraungipena, baita urtebetez eskubidearen aitorpena berriz eskatzeko ezintasuna ere. Hori gertatzen da, epai irmoak aitortutako elikagaien pentsioa ordaintzen ez denean eta hori egikaritzeko eskatzen ez denean.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 31.2 artikuluak hasiera batean eskubide hori aitortzeko eskaeren izapidetzea aipatzen du. Hala ere, bigarren paragrafoan,

eskubidearen titularrek elikagaien eskubidea baliatzeko betebeharra dutela adierazten du, ezkontideen bizikidetza edo ezkontideen antzeko bizikidetza benetan amaitu dela egiaztatzen den kasuetan.

Baieztatzen da, batzuetan, Lanbidek elikagaien pentsioa ordaintzea ezartzen duen epai bat egikaritzeko eskatzen duela, ezkontide ohia hirugarren herrialde batean dagoenean edo momentu horretan non dagoen ez dakiten kasuetan ere bai.

Horren inguruko epaia emateko aukera izan du Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak, hain zuzen ere, abenduaren 18ko 252/2014 epaian; bertan, hauxe adierazten du:

> *"Es cierto que en este caso, y desde el año 2003 no consta que la recurrente haya intentado siquiera localizar al padre de su hijo, para reclamarle o requerir el pago de la pensión para el hijo de 360,61 €, fijado en el convenio regulador. Ello no obstante, es cierto también que para la recurrente representa dicha misión, algo difícil, o casi imposible, pues se alega que el sujeto XXX, se encuentra en paradero desconocido* (…). *En definitiva, no apreciamos que la causa invocada para denegarle la renta sea de recibo y ello porque se le exige el cumplimiento de una obligación casi imposible"* (3. ZO).

Halaber, egiaztatu egin da Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi izan dituela honelakoa bezalako kasuetan: doako justiziaren eskubidea eman ostean, ez zen egikaritzeko demandarik jarri izendatutako abokatua denbora luze egon zelako bajan gaixorik zegoelako. Hala, egoera hori ez zitzaion inoiz kexagileari jakinarazi, Arartekoaren 2015R-1250-15 Ebazpenean, 2015eko azaroaren 2koa, jaso zen bezala.

Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren ekainaren 16ko 129/2016 Epaiak zentzu bereko ondorioa eman du eta adierazi du ezin zaiola auzi-jartzaileari jokabide hori egotzi:

> *"1. La conducta de la actora, más o menos diligente, no puede subsumirse en el supuesto del artículo 19.1.a) de la LGI y correlativo artículo 10 del Decreto GI de 2010, por varios motivos concurrentes:*
>
> *A) En primer lugar por cuanto es determinante la intervención de un tercero al que constitucional y legalmente le estaba encomendado, una vez designada como Abogada por la comisión de justicia gratuita en la dilación en el ejercicio de las acciones de reclamación de las obligaciones alimentarias establecidas en la sentencia de Juzgado de Primera Instancia de Barakaldo a la que nos hemos referido supra.*
>
> *B) En segundo lugar, que el propio ejercicio en plazo de las acciones de reclamación tampoco garantiza una mayor eficacia de su reclamación, como pone de manifiesto dada la situación objetivo de juzgados y tribunales, la doctrina del TC sobre dilaciones indebidas al amparo del artículo 24 de la CE (vide ad exempla la Sentencia 77/2016, de 25 de abril de 2016 (131. EAO, 2016ko maiatzaren 31koa)"* (5. ZO).

Beste kasu batzuetan, tratu txarrak jasandako edo bikoteak abandonatutako emakumeak ziren, pentsiorik eskatu ez zutenak edo pentsio hori erreklamatzeko bikotekide ohiarekin, hau da, seme-alaben aitarekin, harremanetan jarri behar zirenak. Hala, horretarako indarkeria motaren bat jasateko edo gertaera traumatikoak gogora ekartzeko arriskua hartu behar zuten. Gainera, kasu hauetan, izapide bat baino ez da, bikotekide ohiak askotan kaudimengabekoak direlako (arazo hori epigrafe honetan aipatzen da: *"5.1.9.* Familia-indarkeriaren biktimek betekizunak betetzeari eragiten dioten kontu batzuk*".*

Adierazi dugun bezala, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular guztiek duten betebehar bat da prestazioak irauten duen aldi osoan eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea. Hala eta guztiz ere, aztertutako kexak ikusita, antzeman da Lanbide manuaren interpretazio zabala egiten ari dela. Izan ere, askotan, prestazioaren jasotzaileen aukeretatik kanpo geratzen diren jarduketak burutzeko eskatu egin du.

Hortaz, azaldutakoa bezalako kasuetan, Lanbidek titularraren ardura haztatu beharko luke, eskubidea etetea edo iraungitzea dakarren edozein erabaki hartu aurretik. Aurretik esan den bezala, hartzailearen erantzukizun-esferarekin zer ikusirik ez duten arrazoiak dira elikagaien pentsioa ezartzen duen neurria egikaritzea eragozten dutenak.

*5.3.3.2. Alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitza bat ukatzea*

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren etenaldia ezartzen duen beste kasu batzuk, legezko oinarri gisa adieraziz eduki ekonomikoko eskubide bat ez baliatzea, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidearen titularrak alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitza bat ukatzen duen kasua da.

Lanbidek ulertu izan du, alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitzaren errenta etxebizitza librearen errenta baino merkeagoa den kasuetan, bidezkoa dela bi prestazioak etetea.

Alderdi horri dagokionez, zenbait kexagilek adierazi dute, alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitza batzuetan librea baino merkeagoa den arren, Lanbidek kontuan hartzen ez dituen beste gastu gehigarri batzuk daudela (altzariak; sukaldeko tresnak; hornikuntzen gastuak; auzokideen erkidegoaren urteko gastuak...). Horrez gain, etxebizitzaz aldatzeak adingabeengan dituen ondorioak aztertu beharko lirateke. Izan ere, baliteke etxebizitzaz aldatzean beste ikastetxe batera ere aldatu behar izatea edo ohiko ikastetxera joateko distantzia gehiago egin behar izatea. Halaber, familia-sustraitzeko prozesua apur daiteke erkidegoarekiko eta babes-sareekiko eta horrek gizarteratzeari egiten dio kalte.

Era berean, kontuan hartu behar da, kasu askotan, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak berrakuradunak direla edo errenta ordaintzen dutela logela bat erabiltzeagatik. Hortaz, alokairuaren prezioa Alokabide sozietate publikoak eskaintzen duen errenta baino txikiagoa da.

Azkenengo kasu horietan, beharrezkoa da alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitza bat onartzea eta hori esfortzu ekonomiko handia izan daiteke, geroago

eguneroko bizitzako beharrik oinarrizkoenak asetzea zailtzen duena. Gainera, eskainitako etxebizitza publikoa garestiagoa izan arren, etxebizitza ukatzeak, nolanahi ere, soilik eragin beharko luke etxebizitzarako prestazio osagarria etetea. Izan ere, ez luke beteko etxebizitza eskatzaileen erregistroan inskribatuta egotearen betekizuna, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria arautzen duen urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 5.1.c) artikuluan eskatutakoa.

Hala eta guztiz ere, Lanbide, etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioa iraungitzea erabakitzeaz gain, diru-sarrerak bermatzeko errenta ere iraungitzen ari da, jotzen duelako babes publikoko etxebizitza bat ukatzeak eduki ekonomikoko eskubide oro baliatzeko betebeharra ez betetzea dakarrela. Arartekoaren ustez, babes ofizialeko etxebizitza bat ukatzeak araudi sektorialak aurreikusten duen ondorioa ekarri beharko du, hain zuzen ere, Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraiobideetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 18. artikuluan aurreikusitakoa, etxebizitza eskatzaileen erregistroari eta Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta Autonomia Erkidegoko Araubideko Zuzkidura-ostatuak adjudikatzeko prozedurei buruzkoa (Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraiobideetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua). Izan ere, horrek Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatutako eskaeren baja emateko kausak aurreikusten ditu. Besteak beste, h) atalak beren-beregi jasotzen du honako hau: *"bizikidetza-unitatearen logela-beharretara egokitzen den etxebizitza baten adjudikazioa ukatzeak, eskatutako sarbide-araubidean, hori erosketakoa bada eta bizikidetza-unitate eskatzailea edo horren titularretako edozein langabezian badago izan ezik".* Baja hartzearekin batera, antzinatasuna galtzen da (Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraiobideetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 19.1 artikulua) eta Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emateko aldi baterako debekua ezartzen da, hain zuzen ere, bi urtez [Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraiobideetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 19.2.b) artikulua]. Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja hartzea aurreikusita dagoenez, etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzailea izatean, 5.1.c) artikuluan aurreikusitako betekizuna urratzen da; hala ere, horrek ez luke ondoriorik izan beharko diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioan. Eduki ekonomikoko eskubide oro baliatzeko betebeharraren interpretazio hori, hau da, ezin dela babes ofizialeko etxebizitza bat ukatu, araudiaren interpretazio zabal bat da; hala, interpretazio hori kaltegarria da pertsonen interesentzat eta ez dauka araudi-babesik herri-administrazioek bere jarduerak garatzeko jarraitu behar dituzten esku-hartzeko printzipioen arabera, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4. artikulua.

Horrez gain, pertsonek ez dakite zeintzuk diren diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioen eremuan babes ofizialeko etxebizitza bat ukatzeak dakartzan ondorioak (eta azpimarratu behar da zaila dela hori ondorioztatzea betebeharra irakurtzean). Beraz, horri txosten-diagnostiko honen beste atal batzuetan aipatutako informazio-gabeziak gehitzen bazaizkio, iraungitzeko erabakiak babesgabetasuna sortzen du, dituen ondorio larriengatik eta ukitutako pertsonek ondorio horiek ezagutzen ez dituztelako.

Laburbilduz, Lanbidek, azaldutakoa bezalako kasuak kudeatzean, ordaintzen den errentaz gain, babes publikoko etxebizitza bat onartzeak dakartzan beste gastu gehigarri batzuk hartu beharko lituzke kontuan, baita etxebizitzaz aldatzeko erabakiak familia batengan dituen ondorioak ere. Edonola ere, babes ofizialeko

etxebizitza bat ukatzeak soilik izan beharko lituzke ondorioak etxebizitzarako prestazio osagarrian, beren-beregi aurreikusita baitago etxebizitza eskatzaileen erregistroan inskribatuta egoteko betebeharra.

*5.3.3.3. Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak langabezia-subsidioa edo langabeziako prestazioa iraungitzea*

Azkenik, egiaztatu egin da kexak areagotu direla Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eduki ekonomikoko eskubide oro ez baliatzeagatik iraungitzen dituen kasuetan eta Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak langabeziako prestazioa edo langabeziako subsidioa iraungitzen duen kasuetan, prestazio horiek mantentzeko informazio interesgarririk eman ez denean.

Kasu horietan, pertsona horiek diru-sarrerak bermatzeko errentarekin lotutako eta Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak kudeatzen dituzten prestazioetan eragiten duen egitate bat jakinaraztera baino ez dira joaten Lanbidera (langabeziako prestazioa, langabeziako subsidioa, laneratzeko errenta aktiboa). Hala, Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoa laguntza horien titular da modu osagarrian. Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoari jakinarazi ez zaionez (adibidez, atzerrira egindako irteera bat ez jakinaraztea) eteten du edo, kasuaren arabera, prestazioa iraungitzen du. Geroago, Lanbidek prestazioa iraungitzen du eduki ekonomikoko eskubideak baliatu ez izanagatik (Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak prestazioa iraungi izanagatik) eta jotzen duelako erantzukizuna dagoela, adibidearekin jarraituz, irteera jakinarazi ez delako. Hala, kontsulta ugari egiten dira alderdi horren inguruan, askotan bi erakundeek espazio fisiko berberak partekatzen dituztelako eraikin komunetan. Hori dela-eta, oinarridun zalantza bat sor daiteke, Lanbiden egitate bat jakinarazten denean (edo Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoan) beste organismoan ere jakinarazten ote den.

Erakunde honek uste du interesgarria dela beste kontu batzuen jakinarazpenak egiteko administrazioen arteko lankidetza egotea, besteak beste, enplegu-eskaerak ez berritzearen inguruko jakinarazpenak edo Gizarte Segurantzako alten eta bajen jakinarazpenak. Hala, erakunde honek uste du lankidetza hori betebeharrak betetzearekin lotutako beste jakinarazpenetara hedatu beharko zela, bi erakundeek kudeatutako prestazioen hartzaileak izatekotan.

*5.3.3.4. Enplegu bat nahita ukatzea*

Epigrafe honetan, kasu desberdin bat aipatzen da, prestazioaren ukapen bat delako eta ez etenaldi edo iraungipen bat; hala ere, eskubide ekonomiko bati uko egiteagatik ukatu zaio (hortaz, jo da komenigarria dela diagnostikoaren atal honetan jasotzea).

Arartekoak 2016R-788-15 Ebazpena eman zuen 2016ko martxoaren 11n; bertan, Lanbideren jarduketa bat aztertzen zen. Hala, Lanbidek prestazioa ukatu zion pertsona bati bere lan-bizitzan, prestazioen titular izatearen aurrekoa, enplegu batean borondatezko baja hartu zuela agertzen zelako.

Espediente honetan, egiaztatu ahal izan zen ostalaritzaren sektorean zenbait enplegutan altak eta bajak eman zituela; hala ere, Gizarte Segurantzaren datu-basean, adierazi zuten baja horietako bat borondatezkoa izan zela eta, horregatik,

Lanbidek eskaera ukatu zuela. Baina geroagoko alta batzuk agertzen ziren enpresa berean eta beste enpresa batzuetan; beraz, ondorioztatu zen sektore horretako ohiko jardunbide bat zela (sektorearen ezaugarri bereizgarri bat enplegu prekarioak dira).

Arartekoaren ustez, ukapena eragin zuten bi baja horiek ez ziren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.7 artikuluan ezarritako betekizunaren ez-betetzeak eta lan-harreman berrietako berehalako altekin harremanetan jarri beharko ziratekeen. Horrela, justifikatuta egongo litzateke jotzea eduki ekonomikoko eskubide bat ukatu ez dela.

Horrez gain,Arartekoaren 2016S-34-16 Ebazpena aipatzen zen, 2016ko abenduaren 2koa. Bertan, egoera pertsonalak aztertzen ziren (guraso bakarreko familia adingabeko bi seme-alabekin, horietako bat ezgaitasunarekin) eta familia-bizitza adiskidetzeko ezintasuna balioztatzen zen. Hortaz, enplegua ukatzeko arrazoi justifikatu bat zegoen eta ez zen ematen abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.1.i) artikuluan aurreikusitako iraungitzeko kausa.

### *5.3.4. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzea lan-postu baterako langileak hautatzeko prozesuetan ez parte hartzeagatik*

Lanbidek, batzuetan, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio bat iraungitzea ebatzi du lan-hautapeneko prozesuetan ez parte hartzeagatik. Gainera, kexa-espedienteen xede izan diren kasuetan elementu bereizgarri bat dago, hau da, akatsak egon direla jakinarazpenetan, jarraian zehazten den bezala.

Lanbidek hautapen-prozesu horietan parte hartzea ukatzea enplegu bat ukatzearen parekoa dela jotzen du; beraz, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.1.i) artikulua aplikatzen du. Horrek diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko arrazoi gisa ezartzen du honako hau: "a*plikatzeko modukoa denean, behin uko egitea, arrazoi justifikaturik gabe, indarreko legediaren arabera egokia den enplegu bati edo diru-sarrerak handitzeak ekar lezakeen lan-baldintzen hobekuntza bati".* Enplegu bat izateko aurretiazko urratsa hautapen-prozesu batean parte hartzea izan daiteke. Hala ere, legezko manua irakurtzean, jo daiteke jokabide desberdinak direla. Beraz, hautapen-prozesu batean parte hartzea ukatzeak dakartzan ondorioak behar bezala jakinarazi beharko lirateke. Era berean, araudiaren aldaketa bati begira, gomendagarria litzateke betebehar horren jokabideak zehaztea.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren araudiak ezartzen du enplegu egoki bat ukatzea edo enpleguaren baldintzak hobetzea ukatzea prestazioa iraungitzeko arrazoietako bat dela (horren ondorioz, urtebetez ezin da berriz ere prestazioa eskatu, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3 artikuluaren arabera). Hala ere, Arartekoaren ustez, legezko aurreikuspen hori aplikatzen ari den moduak ez ditu behar beste berme ematen.

Izapidetu diren kexetan, ez da jaso lanpostu baterako langileak hautatzeko prozesu batean parte hartzeko eskaintza jakinarazi denik. Ezagutu ditugun kasuetan gutxienez, hautapen-prozesu batean parte hartzeko jakinarazpena ez du Lanbidek egiten, baizik eta prozesua deitzen duen erakunde kolaboratzaileak, telefonoz.

Hau da, ez dago idatzizko jakinarazpen formalik; beraz, ez da jaso erakunde kolaboratzaileak egindako eskaintzaren edukiaren inguruan egindako jakinarazpena jaso denik, ezta prestazioaren hartzaileak hori ukatu duenik ere.

Jakinarazteko modu horrek, diru-sarrerak bermatzeko errentaren espediente baten berezko izapideen parte den administrazio-egintza gisa hartu behar dena, gure ustez, diru-sarrerak bermatzeko errenta bezalako eskubide subjektibo bat iraungitzea eragin dezakeenez, ez ditu betetzen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40-46 artikuluek eskatutako baldintzak (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. Artikulua). Izan ere, horiek espedientean agerrarazteko eskatzen dute.

Ezagutu ditugun kasuetan behintzat, espedientean jasota dagoen bakarra da dei hori egin zela. Datu horretatik harago, jakinarazpenek, hau da, telefono bidezko deiek, ez dituzte betetzen adierazitako baldintzak.

Hori dela-eta, funtsezko beste elementu batzuen artean, ezin da jakin zein zenegindako proposamenaren eduki zehatza; proposamenaren ukapena zein terminoetan egin zen. Hala, kontuan hartu behar da azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutako abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.1.i) artikuluak iraungitzeko arrazoi gisa jasotzen duela honako hau: “Aplikatzeko modukoa denean, behin uko egitea, arrazoi justifikaturik gabe, indarreko legediaren arabera egokia den enplegu bati edo diru-sarrerak handitzea ekar lezakeen lan-baldintzen hobekuntza bati” edo ukitutako pertsonari jakinarazi ote zitzaizkion ukapenak izan zitzakeen ondorioak. Arartekoak uste du jarduteko modu horrek babesgabetasun-egoerak sortzen dituela Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzen duenean eta urtebetez berriz ere eskatu ezin dutenean. Hortaz, proposatu da espedientean egindako jakinarazpen formala jasotzeko eta, hala badagokio, enplegua ukatzeko edo hautapen-prozesura ez joateko arrazoiak zehazteko.

Oraingo prozedurak, espedientean islatzen ez den telefono dei bat egitean datzan horrek, ez ditu behar beste berme ematen. Hori dela-eta, erakunde honek uste du hobetzeko marjina handia dagoela.

Lanbidek honako elementu hauek txertatu beharko lituzke oraingo prozeduran babesgabetasun-egoera hori sortzea saihesteko:

- Hautapen-prozesuen inguruko informazioa, hala badagokio, eta lan-eskaintzaren edukiaren eta eskaintzen diren lan-baldintzen inguruko informazioa.

- Hautapen-prozesuan ez parte hartzeak edo enplegua ukatzeak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren eskubidean dituen ondorioen inguruko informazioa, horretarako justifikatutako arrazoirik ez badago.

Aurretik aipatutako informazioa espedientean islatuta egon beharko zen, baita, hala badagokio, jakinarazpen formalei dagokienez aurreikusitako lege-araubidea betez burututako jakinarazpen-saiakerak ere. Horrez gain, enplegua ukatzeko edo hautapen-prozesuan parte hartzea ukatzeko arrazoiak jaso beharko dira. Arartekoak aurreko azterketa hori helarazi du Arartekoaren 2016S-1579-15 Ebazpenean, 2016ko abuztuaren 23koa.

### 5.3.5. *Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak iraungitzea Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan izena ez emateagatik (Etxebide)*

Erakunde honetan kexa asko jaso dira Etxebideren Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan etxebizitza-demanda ez berritzeari, baja emateari edo ukatzeari dagokienez. Erregistroan inskribatuta ez egoteak edo inskripzioa ez berritzeak ondorio nabarmenak ditu erregistroko antzinatasunari dagokionez, baita diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak jasotzeari dagokionez ere.

Lanbidek, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak berritzeko izapidea egitean edo espediente horiei dagokien edozein berrikuspen egitean, interesduna Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan bajan dagoenaren berri badu, etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzen dio. Horrez gain, gutxiago izan badira ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa etetea erabaki den kexak jaso ditugu; hala, horiek eten dira maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.b), f) edo j) artikuluan aurreikusitako betebeharra urratu dela jo delako.

> b) atala: *"Titularrari edo bizikidetza-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, prestazioak irauten duen aldi osoan".*
>
> f) atala: *"Prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen eta ondoren adierazten diren gertakariak sortzen diren unetik aurrera zenbatzen hasi eta gehieneko hamabost eguneko epean udalari gertakari horien berri ematea..."*.
>
> i) atala: *"Dagokion modalitatean, Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa dituen betebeharrak, eta indarreko arauen arabera aplikatu beharrekoak diren guztiak, betetzea".*

Ukitutako pertsonek adierazi dute ez zekitela Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan (Etxebide) bajan zeudenik, demanda ez berritzeagatik edo hori ukatzeagatik. Espediente horietan, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraiobideetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua aplikatzen du. Horrek, besteak beste, aipatutako erregistroan izena emateko, aldaketaren bat egiteko eta baja hartzeko prozedurak arautzen ditu.

Arartekoak jakinarazpen erregimen horrekin duen desadostasuna adierazi du askotan. Zehazki, gertakari hau urteko txosten eta ebazpen ezberdinetan adierazi da, besteak beste, Arartekoaren 2013ko azaroaren 26ko Ebazpenean. Gainera, Arartekoaren 3/2016 Gomendio Orokorra eman zen, otsailaren 25ekoa.

Bertan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zitzaion inskripzio-ukapenen eta Etxebideren Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan baja hartzeko ebazpenen jakinarazpenak banaka egiteko, indargabetutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Gainera, eskatzen zen, etxebizitzarako prestazio osagarria edo bestelako edozein prestazio ekonomiko etetea erabaki aurretik, eta bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko prozedurak hasi aurretik, Lanbidek Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroko bajen

ebazpenen jakinarazpenak behar bezala egin diren egiaztatzeko. Legegintzaldi honetan, gaur egun eskuduna den Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde-plangintza eta Etxebizitzako Sailak (Ingurumen, Lurralde-plangintza eta Etxebizitza Saila) Arartekoari helarazi dio jakinarazpenak egiteko sistema berri bat diseinatzen ari dela; sistema hori 2017ko martxorako ezartzea aurreikusi da. Ordura arte, jakinarazpenak iragarki-taulan argitaratzen jarraituko lirateke.

Arartekoaren ustez, administrazio jardun baten balio faltak, Etxebideko izen emate edo baja baten ukapenaren jakinarazpen akastun batetik sor daitekeena bezala, adierazitako ukapen edo erregistro baja horrekin zuzenean lotutako gainontzeko administrazio jardunen balioan eragiten du, etxebizitzarako prestazio osagarriaren etetea, etxebizitzarako prestazio osagarriaren iraungitzea edo hura ez berritzea bezala.

Lanbidek zenbait espediente berrikusi ditu, etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaile batzuk Etxebiden baja emanda daudenaren inguruko informazioa jaso ostean. Arartekoan kexa ugari aurkeztu dira berrikuspen horiek direla-eta.

Etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaile izateko betekizun bat da Etxebiden izena emanda egotea, hasiera batean prestazioa inskripzioa egiaztatu gabe izapidetzen bada ere. Izan ere, aurretiazko betekizun bat da amaitutako urte fiskalean 3.000 euro eduki izana egiaztatzea (Babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari buruzko urtarrilaren 12ko 272010 Dekretuaren 4. artikulua eta martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 22. artikulua).

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskatzaile askok ezin dute zenbateko hori egiaztatu. Hala eta guztiz ere, eskaera izapidetzen da eta adierazten da ez zaiola alta eman alokairuko etxebizitza eskatzeko ezarritako gutxieneko diru-sarrerak ez egiaztatzeagatik. Horrez gain, jakinarazten zaie, 3.000 euro baino gehiagoko diru-sarrerak egiaztatzen dituztenean, berriz ere eskatu beharko dutela Etxebideren Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan izena emateko.

Horrez gain, Etxebiden bi urtero berritu behar da inskripzioa. Pertsona horrek berritzen ez badu, Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak erregistroan baja ematea erabakitzen du.

Lanbidek erregistroan bajan egoteagatik etxebizitzarako prestazio osagarria eten dela jakinarazten duenean (Etxebiden izena emateko eskaera ukatu zelako edo berritu ez zuelako), pertsona horrek informazioa eskatzen du dagokion Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan, bere espedienteari dagokionez.

Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan jakinarazten zaio ukapena edo erregistroko inskripzioaren baja iragarki-taulan argitaratu egin zela eta Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraiobideetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 24. artikuluan ezarritako aurreikuspenaren berri ematen zaio:

> "1.– Ebazpenak bitarteko telematikoz jakinaraziko dira Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan xedatutako kasuetan

> 2.– Gainerako kasuetan, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren (Zuzenean) iragarki-oholetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratuz jakinaraziko dira.
>
> 3.– Babestutako Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoak (Etxebide) dagozkien ebazpenak argitaratzeko eguna jakinarazteko interesdunei helarazitako komunikazioak (postazkoak, elektronikoak, informatikoak edo telematikoak) ez dira inola ere jakinarazpentzat hartuko.".

Etxebiden izena ez emateak etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea ekarri du eta prestazioa jaso den eta erregistroan inskribatuta egon ez den hilabeteei dagozkien zenbatekoak erreklamatu dira, ez zirelako betetzen etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaile izateko betekizunak. Horrez gain, adierazi dugun bezala, kasu batzuetan diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eten egin da.

Arartekoaren ustez, Etxebiden izena emateko betebeharrak etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrei eragiten die urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 5.c) artikuluaren arabera. Ez da antzeko aurreikuspenik existitzen diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa erregulatzen duen araudian. Beraz, diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa arrazoi honengatik etetea ez litzateke egokia izango. Hortaz, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako betebeharren interpretazio zabala izango litzateke, legezko babesik ez duena.

Araudiak aurreikusten du, epe barruan eskaera berritzen ez bada, urtebetez izena emateko aldi baterako debekua ezarriko dela. Aurreikuspen hori ez da aplikatzen (2015-8 Instrukzioa, 2015-04-17); horrela, prestazio ekonomikoak behar dituzten pertsonek, berriz Etxebiden izena eman ostean, etxebizitzarako prestazio osagarria eska dezakete. Arartekoak uste du erabaki hori egokia dela, gainerako betekizunak betetzen badira etxebizitzarako prestazio osagarria ematea ahalbidetzen duelako.

Aurretik adierazi den bezala, kexak jaso dira etxebizitzarako prestazio osagarria etetearen ondorioz (baita diru-sarrerak bermatzeko errenta etetearen ondorioz ere); horietan, adierazten da etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaileak ziren pertsona horiek ez zekitela Etxebiden inskribatuta ez zeudela. Arartekoak zenbait esku-hartze egin ditu eta zenbait gogoeta helarazi ditu, jaso direnak bezalakoak. Lanbidek ondo hartu ditu Arartekoak helarazitako gogoetak eta 2016ko abuztuaren 1ean indarrean sartu den instrukzio bat eman du. Horren bidez, adostu da berrikuspenean zehar Etxebide-Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena eman gabe egotea edo baja ematea antzematen bada, honela jokatuko dela: *"se hará un trámite de audiencia para que la persona pueda regularizar su situación. Este trámite se amplía a 30 días para que tengan posibilidad de regularizar su situación en Etxebide y si en ese plazo se da de nuevo de alta en el registro no se acuerda la suspensión de la prestación. Si pasado este plazo se mantiene de baja se suspende la prestación de PCV hasta que se haga efectiva el alta".* Gainera, agindu horretan onartu da, inolaz ere ez dela zenbatekorik itzultzeko eskatuko Etxebiden bajan emanda egon izanagatik.

Horrenbestez, etxebizitzarako prestazio osagarria etetea adostu aurretik pertsonari jakinaraziko zaio Etxebiden bajan dagoela ikusi dela, alta izapidetu eta Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan izena emanda egoteko irizpidea betetzeko, eta prestazioaren ordainketa mantentzeko asmoz.

Era berean, Lanbidek erakunde honi jakinarazi dio jarraibide hori kontuan hartuko duela egiten diren errekurtsoak izapidetzean.

Bestalde, Etxebiden izena emanda ez egoteak diru-sarrerak bermatzeko errentan eraginik ez izateko gomendioak ere onartu ditu.

Arartekoak egokitzat jotzen du adostutako instrukzioa; izan ere, horrek erantzun bat eman dio pertsona asko ukitzen ari zen arazo bati. Pertsona horiei etxebizitzarako prestazio osagarria eteten ari zitzaien eta prestazioak erreklamatzen ari zitzaizkien, haiek etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaileak izateko betekizun bat urratzen ari zirela jakin gabe. Bestalde, ohiko etxebizitzaren edo ostatuaren aldizkako gastuak ordaintzeko beharra egiaztatzen zuten.

## III. ARAUDIA ALDATZEKO PROPOSAMENAK

Arartekoaren ustez, beharrezkoa da prestazioen egungo eraketan giltzarri diren elementu batzuen inguruan hausnartzea. Kapitulu honetan, hausnartu eta aztertu beharko liratekeen kontu batzuk nabarmenduko dira, bai oraingo araudiak helburua betetzea eragozten duten gabezi tekniko nabarmenak dituelako, bai horren aplikazioa legearen izaeratik aldentzen diren egoera bidegabeak eragiten ari delako.

Beste atal batzuetan adierazi egin den bezala, erakunde honek zenbait kexa-espediente izapidetu ditu; horrek zenbait gogoeta eragin ditu eta kapitulu honetan jasotako proposamenak iradokitzea ekarri du. Adierazi egin den bezala, helburua ez da sistemaren analisi integrala egitea. Izan ere, honako proposamen hauek Arartekoak herritarrek aurkeztutako kexak izapidetzean aztertutako alderdietara mugatzen dira.

Jorratuko diren gaiak hauek dira:

- Bizikidetza-unitate bereziaren izaeraren denbora-mugaketa.
- Prestazioen ordainketa eta horiek jasotzeko eskubidea geldiarazi, eten eta iraungitzea.
- Prestazioen erreklamazioa, horiek bidegabeki ordaindu izanagatik.
- Prestazioa jasotzeko denbora-mugaketak, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko bi urteko denbora-mugaketa bezalaxe.
- Udal Gizarte Zerbitzuekiko harremanaren oraingo eraketaren inguruan hausnartzeko beharra eta Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen Sistemaren arteko lankidetza ezinbestekoa dela egiaztatzea.

– Ondare-mugak aplikatzeak eragiten dituen desorekak.

## 1. Bizikidetza-unitate bereziei dagokien denbora-mugaketa

Bizikidetza-unitate independentearen izaera esleitzen zaie zenbait pertsonari ahultasun-egoeran egoteagatik, **etxebizitzan beste pertsona batzuk sartzen badira eta horiekin familia-loturaren bat badute** (senar-emaztea edo ezkontideen antzeko beste harreman iraunkor bat; adopzioagatik; laugarren mailara arteko odolkidetasun edo bigarren mailara arteko ahaidetasunagatik; familia-harrera iraunkorreko harreman batengatik edo adopzio aurreko edo zaintzako harreman batengatik, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9. artikulua). Hala, izaera hori mugatu egin da araudi-garapenean; horren ondorioz, izaera hori, gehienez ere, 12 hilabetez esleitu daiteke. Salbuespen gisa, beste hamabi hilabetez luza daiteke, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.2 artikulua.

Aurreko araudiak (Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren 4. artikulua, 2 eta 3. atalak) ez zuen denbora-mugaketarik ezartzen egoera hauetarako, adin-nagusitasuna betetzekoa izan ezik.

Mugaketa horrek guraso bakarreko familiei eragiten die (nagusiki), ardurapean adingabeak eta %45eko edo gehiagoko ezgaitasun-kalifikazioa duten edo II. Graduko I. Mailaren pareko mendekotasun-kalifikazioa edo maila hori baino kalifikazio altuagoa duten helduak dituztenak.

Erakunde honetan aldi baterako mugaketa horren inguruko kontsultak egin dira eta kexak jarri dira; izan ere, horrek ukitzen dituen pertsonak ahultasun-egoeran daude eta zailtasunak dituzte etxebizitza independente bat aurkitzeko. Beste senide batzuekin bizitzea, mugaketa funtzional, ezgaitasun edo mendekotasunen bat duten pertsonen kasuan, oso gomendagarria izan daiteke.

Arartekoaren ustez, hausnarketa bat egin beharko litzateke aukera honen inguruan: salbuespenezko kasu batzuetan, bizikidetzaren aukera 24 hilabete baino gehiago luzatu ahal izatea familia-nukleo horiek dituzten autonomia-zailtasunak direla-eta. **Hala, edonola ere, informazioa eta Gizarte-zerbitzuekiko koordinazioa hobetu beharko litzateke etxebizitzaren aldaketa errazteko emandako epea igaro aurretik; horrez gain, autonomia ere hobetu beharko litzateke.** 2013 Txosten-diagnostikoan jadanik aipatu zen proposamen hori.

Bestalde, faltan botatzen da pertsonek aldi berean zenbait betekizun betetzen dituzten kasuetarako **lehentasuna** ezartzen duen aurreikuspen bat (hau da, pilatutako zenbait ahultasun-egoera) edo pertsona berak une desberdinetan betekizun horiek betetzea posiblea den, besteak beste, genero-indarkeriaren biktima izatea, dibortziatuta egotea, adingaberen bat edo ezgaitasuna edo mendekotasuna duen pertsonaren bat izatea ardurapean. Hau da, araudiak aurreikusi beharko luke titular bera ahultasun-egoera desberdinetan egon daitekeela bere bizitzan zehar, aldi berean edo denbora-tarte bat igarotakoan, eta kasu horietan aplikatzeko irizpide bat ezarri.

Arartekoak uste du oraingo arauketaren inguruko hausnarketa bat egin beharko litzatekeela; horrek kontuan hartu beharko luke kasu batzuetan 24 hilabete baino gehiago luzatzeko aukera, adibidez, Udal Gizarte-zerbitzuen gomendioagatik

txosten sozial bat txertatzea, geroko beste momenturen batean salbuespenezko egoera aitortu ahal izateko.

Azkenik, *"5.1.3. Atzerriko pertsona batekin ezkondutako pertsonak edo ezkontideen antzeko harreman bat duten pertsonak eta banatuta bizi direnak"* epigrafean aztertutako beste arazo bati dagokionez, araudian prestazioa jasotzea debekatzen da bikotearekin bizi ez diren kasuetan; hala, bikotekidea atzerritarra bada, bi urteko epe bat baino ez du aurreikusten familia berriz elkartzeko. Hala ere, aukera hori betekizun batzuk betetzen badira ematen da, baliabide ekonomikoak egiaztatzearekin eta administrazio-baldintza baten emakidarekin lotutakoak. Hori dela-eta, Europar Batasuneko Estatu Kide batekoak edo erabaki hori sinatu duen estatu batekoak ez diren pertsonekin ezkonduta dauden pertsonak, ahultasun egoeran eta gizarte-bazterkerian daudenak, ezin dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak izan edo, immigranteak badira, bi urte igaro ostean, prestazioa iraungitzen da dibortzioaren izapideak hasten ez badira.

Legegileak zenbait egoera berezitzat jo ditu: adingabeak izatea ardurapean; etxebizitzatik joan behar izatea banantzeagatik edo elkarketa apurtzeagatik edo ezbehar batengatik; [maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.2.d) artikulua], edo elkarrekin ezin bizitzeagatik bikotekidea beste estatu batean bizi delako eta ez daukalako administrazioaren baimenik estatuan sartu eta bizitzeko [5.1.a) artikulua].

Kexak izapidetzean, egiaztatu ahal izan da aurreikuspen horiek ez direla nahikoak aurretik adierazitako ahultasun-egoerei erantzuteko. Beraz, proposatzen da horren araudi-aldaketa egiteko aukera aztertzea eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.4 artikuluan aurreikusitako lege-agindua betearaztea. *"Eusko Jaurlaritzak, berak hala erabakita edo beste herri-administrazioek hala proposatuta, bizikidetza-unitate kasu berriak ezarri beharko lituzke gizarte garapenari erantzuna emanez, eta zehazki, familia egitura ereduen garapenari".*

Horrez gain, txosten honetan (5.1.10 eta 5.1.11 epigrafeak) aztertutako ahultasuneko beste egoera batzuk agerrarazi nahi dira, guraso baten umezurtzak diren eta beste gurasoak abandonatu dituen gazteei eragiten dizkietenak bezalaxe, baita Ardurapeko Seme edo Alabagatiko prestazioa jasotzen duten pertsonei eragiten dizkietenak ere.

Arartekoan arreta eman zaie ahultasun-egoera horiei eta horiek babestu beharra dagoela azpimarratu nahi du.

## 2. Prestazioen ordainketa geldiaraztea eta prestazioen eskubidea etetea eta iraungitzea

Erakundean kexa asko jartzen dira prestazioen ordainketa eteteagatik. Kexa horietan egiaztatzen da prestazioaren ordainketa eten edo iraungitzen zaien familiek zailtasun-egoeran geratzen direla; izan ere, horietako askorentzat diru-sarreren iturri bakarra prestazio hori da. Txosten honetan, kexa-espedienteak izapidetzean agerrarazi diren zailtasunak aztertu egin dira. Epigrafe honetan, labur-labur, Arartekoaren ustez etorkizuneko araudi-berrikuspen batean kontuan hartu beharko liratekeen elementuak jasotzen dira.

Epigrafe honetan, hobetzeko zenbait eremu nabarmentzen dira:

1. **Norberak bere gain hartutako betebeharren inguruko informazioa hobetzea.** Pertsonek ez dituzte behar beste ezagutzen bete behar dituzten betebeharrak. Lanbideren Bulegoetan eta jasotzen diren jakinarazpenetan eskaintzen den informazioa urria da eta, batzuetan, nahasgarria. Hizkuntza ulerterrazagoa erabili beharko zen dagozkien betebeharrak jakinarazterakoan, baita betebeharrak ez betetzearen ondorioak jakinarazterakoan ere.

2. **Eskubidearen titulartasunak daramatzan betebeharrak argitzea.** Komenigarria izango litzateke betebehar batzuen idazketa zuzentzea, nahasteak sortzen baititu. Adibidez, batzuetan hauek bezalako termino orokorrak erabiltzen dira: *"Diru-sarrerak bermatzeko errentaren xedetik eta helburutik sortzen diren betebehar guztiak eta erregelamendu bidez ezarriko direnak"*, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.1.j) artikulua. Betebehar bat urratzeak oso ondorio larriak ditu; izan ere, bizitza duina bermatzera bideratutako prestazio baten ordainketa geldiaraztea dakar. Hortaz, betebeharra argi eta esplizituki idatzi eta zehaztu behar da.

3. **Betebeharrak ez betetzeak dakartzan ondorioen inguruko informazio egokia.** Prestazioa etetea erabaki daitekeen kausen oraingo idazketak ez dio tipifikazio egoki bati erantzuten, adibidez: *"Titularrak edo bizikidetza-unitateko kideren batek prestazioa lortzean hartutako betebeharren bat aldi baterako ez betetzea, bereziki dekretu honen 12. artikuluan adierazitakoak eta zehazki honako hauek:…"*, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 43.2 artikulua. Araudi-aurreikuspen hori irakurtzean, ez da behar bezain argi geratzen zeintzuk diren bizikidetza-unitateko kideek bete behar dituzten betebeharrak ez betetzea eragiten duten jokabideak.

   Etenaldia ezar daitekeen kausen tipifikazioa zehatza izan beharko litzateke eta ahalik eta argiena izan, definitua eta esplizitua.

4. Argitzea eta zehaztea diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetea erabakitzeko jarraitzen den prozedura eta kontuan hartzea **entzunaldi izapidea** garrantzitsua dela, prestazioaren eskubidea eten aurretik.

5. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearen etenaldiaren **iraupena argitzea**, etenaldi-kausa bakoitzari dagokionez, eta etenaldi horrek iraupen zehatza duen kasuak eta prestazioa jasotzeko eskubidearen etenaldia hori eragin zuen kausa indargabetu arte mantentzen den kasuak bereiztea.

6. Argitzea diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea **berrabiarazteko** beharrezkoa den aldeak eskatzea edo ofizioz ere aktiba daitekeen, baita hori ahalbidetzeko beharrezko baliabide teknikoak eta prestakuntzako baliabideak aurreikustea ere, azkenengo kasu honetan.

7. Berrabiaraztearen **ondorioen data** mugatzea, eskatzen denean edo etenaldia eragin zuen kausa indargabetu denean.

8. Aztertzea, prestazioaren titular izateko betekizunak aldi baterako galtzen diren kasuetan, **prestazioaren ordainketa geldiarazteko kautelazko neurria** hartuko den eta hori zein kasu zehatzetan hartuko den.

9. Zehaztasunez ezartzea aurretiazko entzunaldiaren izapidea aurreikusiko den eteteko kautelazko neurria ezarri **aurretik** (prestazioaren ordainketa geldiaraztea).

10. **Kautelazko neurriaren gehienezko iraupena aurreikustea, baita hori urriaren 1eko 39/2015 Legearen 56. artikulura egokitzea ere**, zehazki, proportzionaltasun, eraginkortasun eta garestitasun txikieneko printzipioetara egokitzea. Horrez gain, neurri hori hartzea debekatuko da interesdunei konpontzea zaila edo ezinezkoa den kalteak eragin ahal badizkie edo legeek babestutako eskubideak urratzea eragiten bada.

11. Prestazioa eteteko kausak baino ez diren jokabideak **mugatzea eta** arau-hauste bat eragiten duten eta prestazioa etetea eragin dezaketen eta arau-haustea izan daitezkeen jokabideengandik **bereiztea**.

12. **Zehapen-prozedura arautzea.** Zehapen-prozedura arautzeko eskaera egin dio askotan erakunde honek Lanbideri; horri erantzunez, Lanbidek adierazi egin du arauketa hori egingo dela. Txosten hau ixterakoan, ez dakigu arauketa hori egiteko aurretiazko prestakuntza-lanik egin den. Arartekoaren ustez, urriaren 1eko 39/2015 Legean eta urriaren 1eko 40/2015 Legean (25-31 artikuluak) arautako zehapen-prozedura bat eta zehatzeko ahalmena ezartzean eta hori jarraitzean beharrezko proportzionaltasuna mantendu ahalko da arau-haustea eragin duen egitatearen larritasunaren eta aplikatutako zehapenaren artean. Izan ere, beste aurreikuspen batzuen artean, zehapenak graduatzeko, hauxe hartu behar da kontuan: nahitasuna eta errepikapena; bidegabeki jasotako zenbateko ekonomikoa; familia-egoerak, bereziki egoera ekonomikoari dagokionez, edo berrerortzea. Gaur egun, betebeharrak ez betetzea eragiten duten jokabideei ematen zaizkien erantzunak heterogeneoak dira; izan ere, prestazioa jasotzeko eskubidearen etenaldia baino ez da aurreikusten.

    Zehapen-araubide bat ezartzeak legezkotasun, tipikotasun, erantzukizun eta proportzionaltasun printzipioak betetzea dakar, baita ustez erantzulea den pertsonaren eskubideak errespetatzea ere. Gainera, eskubide horien titularrek eta onuradunek egindako arau-hausteen preskripzioaren irudi juridikoa aplikatu behar da; hala, berme horrek lotura zuzena dauka Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikuluan ezarritako segurtasun juridikoko printzipioarekin.

    Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak arau-hausteen eta zehapenen araubidea aurreikusten du. Horren 105. artikuluan ezartzen dira arau-hausteak egiten direnean jarri beharreko zehapenak. Horiek Legearen 101-104 artikuluetan tipifikatuta daude.

    Arartekoaren ustez, zehapen-araubide bat ezartzean, bereizi ahalko lirateke prestazioaren titularrak betebeharren bat bete ez duen baina abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16. artikuluan eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitako betekizunak galdu ez diren kasuak. Horrela, zigorra

ezarriko litzateke, baina prestazioaren abonuari eutsiko litzaioke, prestazioaren titular izateko betekizunak betetzen direlako. Era berean, prestazioaren ordainketari eustea ahalbidetuko luke adin txikikoak badaude eta bizikidetza-unitateak prestazioaren titular izateko betekizunak betetzen baditu, nahiz eta betebeharren bat ez bete, erakunde honek apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrean proposatu duen bezala.

Azkenik, bereziki azpimarratzen da adingabearen interes gorena kontuan hartzeko beharra, erakunde honek aurreko gomendio orokorrean proposatutako terminoetan. Lanbidek erakunde honi erantzun dio printzipio honen ezarpena sektorearen araberakoa dela, hau da, haurtzaroaren eremuan bakarrik ezar daitekeela (guraso eta seme-alaben arteko harremanak, dibortzio egoerak, adopzio prozedura, tutoretza erregimena eta harrera eta antzeko egoerak). Arartekoak aldiz, adierazi du herri-administrazio guztiek bete beharreko araua dela. Jarrera hori baieztatu egin da haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa indarrean sartu ostean. Nabarmendu da lege organiko bat dela eta, beraz, izaera berezia daukala antolamendu juridikoaren iturrien sisteman. Lege organiko honek 1.21 artikuluan aurreikusi du lege aurreproiektuekin eta araudi-proiektuekin batera aurkeztu beharreko araudi-eraginaren azterketaren memorietan araudiak haurrengan eta nerabeengan duen eragina jaso behar dela. Aurreikuspen hori Adingabearen Babes juridikoari eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzeari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoari gehitzen zaio (urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa), hain zuzen ere, 22. artikuluan. Gainera, sarreran beren-beregi aipatzen dira Haurraren Eskubideen Nazio Batuen Batzordearen 2013ko maiatzaren 29ko 14. Ohar Orokorraren irizpideak. Ohar horretan jasotzen da haurrak eskubidea daukala bere interes gorena lehentasunez kontuan hartzeko. Hala, irizpide horiek gomendio orokorrean ere aipatu ziren.

Adingabearen interes gorena herri-administrazioen erabakietan kontuan hartu beharreko lege-agindu bat da eta hori esplizitatu beharko litzateke hartutako erabakiaren motibazioan, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren idazketa berriaren 2. artikuluan aurreikusitako terminoetan. Lanbidek hori hartu beharko luke kontuan araudiaren etorkizuneko aldaketa batean.

Arartekoak Lanbideren jarduketa bat aztertu du proportzionaltasunaren printzipioaren eta adingabearen interesaren ikuspuntutik, Arartekoaren 2016S-839-15 Ebazpena, 2016ko abuztuaren 3koa.

Ebazpen horretan, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren titularraren betebehar “formalak” ez betetzearen ondorioak aztertzen ziren (Izatezko Bikoteen Erregistroko baja ez jakinaraztea banatuta egotea egiaztatu arren). Hala, iradokitzen zen proportzionaltasunezko epaiketa bat egitea, non aipatutako betebehar formalak bete ez izanaren ondorioen larritasuna haztatzen den.

Hortaz, jo zen ez zegoela bidezko orekarik Lanbideren jarduketan; izan ere, neurriz gaineko zama zen kexagileak azkenengo lau urteotan jasotako prestazio guztiak itzuli behar izatea, kontuan hartu gabe Lanbidek espedientea berrikustean izandako atzerapena.

Ebazpenean, proportzionaltasun-printzipioa aipatzen zen; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziek zabalki garatu dute printzipio hori. Printzipio hori lehian dauden eskubide, interes eta balioen arteko gatazkak ebaztera bideratuta dago, eta, kasu honetan bezala, eskubide bat desnaturalizatzera eramaten duen araudi-aplikazio baten ondorioak neurriz gainekotzat jotzera, hain zuzen ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubidea. Izatezko Bikoteen Erregistroan baja hartzea bezalako betebehar formal bat ez betetzeak, banantzea egiaztatu arren, 4 urtetan jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra eragin du.

### 3. Bidegabeki jasotako prestazioak itzultzea

Betekizunak betetzen ez dituzten bizikidetza-unitateei prestazioak ordaintzeko prozedura behar bezala arautu behar da, horiek erreklamatu ahal izateko eta antolamendu juridikoan aurreikusitako bermeak betetzeko.

Eremu honetan, aparteko eginbidea eskatu behar da, hasierako emakidan eta aitortutako zenbatekoaren ondorengo aldaketetan, baita horren kontrolean ere.

Zentzu horretan, prestazioen kudeaketa egokia eta azkarra egitea eta betekizunak betetzen direla zaintzea legezko eta etikazko agindu bat da.

Bestalde, prestazioak berme guztiak betez itzuli behar dira; izan ere, eskubideen aldeko egintza bat indargabetzearen antzekoa da eta, hori araudian bertan aurreikusita egon arren, bermeak eskaintzen dituen administrazio-prozedura bat jarraituz egin behar da.

Lanbideri dagokionez, bidegabeki ordaindutako prestazioen erreklamazioek zenbait iskanbila sortu dituzte.

Atzerapenarekin burutu den jarduketa bat da. Lanbidek, hasiera batean, zailtasun handiak izan zituen prestazioen kudeaketan oinarrizko kontuak zirela-eta, horiek epe zentzudun batean ematea bezalaxe. Azaroaren 24ko 4/2011 Legeak egindako kudeaketa-aldaketak egiteko ez ziren beharrezko aurretiazko prestakuntza eta plangintza egin. Hori dela-eta, gabezi nabarmenak egon ziren aldundiek Eusko Jaurlaritzari helarazitako espedienteen kudeaketan eta dokumentuen, bai helarazitako espedienteen, bai espediente berrien informazioan eta artxibo edo digitalizazioan.

Beste zailtasun batzuen artean, ez zen inolako gailurik abiarazi bidegabeki jasotako prestazioak arintasunez erreklamatzeko edo emandako eta, batzuetan, behar bezala egiaztatu gabeko zenbatekoak aldatzeko. Hori dela-eta, lehenengo urte horietan zor altua sortu zen.

Bestalde, geroago erreklamatzeko diseinatu zen aurretiazko prozeduraren ondorioz, zenbait protesta eragin ziren eta erakunde honetan kexa ugari aurkeztu ziren. Jarraian, bidegabeki jasotako prestazioak erreklamatzeko gailua ezartzean egondako zenbait gertakari jasotzen ditugu.

Horrela, Lanbidek, hilabete berean, jakinarazpen ugari bidali zituen, hilabete horretan bertan bidegabeki ordaindu zirela jotzen zuen zenbait zenbateko

erreklamatuz (10.000 inguru); jarduketa hori oso polemikoa izan zen eta nahasmendu handia sortu zuen, pertsonei egoera hori jakinarazteko aurreikusitako gailuak ez zuelako behar bezala funtzionatu.

Kasu batzuetan, zor hori zenbait urtez eratu zen, zenbait arrazoiengatik. Espediente askotan, Lanbidek erantzukizuna zeukan zorraren sorkuntzan; izan ere, ez zuen prestazioaren zenbatekoa aldatu, prestazioa jasotzen zuten pertsonek zegozkien bulegoetan egoeren aldaketa jakinarazi bazuten ere (adibidez, diru-sarrerak handitzea…). Aldaketa hori egin izan balu, ordaindu beharreko diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa berehala doituko zukeen. Beste kasu batzuk ere bazeuden; adibidez, kasu batzuetan, eteteko edo iraungitzeko kausa zegoen baina prestazioa ordaindu zen eta ez zen zenbatekorik erreklamatu, denbora igaro arren eta prestazioa eten edo iraungi izan arren.

Arartekoak zenbait kontsulta jaso zituen; horien bidez, Lanbidek egindako jakinarazpenaren irismenari buruzko informazioa eskatzen zuten. Arartekoak jasotako kontsultei erantzun zien eta Lanbidek erreklamazioa betearazteko jarraitu behar zuen prozeduraren berri eman zuen, baita prestazioaren hartzaileak titular ziren berme eta eskubideen berri ere, Arartekoaren 2014C-1906-14 Ebazpenaren bidez, 2014ko urriaren 2koa.

Gainera, Arartekoak ofiziozko jarduketa bat hasi zuen eta 2015NI-2120-14 Ebazpena eman zuen, 2015eko ekainaren 8koa. Bertan, Lanbidek bidegabeki jasotako zenbatekoak erreklamatzeko jarraitutako prozedura aztertu zen eta ondorio hau atera zen:

> *"Gizarte bazterketa egoeran edo horretarako arriskuan zegoen jende askorengan nahasmena eragin zuen, eta babesgabetasuna eragin ahal izan zuen 2012. urteari zegokion zorrari buruzko aurretiko jakinarazpena bidaltzeak, Lanbideren jakinarazpenetan hutsuneak egon ziren urtea izaki, ez baitzegoen bidegabe jasotako prestazioen jatorriari buruzko informazio eskaerei zehaztasunez erantzuteko bitarteko nahikorik".*

Lanbidek erakunde honi erantzun dio diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuan eta etxebizitzarako prestazio osagarria arautzen duen urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuan aurreikusitako itzultzeko prozedurak jarraituko dituela. Horrez gain, esan dio ez zaizkiela aurretiazko jakinarazpenak bidaliko pertsona askori eta, gure ustez, hori positiboa da.

Lanbidek pertsonei bidegabeki jasotako prestazio ekonomiko gisa erreklamatzen zaien kantitatearen jatorriari, arrazoiei eta kontzeptuei buruz xehetasunez jakinarazteko esfortzuak egiten jarraitu behar du. Horrez gain, kontuan izan behar ditu aurkezten diren alegazioak, ukitutako pertsonek zorra jakinarazteko idatziarekin ados daudela esan badute ere. Prestazioak bidegabeki jaso ez direla ondorioztatzen den kasuetan, espedientea berrikusi beharko litzateke.

Erakunde honek uste du egokia dela Lanbidek portzentajezko eskala bat ezarri izana zorra zatikatzeko, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 57.4 eta 57.5. artikuluak eta urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 35.4 artikulua aplikatuz. Hala,

horiek diru-sarreraren deskontuko edo portzentajezko gehieneko muga aurreikusten dute (prestaziorik ez jasotzekotan). Bermatutako diru-sarreren murrizketak bazterkeriaren aurka borrokatzeko gailuak oztopatzen ditu. Beraz, azpimarratu behar dugu, itzultzeko gehieneko ehunekoa zenbatzean, beharrezkoa izango litzatekeela hauxe haztatzea: ostatuaren gastuak; familian haurrak dauden eta Bizikidetza-unitatearen guraso bakarreko izaera.

Lanbidek jakinarazpen masiboak bidaltzeari utzi dio eta informazioa hobetu du prozedurari eta zenbatekoak erreklamatzeko arrazoiei dagokienez. Hala, erakunde honek uste du hori positiboa dela. Gainera, 1/2015 Zirkularra egin du, oker jasotako prestazioak itzultzeko baldintzak ezartzeari buruzkoa. Bertan, zenbait egoera bereizi ditu eta prestazioak itzultzeko aukera ezberdinak aurreikusi ditu, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaile izan ala ez izan, eta, azken kasu horretan, aurretik jasotzen zuen diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoaren %150 baino gehiagoko diru-sarrerak eduki ala ez eduki. Zirkularrak trataera ezberdina ematen du, baita ere, Lanbidek erantzukizunik izan badu zorra sortzeko orduan edo titularrak iruzurrezko jarduerarik egin badu, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko edo mantentzeko asmoz, jakinaren gainean egonda ere ez dituela horretarako betekizunak betetzen.

Goragoko diru-sarrerak edukitzekotan edo iruzurrezko jarduerak egin badira, %30eko muga mantentzen da itzulketaren zatikapenean.

Beste kasu batzuetarako, zorraren likidazioa zatikapenaren bidez egitea aurreikusi du zirkularrak, zenbait baldintza kontuan hartuta. Zatikapen hori borondatezko fasean egin daiteke, itzultzeko prozedura baino lehen jakinarazpena jasotzen denean, edo, bestela, fase erabakitzailean, zenbatekoak itzultzeko betebeharra adierazten denean.

Kide kopuruaren araberako ehuneko eskala kontuan hartuta edo 30 euroko kuota sozialaren bitartez egingo da itzulketa, Lanbideren erantzukizuna tartean egon bada, edo baldintza jakin batzuk betetzen badira: finantza-aktibo bihurgarriak eta dauzkaten diru kopuruak zenbateko jakin batzuk baino txikiagoak izatea; hiru kidetik gora edo 18 urtetik beherako adin txikikoak, ezgaitasunen bat duten pertsonak edota menpeko pertsonak dituen edota guraso bakarreko bizikidetza-unitatea izatea edo hileko kuota zehatza duen mailegua edo bahitura edukitzea.

Zirkular hori, Arartekoaren ustez, oso aurrerapauso garrantzitsua izan da, Lanbideren jarduketa zalantzagarri batzuk elkartzen ziren egoera bati eta ahultasun-egoerei erantzuten dielako, beharrezkoa denean bizitza-minimo bat bermatzea. Konstituzio Auzitegia, 1989ko ekainaren 22ko 113/1989 Epaian, gizarte prestazioren bat jasotzen duten pertsonen duintasuna bermatzeko garrantziari buruz mintzatu da, eta, duintasun hori lortzeko, bahitu daitezkeen zenbatekoei mugak ezartzeko beharra azpimarratu du.

> *"Los valores constitucionales, que conceden legitimidad al límite que la inembargabilidad impone al derecho del acreedor a que se cumpla la sentencia firme que le reconoce el crédito, se encuentran en el respeto a la dignidad humana, configurado como el primero de los fundamentos del orden político y de la paz social en el art. 10.1 de la Constitución al cual repugna,*

*según aduce el Abogado del Estado, que la efectividad de los derechos patrimoniales se lleve al extremo de sacrificar el mínimo vital del deudor, privándole de los medios indispensables para la realización de sus fines personales así como en la protección de la familia, el mantenimiento de la salud y el uso de una vivienda digna y adecuada, valores éstos que, unidos a las prestaciones sociales suficientes ante situaciones de necesidad que debe garantizar el régimen público de Seguridad Social, están constitucionalmente consagrados en los arts. 39, 41, 43 y 47 de la Constitución, y obligan a los poderes públicos, no sólo al despliegue de la correspondiente acción administrativa prestacional, sino además a desarrollar la acción normativa que resulte necesaria para asegurar el cumplimiento de esos mandatos constitucionales, a cuyo fin resulta razonable y congruente crear una esfera patrimonial intangible a la acción ejecutiva de los acreedores que coadyuve a que el deudor pueda mantener la posibilidad de una existencia digna"* (3. ZO).

Arartekoak uste du, etorkizunean araudia aldatzekotan, hobetzeko eremu hauek hartu beharko zirela kontuan:

1. **Zor bat dagoela jakinaraztea.** Zor bat sortu egin dela eta zor hori mantentzeko arrazoiak jakinaraztea arintasunez bete beharko litzatekeen oinarrizko berme bat da. Jakinarazpen horretan, zorra sortzeko arrazoiak jaso beharko lirateke, baita zorraren data eta Lanbidek hori aitortzeko egindako kalkulua ere.

2. **Ordaindutako prestazioak erreklama daitezkeen kasuak argitzea.** Beharrezkoa da hausnartzea zein kasutan den beharrezkoa prestazioak itzultzea.

Arartekoak uste du maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56-58 artikuluetako aurreikuspenak ez direla nahikoak kasu guztiei erantzuteko. Hori dela-eta, Lanbideko bulegoak eta Lanbideren Zerbitzu Nagusiak interpretazio desberdinak egiten ari dira. Proposatzen da egungo araudia berrikusteko, ordaindutako prestazioak itzultzeko eska daitekeen kasuak zehazteko.

Lanbide ordaindutako prestazioak erreklamatzen ari da arrazoi hauengatik:

- Betekizunen galera.

- Betebeharrak ez betetzea.

- Bizikidetza-unitatearen diru-sarreren aldaketa edo epe barruan eta behar den moduan jakinarazten diren beste egoera batzuk.

Erakunde honek zehaztasunez aztertu zuen Lanbide jarraitzen ari zen prozedura diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kontzeptuan bidegabeki jasotako prestazioak erreklamatzeko; prozedura hori aztertu zuen Arartekoaren 2015R-835-15 Ebazpenean, 2015eko abenduaren 22koa.

Arartekoaren ustez, aurreko ebazpenean aztertu genuen bezala, prestazioa jasotzeko eskubidearen titular izateko betekizunak betetzen dituen bizikidetza-unitateak betebeharrak betetzen ez baditu, prestazioen erreklamazioa (ez betetzearen gainerako ondorioez gain) neketsuegia da.

Kexak izapidetzean, egiaztatu dugu, kasu batzuetan, azaldutako jokabideak (eta aurpegira daitekeena), besteak beste, etxebizitzaren aldaketa atzerapenarekin jakinaraztea; alokairu gastuen ziurtagiriak ez aurkeztea edo egun batzuk irtetea Euskadiko Autonomia Erkidegotik, neurriz gaineko ondorioak eragiten dituela: prestazioa etetea espediente bakoitzean aldatzen den epe batez (espedienteetan dagoen aldea justifikatzeko arrazoirik egon gabe) edo prestazioak itzultzea betebeharra urratu zenetik Lanbidek ez-betetze hori hauteman eta etenaldia ezarri zen arte (horren ondorioz, zor altua sor daiteke). Gainera, prestazioaren indarraldian bigarren etenaldi bat ezartzen den kasuetan, ezingo da prestazioa urtebetez berriz eskatu.

Zentzu horretan, Arartekoaren ustez, Lanbidek duen **berrikusteko eskumenak** ezin du prestazioak itzultzeko betebeharra ekarriko duen bide hedagarririk eduki, prestazioaren titularra izateko betekizunei edo esleipena eragin zuten arrazoiei eragiten ez dieten betebeharrak bete ez izanean oinarrituta. Espainiako Konstituzioaren 9.3. artikuluak segurtasun juridikorako eskubidea bermatzen du. Horrekin, egoera juridiko bat, esaterako, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarrirako eskubidearen aitorpena, mantenduko delako ziurtasuna bermatzen da, onuradunak berau jasotzeko betekizunak betetzen dituelako, eta administrazioak ezin du, legezko euskarri argirik izan gabe, berau itzultzeko eskatu.

Horrenbestez, Lanbideri jakinarazi zaio prestazioen erreklamazioa soilik ezarri ahalko zela, erakunde honen ustez, betekizunak galtzen direnean edo aitortutako zenbatekoa aldatu behar denean, prestazioa kalkulatzeko kontuan hartutako egoerak aldatzeagatik.

Gainera, adierazi zen aldi batez eten denez prestaziorako eskubidea edo prestazioa iraungi egin denez eta eragindakoak ezin duenez urtebeteko epean berau berriro eskatu, araudiak betebeharra ez betetzeagatiko "ondorio negatiboa" aurreikusi du jada.

Zenbait hilabetez prestazioa etetea eta jasotako prestazioak itzultzea edo urtebetez prestazioa ezin eskatzea, denak batera, oso ondorio neketsuak dira familientzat eta, batzuetan, ez-betetze zehatz batzuei dagokienez, esan daiteke neurriz gainekoak ere badirela. Bestalde, aurretik adierazi den bezala, erabakia hartzen duen organoaren arabera, hau da, dagokion bulegoaren arabera, larritasuna desberdina izaten da.

Azpimarratzen da beharrezkoa dela prozeduraren eta egiten ari diren prestazioen erreklamazioen inguruan hausnartzea. Beharrezkotzat jotzen da prestazioaren kudeaketaren eremu honetan arauketa osoagoa egotea, ordaindutako prestazioak zein kasutan itzuli behar diren argitzen duena.

Azpimarratzen da diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioen emakidaren helburua dela beharrizan oinarrizkoenei aurre egitea, etxebizitzarekin edo ohiko bizilekuarekin eta gizarteratzeko edo lanean txertatzeko prozesutik eratorritako gastuekin lotutako beharrei aurre egitea; hortaz, bidegabeki jasotako prestazioen etenaldia eta itzulketa berme guztiekin hitzartu

behar da. Horrez gain, gogoan eduki behar dira segurtasun juridikoaren, arbitrariotasun debekuaren eta proportzionaltasun epaiaren printzipioak.

Lanbidek, erakunde honi bidalitako erantzunean, jakinarazi du ez duela ordaintzeko prozeduren aurretik jakinarazpen gehiagorik bidaliko. Hala ere, modu desegokian jasotako zenbatekoen jakinarazpena bidaltzen jarraituko da, berrikuspen-espedientea amaitzeko ebazpenarekin batera. Hori ere egingo da aldatzeko, eteteko edo iraungitzeko prozeduren ebazpenean.

Modalitate horrek ez du jasoko borondatezko ordainketak egiteko aukera. Bertan, adieraziko da geroago ordaintzeko prozedura bat hasiko dela eta Lanbide interesdunarekin jarriko dela harremanetan.

Horrez gain, Lanbidek adierazi du aipatutako jakinarazpenarekin batera taula bat erantsiko dela; taula horretan, bidegabeki jasotako prestazioak nola eta zein epetan sortu diren azalduko da.

Bestalde, bidegabeki jasotako prestazioen arrazoiei dagokien erantzunean, adierazi da irizpideak ez betetzeko kasuetan eta egoerak aldatzean sortzen direla, baina batzuetan aldi berean ematen dira aurreko kasuak eta betebeharrak ez betetzea, bidegabe jasotakoak sortuz, baina ez arau-hausteengatik baizik eta irizpideak ez betetzeagatik.

Adierazi beharra dago Lanbidek, noizean behin, herritarrari oker erreklamatu diola, arau-hausteagatik, baina akatsa dela ikusi ondoren konpondu duela.

Azkenik, jakinarazten da, betebeharrak ez betetzeak hartzaileengan dituen ondorioen berrikuspenari dagokionez, Lanbide ez-betetze horien aurrean zehapen-prozedurak hasteko aukera aztertzen ari da. Baina, bitartean, betebeharrak eta betekizunak betetzen ez diren kasuetan, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak 43-52 artikuluetan ezarritako arauketa aplikatzen dute.

Erakunde honi ondo iruditzen zaio ordaintzeko prozeduren aurreko jakinarazpenak ez bidaltzea modu autonomoan. Horrez gain, uste du ezinbestekoa dela taula jakinaraztea eta horretan pertzepzio desegokiak nola eta noiz sortu diren jasotzea.

Arartekoak azpimarratu du garrantzitsua dela hasieratik bidegabeki jasotako prestazioak erreklamatzeko arrazoien inguruko informazioa ematea. Informazio hori bidaltzea funtsezkoa da; hortaz, Lanbideri gomendatzen zaio taula beti bidaltzeko. Zehapen-prozeduraren garapenari dagokionez, epigrafe honetan adierazitakora jotzen dugu: *"2. Prestazioen ordainketa geldiaraztea eta prestazioen eskubidea etetea eta iraungitzea".*

### 4. Enplegurako pizgarriak

Azkenengo urteotan, Europan biziki garatu egin dira *making work pay* edo **enpleguaren errentagarritasuna** izeneko politikak. Horiek laneratzea aukera erakargarri edo errentagarri bihurtzera bideratuta daude, bai gutxieneko errentak jasotzen dituztenentzat, bai lanean ez dauden pertsonentzat. Politika horien garapena aktibazioaren paradigmaren osagai funtsezkoetako bat da; horrek dakarrena da soldata baxuak jasotzearekin lotutako edo horren menpeko diru-

sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoen eredu batera igarotzea. Formula honela itzul daiteke: lanak konpentsa dezala lortu (Zalakain, 2014, 39. or.).

Kontua da *txirotasunaren tranpa* deritzon horretatik ihes egitea; horrela ulertzen da prestazioa eskatzen duen pertsonak eskuratzen dituen laneko diru-sarrera guztiak kontuan hartzeak dakarren pizgarria kentzen duen ondorioan. Izan ere, diru-sarrera horiek eragozten diote edozein gizarte-laguntza eskuratzea.

Bestalde, funtsezko beste aldaketa bat aipatu behar da, ongizatezko estatuak enplegurantz bideratzeari dagokiona, hau da, aktibaziozko politiketaranzko bira. Horrek esan nahi du gizarte-babesaren eta integrazioaren arteko harremana indartzen dela lan-merkatuan.

Herrialde bakoitzean estrategiak desberdinak diren arren, Europa osoan nabarmendu da gizarteratzea sustatzeko garrantzitsuagoa dela lan-merkatuan sartzea, prestazio sozialak ematea baino. Gainera, laneko parte-hartzea areagotzea beharrezko elementutzat jotzen da, Europaren lehiakortasuna sustatzeko ekonomia globalizatuan.

Europako Batzordearen datuen arabera [Kontseiluaren 2016ko otsailaren 15eko Gomendioa, iraupen luzeko langabetuak lan-merkatuan integratzeari buruzkoa (2016/C 67/01)],2008. eta 2015. urteen artean, iraupen luzeko langabetuen kopurua bikoiztu egin zen eta, gaur egun, Europako langabetuen erdia iraupen luzekoak dira, hau da, langabezian egon dira 12 hilabete baino gehiago.

2015eko hirugarren lauhilekoan, Europan iraupen luzeko langabeen kopurua 10,5 milioikoa zen. Urte horretan, iraupen luzeko langabezia-tasa Espainian, Eustaten arabera, 11,4koa zen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan 10,2koa.

Bestalde, 2016ko irailean enplegu-bulegoetan inskribatutako langabeen kopurua 144.116koa zen (64.644 gizon eta 79.472 emakume) (*Euskadiko Egoera Soziolaborala, 2016ko III Hiruhilekoa*, 19. or.). Gaur egun, langabezia-tasa %12,6koa da.

Iraupen luzeko langabezia Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistemaren prestazioak jasotzen dituzten pertsonen kolektiboak duen ohiko arazo bat da; izan ere, zenbat eta denbora gehiago egon lan-merkatutik kanpo, baxuagoak dira enplegagarritasun itxaropenak.

Enplegu duina eta gizarte babes egokia gizarte kohesiorako, desberdintasunaren aurka borrokatzeko eta demokraziarako ezinbesteko faktoreak dira.

Joera horrekin bat etorriz, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 3. artikuluak, *"Oinarrizko printzipioak"* epigrafearekin, hauxe adierazten du:

> *"Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak printzipio hauek beteko ditu:*
>
> (…)

> *g) Gizarte-arloko politikak aktibatzea eta enplegua errentagarri egitea. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, prestakuntza-, orientazio- eta laneko bitartekaritza-neurriak, babestutako gizarte-enplegua edo kontratuak egiteko laguntzak ez ezik, formula jakin batzuk ere ezarriko ditu, lan-merkatuan sartzea aukera erakargarriagoa eta errentagarriagoa izan dadin diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak jasotze hutsa baino".*

Beraz, hori da, hain zuzen ere, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren printzipio gidarietako bat.

Aurretiazko adierazpen horren zehazpena **abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 20.2.b) eta 53.2 artikuluetan gauzatzen da.** Hala, artikulu horiek ezartzen dute, **enpleguaren pizgarria** indartze aldera, bizikidetza-unitatearen etekinen zenbaketatik kanpo geratuko direla norberaren kontuko edo besteren kontuko lanetik eratorritako diru-sarreren zenbait ehuneko, eskatzaileari edo bizikidetza-unitate horretako beste kide batzuei dagozkienak. *"...Pizgarri horrek aldi baterako izaera izango du, araudiak ezartzen dituen terminoetan, enpleguko zerbitzuek luzatzea gomendatzen duen berariazko irizpena ematen badute izan ezik"*.

Arau horren asmoa da diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzeak enplegurako sarbideari pizgarria kentzea saihestea, aurretik aipatu egin den txirotasunaren tranpa hori prebenitze aldera.

Manu honen araudi-garapena maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 21.3 artikuluan kokatu behar da; izan ere, horrek ezartzen du gehienezko epea enplegurako pizgarriak baliatzeko. Hala, 36 hilabeteko epea ezartzen du, hasierako 24 hilabete, gehi luza daitezkeen beste 12 hilabete.

Zenbaketatik kanpo geratzen den norberaren edo besteren kontuko lanetik jasotako diru-sarreren ehunekoa Justizia, Lan eta Gizarte-segurantzako Sailburuaren 2001eko otsailaren 14ko Aginduaren 2. artikuluan jasotako formularen arabera ezartzen da. Agindu horren bidez, Oinarrizko Errentaren titularren eta Gizarte-larrialdiko Laguntzen onuradunen enplegurako pizgarriak ezartzen dira.

Formula honek zenbaketatik baztertutako diru-sarreren zenbatekoa haztatzen du, bizikidetza-unitatearen kide kopuruaren eta lanetik jasotako diru-sarreren zenbatekoaren arabera.

Erantzun hori Europar Batasunean komuna izaten ari den arren eta azaldutako oinarri kontzeptuala gorabehera, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren enplegurako pizgarrien oraingo eraketa justifikatzen duena, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta lana pizten duen printzipio hori praktikara eramatean oztopo argi bat dago denbora-mugaketa dela-eta.

Zentzu horretan, egiaztatu egin dugu gai horren inguruan erakunde honetan izapidetutako kexa-espedienteetan Lanbidek automatikoki aplikatu egin duela maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 21.3 artikuluan ezarritako aurreikuspena eta Laneko Errenta Osagarria eman duela, gehienez ere, hiru urtez. Hala, bizikidetza-unitateko beste kide batek beste hiru urtez baliatzeko aukera ematen du.

Jakina den bezala, abenduaren 23ko 18/2008 Legeak garatu duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak, arautzeko ahalmena erabiliz, pizgarrien iraunaldia zehaztu du (hogeita lau hilabete, gehi luzapeneko hamabi hilabete). Erakunde honen ustez, dekretua aldatzeko proposamen bat egin ahalko zen. Hau da, enplegu zerbitzuek irizpena eman aurretik, iraupena 36 hilabete baino gehiago luzatu ahal izateko.

Ikuspuntu horretatik, Arartekoaren proposamena izango litzateke oraingo denbora-mugaketa handitzea; izan ere, oraingo lan-egoeran, gehienez ere, hiru urte aurreikusten dira eta argi dago hori ez dela nahikoa. Handitzen bada, enplegu zerbitzuaren irizpenaren bidez, kasu batzuetan, Laneko Errenta Osagarriaren emakida luzatu ahalko zen dekretuan aurreikusitako 36 hilabete baino gehiago.

Laburbilduz, ezinbestekoa da laneratzea errazten duten mekanismoen inguruan hausnartzen jarraitzea; hala ere, bitartean eta lan-merkatuaren oraingo egoera ikusita, gizarte-babes osagarria beharrezkoa da. Gaur egun, enpleguaren pizgarriei hiru urteko iraupena aplikatzen zaie eta hori, askotan, ez da nahikoa. Hortaz, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren etorkizuneko aldaketa batean iraupen hori luzatzeko proposatzen da.

### 5. Gizarte Zerbitzuekin koordinatzearen garrantzia

Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak eta, batez ere, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak egindako aldaketak esku hartzeko modua aldatu zuten, 1989an Txirotasunaren aurka Borrokatzeko Plan Integrala abiarazi zenetik.

Data horretatik aurrera eta hurrengo 20 urteetan, araudi desberdina onetsi egin zen; horren helburu nagusia zen gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzea.

Lan-aktibazioa txertatu egin da arrisku edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonei ematen zaien arretako elementu bektore gisa eta Gizarte-zerbitzuen paperaren inguruko hausnarketa eta bilakaera sustatu dira, araudi-esparru berriaren ondorioz (Gizarte-zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea). Horiek, beste faktore batzuen artean, kudeaketaren erantzukizunean aldaketa bat egitea eragin dute; izan ere, gaur egun, kudeaketa hori Enplegu eta Gizarte-politiketako Sailaren eskuetan dago. Prestazioen izapidetzea eta emakida jadanik ez dira burutzen Gizarte-zerbitzuen esparruan (hiru eremuen, hau da, udal, lurralde eta autonomia eremuen artean zegoen eginkizunen banaketarekin). Izan ere, gaur egun Eusko Jaurlaritzak hartzen ditu horiek bere gain osorik Lanbideren Bulego desberdinen bidez.

Kudeaketa-eredua aldatu zenetik, esfortzu handiena prestazioen kudeaketa egitera bideratu egin da. Hala ere, oraindik urriak dira erabiltzaileen lan-orientaziora eta lan-aktibaziora bideratutako jarduketak.

Gainera, Lanbideko langileek garatu egin dute eginkizun hori eta guztiek ez zuten prestakuntzarik gizarte-lanaren eremuan. Hori dela-eta, askotan, tentsioa eta gatazkak sortu egin dira erabiltzaileekin, indarreko ereduarekin apurketa bat egin delako, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak egindako erreforma baino lehen. Aurreko ereduan, erabiltzaileek harremana zuten Udal Gizarte-zerbitzuetako langileekin;

langile horiek arduratzen ziren eskaera izapidetzeaz eta lan horrek gizarte-lanaren izaera zeukan.

Bestalde, erakunde honek izapidetutako espediente askotan, hauteman da oraingo ereduak ez duela behar beste kontuan hartu Gizarte-zerbitzuek bazterkeriaren aurkako borrokari dagokionez garatzen zuten lana. Araudian ez da horien esku-hartzea aurreikusten, agian azaroaren 24ko 4/2011 Legearen araudi-garapena burutzeke dagoelako. Beraz, Udal Gizarte-zerbitzuen edo espedientea izapidetzeko ardura duen Lanbideren bulego zehatzaren ekimenaren menpe dago, baita ukitutako beste aldearen prestutasuna eta harmenaren menpe ere. Horrez gain, ez dago aurreikusita foru aldundiek kudeatutako Bigarren Mailako Arretako Gizarte-zerbitzuekiko harremana.

Kexak izapidetzean eta erakundearen beste esku-hartze batzuetan, egiaztatu egin da beharrezkoa dela bi sistemen arteko lankidetza-esparru egonkor bat ezartzea, pertsonen beharrak osorik ase ahal izateko, batez ere gizarte-bazterkeria arriskuan dauden kolektibo batzuei edo diskriminazioa jasaten duten edo adinagatik ahultasun egoeran dauden, indarkeria jasandako, mugaketa funtzionalen bat duten edo gutxiengo kultural baten kide izateagatik diskriminazioa jasaten duten kolektibo batzuei dagokienez, beste zailtasun sozial batzuen artean.

Hala, Arartekoaren 2016S-1259-15 Ebazpena aipatzen da, 2016ko maiatzaren 24koa; bertan, koordinatzeko zailtasunak agerrarazi ziren, kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatutako Bigarren Mailako Gizarte Zerbitzuekin koordinatzeko zailtasunak.

Bertan, iradokitzen zen, gizarte-hezkuntzako esku-hartze programa batean parte hartzen ari den familia bati eragiten dioten erabakietan, Gizarte Zerbitzuekin koordinatzeko. Familia hori gizarte-hezkuntzako familia esku-hartzeko programa batean parte hartzen ari zen, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.2.b) artikuluan aurreikusitako bestelako helburu batzuekin; izan ere, dekretu horrek enplegagarritasunarekin lotutako ekintzak baino ez ditu aurreikusten. Arartekoaren ustez, familiak programa horretan parte-hartzea kontuan hartu beharko litzateke. Horrez gain, egiaztatu egin zen deskoordinazio handia zegoela familia esku-hartzeko programatik lantzen ari ziren eta Lanbideren helburuen artean, gutxienez prestazioak iraungitzeko erabakiari dagokionez.

Arartekoak jo zuen aztertu behar zela enplegua ukatzeko arrazoi justifikaturik ote zegoen, kontuan hartuz sinatutako inklusio aktiboko hitzarmenak ez zituela aipatzen parte hartzen ari zen gizarte-hezkuntzako esku-hartze programaren ondorioz ezarritako ekintzak eta konpromisoak. Programa hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa da.

Pertsona hori esku hartzen ari ziren profesionalen argibideak eta orientazio desberdinak jasotzen ari zen (kasu batzuetan, baliteke bateragarriak ere ez izatea). Beraz, ez zekien zein zen lanpostu bat lortzeko hautapen prozesuan ez parte hartzeko erabakiaren irismena. Familia gizarte-hezkuntzako esku-hartze programa batean zegoen 2012tik, zailtasunak zituelako zituen erantzukizunei aurre egiteko; hala, kexagilearekin programa hori burutzen ari zen 2014tik. Arartekoaren ustez, Lanbidek gizarteratze eta laneratze prozesuak sustatzeko esku hartu duten beste

eragile batzuen diagnosia eta gizarte esku-hartzeak aintzat hartzea zentzuzkoa da. Halaber, zentzuzkoa da baldintza hauetan inklusio aktiboko hitzarmenak egoerara egokitutako jarduketak eta betebehar zehatzak barne hartzea, Lanbiderekiko harremanetik zein Gizarte-zerbitzuen Sistematik ondorioztatutakoak.

Egia da azaroaren 24ko 4/2011 Legearen araudi-garapena egiteke dagoela; beraz, araudi-garapen horretan organo kudeatzailearen, hau da, Lanbideren oraingo kudeaketa barne hartzen duten jarduketak sartu behar dira, baita esku har dezaketen gainerako eragile publikoek bete beharreko papera ere. Ukaezina da egoera askok, laneko osagaiaz gain, osagai sozial bat dutela, kontuan hartu beharko litzatekeena.

Bestalde, Lanbide eta Udal Gizarte-zerbitzuen arteko lankidetza-protokoloen formalizazioaren oraingo aurreikuspena ez da nahikoa izan arreta ematen zaien herritarren beharrak asetzeko. Gainera, udal guztiek ez dute hori aplikatu eta, egia esan, elkarlanean aritzeko zenbait modalitate daude. Izan ere, gaur egun, Udal Gizarte Zerbitzuen arteko harremana Lanbideren eta dagokion udal oinarrizko zerbitzu bakoitzaren zoriaren mende dago.

Arartekoaren ustez, Lanbidek eta Udal Gizarte Zerbitzuek arreta ematen dieten pertsona askoren gizarte-bazterkeriako egoerak edo arriskuak oso desberdinak dira; horregatik, hausnarketa serioa egin behar da gizarte-zerbitzuen printzipio orokorra betetzeko, hau da, pertsonan oinarritutako arreta emateko printzipioa, baita arretaren jarraitutasunaren printzipioa ere. Horrez gain, hausnarketa egitea beharrezkoa da gizarteratze eta laneratze prozesutik eratorritako beharrei erantzuteko.

Horren ondorioz, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema aztertzen ari diren aditu guztiek atera dute ondorio berbera, ebidentzia bat dena: “pertsona guztiak ezin dira lanerako aktibatu”. Horretatik ondorioztatzen da Lanbideko Bulegoek lanerako aktibatu ezin diren pertsonen beharrei ematen dieten arreta ez dela egokia, ez delako gizarte-arretan espezializatutako erakunde bat eta, gainera, printzipioz, gizarte-lanaren esparruan trebatuta dauden langilerik ez dutelako.

Gainera, pertsona batzuek, adinagatik, osasunagatik edo dituzten gabezi sozialengatik, hasiera batean, ez dute laneko orientaziorik behar, baizik eta gizarte-arreta espezializatua. Hala ere, geroago, egindako aurrerapenak ikusi ostean eta dagokion irizpide teknikoarekin, baliteke laneko orientaziora desbideratzea.

Arartekoak 2016ko ez-ohiko txostenean, *Udal Gizarte Zerbitzuen Egoera Euskadiko Autonomia Erkidegoan: egungo egoera eta hobetzeko proposamenak*, Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei eta udalei (udalen elkarteak barne) zuzendutako eta interesgarria izateagatik transkribatzen den gomendio hau eman zuen:

> *“24.* ***Koordinazioa diru-sarrerak bermatzeko sistemarekin: oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren arteko harremana eta horiek diru-sarrerak bermatzeko sisteman duten zeregina berrikustea***
>
> *Diru-sarrerak bermatzeko sistemak kanpoan uzten ditu oinarrizko beharrei aurre egiteko behar besteko baliabide ekonomikoak ez dituzten pertsonak, bai betekizunak ez betetzeagatik, bai betebeharrak bete ez dituztela balioetsi*

*delako. Ondorioz, pertsonek eta familiek oinarrizko gizarte zerbitzuetan eskatzen dituzte laguntza eta arreta, behar oinarrizkoenei aurre egin ahal izateko eta prestazioak berreskuratzeko ibilbide instituzionalean laguntza eskatzeko.*

*Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren artean aurreikusi den lankidetza-markoa pertsonen enplegagarritasunari eta gizarteratze aktiborako hitzarmenetan izena emateari bakarrik dago lotuta, hartzaile nagusiak edo bizikidetza-unitateko kide batzuek esku-hartze soziala eskatzen duten kasuetarako.*

*Pentsiodunak edo bazterketa egoera larrian dauden pertsonak ez lirateke talde horretan sartuko, izan ere, ez dira enplegagarriak. Hala ere, askotan, bi sistemek ematen diete arreta, eta, beraz, bikoiztu egiten dira horien arretari bideratutako baliabideak. Gainera, urte hauetan, Lanbidek zailtasunak dituela hauteman da, gizarte bazterketa egoera larrian dauden pertsonei arreta emateari dagokionean.*

*Pertsona askok jarraitzen dute oinarrizko gizarte zerbitzuetara jotzen informazio eta aholku eske; bai prestazio ekonomikoen hartzaile izateko bildu behar dituzten betekizunei buruzkoa, bai prestazioak berrabiarazteari buruzkoa, aipatu prestazioen abonua eteten zaienean. Hortaz, bete behar dituzten betekizunen inguruan arreta eta aholkua ematen jarraitzen dute gizarte zerbitzuek.*

*Azaldu dugun egoera dela-eta, bi sistemen arteko lankidetza eta koordinazioa berrikusi beharko litzateke.*

*Orain arte koordinaziorako aurreikusi den neurria protokolo bat aktibatzea izan da, bai Lanbideren aldetik, bai oinarrizko gizarte zerbitzu baten ekimenez. Proposatu dugun lankidetza-protokoloa, ordea, ez dute udal guztiek sinatu, eta ez dira modu orokorrean aplikatzen ari. Beraz, zabal berrikusi beharko lirateke bai lankidetza mugatzen duen markoa, bai aurreikusitako prozedura.*

*Bi sistemen arteko lankidetza egon dadin, elementu hauek aurreikusi behar dira:*

- *Bi sistemek partekatu behar dute informazioa; hortaz, beharrezkoa da bi sistemek burututako jarduerak jasotzeko tresnaren bat edukitzea. Horrekin, gizarte zerbitzuek artatzen dituzten bazterketa egoera larrietan (edo, oro har, pertsonak enplegagarriak ez direnean), eta partekatutako informazioari erreparatuta, Lanbidek zerbitzu horien esku utzi ahal izango du prestazio ekonomikorako eskaera.*

- *Oinarrizko arretarako gizarte zerbitzuetara bideratu behar dira Lanbideren bulegoetan artatzen diren eta, gizarte bazterketa edota mendekotasun edo babesgabetasun arriskuan edo egoeran egoteagatik, hau da, zerbitzu horiek berezkoak dituzten gertakizunengatik, esku-hartze soziala behar duten pertsonak.*

– *Gizarte zerbitzuen txostenek Lanbidek kudeatzen dituen prestazio ekonomikoen espedienteetan izango duten garrantzia hitzartu behar da, bai betekizunak betetzeari dagokionean, bai prestazioak etetea edo iraungitzea adosten duten ebazpenei dagokienean.*

– *Era berean, komenigarria litzateke txosten sozialek jaso beharko luketen edukia adostea, diru-sarrerak bermatzeko sistemarako baliagarriak izan daitezen.*

– *Gizarteratze Aktiborako Hitzarmeneko konpromisoak Arreta Pertsonalizaturako Planean (eta alderantziz) txertatuko al diren eta nola, eta bietan aldaketak sartzeko prozedura txertatuko al den eta nola.*

– *Oinarrizko gizarte zerbitzuko erreferentziazko gizarte langileek eta Lanbideko lan-orientatzaileek hartu dituzten konpromisoen segimendua, hau da, Banakako Jardunbide Planean eta Gizarteratze Aktiborako Hitzarmenean sartutako konpromisoak bete diren ala ez baloratzeko modua.*

*Diru-sarrerak bermatzeko sistemari lotutako prestazio ekonomikoen kudeaketak -etxebizitzako gastuak konpentsatzekoak eta gizarte behar larrietarako laguntzen hornidura eta erregulazioa barne hartuta- eragin zuzena dauka udaleko gizarte zerbitzuetan; beraz, eremu horretan hartzen diren erabakiek (etxebizitzarako prestazio osagarriaren etorkizuneko ezabaketak, adibidez), bai legegintza mailan, bai antolakuntza eta kudeaketa mailan, kontuan hartu beharko lukete zer-nolako eragina duten udaleko gizarte zerbitzuetan, eta, horretarako, eta funtsezko alderdi gisa, kontuan hartu beharko lukete udaleko gizarte zerbitzuen iritzia”* (180-181 or.).

Erakunde honek uste du interesgarria dela hori betetzea: Barne hartzen dituen hobetzeko proposamenak hauek dira:

– Udal Gizarte Zerbitzuek bazterkeria handiko egoeretan prestazio ekonomikoen eskaera aurkezten denean duten paperaren inguruan hausnartzeko.

– Lehen Mailako Arretarako Gizarte-zerbitzuetara bideratu behar dira Lanbideren bulegoetan artatzen diren eta, gizarte bazterketa edota mendekotasun edo babesgabetasun arriskuan edo egoeran egoteagatik, hau da, zerbitzu horiek berezkoak dituzten gertakizunengatik, esku-hartze soziala behar duten pertsonak.

– Gizarte-zerbitzuen txostenek Lanbidek kudeatzen dituen prestazio ekonomikoen espedienteetan izango duten garrantzia hitzartu behar da, bai betekizunak betetzearen interpretazioari dagokionean, bai prestazioak etetea edo iraungitzea adosten duten ebazpenei dagokienean.

– Txosten sozialek jaso beharko luketen edukia adostea, Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemarako baliagarriak izan daitezen.

– Gizarteratze Aktiborako Hitzarmenean Arreta Pertsonalizaturiko Planari dagozkion konpromisoak txertatuko diren aurreikustea eta alderantziz, baita bietan aldaketak eta horien segimendua txertatzeko prozedura ere.

Jakin badakigu bi sistema horien arteko harremana, hau da, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko eta Gizarte Zerbitzuen Sistemen arteko harremanaren analisi serio eta zorrotzak egiten ari direla gai horretako adituek.

Arartekoak ezin izan du txosten honek eskaintzen dion aukera alde batera utzi aurreko proposamenak egiteko.

Bukatzeko, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 45.2 artikuluan jasotako aurreikuspena aipatzen da; bertan, hauxe ezartzen da Gizarte Larrialdiko Laguntzei dagokienez: *"Subsidiarioak eta, hala badagokio, osagarriak izango dira indarreko legerian aurreikusten diren ekonomia-edukiko era guztietako gizarte-baliabide eta -prestazioei dagokienez, horiek onuradunari edo haren bizikidetza-unitateko edozein kideri legozkiokeenean, bai eta ohiko etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren beste pertsona batzuei legozkiekeenean ere"* (180-181 or.).

Hala eta guztiz ere, aspaldi honetan, maiztasun handiz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa geldiarazita zuten titularren lekukoa jaso egin da; horiei, Udal Gizarte-zerbitzuetatik jakinarazi egin zaie, egoera horretan dauden bitartean, ezin dutela Gizarte Larrialdiko Laguntza jaso. Kontu kezkagarria eta funtsezkoa da, diru-sarrerak bermatzeko sistemaren koherentziaren ikuspuntutik. Zoritxarrez, aipatutako kasuetan eta kontuan hartuta hartzaileak geratzen diren egoera ahula, egoera iragankor horri aurre egiteko geratzen zaien baliabide bakarra, erreklamazioak izapidetu arte, gizarte-langileengana desbideratzea da, Gizarte Larrialdiko Laguntzaren bat jasotzeko aukera proposa dezaten: elikagaien txartela; hornikuntzen ordainketa; alokairua, etab. Pertsona horiei Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzea ukatzen zaie eta horrek arreta-aukera bat ixten du ahultasun bereziko momentu batean.

Ez dago daturik aplikatutako irizpidearen eragina zehazteko. Hala ere, esan dezakegu nahiko maiz gertatzen dela eta oso udalerri desberdinetan. Horri dagokionez, adierazi beharra dago Gizarte Larrialdiko Laguntzak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin bateragarriak direla eta, gainera, orain bereziki beharrezkoak direla.

Arartekoak 2017R-100-15 Ebazpena eman du, 2017ko urtarrilaren 12koa; bertan, Gizarte Larrialdiko Laguntza baten ukapena berrikusteko gomendatu zuen. Udalak Gizarte Larrialdiko Laguntzen emakida ezeztatu zuen jo zuelako diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ez jasotzea kexagilearen eginbide-faltan arrazoituta zegoela. Arartekoak, beste gogoeta batzuen artean, udalari helarazi zion abenduaren 23ko 18/2008 Legeak eta urtarrilaren 18ko 4/201 Dekretuak aurreikusitako betekizunak betetzen zirela baino ez zuela aztertu behar: *"…legegileak prestazio hauek izaera subsidiarioa dutela esaten duenean, esan nahi duena da pertsonei beste prestazioak jasotzeko eskubidea duten azaldu behar zaiela (eskubide subjektiboko izaera dutenak). Batez ere kontuan hartuta laguntza horiek diru-laguntza izaera dutela. Izan ere, ematea esleitutako kredituaren araberakoa da, aurkezten diren eskarien kopurua eta bete beharreko beharrak baino*

*txikiagoa izan ohi dena. Baina gizarte-larrialdietarako laguntzak ukatzea beste prestazio batzuk jasotzen ez direlako (prestazioak ematen dituen organoaren arabera horiek jasotzeko eskubiderik ez duenean) ez dago araudi erregulatzailean aurreikusita, eta ez dator laguntza horien helburuarekin bat. Edonola ere, eduki ekonomikoko eskubide bat baliatu ez dela antzematen denean, 4/2011 Dekretuaren 18. artikuluan ezarritako aurreikuspena aplikatu beharko litzateke, eta aurreko artikuluan ezarritako inguruabarrak betez gero, eskaeraren ukapena ebatzi"*.

## 6. Ondare-mugak

2013 Txosten-diagnostikoan ere azpimarratu genuen garrantzitsua zela ondare-mugei dagozkien aurreikuspenen inguruan hausnartzea, baita diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta gizarte larrialdiko laguntza eskuratzeko antzemandako desoreka batzuen inguruan ere (45-46 or.).

Gizarte larrialdiko laguntzei dagokienez, erakunde honek Arartekoaren 2012ko abenduaren 4ko Gomendioa eman zuen. Bertan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari gomendatzen zitzaion, 2013rako gizarte larrialdietarako laguntzetan jasotako gastu espezifiko bakoitzerako gehienezko zenbatekoak ezartzen dituen aginduaren onespenari dagokionez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailburuaren 2011ko abenduaren 28ko Aginduan ezarritako irizpideak berrikus zitzan. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak gomendio hori onartu zuen (ondorengo legegintzaldian) eta, geroago, Gizarte Larrialdiko laguntza eskuratzeko ondare-mugak aldatu egin dira.

Muga horiei dagokienez, legezko aurreikuspen bat bada ere eta, hortaz, aldatzeko bide desberdin bat behar den arren, uste dugu berriz ere aipatu behar dela abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16 c artikuluan jasotako aurreikuspena; horren arabera, prestazioak jasotzeko betekizunen artean dago baliabide nahikorik ez izatearena. Hori honela ulertzen da: *"dauzkaten dirua eta baloreak gehienez ere honenbestekoak izatea: batere baliabiderik ez luketen kasuan bizikidetza-unitateko kideen kopuru osoaren arabera legokiekeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren urteko zenbatekoa halako lau".*

Zentzu horretan, esan daiteke muga horren baliokide den diru-zenbateko bat duten pertsonak ez daudela gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan.

Erakunde honen ustez, arau horren helburua diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duen titular baten edo errenta horren eskatzaile baten diru-sarrera guztiak zenbatzea da, direla ohikoak edo ezohikoak. Izan ere, zuzenean eragin dezakete oinarrizko beharrei aurre egiteko gaitasunean eta, beraz, diru-sarrerak bermatzeko sistema bizikidetza-unitate horri baliabideak ematetik salbuetsita egon daiteke, dagokion proportzioan, modu horretan sistemaren zilegitasuna eta berdintasuna bermatzeko.

Horrela, gaur egun ondare-muga horiek eratuta dauden bezala, ez dira neurri bakar batekin neurtzen prestazioa jaso aurretik ondasun horiek edo dirua zituztenen eta beste ez-ohiko diru-sarrera batzuk jasotzen dituztenen arteko egoerak, diru-sarrera horiek diruzkoak izan edo ez, eskubidearen titularrak izanda.

Horren adibide argi bat da hau: kontu korrontean 30.000 euroko gordailu bat duen pertsona bakarreko bizikidetza-unitate batek prestazioak jasotzeko eskubidea izango du, betiere gainerako betekizunak betetzen baditu. Hala, dagokion prestazioaren zenbateko osoa jasoko du; izan ere, kasu horretan, horren ondarearen gainean egiten den balorazioa eskubidea jasotzeko ondare-mugak gainditzen diren egiaztatzeko baino ez da egiten. Bizikidetza-unitateak diruzko baliabiderik ez badu, baina ondasun higiezin baten titularra bada, ez luke izango diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubiderik, 16.c) artikuluaren arabera. Horrek, beste betekizun batzuen artean, ezartzen du ondasun higiezin bat ez izatearen betekizuna, ohiko etxebizitza izan ezik, betiere horrek aparteko baliorik ez badu, araudian ezarritako terminoetan.

Lanbidek adostu izan dituen irizpideetan, betekizun hori malgutu egin da. Gaur egun, hauxe ezartzen dute: *"no se considerará inmueble a los efectos de denegación de la prestación, aquellos inmuebles distintos de la vivienda habitual y que no sean vivienda que tengan un valor inferior al importe anual de RGI que correspondería en ausencia total de ingresos…"*. Gainera, Lanbidek hauxe aurreikusi du: *"se aceptarán los casos de varios inmuebles en propiedad siempre que la suma del valor catastral de todos ellos no sea superior a la cuantía señalada. En cualquier caso su valor se imputará a la valoración del patrimonio de la unidad de convivencia"* (52 irizpidea, 36. or.).

Malguketa hori aurrerapauso garrantzitsu bat izan da, beste atal batean adierazi den bezala; horri esker, bidegabeko egoerei aurre egin ahal izan zaie. Horietan, bihurgarria ez zen balio txikiko ondasun higiezin bat edukitzeak (etxebizitza bat ez bazen) diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzea eragozten zuen.

Egokia litzateke irizpide horiek araudi-euskarri argi bat izatea eta oraingo mugak beste egoera batzuetan aplikatzean sortzen ari diren ondorio eta aldeen inguruko hausnarketa zabaltzea ere bai, epigrafe honetan eta 5.2 epigrafean aipatutako egoeretan bezalaxe, *"5.2.- Ezohiko diru-sarreren inguruko aurreikuspenaren interpretazioa, 147/2010 Dekretuaren 20. artikulua"*.

Aurreko adibidearekin jarraituz, bizikidetza-unitate horrek, prestazioaren titularra izanik, herentziagatik higiezin baten parte bat jasotzen badu jabetza soilean, zenbateko berean baloratutakoa, horren gainean ekonomikoki ondasun hori bihurtzea eragozten dion biziarteko gozamen bat egotekotan, 60 hilabetez, hileko 500 euroko ezohiko diru-sarrerak egotziko zaizkio.

Berriz ere azpimarratzen da ondasun higiezin baten jabetzaren parte baten balioa ezohiko diru-sarreratzat hartzeak egoera desberdinak eragiten dituela, batez ere, erraz bihur ezin daitekeen kasuetan gozamen baten zama edukitzeagatik.

# IV. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN KUDEAKETAN INTERESGARRIAK DIREN BESTE KONTU BATZUK

## 1. Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoarekiko harremana

Erakunde honek 2013an egindako diagnostikoan, hausnarketa bat helarazten zen. Arartekoaren ustez, euskal administrazioak eta estatuko administrazioak araudi eta

irizpide eta ondare-muga desberdinak izatearen ondorioz, ordaindutako prestazioak eteten, iraungitzen edo erreklamatzen ari dira, bai beste administrazio baten prestazioak jasotzeagatik eta ondare-mugak gainditzeagatik, bai beste administrazio batzuetan jasotzeko eskubidea zuen prestazioak ez eskatzeagatik.

2011n, zentzu bereko hausnarketa bat egin genuen, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta langabeziako subsidioaren (estatuko prestazioa) artean egondako arazo baten ondorioz. Hortaz, erakunde honek Arartekoaren abuztuaren 8ko 2/2011 Gomendio Orokorra eman zuen.

Ebazpen horretan, Eusko Jaurlaritzari gomendatu zitzaion organismo horrek Gizarte Segurantzaren 1994ko Lege Orokorraz egiten duen interpretazioa aldatzea planteatzen duten gestioak hasteko EEZPren aurrean. Horregatik, haren iritziz, autonomia erkidegoetako eduki ekonomikoko gizarte prestazioak (diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria) zenbatu daitezke diru-sarrerak ez edukitzearen baldintza xedatzeko, eta hori langabeziako subsidioa emateko eska daiteke, bidegabekeria materialeko egoera larriak eragiten ari baita. Era berean, proposatu zen Eusko Legebiltzarrak legegintzako ekimena gauzatzeko, Gorte Nagusien aurrean aurkeztuz subsidioa eskuratzearen gaineko legeak estatu autonomikoaren oinarrietara eta Konstituzio Auzitegiaren irizpideetara egokituko dituen lege-proposamena, gizarte laguntza Gizarte Segurantzari bakarrik lotuta ez egotearen ildotik.

Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 11ko 239/2002 Epaia eman zen, Andaluziako Juntak erkidego horretako herritarrentzako kotizazio gabeko pentsioak osatzeko zenbait laguntza ekonomiko onartu ostean, Espainiako Gobernuak errekurtso bat aurkeztu zuelako eta, epai horren bitartez, auzitegiak ondorioztatu zuen laguntza horiek ez dutela konstituzioarekiko leialtasunaren printzipioa urratzen. Epai horretan, Auzitegi Gorenak Espainiako Konstituzioaren 41. artikulua aipatu zuen eta adierazizuen botere publikoek Gizarte Segurantzaren araubide publikoa mantentzeko beharra dutela, *"…que garantice la asistencia y prestaciones sociales suficientes ante situaciones de necesidad, especialmente en caso de desempleo";* eta hauxe gaineratu zuen: *"la asistencia y prestaciones complementarias serán libres""* (3. ZO).

Horrek esan nahi du, gizarte laguntza ez dagoela soilik Gizarte Segurantzari lotuta, sistema horren "barruko" laguntza gisa, sistema horretatik at dagoen "kanpo" laguntza bat ere egon daiteke, arlo horretan eskumena duten autonomia erkidegoen berezkoa eta esklusiboa dena. Zentzu horretan, epaiak uste du "gizarteratzeko gutxieneko soldatak" izenekoak Gizarte Segurantzaren sistemaren berezkoak diren prestazioekin guztiz bateragarriak direla [eta berariazko erreferentzia egiten dio gizarte bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legeari gaur egun indarrean dagoen eta azterlan honen xede den aipatutako prestazio autonomikoak ezartzen dituen abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ordezkatu duena].

Epaiak adierazi du Gizarte Segurantzaren sistemak ematen duen babesa osatzea, nahikoa ez den kasuetan, zuzenbideko gizarte estatuaren funtsezko zati bat dela (Espainiako Konstituzioaren 1. artikulua), betiere, aipatutako sistema eta haren araubide ekonomikoa asaldatzen ez badira:

> *"...la ampliación de las contingencias protegidas por el sistema de la Seguridad Social no excluye de antemano que diversos colectivos de sus beneficiarios precisen de apoyos complementarios para atender necesidades no cubiertas por dicho sistema, de modo que no puede resultar extravagante desde la perspectiva del Estado social de Derecho, consagrado en nuestra Constitución (art. 1), que se atiendan dichas necesidades, en aras del valor de la justicia al que se refiere este precepto constitucional, desde las diversas habilitaciones previstas, las cuales, por decisión del propio texto constitucional, enlazan con específicos títulos competenciales del Estado en el sentido estricto ('Seguridad Social') o de las Comunidades Autónomas ('asistencia social'), siempre, naturalmente, que ello se realice legítimamente, esto es, de acuerdo con las reglas de deslinde y delimitación de ambas materias"* (6. ZO).
>
> *"En definitiva, es una exigencia del Estado social de Derecho (art. 1 CE) que quienes no tengan cubiertas sus necesidades mínimas por la modalidad no contributiva del sistema de la Seguridad Social puedan acceder a otros beneficios o ayudas de carácter o naturaleza diferente, habida cuenta de que esta zona asistencial interna al sistema coincide con el título competencial del art. 148.1.20 CE. Esta confluencia no puede impedir a las Comunidades Autónomas que actúen en esta franja común cuando ostentan título competencial suficiente, máxime si se considera que, en determinadas coyunturas económicas, el ámbito de protección de la Seguridad Social pudiera conllevar limitaciones asistenciales y prestacionales que, por ello, precisen de complementación con otras fuentes para asegurar el principio de suficiencia al que alude el art. 41 CE"* (7. ZO).

Konstituzio *Auzitegiak aipatzen duen muga hauxe da: "la actividad prestacional no interfiera ni en el régimen jurídico básico de la Seguridad Social, ni en la de su régimen económico (art. 149.1.17 CE)"* (7. ZO).

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.12 artikuluaren *"Gizarte-laguntzaren"* eskumen esklusiboa eta autonomia-printzipioa gauzatzeak eragin du Euskadiko Autonomia Erkidegoko aurrekontuaren berezko funtsak bazterkeria-arriskua prebenitzera bideratzea erabakitzea, baita bazterkeria pertsonal, sozial eta laneko bazterkeriako egoerak arintzera eta gizarteratzea erraztera ere: *"...herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko"* (abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 1. artikulua).

Kontuan hartu behar da Espainiako Konstituzioaren 1.1 artikulua ez dela debeku bat bezala hartu behar: *"...divergencia autonómica..."* [7. ZO b) Konstituzio Auzitegiaren Epaia (Osoa) 61/1997, martxoaren 20koa].

Prestazioen bilakaerarekin, laguntza-izaerako Estatuko zenbait prestazio jasotzea ez da bateragarria Euskadiko Autonomia Erkidegoak araututako laguntzazko prestazioak jasotzearekin.

EEZP zerbitzuak zenbait prestazio ekonomiko kudeatzen ditu, ez kontribuziokoak, edo izaera mistokoak (laguntza osagaia duen prestazioa), langabezian dauden

pertsonei arreta emateko, langabeziako subsidioa, Gizarteratzeko Errenta Aktiboa (RAI) edo Prestakuntzazko Eguneratze Profesionalaren gaineko Programarako (PREPARA). Guztiak dira **osagarriak** jasotzeko eskubidea duten edozein prestaziorekin (diru-sarrerak bermatzeko errenta bezalaxe). Pertsona askok prestazio horietako batzuk osatu dituzte diru-sarrerak bermatzeko errentarekin; izan ere, horren zenbatekoa Euskadin diru-sarrerak bermatzeko errenta ematen denean aitortzen den zenbatekoa baino txikiagoa da.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzen duten pertsonen betebeharren artean dago honako hau: *"titularrari edo bizikidetza-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, prestazioak irauten duen aldi osoan"*, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.b) artikulua. Horrenbestez, pertsonak aurretiaz eskatu behar ditu jasotzeko eskubidea duen prestazioak eta laguntzak. Lanbidek jasotako zenbatekoa osatuko luke, bermatutako mugara heldu arte.

Egondako arazo bat, Arartekoak 2013an egindako txosten-diagnostikoan helarazitakoa, PREPARA programatik eratorritako laguntzak emateko aurreikusitako ondare-mugek eragindakoa izan zen.

Laguntza horiek enplegu egonkorrerako trantsizioa sustatzeko eta langabeen lanbide-prestakuntza eguneratzeko premiazko neurriei buruzko 1/2011 Errege Lege Dekretuan ezarri ziren. Programa horrek, egoeraren arabera, langabeziagatiko babesa agortzen duten pertsonen prestakuntza profesionaleko programa bat txertatu zuen, enpleguko politika aktiboen ekintzetan eta babeseko laguntza ekonomiko batean oinarrituta. 23/2012 Errege Dekretu-Legea, abuztuaren 24koa[3], langabeziagatiko prestazioa agortzen zaien pertsonen prestakuntzazko eguneratze-programa luzatzen duena. Zehazki, artikulu bakarraren 6. atalak ezartzen du, PREPARA programara sartzeko eskubidea izateko, pertsona batek jaso dezakeen gehieneko zenbatekoak (PREPARA eta laguntzazko beste edozein prestazioren batuketa) ezin du lanbide arteko gutxieneko soldataren %75 gainditu. 6. atal horrek hauxe adierazten du hitzez hitz:

> *"Cuando el solicitante, o cualquier miembro de su familia, tenga derecho a percibir los salarios sociales, rentas mínimas de inserción o ayudas análogas de asistencia social concedidas por las Comunidades Autónomas y las entidades locales, la ayuda económica contemplada en el número anterior (cuantía del PREPARA) sumada al importe de aquellas no podrá superar el 75% del Salario Mínimo Interprofesional. En el caso de que se superara este límite, se descontará de la ayuda regulada en el número anterior el importe que exceda de dicha cantidad…"*.

PREPARAren zenbatekoa, arauketa horren arabera, 399,38 eurokoa da (Ondorio anitzeko errentaren adierazle publikoaren %75) (452,63 eurokoa –Ondorio anitzeko errentaren adierazle publikoaren %85– 3 pertsona edo gehiago izatekotan ardurapean, bizikidetza-unitateko kideak).

[3] Geroago, urtarrilaren 25eko 1/2013 Errege Dekretu-legearen eta apirilaren 15eko 1/2016 Errege Dekretu-legearen arabera.

Horrek ondorio garrantzitsuak ditu; izan ere, PREPARA programara sartzeko eskubidea izateko, diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbateko txiki bat baino ezin dute jaso, lehenengo prestazioaren muga kontuan hartuta.

| DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN GEHIENEZKO HILEKO KOPURUA 2016RAKO | | |
|---|---|---|
| Pertsona kopurua Bizikidetza-unitatea | Helburu orokorra: €/hileko gehienez | Pentsiodunak €/hileko gehienez |
| 1 | 625,58 € | 710,89 € |
| 2 | 803,31 € | 888,62 € |
| 3 edo gehiago | 888,62 € | 959,70 € |

Euskadin bermatutako laguntzaren zenbatekoa handiagoa da. PREPARA jaso ahal izateko, ezin da diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu, aurreikusitako ondare-muga gaindituko litzatekeelako, aurretik adierazitako araudi-aurreikuspena urratuz. Bestalde, aurretik aipatutako araudian ezarritako betekizunak betetzen dituzten pertsonei ematen zaien PREPARAren laguntza txikiagoa da. Hortaz, desberdintasunezko egoerak sortuko lirateke.

Antzeko arazo bat egon da RAI errentarekin. Beharrizan ekonomiko bereziak eta lana aurkitzeko zailtasuna dituzten langabeentzako gizarteratzeko errenta aktiboaren programa 1369/2006 Errege Dekretuak 2.1. artikuluan ezartzen ditu RAI errentaren Programa baliatzeko betekizunak. Ezartzen duen muga da lanbide arteko gutxieneko soldataren %75, ezohiko bi ordainsarien proportziozko partea kanpo. RAI errenta eskatzen bada diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izan gabe eta, geroago, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzen bada jasotzen den prestazioaren zenbatekoa osatzeko, bi prestazioak jaso ahalko ziren. Hala eta guztiz ere, RAI errenta eskatzen bada diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzailea izatean eta Lanbidek ez badu arin aldatzen RAI errenta eman ostean legokiokeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa, RAI errenta jasotzeko muga gainditzen da. Hori dela-eta, kexa-espediente batzuetan egiaztatu dugun bezala, EEZP zerbitzuak ordaindutako prestazioak erreklamatu izan ditu noizbait.

Lanbidek adierazi du egiaztatu nahi duela ukitutako pertsonari epe horretan legokiokeen zenbatekoa txikiagoa zela. Hala ere, izapidetutako kexa-espedienteetatik ondorioztatutako informazioaren arabera, EEZP zerbitzuak bere irizpidea mantendu du, hau da, prestazioak itzultzeko eskatu du kasu hauetan, diru-sarrerak bermatzeko errenta diru-sarrera gisa zenbatzean.

Gainera, Lanbidek irizpide hori malgutu du eta pertsona bakarreko bizikidetza-unitateek RAI errenta eskatzeko exijitzen ari da. Horrez gain, ez du exijitzen aurretiaz PREPARA eskatzeko.

Lanbidek erantzun egokia eman du PREPARA eta RAI kontribuziorik gabeko prestazioen Estatuko arauketak pertsonengan eragiten ari zen zailtasun eta

nahasmenduaren aurrean. Horrez gain, diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileek nahitaez bete behar zuten eduki ekonomikoko edozein eskubide betearazteko betebeharra.

Nolanahi ere, adierazitako arazoa Estatuaren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren arteko harremanaren eta bi instantziei dagozkien eskumenen barruan sartzen da. Erakunde honen ustez, komenigarria litzateke bi administrazio horien arteko koordinazioa hobetzea, prestazioen arauketan kontuan hartzeko indarreko prestazioak eta esfortzuak areagotzeko prestazio horiek eskatzen dituzten pertsonek bete beharreko betebehar eta betekizunen inguruko informazioa eguneratze aldera, araudi bakoitzean aurreikusitako mugak kontuan hartuz. Geroago betekizunak ez betetzeagatik prestazioak erreklamatzea saihestu ahalko zen, kudeatzaileen artean informazio eta koordinazio egokiak egotekotan.

Herritarrek ez dute zehaztasunez ezagutzen eskumen-banaketaren irismena. Gainera, Lanbideren eta EEZP zerbitzuaren bulegoak oso hurbil daude, batzuetan eraikin berean ere egoten dira. Hori dela-eta, disfuntzioak eta akatsak sortzen dira eta, horregatik, kontu handiagoa izan behar da eskaintzen den informazioarekin eta prestazio-araubidearen azterketa zorrotza egin behar da, prestazioen emakidan gainjartzeak eta desorekak egotea saihesteko.

Epigrafe honetan, helburua da disfuntzio batzuk jakitera ematea. Hala, Euskadin ez da PREPARAren prestazioa eskatzen *gizarte-laguntzako* prestazio batekin bizi delako, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errentarekin, zenbateko handiagokoa dena. Beste kasu batzuetan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzea erabakitzen dute eta hori dela-eta, Gizarte Segurantzari kotizatzea barne hartzen duten beste prestazio batzuekin bateragarria ez denez (Langabeziako Subsidioa, RAI), hileko prestazioko zenbateko handiagoa eskuratzen dute baina horiek jasotzearekin lotutako kotizazioa jasotzeari uzten diote, horrek erretiro-pentsioan edo Gizarte Zeguratzaren beste prestazio batzuetan dituen ondorioekin.

Jakina da beste instantzia batzuei dagokiela argitzea salatutako disfuntzioen jatorrian dauden kontuak, Estatuaren eta autonomia erkidegoen eskumen-banaketarekin lotuta dagoelako. Hala ere, laguntza-izaerako prestazioen hartzaileak dituzten arazo desberdinak helarazi nahi izan zire, zenbait herri-administrazioen esku-hartzearen ondoriozkoak.

## 2. Dekretuen garapena. Horiek aplikatzeko, irizpideak, zirkularrak eta jarraibideak

2015ean, Arartekoak ofiziozko jarduketa bat hasi zuen, egiaztatu zuelako lanbidek Irizpideen Dokumentua izeneko barneko zirkular bat erabiltzen zuela diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko erreferentzia nagusi gisa. Zirkular horren zenbait aldaketa egin ziren; hala, dakigunaren arabera, azkenengo aldaketa 2014ko abenduan egin zen.

Dokumentu hori hasieratik erabiltzen hasi zen araudiaren laburpen gisa eta prestazioaren kudeaketarako tresna erabilgarri bat zela jotzen zen, kudeaketaren eskumena bere gain hartzean sortutako arazoak ikusita.

Ofiziozko jarduketa horren helburua zen Lanbideri helaraztea erakunde honen kezka; hala, erakunde hau kezkatuta zegoen erakunde autonomoak aipatutako

zirkularraren gainean egiten ari zen erabileragatik. Izan ere, tresna hori aldi baterakoa zen eta hasierako zailtasun nagusiak gainditzeko eginkizuna zuen; hala ere, horretatik Lanbideko langileek diru-sarrerak bermatzeko errentaren espedienteen inguruko erabakiak hartzeko kontuan hartzen zuen erreferentzia izatera igaro zen.

Bestalde, Lanbideri helarazi zitzaion dokumentuaren hedapen handiaren inguruko kexa. Hirugarren sektoreko erakunde batzuek eta Udal Gizarte-zerbitzuetako gizarte-langile batzuek zenbait kexa jarri zituzten Arartekoaren aurrean, Lanbidek irizpideen dokumentuaren inguruko informazioa ematea ukatu zuelako; informazio hori beharrezkoa zen erakunde hauek eskainitako zerbitzuen erabiltzaileei arreta egokia emateko.

Arartekoak Lanbideri proposatu zion egokia zela irizpideen dokumentua positibatzea, irizpide horiek ezartzeko eta publizitatea emateko helburuz, edozein interesdunarentzat eskuragarria egoteko moduan. Lanbideri horren erabilerak sortutako arazoak jakinarazi zitzaizkion. Horrez gain, adierazi zitzaion beharrezkoa zela pertsonek banaka, Udal Gizarte-zerbitzuek eta Hirugarren Sektoreko erakundeek helarazitako kezkari arreta ematea, irizpideen dokumentu hori ez argitaratzeak zekarren gardentasun-faltaren ondorioz. Gainera, jakinarazi zitzaion nolabait hedatu behar zela dokumentuaren edukia; beharrezkoa zela abenduaren 23ko 18/2008 legearen araudi-garapena burutzea, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak egindako erreformen ostean (urtarrilaren 12ko 2/2010 eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuen eguneraketa), eta irizpideen dokumentua eratzeko aukera zegoela, adibidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburuaren Agindu baten bidez.

Lanbidek erantzun positiboa eman zuen erakunde honek ofiziozko jarduketaren bidez helarazitako gogoeta eta proposamenen aurrean. Erakunde honi jakinarazi zitzaion Lanbidek irizpideak aztertzeko eta alderatzeko prozesu bat hasi zuela *"indarreko araudi juridikora doitzea aztertzeko".* Horretarako, irizpideekin lotutako adierazpen judizialak hartuko ziren kontuan, baita Lanbideko Bulegoetako langileek eta Zerbitzu Nagusietako teknikariek horren inguruan egindako iruzkinak ere.

Jakinarazi zen, horrenbestez, *"irizpiderik garrantzitsuenak, ongien oinarritutakoak eta prestazioak kudeatzeko praktikoenak argitaratuko direla, edo edonork ezagutu beharrekotzat jotzen direnak"*.

Lanbidek ez zuen zehaztu zeintzuk ziren aplikatu beharreko irizpideak eta zergatik, hala ere, erakunde honek jo zuen erantzun horrek aipatutako gaian aurrerapauso bat ematea eragiten zuela. Hala eta guztiz ere, aipatutako ofiziozko jarduketa amaitutzat jo zen.

Hala eta guztiz ere, jakin izan da, batez ere Arartekoko langileek Lanbideren zenbait bulegotara egindako bisiten ostean, 2014ko abenduko azkenengo zirkular horretatik, irizpideen dokumentua deritzona ez dela eguneratu. Izan ere, Lanbideko langileek ez dute erreferentziazko tresna gisa erabiltzen diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko.

Hori egin beharrean, irizpide bakoitza banaka eguneratzen da, zirkularretik kanpo, Lanbideko Zuzendaritza Nagusiak posta elektronikoz bidalitako mezuen bidez. Hala, mezu horietan jasotzen dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren espedienteak izapidetzeko jarraibideak.

Lanbideko bulegoetako langileek eurek jakinarazi digute kezkatuta daudela jardunbide horiek direla-eta; izan ere, aurreko jarduteko moduarekin lotutako arazoei, orain diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketan aplikatu beharreko irizpideei dagokienez dagoen sistematizazio-falta gehitu behar zaie. Hori dela-eta, kontraesanak ere badaude posta elektronikoz bidalitako jarraibideetan, Lanbideko langileek eurek adierazi ziguten bezala.

Horregatik, Lanbideri gogorarazi nahi dizkiogu aipatutako jarduketa burutzean helarazi genituen gogoetak.

Horrela, beharrezkoa da Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko baliatzen dituen irizpideak eta jarraibideak hedatzea. Lehenik eta behin, praktikoa delako, beharrezkoa baita Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema osatzen duten eragile desberdinek dagokien eginkizuna burutu ahal izateko. Lanbideri ofiziozko aurreko jarduketan adierazi zitzaion bezala, sistema hori ez dute soilik prestazio ekonomikoek osatzen, baizik eta gizarteratzera eta laneratzera bideratutako tresnek ere. Hori guztia abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 3.f) artikuluan definitutako terminoetan. *"...diru-sarrerak eta enplegua bermatzeko neurriak gizarteratzeko tresnatzat jo eta neurrion nagusitasunaren alde egitea ez da oztopo izango, inondik ere, helburu hori bera daukaten bestelako politika edo sistema sektorialek ere berealdiko ekarpena egiten dutela onartzeko, hala nola gizarte-zerbitzuek, osasungintzak, hezkuntzak eta etxebizitzak".* Hala, lege beraren 7.b) artikuluak hauxe adierazten du: *"Esku hartzeko neurri espezifikoak. Gizarte-babeseko hainbat alorretako programa, zerbitzu edo zentroak izan daitezke, bereziki gizarte-zerbitzuek, enplegu-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek eta etxebizitza-zerbitzuek antolatutakoak, eta, konbinatuta, gizarteratzeko hitzarmenean aplika daitezkeenak".*

urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1 f artikuluak eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.g) artikuluak aurreikusten dute herritarrek, herri-administrazioekiko harremanetan, eskubide hau daukatela: *"argibideak eta aholkuak lor ditzakete, hain zuzen ere, indarrean dauden xedapenen arabera, proiektuak, jarduna edo eskabideak egiterakoan zein baldintza juridiko eta tekniko bete behar dituzten jakiteko".*

Halaber, diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko erreferentziazko jarraibide eta irizpideen edukia helaraztea bat dator gobernu oneko jardunbideekin eta gardentasun printzipioarekin, administrazio guztiak eraendu behar dituena. Euskal Sektore Publikoaren Gardentasun, Herritarren Parte-hartze eta Gobernu Onaren inguruko Lege-proiektuak eta gardentasunarekin eta gobernu onarekin lotutako beste ekimen batzuek Arartekoaren eskaera babesten dute. Hala, **Arartekoak eskatu du ezagutzera emateko diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea ukitzen duten erabakiak hartzeko kontuan hartzen diren irizpideak.**

Horrenbestez, adierazitako arrazoiengatik, erakunde honek uste du premiazkoa dela Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko erreferentziatzat hartzen diren irizpideak eta jarraibideak positibatzeko eta argitaratzeko konpromisoa berrartzea, hala badagokio, bere araudi-mailara egokitutako tresnaren bidez.

### 3. Salaketa bat jaso ostean hasten den prozedura arautzeko beharra

Gaur egun, salaketak jasotzen direnean, aurkezten den pertsona identifikatzen denean eta salaketa anonimoen kasuan, egiaztatzeko administrazio-jarduketak hasten dira.

Horri dagokionez, garrantzitsua da gogoraraztea doktrinak eta jurisprudentziak zalantzan jartzen dutela idazki anonimoen onespena. Izan ere, idazki horiek zenbait baldintza bete beharko lituzke, ofiziozko administrazio-prozedura bat hasteko modukoak izateko. Horrela, zentzuzkoa da salaketa-idazkian egitateen inguruko kontakizun oinarriduna adierazteko baldintza ezartzea. Horrez gain, aurretiazko haztapena egin beharko zen eta ikerketaren proportzionaltasuna eta egokitasuna balioztatu, hau da, egozteen legitimazioa. Bestalde, aurretiazko entzunaldiarekin lotutako bermeak errespetatu beharko ziren eta ikertzen ari diren egitateen gainean salatutako pertsonari emandako informazioa ere bai, prestazioen etenaldia edo iraungipena eragin dezaketenak.

Interesgarria izango litzateke legegileak salaketa horiek izapidetzeko bide bat aurreikustea; horretan, egiantzik gabeko eta diskriminatzaileak izan daitezkeen aurreiritziak dituzten salaketak eta ikerketa bat egitea beharrezkoa egiten duten salaketak bereiziko lirateke. Horrez gain, salaketa anonimoak eta salatzailea identifikatzen den salaketak bereizi beharko litzateke, baita kasu bakoitzean jarduteko modua aurreikusi ere.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak aplikazio-araubidea aldatu egin du, salaketa baten ondorioz prozedura hasteko arauketa xehea ezarri baitu, 62. artikulua:

> *"Prozedura salaketa baten ondorioz hastea:*
>
> *1. Salaketa egintza bat da zeinaren bidez edozein pertsonak, legezko betebehar bategatik edo bestela, administrazio-organo bati jakinarazten baitio badela egitate bat administrazio-prozedura bat ofizioz hastea justifika lezakeena.*
>
> *2. Salaketan, adierazi behar da nor den edo diren hura aurkezten duten pertsonak, eta adierazi beharko da zer egitateren berri ematen zaion Administrazioari. Egitate horiek arau-hauste administratibo izan badaitezke, salaketan adierazi behar da noiz gertatu diren eta, ahal denean, presuntziozko erantzuleak nor diren.*
>
> *3. Salaketak administrazio publikoen ondarearen kalte bat argudiatzen duenean, prozedura ez hastea arrazoitu egin beharko da, eta salatzaileei jakinarazi beharko zaie beti prozedura hasteko edo ez hasteko erabakia…".*

Arartekoaren ustez, Lanbidek, oraindik existitzen ez bada, kasu hauetan jarduteko jarduketa-protokolo bat ezarri beharko luke. Era berean, araudiaren etorkizuneko

aldaketa batean, garatu beharreko jarduketak aurreikusi beharko lirateke, aurreko lege-aurreikuspena kontuan hartuz.

## 4. Atzerapena laneko alta eta bajen kasuak eguneratzean

Epigrafe honetan eta hurrengoan, prestazioen kudeaketan eragiten duten zenbait arazo nabarmentzen dira. Hala, txostenean errepikatu den bezala, arazo horiek sortu dira erakunde honek izapidetutako kexa-espedienteen azterketaren ondorioz eta hirugarren sektoreko erakundeekin izandako bileren ondorioz.

Besteak beste, nabarmendu behar da Lanbide nola jarduten ari den pertsonek enpleguko altak eta bajak jakinaraztearen aurrean, baita ordaindu beharreko zenbatekoak doitzeko atzerapena ere.

Zenbatekoak eguneratzeko atzerapen horrek oso larriki eragiten du familia-ekonomietan eta pizgarriak kentzeko ondorio bat sor dezake enpleguaren bilaketa aktiboan, enpleguaren eskastasunak kontratazioan mugikortasun handia dakarren sektoreetan.

## 5. Prestazioen ordainketen banku-oharretan adierazten diren kontzeptuak

Hobetzeko marjina dagoela jotzen den beste arazo bat da prestazioak kontu korronteetan ordaintzeari dagokiona. Ordainketaren banku-oharraren irakurketan, ez da argi eta garbi jasotzen horri dagozkion jatorria, kontzeptuak eta epeak; hala, horrek nahasmendua sor dezake Lanbidek ordaintzen dituen zenbateko eta kontzeptuei dagokienez.

Kontu korrontea enbargatzea erabakitzen den kasuetan, horiei dagozkien kontzeptuak eta epeak ez zehazteak ahalbidetzen du enbargo hori burutzea; hala ere, ez litzateke enbargo hori egin beharko, hilero jaso beharreko zenbatekoak ez dituelako gainditzen Prozedura Zibilaren Legearen 607. artikuluak ezartzen dituen mugak. Horrenbestez, beharrezkoa da finantza-erakundearekin edo enbargoa agindu duen administrazioarekin edo erabakia hartu duen auzitegiarekin zenbait kudeaketa egitea, adieraziz beharrezkoa dela Prozedura Zibilaren Legearen 607. artikuluan aurreikusitako mugak errespetatzea. Izan ere, horrek kalte nabarmenak sortzen ditu beharrik oinarrizkoenak asetzera bideratzen diren zenbatekoak direlako. Arartekoak aurretik adierazitako arazo bera helarazi duten kexak izapidetu ditu.

## 6. Prestazioen titularrek jasotzen dituzten diru-sarrerak jakinaraztea Foru Ogasunei

Ardurapeko seme-alabengatiko laguntzak emateko aurreikusitako laguntzen araudiak (Ardurapean seme-alabak dituzten familiak babesteko laguntza ekonomikoen martxoaren 17ko 39/2015 Dekretua), aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean, aurreikusten du Foru Ogasunek igorritako azkenengo bi urteetako diru-sarreren ziurtagiria aurkeztu behar dela. Hala eta guztiz ere, Foru Ogasunek ez dute informazio hori diru-sarrera horiek diru-sarrerak bermatzeko errentari dagozkionean eta horrek diru-sarrera horiek egiaztatzea zailtzen du, dagokion araudi sektorialak aurreikusten duen bezala. Zentzu horretan, interesgarria izango litzateke mugaketa hori azpimarratzea, hala badagokio, diru-sarrerak bermatzeko errentaren diru-sarreren inguruko informazio hori dagozkien

Foru Ogasunei jakinarazteko aukeraren inguruan hausnartzeko. Bestalde, informazio horrek pertsonen errealitate ekonomikoa islatzen du, zergak ordaindu behar dezaketen subjektuak diren aldetik. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileen informazio ekonomikoa Foru Ogasunei jakinarazten ez bazaie, funtsezkoa izango litzateke, nolanahi ere, Lanbidek igorritako diru-sarreren ziurtagiria baliodun izatea Foru Ogasunen ziurtagiririk ez izatekotan, seme-alabengatiko laguntzen eremua bezalako beste eremu sektorial batzuetako betekizunak betetzeko diru-sarrera ekonomikoen egiaztagiri gisa.

## V. SISTEMAREN INGURUKO HAUSNARKETA BATZUK

Txosten honen hasieran, **paradoxa** bat aipatu egin da, hau da, gizarte-bazterkeriako egoera larrian dauden pertsona batzuek ez dituzte betekizunak betetzen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak jasotzeko eskubidea izateko. Betekizun horietako batzuk dira hauek: udaleko erroldan inskribatuta egondako aurretiazko epe bat egiaztatzea, lege berriarekin urte batetik hirura aldatu egin zena, edo etxebizitza berean bizi diren bi bizikidetza-unitate baino gehiagori diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria emateko ezintasuna. Hala, betekizun horiek ezartzearen ondorioz, gizarte-zailtasuneko egoeran dauden herritar batzuk Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren babesik gabe geratu dira.

Bestalde, aurretik babeseko erakunde batek babestu dituen eta senideen laguntzarik ez duten **gazteek**, 23 urte baino gutxiago badituzte eta laneko diru-sarrerarik ez badute, zailtasun larriak izaten dituzten beharrik oinarrizkoenak asetzeko.

Ahultasuneko egoera horri, gazteen langabezia-maila altua eta gazteek etxebizitza bat eskuratzeko dituzten zailtasunak gehitu behar zaizkio. Hala, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema ez da egoera horri erantzuten ari eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazio ekonomikoak eskuratzea ez da eskubide subjektibo bat bezala aurreikusten Gizarte Zerbitzuen Sistematik, estaldura txikiagoarekin, bai zenbatekoari, bai herritarrei dagokienez. Hori guztia, eskatzen diren betekizunak direla-eta eta urteko aurrekontu-zuzkiduraren menpe egoteagatik.

Zailtasuneko beste egoera batzuk sortzen dira **zaintzaileek, gurasoek edo tutoreek haurrei arreta eman behar dietelako.** Azterlan honen xede den araudiaren helburua da beharrik oinarrizkoenak asetzeko diru-sarrerarik ez dagoen egoerei erantzutea. Horrez gain, tresnak ezartzen ditu laneko aktibazioa lortzeko. Enplegu bat ukatzeak edo enplegu baterako hautapen-prozesuan ez parte hartzeak prestazioen iraungipena eragiten dute. Haur txikiak dituzten guraso bakarreko familiek, batzuetan, zailtasun handiak dituzte seme-alaben zaintza eta arreta lanarekin adiskidetzeko, ordutegiagatik edo beste lan-baldintza batzuengatik.

Arartekoak aztertu dituen kexa-espedienteetan, egiaztatu du Lanbidek ez duela lan bat ukatzeko justifikatutako arrazoitzat hartzen seme-alaba txikiak zaindu behar izatea, horien adina, mugaketa funtzionalak edo ezgaitasuna gorabehera. Baina egoera horiek, batzuetan, eragiten dute seme-alaben zainketak bateragarriak ez izatea laneko ordutegiarekin edo laneko zenbait baldintzekin. Horrenbestez, diru-

sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea iraungitzea erabakitzen du eta, hori arrazoi horrengatik denean, ezin da prestazioa berriz ere eskatu urtebetez. Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren **helburua ez da familia babestea**. Hortaz, Lanbidek sistema horren araudiarekin bat etorriz jarduten du. Hala eta guztiz ere, adingabeak dauden guraso bakarreko familiei diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzea oso ondorio larria da, Gizarte-babeseko Euskal Sisteman **ez dagoelako antzeko beste estaldurarik.** Hori dela-eta, garrantzitsua da aurretiaz jakinaraztea enplegu bat ukatzeak edo enplegu baterako hautapen-prozesuan parte hartu nahi ez izateak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzea eragiten dutela. Gainera, berriz ere azpimarratzen da beharrezkoa dela adingabearen interes gorena errespetatzeko eskubidea aplikatzea, Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrean jaso zen bezala. Edonola ere, Arartekoak uste du beharrezkoa dela kapitulu honetan arazo hori nabarmentzea, dagokion hausnarketa eragite aldera.

Bestalde, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren egungo eraketaren ardatza bizikidetza-unitatea da eta ez pertsona bat banaka hartuta. Hori dela-eta, batzuetan, egoera bidegabeak sortzen dira, epigrafe honetan adierazi dugun bezala: *"5.1.7. Epigrafea: Bizitza independenteko urtebete egiaztatzea".* Horretan, betekizunaren interpretazio zabalak desberdintasunezko egoerak sortzen zituen kasu hauetan: modu autonomoan bizi ostean, diru-sarrerarik ez izatearen aurrean, senideen etxebizitzara joaten zen eta ez familia-loturarik gabeko beste pertsona batzuen etxebizitzara. Izan ere, horrek eragozten zuen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eskatzea. Beste epigrafe batean, hain zuzen ere, *"1. Epigrafean, Bizikidetza-unitate bereziei dagokien denbora-mugaketa"* adierazi ziren bizikidetza-unitatea eta ez banakako pertsona kontuan hartzeak dakartzan zailtasunak.

Oraingo sisteman, ez da familia-loturaren bat duten pertsonen babesa aurreikusten kideren batek diru-sarrerak baditu. Beraz, neba-arreba, iloba edo guraso edo aitona-amona eta seme-alaba eta biloba helduekin bizi diren kasuetan, kide guztien diru-sarrerak hartzen dira kontuan. Gizarte-babes publikoa nagusitzat hartzen den familia-babesaren subsidiarioa da. Horrek, batzuetan, trataera desberdina eragiten du familia-harremanik ez duten eta prestazio publikoak osorik jasotzen dituzten pertsonekin alderatuz. Gaur egun, aldaketak egon dira gizarte-egituran eta, gure gizartean, herritarrek, oro har, ez dute ulertzen bizikidetza-unitatea eskubidezko subjektutzat hartzea banakako pertsona hartu beharrean. Izan ere, gaur egun, familia-loturen edukia eta irismena beste garai batzuetan baino mugatuagoak dira.

Erakunde honek badaki prestazioaren titulartasuna bizikidetza-unitatetik banakako pertsonara pasatzea oso aldaketa handia dela sisteman, horrek dakartzan ondorioengatik. Hala ere, ez da guztiz baztertu behar –egitura sozialen bilakaeraren arabera– etorkizunean hori egiteko aukera haztatzea.

Horrekin batera, banakako eta baldintzarik gabeko Oinarrizko Errenta Unibertsal baten bideragarritasunaren inguruko eztabaida gero eta ohikoagoa da gure gizartean horren modalitate desberdinetan, enplegu osorik ez dagoelako. Gizarte-babesa Gizarte Segurantzako Sistema bati zergak ordaintzearekin lotuta badago, ezin zaie gizarte-behar guztiei erantzunik eman, bereziki, lanik ezari edo lan-eskastasunari, herritar askori duintasunez bizitzea eragozten diena. Sektore

akademikoek eta beste gizarte-eragile batzuek horren alde egin dute, eta egiaztatutako metodologietan oinarritutako gero eta proposamen gehiago daude, aukeraren, eraginkortasunaren eta bideragarritasunaren proiekzioak dituzten ikerketetan oinarritutakoak. Hala, horren inguruko hausnarketa egin behar da, azterketa zorrotza eta gizarte-eztabaida bizia; izan ere, proposamen hau oso desberdina da oraingo ereduarekiko.

Amaitzeko, oso errealitate dinamiko baten aurrean gaude, etengabeko aldaketa teknologikoak eta ekonomikoak daude eta, horiei aurre egiteko, gizarte-ongizate orokorra ahalbidetzen duten proposamen berriei begiratu behar diegu, baita 1948ko abenduaren 10eko Giza-Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 25.1 artikulua betetzea ahalbidetzen dutenak ere.

> *"Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako asegurua izateko eskubidea ere".*

Espainiako Konstituzioaren 41. artikuluak hauxe ezartzen du:

> *"Botere publikoek hiritargo guztiarentzat Gizarte Segurantza delakoaren erregimen publiko bat mantenduko dute, beharrizan egoeretan laguntza eta giza prestazioak bermatuz eta batez ere enplegu ezaren garaian. Laguntza eta gehigarrizko prestamenak libreak izango dira".*

Zentzu horretan, erantzukizun publikoa duten pertsonek, gainerako gizarte-eragileekin batera, kontuan hartu behar dituzte dauden proposamen desberdinak eta garatzen ari diren ikerketak, diagnostikoak eta azterlanak, kalitatezko enplegurantz eta gizarte-ongizaterantz aurrerapausoak emateko. Arartekoak horretan lagundu nahi du, behintzat prestazio ekonomikoen kudeaketari dagokion partean, txosten-diagnostiko honen bidez.

## ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan, 2017 txosten-diagnostikoaren ondorio nagusiak jasotzen dira, zehazki, gomendioen oinarritzat hartzen direnak. Horregatik, txostenean jorratzen diren gai batzuk, konpondu edo hobetu diren alderdiak bezalaxe, ez dira aipatzen. Horrez gain, ez dira aipatzen gomendiorik ematea eragin ez duten arazo orokorragoak, bikoiztasunak saihesteko eta horien laburpena errazteko.

Ondorio eta hobetzeko proposamen nagusiak hauek izango lirateke:

### 1. HERRITARREI ARRETA EMATEA

#### 1.1. Aurretiazko hitzordua eta itxaroteko epea

Alde nabarmenak daude epeari dagokionez, Lanbideren bulego desberdinen artean hitzorduak ematerakoan eta prestazioen eskaera aitortzeko datari dagokionez ere bai, eskatzen den bulegoaren arabera eta eskaera Zuzenean zerbitzuan aurkezten

den edo ez arabera. Gainera, erabiltzaile batzuek ez dute kostuaz salbuetsitako tarifarik eta horrek Lanbidera telefonoz deitzea zailtzen du.

**1. Aurrerapausoak eman behar dira arretako eredu bakarra ezartzeko, pertsona guztiei antzeko arreta emate aldera, eskaera aurkezten den bulegoa gorabehera. Horrez gain, aurretiazko hitzorduetarako doako telefono ezartzeko aukera aztertu behar da.**

**2. Beharrezko antolakuntza-neurriak hartu behar dira, gaur egun bulego batzuetan dagoen aurretiazko hitzorduaren epea murrizteko.**

### 1.2. Herritarrei informazioa ematea

Titularrek eta onuradunek prestazioa jasotzeko eskubidea mantentzeko bere gain hartzen dituzten betebeharren eta datu pertsonalei dagozkien baimenaren irismenaren inguruko informazio egokia funtsezkoa da. Batzuetan, hizkuntza oso teknikoa eta administratiboa erabiltzeak eskaintzen den informazioaren garrantzia ezagutzea eragozten du.

Zailtasunak eta pertsona bakoitzaren egoera espezifikoa modu egokian eta sentikorrean tratatu behar dira eta norberaren intimitatea errespetatu; izan ere, hori lehentasun bat izan beharko litzateke arretaren hobekuntzan.

**3. Beharrezkotzat jotzen da herritarrei emandako arretaren eta informazioaren kalitatea behar beste hobetzea, prestazioen titular gisa dituzten betebeharrak ezagutzeko, baita horiek ez betetzeak dakartzan ondorioak ere.**

### 1.3. Erregistroa eta eskatzen den dokumentazioa

Lanbideko bulegoek dokumentuak etengabe erregistratzeko zerbitzu bat dute (kasu batzuetan, orain dela oso gutxi ezarri dena); bertan, adierazi digute ziurtagiri bat ematen dutela interesdunak aurkeztutako dokumentuen zerrenda xehatu batekin eta, batzuetan, aurkezteke dauden dokumentuak ere jasotzen dira. Hori gorabehera, oraindik ere antzematen da, kexen izapidetzetik ondorioztatzen den azterketatik, bulego batzuetan ez direla zehaztasunez xehatzen herritarrek aurkezten dituzten dokumentuak.

Erregistroko lan horretan sartzen da, batzuetan, aurkeztutako dokumentuen edukiaren inguruko gutxieneko aholkularitza; beste batzuetan, dokumentuak jaso eta aurkeztutako dokumentuak adierazten dituen ziurtagiria ematen da, besterik ez, Lanbidek eskatutakora egokitzearen inguruko balioraziorik egin gabe. Erregistroko eginkizuna betetzen da aurkeztutako dokumentuen zigilatutako kopia jaso eta ematearekin eta ziurtagiria aurkeztearekin.

**4. Espedientean aurkezten diren dokumentuak zehaztu beharko lirateke herritarrei ematen zaien egiaztagirian edo aurkeztutako dokumentuen zigilatutako kopia eman.**

### 1.4. Baliabide ekonomikoak izatearen egiaztagiriak eta identitatearen ziurtagiriak aurkeztea

Jatorrizko herrialdeetan baliabide ekonomikoak dituztenaren ziurtagiriak eskatzea garestia da atzerritarrentzat; izan ere, ziurtagiri horiek eskuratzea zaila da pertsona hori denbora asko daramanean bere herrialdetik kanpo. Faltan botatzen da egokiagoa den legezko oinarri bat edo oro har ezaguna den eskakizun horren eta eskaeraren izapidetzean dokumentuek baliodunak izateko bete beharreko betekizunen inguruko irizpide bat.

Lanbidek betekizunak betetzen direla kontrolatu behar du; izan ere, eginkizun hori beharrezkoa da prestazioa behar bezala kudeatzeko. Hala ere, batzuetan, eskuratzea zaila den dokumentu zehatz bat eskatzeak, kontuan hartu gabe pertsona horrek prestazioaren titular izateko betekizunak betetzen dituela behar bezala egiaztatzen duten aurkeztutako gainerako dokumentuak, babesetik kanpo uzten ditu beharrizan oinarrizkoenekin lotutako gastuak eta gizarteratzeko prozesu baten gastuak ordaintzeko diru-sarrera nahikorik ez dituzten bizikidetza-unitateetako kideak.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 29.1.l) artikuluarekin bat etorriz, Lanbidek beste dokumentu batzuk eskatu ahal ditu betekizunak betetzen direla egiaztatzeko. Hala ere, Arartekoaren ustez, ahalmen hori proportzionaltasun printzipioa kontuan hartuz modulatu behar da eta, froga bere osotasunean aztertuz, baliabide ekonomiko nahikoak daudela ezartzera bideratu behar da. Dokumentu bat ezin aurkezteak ez luke eskubidea ematea baldintzatu behar. Helburua da, dokumentu bat aurkeztea ezinezkoa denean, hori ez aurkeztearen ondorioz hain funtsezkoa den eskubidea izatea ez eragoztea; izan ere, batzuetan espedientearen inguruabarrak eta dokumentuak aztertuta, pertsonak bizitzeko gutxienekoa bermatzen duten prestazioak jasotzeko eskubidearen titularra izateko beharrezko baldintzak betetzen dituela ondoriozta daiteke.

**5. Dokumentazioak onartua izan dadin bete beharreko betekizunak jakinaraztea eta dokumentu batzuek baliabide ekonomikorik ez dagoela egiaztatzeko baliorik ez izateko arrazoiak justifikatzea.**

**6. Aurkeztutako dokumentuak batera balioztatzea, baliabide ekonomiko nahikorik ez dagoela aztertzeko, baita betekizunak betetzen direla aztertzeko ere.**

### 1.5. Egiazkotasun zalantzagarria duela jotzen den dokumentazioa aurkeztea

Aurkeztutako dokumentuen egiazkotasunaren inguruko zalantzek hori aurkatzea eta prozesu penal batean salatzea eragin dezakete. Aintzat hartu behar da salaketa penal batek soilik ez duela pertsona hori errudun denik esan nahi, EKren 24. artikuluak jasotzen duen errugabetasun-presuntzioaren oinarrizko eskubidea aplikatuz.

**7. Prozesu penal bat irekita dagoen kasuetan, administrazio prozedura etetea erabakitzea, hartzen den erabaki judizialaren zain. Halaber, prestazioa jasotzeko eskubidea berrabiaraztea edo iraungitzea erabakiko da epai penalaren erabakiaren arabera edo etenaldiko egoera mantentzeagatik hamabi hilabete baino gehiagoko epe batez.**

### 1.6. Eskaerak artxibatzea eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik

Alderdi batek eskatutako eskarien izapidetzerako ezarritako prozedurak eskariarekin batera dokumentazioa ere aurkeztea aurreikusten du, eta, hala badagokio, administrazioak eskaria ebazteko nahitaezkoa den dokumentazioaren errekerimendua. Atzera egiteagatik eskaera artxibatzea erabakitzen den ebazpenetan, zehaztasunez adierazi beharko lirateke eskatu diren eta aurkeztu ez diren dokumentuak. Gainera, kontuan hartu behar da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan ezarritako aurreikuspena; horren arabera, interesdunaren jarduketa onartu behar da eta horrek legezko ondorioak izango ditu, epea igarota dagoela jotzen duen ebazpena jakinarazi aurretik edo jakinarazten den egunean ematen bada.

**8. Eskaerak artxibatzea erabakitzen den ebazpenetan, zehaztasunez adieraztea eskatu diren eta aurkeztu ez diren dokumentuak eta dokumentazioa aurkeztea onartzea, epea igarota dagoela jotzen duen ebazpena jakinarazi aurretik edo jakinarazten den egunean ematen bada.**

## 2. ZERBITZU NAGUSIEN ETA LANBIDEREN BULEGOEN ARTEKO HARREMANA

Bulegoetara egindako bisiten inguruan jasotako iritzien artean, hauek nabarmentzen dira: harremanaren despertsonalizazioa; Lanbideren Zuzendaritzak onartutako irizpideetan egindako aldaketen sistematizazio-falta; prestakuntza-gabeziak; Lanpostuen Zerrenda ez egokitzea eta tresna informatikoen konplexutasuna eta funtzionaltasun urria.

**9. Bulegoei beharrezko laguntza teknikoa ematea esleituta dituzten eginkizunak behar bezala burutzeko; langileei prestakuntza egokia eta iraunkorra ematea eta tresna informatiko funtzionalak hornitzea.**

## 3. PRESTAZIO EKONOMIKOAK EBAZTEKO ETA HORIEN AURKAKO ERREKURTSOA JARTZEKO FASEA

Errekurtsoak ebazteko epeak murriztu dira, baina oraindik ere epeak hobetu behar direla jotzen da.

Errekurtsoen onespenak berehalako ondorioak izan behar ditu, epeak luzatzea dakarren berrikuspen-prozedura berri bat eragin gabe. Arartekoak arazo hori aztertu zuen Arartekoaren 2014ko uztailaren 17ko Ebazpenean; horren bidez, Lanbideri gomendatu genion aukerako berraztertzeko errekurtso baten ebazpena aldekoa denean Lanbidek bertako nahiei errekurtsoaren ebazpenean bertan erantzuteko, orokorrean berrikuspen espediente berri bat abiarazi gabe irizpide guztiak bete direla egiaztatzeko asmoz. Lanbidek horren edukia betetzea onartu zuen, baina egiaztatu egin da atzerapen handiak daudela oraindik ere errekurtsogileen asmoak asetzerako orduan.

**10. Aukerako berraztertzeko errekurtsoak ebazteko epeak laburtzea, araudi-aurreikuspenak betez.**

**11. Errekurtsogileen asmoei arintasunez erantzutea horien aukerako berraztertzeko errekurtsoak onetsi direnean.**

# 4. ETETEKO, BERRABIARAZTEKO, IRAUNGITZEKO, BERRITZEKO ETA BERRIKUSTEKO PROZEDURAK

## 4.1. Eteteko prozedura

Aurretiazko entzunaldi-izapidea ezinbestekoa da, betekizunak galdu direnaren eta betebeharrak urratu direnaren seinaleak daudenean. Horrela, ukitutako pertsonek erabaki hori hartzeko oinarritzat hartutako egitateak eta legezko oinarriak ezagutu ditzakete, prestazioaren ordainketaren kautelazko etenaldia ezarri aurretik. Hala, alegazioak aurkeztu ahalko dituzte euren burua defendatzeko. Diru-sarrerak bermatzeko errenta beharrizan oinarrizkoenei aurre egiteko prestazio bat da, eta, horrenbestez, ordainketa eteteko arrazoi argudiatuak egon behar dira, eta aldez aurretik jakinarazi behar da; horrez gain, salbuespen kasuetan salbu, betekizunak galdu izana argi geratzen den kasuetan, aldez aurreko entzunaldi izapidea prozedura guztietan eman beharko litzateke. Izapide hori ez litzateke diligentzia formalago bat izan beharko, ezta formaltasun gutxiagokoa ere. Izan ere, hori ezarri den helburuari erantzun beharko lioke.

Ebazpenak motibatu egin behar dira, oinarritzat hartutako egitateak eta zuzenbideko oinarriak zehaztasunez adieraziz. Behar hori Arartekoaren urtarrilaren 20ko 1/2014 Gomendio Orokorrean aztertu zen, Lanbidek eskubideak mugatzen dituzten ebazpenak motibatzeko duen beharraren ingurukoa; hala, gomendio hori onartu zen. Une hauetan, hobekuntza tarte hau emango litzateke, batez ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa eteteko oinarri diren zuzenbideko oinarriak adieraztean.

Araudian ez da argi eta garbi zehazten zeintzuk diren prestazioa jasotzeko eskubidea etetea saihesteko errespetatu beharreko jokabideak eta betebeharrak. Horrez gain, ez da betebeharrak ez betetzearekin lotutako prestazioaren etenaldiaren iraupena mugatzen.

Ez dira zehaztasunez bereizten prestazioen etenaldia eragingo luketen eta aurpegira daitezkeen egoera eta jokabideak, zehapen-araubidea aplikatzea eragingo luketen egoera eta jokabideengandik, ezta bi ondorioak eragingo lituzketen egoera eta jokabideengandik ere (zehapena eta prestazioen etenaldia).

**12. Oro har, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eten aurreko entzunaldia ezartzea, aparteko kasuetan izan ezik. Izan ere, horietan betekizunak galdu egin direla adierazten da zalantzarik gabe eta, horregatik, prestazioa iraungi behar da.**

**13. Ebazpenen motibazioa hobetzea, zuzenbideko oinarriak adieraziz.**

## 4.2. Berrabiarazteko prozedura

Etenaldian dagoen diru-sarrerak bermatzeko errenta berrabiarazteko eskaerak, batzuetan, araudiak aurreikusitakoa baino gehiago luzatzen dira. Izan ere, oro har, Lanbidek berrikuspena amaitu arte itxaroten du, prestazioa jasotzeko eskubidea sortzeko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko berriz ere. Berrabiarazteko data, normalean, bat dator etenaldia eragin zuen kausa indargabetu den datarekin edo

aurreikusitako etenaldi-epea igaro ostean ematen da. Hala ere, baliteke bat ez etortzea, ohikoa delako interesdunak aurkeztea eskaera, normalean ez delako ofizioz eskatzen.

**14. Prestazioa berrabiaraztea erabakitzea hori ezartzeko kausa indargabetzen denetik edo aurreikusitako etenaldi-epea igaro ostean.**

### 4.3. Iraungitzeko prozedura

Prestazioak iraungitzea erabakitzen den ebazpenetan garrantzitsua da zuzenbideko oinarriak motibatzea, baita prestazioak iraungitzea erabakitzen den ebazpenaren aurretiazko entzunaldia, babesgabetasuna saihesteko.

Prestazioa iraungitzea erabakitzen duen ebazpena eta horren ondorioz ezarritako urtebetez berriz ere eskatzeko ezintasuna soilik aplikatu behar dira aurreikusitako kasuetan. Hala, ezin da interpretazio zabala egin edo beste kasu batzuen "antzekoak" izateagatik, prestazioen eskaerak bezalaxe.

Iraungitzeko kausa dagoen kasu batzuetan aplikatzen da prestazioa urtebetez ezin eskatzeko debekua; hala, urtebete hori zenbatzeko epea prestazioaren ordainketa eten egin den datarekin bat etorri beharko litzateke.

**15. Prestazioak iraungitzea erabakitzen duten ebazpenetan, oinarritzat hartutako legezko manua aipatzea eta horien ondorioak prestazioen eskaeren ukapenetan ez aplikatzea.**

**16. Data, prestazioa eskatzeko ezintasuna ezarrita dagoen urtebeteko epea zenbatzeko, prestazioaren ordainketa eteten den datarekin bat etortzea.**

### 4.4. Berritzeko prozedura

Berritzeko prozeduran, disfuntzioak hauteman dira, izapidetzean zehar eteteko kausa egon dela antzematen den kasuetan. Lanbidek prestazioa ez berritzea erabakitzen du, eteteko kausa indargabetu den edo ez gorabehera. Espediente batzuetan, antzeman da ez dela behar bezala motibatu ez berritzea ezartzen zuen ebazpena. Izan ere, ez ziren azaltzen ez berritzeko arrazoiak edo prestazioa "ez berritzeagatik" iraungiko zela adierazten zen edo ez zela berrituko "iruzurragatik". Horrez gain, ez zitzaion pertsona horri jakinarazten diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren eskaera berri bat aurkeztu ahal zuen. Horren ondorioz, prestazioa berritzeko eskaera aurkeztu zuen pertsonak, iraungitzeko ebazpena jasotzen zuen eta ezin zuen horretatik zehaztasunez ondorioztatu zeintzuk ziren horretarako arrazoiak. Gainera, ezin zuen ondorioztatu prestazioa berriz ere eskatzeko eskubidea zuela, etenaldia eragin zuen kausa indargabetu zelako (eta ez berritzea eragingo lukeena).

**17. Lanbidek, berritzeko fasean, betebehar bat urratu dela antzematen duenean, pertsona horri jakinaraztea eteteko kausa egoteko arrazoiak eta etenaldiaren ondorioen eta iraupenaren berri ematea. Horrez gain, jakinarazi beharko dio berriz ere eskatu ahalko duela prestazioa epea igarotakoan (edo, hala badagokio, eteteko kausa indargabetu denean).**

**18. Prestazioa berritzeko erabakia hartzea, hala badagokio, prestazioa kausa horregatik eteteko aurreikusitako hilabeteak igarotakoan indargabetutako etenaldi-kausa bat antzematen denean.**

### 4.5. Berrikuspen-prozedura

Legeak ahalmen zabalak ematen ditu prestazioen hartzaileek betekizunak eta betebeharrak betetzen dituztela berrikusteari dagokionez. Berrikuspenak ofizioz edo prestazioen titularrek egitateak jakinaraztearen ondorioz egin daitezke. Horrez gain, partikularrek jarritako salaketek bultza ditzakete, betiere administrazio-errekurtsoak onetsi ostean. Prestazioaren ordainketaren etenaldia mantentzen den kasuetan, epeak luzatzeak muturreko egoerak eragiten ditu. Prestazio ekonomikoen hartzaile izatekotan, atzerapen horrek bidegabeki jasotako prestazioen zenbateko handia sortzea eragin dezake.

**19. Berrikuspen-prozedurak izapidetzeko epeak murriztea.**

## 5. DESADOSTASUNAK ARAUDIAREN INTERPRETAZIOAN. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN TITULAR IZATEKO BETEKIZUNAK

### 5.1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateko betekizunak

#### *5.1.1. Benetako egoitza egiaztatzea*

Kexa askotan, adierazten da prestazioa jasotzeko eskubidea ukatu edo iraungi egin dela Lanbidek jo duelako Euskadiko Autonomia Erkidegotik kanpo egindako irteerekin benetako egoitzaren betekizuna galtzen dela.

Araudiak errolda eta benetako egoitza egiaztatzeko beharra aurreikusten du baina ez du hori egiteko modua ezartzen. Lanbidek ulertzen du ez dela benetako egoitzaren irizpidea egiaztatzen pertsona urte batean EAEtik kanpo 90 egun baino gehiago egon denean. Berariazko araudi-aurreikuspenik eza osatu egin den arren, garrantzitsua da horren irismenaren inguruan hausnartzea. Jotzen bada betekizun hori soilik egiaztatzen dela irteera hori 90 egunekoa baino gutxiagokoa denean, ez dira beste faktore batzuk kontuan hartzen, besteak beste, pertsona horrek bere egoitza dela pentsatzen jarraitzea eta horren ondorioz etxebizitzaren alokairua ordaintzen jarraitzea edo seme-alaben eskolatzea mantentzea. Hau da, irizpide aplikatzen da kontuan hartu gabe beste datu batzuk daudela ondorioztatzeko pertsona horren edo familia horren helburua dela egoitza etxebizitza eta udalerri horretan mantentzea; adierazi beharra dago hori ez dela oso zentzuduna.

**20. Benetako egoitzaren betekizunaren oraingo egiaztapenaren balioaren inguruan hausnartzea. Izan ere, horrek eskatzen du Euskadiko Autonomia Erkidegotik kanpo 90 egun baino gehiago ez egotea, bai eskaerak ukatzen diren kasuetan, bai prestazioak eten eta iraungitzen diren kasuetan.**

#### *5.1.2. Etxebizitzaren okupazioa gaikuntza-titulu baten bidez egiaztatzeko ezintasuna*

Batzuetan, etxebizitzaren okupazioaren gaikuntza-titulua aurkeztu ezin duten pertsonen kasuan, higiezinaren legezko jabeak ez dira okupazioaren aurka agertzen. Lanbidek, 2014ko abenduko irizpideetan, ez zuen zehaztasunez islatu zeintzuk ziren tratamendu bera ematen zien kasuak. Nolanahi ere, horrek prestazioa eskuratzea eragozten zuen eta ezin zitzaien erantzunik eman ahultasun egoerei.

**21. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eskuratzea eragozten duen irizpidea aldatzea, etxebizitza okupatzeko gaikuntza-titulurik ez dagoen kasuan, etxebizitzaren jabea horren aurka ez badago, betiere gainerako betekizunak betetzen badira.**

### *5.1.3. Bizikidetza-unitatearen osaera egiaztatzea, zehazki, txosten polizialak eta ezkontideen arteko harremanen antzeko harremanak*

Bizikidetza dagoela egiaztatzeko eskakizuna frogatzea egoera hori alegatzen duen pertsonari dagokio. Lanbidek, batzuetan, txosten polizialak egiteko eskatzen du, prestazioaren hartzaileak diren edo prestazioa aitortzeko eskatu duten pertsonen bizikidetza egiaztatze aldera. Bizikidetza-egiaztapenari buruzko txostenek legezkotasun eta egiazkotasun presuntzioa daukate, autoritatea aitortuta duen funtzionario publiko batek egin baditu. Hortaz, administrazio-agiri publikoa baldin bada erabateko froga-balioa ematen zaio bertan jasotzen den egitate, ekintza nahiz egoerari, dokumentatzea egiten den datari eta fede-emailearen eta, hala badagokio, horretan parte hartzen duten gainerako pertsonen nortasunari. Baina ematen diren interpretazio, balio-judizio eta iritziei ez zaie erabateko froga izaera hedatzen.

**22. Bizikidetza-unitatearen osaera egiaztatzeko baliagarriak diren txostenen edukiaren proportziozko judizioa egitea; egitateei balioa ematea eta kasu bakoitzean barne hartutako interpretazio, balio-judizio eta iritzien balioa haztatzea.**

### *5.1.4. Atzerriko pertsona batekin ezkondutako edo ezkontideen antzeko harremana duten eta banatuta bizi diren pertsonak*

Araudiak ezartzen du ezkontza bidez edo senar-emazteen antzeko harreman iraunkor baten bidez lotuta dauden pertsonak elkarrekin bizi behar direla bizikidetza-unitate bat izateko. Immigranteen kasuan, araudiak aurreikusten du bizikidetza-unitate bat izateko betekizuna betetzen dutela bi urtez gehienez ere. Hori horrela izango da senarra/emaztea edo senar-emazteen antzeko harreman iraunkor bat duen pertsona Espainian bizi ez den arren.

Bi urteko epe hori igarotakoan, senarra/emaztea edo bikotea etxe berean bizi ez bada, ezingo dute diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea berritu.

Aurreikuspen honek soilik atzerritarrei eragiten die. Estatuko pertsonen kasuan, ezkontidearekin bizi ez badira, ez daukate diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubiderik hasieratik.

Askotan, senarra/emaztearekin edo senar-emazteen antzeko harreman iraunkor bat duen pertsonarekin ez bizitzea ez dauka zer ikusirik bikotearen borondatearekin, baizik eta gaur egun zenbait jatorri nazionaletako pertsonek dituzten zailtasunekin,

estatuetatik zirkulatzeko, mugak gainditzeko edo jatorrizkoa ez den beste herrialde batean ezartzeko.

Bizikidetza egiaztatzeko eskakizuna, familiarekin elkartzeko eskaera ukatu zaion atzerriko pertsona batekin ezkontideen antzeko harremana duten edo senar-emazte harremana duten pertsonek osatutako bizikidetza-unitateen kasuan, bete ezin duten betekizun bat betetzeko eskatzea da, hori betetzeko daukaten borondatea eta interesa gorabehera. Gainera, kontuan hartu behar da horrek ez daukala zer ikusirik ahultasun egoerarekin. Hain zuzen ere, familiarekin elkartzeko eskaera ukatzen da baliabide ekonomiko nahikoak dituztela ez egiaztatzeagatik. Beraz, jotzen da ez dagoela baliabide ekonomiko nahikorik.

Migrazio-mugimenduen ondorioz, bizikidetza-modu berriak sortzen ari dira. Hala, Eusko Jaurlaritzak, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.4 artikuluan ezarritako aurreikuspena aplikatuz, berak hala erabakita, bizikidetza-unitate kasu berriak ezarri beharko lituzke gizarte garapenari erantzuna emanez, eta zehazki, familia egitura ereduen bilakaerari erantzunez.

**23. Senar-emazteak edo senar-emazteen antzeko harremanak dituzten bikoteak elkarrekin bizitzeko eskatzen duen araudi-aurreikuspenaren ondorioen inguruan hausnartu beharko litzateke, kideetako batek Estatu Kide bateko herritartasuna ez duenean edo Europako Espazio Ekonomikoaren Erabakiaren kide ez den herrialde batekoa denean, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.4 artikuluan ezarritako aurreikuspenaren arabera. Izan ere, horrek bizikidetza-unitate mota berriak definitzeko aukera jasotzen du, gizarte-garapena eta, batez ere, familia-egituraren ereduen garapena kontuan hartuz.**

### *5.1.5. Egoitza-zentroetan edo babespeko etxebizitzetan bizi diren pertsonak*

Toxikomania tratamendua jasotzen duten eta harrera-etxebizitzetan edo erkidego terapeutikoetan dauden pertsonak, mendekotasuna gainditzeko zentroetan eta hezkuntza-zentro berezian sartzea arautzen duen Espetxeetako Araubidearen 182. artikulua aplikatuz, ezin dira prestazioen hartzaileak izan tratamendu-fasean dauden bitartean. Hala ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileak izan daitezke gizarteratzeko fasean daudenean. Hala eta guztiz ere, horien bizitza-araubidea hirugarren mailakoa da ondorio guztietarako eta, horien egoeran, hirugarren mailako gainerako modalitateetan diru-sarrerak bermatzeko errentaren emakida justifikatzen duten arrazoi berberak ematen dira.

**24. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa ematea espetxetik atera ostean gizarteratzeko programa batean dauden pertsonei, hirugarren mailako edo antzeko bizitza-araubidea izateagatik, osagai terapeutikoa gorabehera.**

### *5.1.6. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea iraungitzea edo hori ez aitortzea, ohiko etxebizitzaz gain beste ondasun higiezin batzuen titularrak diren pertsonen kasuan*

Lanbidek manu horren interpretazioa malgutu du; horrek prestazioa iraungitzea ezartzen du ohiko etxebizitzaz gain beste ondasun higiezin baten titular den kasuetan. Hala, ezarritako balioa diru-sarrerarik ez egotekotan legokiokeen diru-

sarrerak bermatzeko errentaren urteko zenbatekoa baino txikiagoa da. Horrez gain, ez da aplikatzen zenbait ondasun higiezin diren kasuan, horien guztien katastro-balioaren batuketak zenbateko zehatz bat gainditzen ez badu. Arartekoak positibotzat jotzen du araudiaren interpretazio hau, prestazioa jasotzea ahalbidetzen duena.

Gainera, aurreikusi du betekizun hori salbuestea, jabetzan gehiegizko okupazioko, bizigarritasuneko edo irisgarritasuneko arazoak dituen etxebizitza dat duten kasuetan eta alokairuan bizi direnean. 2014ko abenduaren Irizpideen Dokumentuaren 53. Irizpidean, zenbait baldintza ezartzen dira (egoera horiek egiaztatzen dituen Etxebideren txosten bat egon behar da; Etxebideren esku jarri behar da edo, hala badagokio, hori saldu...).

Egia da aurreko irizpideak aurrerapauso bat direla araudia eskubidea aitortzeko moduan interpretatu ahal izateko, segurtasun juridikoko eta gardentasuneko printzipioak betez. Hala ere, dagokion legezko tresnan islatu beharko litzateke arauren bat hori oro har ezagutzera emateko.

**25. Araudian islatzea ohiko etxebizitzaz gain beste ondasun higiezin bat ez izateko betekizuna betetzearen salbuespenak.**

### *5.1.7. Bizikidetza independenteko urtebete egiaztatzea*

Araudiak ezartzen du bizikidetza-unitatea, gutxienez, eskaera aurkezten den data baino urtebete lehenago eratu behar dela, araudiak beren-beregi salbuetsitako kasuetan izan ezik.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskatzaileak aurretik bere familiaz bestelako bizikidetza-unitate bat eratu izan arren, horretako kideren baten aldi baterako egonaldia Lanbidek bizikidetza-unitatearen egituraren apurketatzat jotzen du. Hori dela-eta, beste urtebete betetzeko eskatzen du, pertsona bizi izan den etxebizitzatik joaten denetik zenbatzen hasita.

Erakundearen ustez, zentzuduna da araudiak mugaketaren bat aurreikustea seme-alabak familia-etxebizitzatik emantzipatzeari dagokionez, saihesteko pertsona horiek familia-etxebizitzatik emantzipatzea Lanbidek prestazio ekonomikoak ematen dituelako. Hala eta guztiz ere, betekizun horren interpretazioa da pertsona bat bere bizitza osoan zehar ezin dela senideren batekin bizi, epe labur batez bada ere. Hala, interpretazio hori ez dator bat prestazio honen helburuarekin. Beste kasu batean, beharra dela-eta bizitzaren momenturen batean senideekin bizitzeko, berriz ere egiaztatu beharko da betekizun hori, hau da, eskaera aurkezten den data baino lehenago urtebete modu autonomoan bizi izan dela. Hala, ezohiko egoera horietan, familia-loturarik ez duten beste pertsona batzuekin bizitzea aukeratzekotan, ez da betekizun hori bete beharko. Beraz, pertsona batzuek bizitzaren zenbait momentutan bete beharko dute betekizuna eta beste batzuek ez.

**26. Bizikidetza-unitatea eskaera aurkeztu baino urtebete lehenago, gutxienez, eratzeko betekizuna egiaztatzeko, egoera pertsonalak aztertzea eta egiaztatu dela jotzea urtebetez modu autonomian bizi egin dela ziurtatzen denean, geroago**

**araudian aurreikusitako familia-loturaren bat duen senideren batekin berriz bizi izan bada ere.**

**27. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei eskatzea betekizun hori betetzen dela egiaztatzen duen txosten bat egiteko.**

### *5.1.8. Etxeko indarkeriako biktimek betekizunak betetzeari dagozkien kontu batzuk*

Araudiak araubide berezi bat aitortzen du familia- eta genero-indarkeriaren biktimentzat, bizikidetza-unitatea arautzean eta eskubidearen titularrek bete behar dituzten baldintzak ezartzean. Aurreikuspenen artean, ez da azaltzen baldintza hori egiaztatzeko modua, baina araudiaren garapenean betekizunak egiaztatzeko aurkez daitezkeen dokumentu guztiak adierazi dira, nahiz eta ez den zerrenda itxi bat.

Maiatzaren 25eko 147/2010 dekretuaren 29. artikuluak hauxe eskatzen du 1.c) atalean: Babeseko Agindua edo Ministerio Fiskalaren txostena aurkezteko. Hala ere, artikulu berean, l) atalean, eskatzaileak espedientera gehitu nahi dituen dokumentuen aurkezpena aurreikusi da. Era berean, m) atalean beste dokumentu batzuen aurkezpena aurreikusten da, administrazioak eskatu nahi dituenak, betekizunak betetzen direla egiaztatze aldera.

Zentzu horretan, Lanbidek familia- eta genero-indarkeriaren biktimaren izaera balora dezake, aurkezten diren gizarte-zerbitzuen txostenak aztertu ostean. Horrez gain, arreta ematen dioten herri-administrazioei eskatu ahal die txosten espezifiko bat eta, hori aztertu ostean, familia- eta genero-indarkeriaren biktimaren izaera egiaztatzen dela jo.

**28. Familia- eta genero-indarkeriaren biktimaren izaera interesdunak aurkezten dituen dokumentuen bidez egiaztatzeko aukera aztertzea, hau da, Gizarte Zerbitzuen txostenen bidez edo Lanbidek beste herri-administrazio batzuei eskatzen dien txostenen bidez.**

### *5.1.9. Langile autonomoekin lotutako zenbait kontu*

Langile autonomoei dagokienez, diru-sarrerak murriztu zaizkienean eta jarduera etetea erabakitzen dutenean errentagarria ez delako, Lanbidek egiaztatzen duenean jarduera eten egin dela etekinak edukiz, hau da, jardueraren etekin garbia zero euro baino gehiagokoa dela, prestazioen eskaerak ukatzeko irizpidea aplikatzen du edo horiek iraungitzea erabakitzen du, enplegu bat nahita ukatu dela jotzen duelako.

Arartekoaren iritziz, araudiaren interpretazio egokiagoa litzateke, jasotako diru-sarrerak prestazioen eskatzailearen oinarrizko premiei aurre egiteko nahikoak diren ala ez aztertzea, euro bateko edo gehiagoko irabaziak dauden gorabehera.

Nolanahi ere, aurretiazko informazioa funtsezkoa da norbere kontura lan egiten duten langileek jakiteko zeintzuk diren kasu hauetan jarduera eteteak dakartzan ondorioak. Izan ere, kasu gehienetan, ukitutako pertsonek prestazioak aitortzeko eskatzen dute autonomoen araubidean baja hartu ostean; hori dela-eta, eskaera

ukatzen zaie eta horri beste eragozpen bat gehitu behar zaio, hau da, jardueran baja hartu eta ondorengo urtean ezingo dituztela prestazioak eskatu.

Langile autonomoei eragiten dien bigarren arazo espezifikoak zer ikusia dauka profesional autonomo guztiei egozten zaien jardueraren gutxieneko fikziozko etekinarekin, aurretiazko aitorpen fiskala izan edo ez. Horrenbestez, jasotzen duten prestazio osagarriaren zenbatekoa murrizten da. Aitorpenetik eratorritako etekina lanbide arteko gutxieneko soldataren %75 baino gutxiago bada, Lanbidek, besterik adierazi ezean, hori egozten du, kontuan hartuta urtearen lehenengo seihilekoan oraindik ez duela aurreko urteko aitorpen fiskala.

**29. Informazioa hobetzea langile autonomoek jarduera uztean izan dezaketen ondorioei dagokienez eta zero eurotik gorako edozein etekin edukitzeak enplegu batean baja nahita hartzea esan nahi duela ezartzen duen irizpidea berrikustea.**

**30. Aurretiazko aitorpen fiskala duten kasuetan, dokumentu horretan jasotzen diren etekinak zenbatzea eta soilik egoztea fikziozko etekinak aitorpenik ez duten kasuetan.**

### *5.1.10. Guraso baten aldetik umezurtzak diren eta beste gurasoak abandonatu dituen gazteak*

Araudiak, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko betekizunen artean, hauxe ezartzen du: 23 urte baino gehiago edukitzea. 18 urtetik gorako eta 23 urtetik beherako pertsonen kasuan, umezurtza amaren eta aitaren aldetik izatea eskatzen du, bizirik dagoen gurasoak seme-alaba abandonatu duen egoerak aintzat hartu gabe. Araudiak ez ditu aurreikusten guraso baten aldetik umezurtzak diren eta besteak abandonatu dituen pertsonen egoerak; beraz, egoera horretan dauden eta 18 eta 23 urte bitarteko adina duten gazteak ez daude behar bezala babestuta (Gizarte Segurantzaren familia-prestazioak arautzen dituen araudiak kontuan hartzen ditu gurasoek abandonatutako gazteen egoerak).

**31. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubidea aitortzearen aldeko interpretazioa egitea guraso baten aldetik umezurtzak diren eta besteak abandonatu dituen gazteen kasuetan eta, nolanahi ere, egoera horiek babesteko araudi-aldaketa bat proposatzea.**

### *5.1.11. Ardurapeko seme/alabagatik Gizarte Segurantzaren prestazioa jasotzen duten eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eskatzen duen pertsonak*

Lanbidek, aurretik, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa aitortze aldera, interpretatu zuen pentsiodunak ere bazirela 18 urte baino gehiago dituzten eta %65eko edo gehiagoko ezgaitasuna duten pertsonak, eragileak direnak, Ardurapeko Seme/alabagatiko Prestazioaren titularrak ez izan arren.

Geroago, seme-alabaren baten ardura izateagatik prestazioa jasotzen dutenak umezurtzak diren kasuetan soilik jotzen ditu pentsiodunen bizikidetza-unitatetzat, bai prestazioaren titularrak direnean, bai titularrak ez direnean, legez ezgaituak

daudelako. Arartekoaren 2015eko uztailaren 21eko 2015R-777-14 Ebazpenean, arazo hori aztertzen da.

**32. Aipatutako legearen ondorioetarako, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.2.a) artikuluan jasotako bizikidetza-unitateen antzekoak diren unitatetzat jotzeko 18 urte beteta dituzten eta %65eko ezgaitasun maila edo handiagoa duten pertsonak eta, horregatik, seme-alaba ardurapean izateagatiko prestazioaren eragile direnak, bai horren titularrak-onuradunak direnean, bai gurasoak edo tutoreak direnean legez ezgaituta egoteagatik.**

## 5.2. Ezohiko diru-sarreren inguruko aurreikuspenaren interpretazioa, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20. artikulua

### *5.2.1. Ezohiko diru-sarrera eta mailegu bat gauzatzea*

Lanbidek interpretatu du mailegu bat ez ohiko diru-sarrera dela eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzen dutenek jasotzen dituzten diru-sarrerak zenbatzerakoan ezarritako aurreikuspenak ezarri dizkio.

Zentzu horretan, kreditu bat ez ohiko diru-sarrera gisa ulertzen du. Beraz, horiek erabili ahal izan diren egunaren ondorengo hirurogei hilabeteetan, maileguaren guztizko zenbatekoa zati hirurogeiren baliokide diren hileroko diru-sarrera gisa konputatuko dira.

Araudiak ez ditu literalki maileguak aipatzen; izan ere, hauxe aipatzen du: “beste edozein diru-sarrera”. Horien artean pertsona prestazioaren onuraduna den bitartean sinatzen diren maileguak sartzea, legezko oinarri egokirik ez duen interpretazio zabala egitea da.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20. artikuluak aurreikusten dituen kasuak errekurtso ekonomiko berriak, hau da, pentsio, legatu, herentzia edo salmenta baten produktua jasotzen diren horiek dira, baina horiek jasotzeak dakarren betebeharrak eta mailegu bat sinatzetik sortutako betebeharrak oso ezberdinak dira.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta bezalako diru-sarrerak bermatzeko prestazio baten titularrak mailegu bat sinatzea ez da ohikoa. Zentzu horretan, betekizunak galdu izanaren edo betebeharrak urratu izanaren seinale bat izan daiteke. Beraz, espedientea helburu “ikuskatzaile” horrekin berrikusi beharko litzateke eta, dagokion ikerketaren ostean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzeko eta mantentzeko beharrezkoa den legezko aurreikuspenen bat urratu egin den aztertu.

**33. Mailegu bat formalizatzea ezohiko diru-sarrera gisa ez zenbatzea.**

**34. Mailegu bat sinatu dela antzemeten den kasuetan, espedientearen berrikuspena abiaraztea, betebeharren bat urratu den edo betekizunak galdu diren aztertzeko.**

#### *5.2.2. Araudi-aurreikuspen honen interpretazioari eragiten dioten beste kontu batzuk*

Lanbidek herentzia bat edo ondasun higiezinen dohaintza bat jasotzea ondarea ezartzeko aurreikusitako arauak kontuan hartuz aztertzen du eta ezohiko diru-sarrera bat dela jotzen du. Hortaz, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatzen du. Horrenbestez, eragiketa horretatik ateratako zenbatekoa ondorengo 60 hilabetetan zenbatzen du. Horren ondorioz, kasu batzuetan, prestazioaren eskaera ukatu egin da edo emandako prestazioaren zenbatekoa murriztu egin da, batzuetan asko murriztu ere bai. Beste kasu batzuetan, prestazioa iraungi egin da, herentzia edo dohaintza batengatik balio handiko ondasun higiezinak jasotzen direnean.

Manu hori aplikatzerakoan, herentzia edo dohaintza baten ondorioz, bihurtu ezin den edo bihurtzea zaila den ondasun higiezin baten titulartasuna edo titulartasunaren ehuneko bat onartzean, hori existitzen den kasuetan gertatzen den bezalaxe, biziarteko gozamenaren zama egotean edo beste arrazoi batzuengatik ondasun higiezina eskuordetu ezin denean, prestazioa iraungi daiteke. Hala eta guztiz ere, negozio juridiko hori egitea ez dago soilik herentzia jasotzen duen prestazioaren titularraren nahiaren esferaren menpe. Izan ere, beste jabekide batzuek egiten dutenaren eta gozamendunak ukatzearen menpe dago. Arartekoak uste du, herentzian ondasun higiezinak jasotzen direnean, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3.c) artikuluan aurreikusitako muga aplikatu beharko litzatekeela. Beraz, prestazioa soilik iraungiko da, ondasun higiezinentzat aurreikusitako balorazio-arauen araberako zenbaketa egin ostean, balioa 30.000 euro baino gehiagokoa bada. Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20. artikulua soilik aplikatu beharko litzateke herentzian jasotako ondasun higiezinaren ehunekoa saldu egin denean eta, hortaz, diru-sarrerak dituenean.

**35. Bihurtu ezin den edo bihurtzea zaila den ondasun higiezin baten titulartasunaren ehuneko batean datzan herentzia bat onartzea, horren balioa "30.000 euro" baino gehiagokoa ez bada, ezohiko diru-sarrera bezala ez zenbatzea ondasun higiezina saldu edo bihurtu arte.**

### 5.3. Desadostasunak araudiaren interpretazioan. Desadostasunak prestazioen etenaldia eta iraungipena ezartzeko kausen interpretazioan

#### *5.3.1. Enpleguko eskatzaile gisa altan ez mantentzea diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izanik, hain zuzen ere, Laneko Errenta Osagarriaren modalitatean*

Kide guztien enplegu-eskaera aktibo mantentzeko beharra, baita diru-sarrerak bermatzeko errenta laneko diru-sarreren osagarri gisa jasotzen ari den kasuetan ere, ez da argi ondorioztatzen araudítik.

Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19. artikuluaren idazketan, zenbait betebehar bereizten ziren gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta izatearen edo laneko errenta osagarria izatearen arabera. Zentzuzkoa da ulertzea enpleguko eskaera aktibo mantentzeko beharra soilik eskatu beharko litzatekeela ukitutako pertsonek lan egiten ez duten kasuetan (hau da, gizarteratzeko eta gizarte-

babeserako oinarrizko errentaren titularrak direnean); beraz, lan egiten duten pertsonek ez dute enpleguko eskatzaile gisa altan egoteko betebeharra.

Hala eta guztiz ere, uste dugu betebehar hori abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.3 artikuluak aipatzen duen gizarteratzeko hitzarmenaren bidez eskatu ahalko zela; izan ere, ulertu ahalko zen, enplegua hobetzeko neurri horien parte gisa, eskaera aktibo mantentzeak lan-eskaintzetarako sarbidea erraz dezakeela. Lan-eskaintza horiek kontzeptu horregatik jasotako diru-sarreren osagarria den diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularraren egoera hobetuko lukete. Hala ere, Arartekoaren ustez, prestazioaren arauditik ezin da ondorioztatu betebehar hori eskatzen denik.

**36. Lanbidek beren-beregi jakinaraztea beharrezkoa dela laneko diru-sarreren errenta osagarriaren titularrek enplegu-eskaera aktibo mantentzea.**

### *5.3.2. Euskadiko Autonomia Erkidegotik kanpoko irteera bat ez jakinaraztea*

Prestazioa jasotzen duen pertsona bat Euskadiko Autonomia Erkidegotik kanpo ateratzen bada eta hori jakinarazten ez badu, betebehar bat urratzen ari da.

Betebehar hori ez dago beren-beregi aurreikusita araudian; hortaz, arrazoi horrengatik prestazioa iraungitzea erabakitzen den ebazpenetan, eteteko beste arrazoi batzuk jaso ohi dira, besteak beste, enplegurako eskuragarri egoteko betebeharra ez betetzea.

**37. Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa etetea erabakitzea soilik araudian aurreikusitako betebeharrak ez betetzeagatik eta prestazioa etetea saihestea Euskadiko Autonomia Erkidegotik kanpoko irteera bat ez jakinarazteagatik, betebehar hori araudian aurreikusita ez dagoelako.**

### *5.3.3. Eduki ekonomikoko eskubideak ez baliatzea*

Eduki ekonomikoko eskubide oro baliatzeko betebeharra prestazioak eteteko eta iraungitzeko kausa da. Horrela, betebehar hori ez dela betetzen jotzen da dibortzioko, banantzeko edo guraso eta seme-alaben arteko neurriak ezartzen dituen epai judizialean aitortutako elikagaien pentsioa egikaritzen ez denean. Arartekoaren ustez, aztertutako kexa batzuetan, antzeman da Lanbidek manuaren interpretazio zabala egiten ari dela. Izan ere, askotan, prestazioaren jasotzaileen aukeretatik kanpo geratzen diren jarduketak burutzeko eskatu egin du.

Betebehar hori ez dela bete jotzen da alokairuko babes publikoko etxebizitza bat ukatzen den kasuetan, Etxebidek eskaintzen duen etxebizitzaren alokairua alokairu libreko etxebizitzagatik ordaintzen den alokairua baino merkeagoa denean. Arartekoa ez dago ados etxebizitza hori ukatzeak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa etetea edo iraungitzea eragitearekin; izan ere, uste du soilik etxebizitzarako prestazio osagarria eten edo iraungi beharko litzatekeela, etxebizitza eskatzaileen erregistroan inskribatuta egoteko betekizuna urratzen da. Gainera, etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeari dagokionez, etxebizitzaz aldatzeak gastu gehigarriak eragin ditzake, baita familia-deserrotzea ere.

Azkenengo kasu horretan, adingabearen interes gorena hartu beharko litzateke kontuan.

Betebehar honen interpretazio zabala egiten den beste kasu bat da hau: egitate bat Lanbideri jakinarazten zaionean eta EEZP zerbitzuari ez. Horren ondorioz, EEZP zerbitzuak prestazioa iraungitzen du eta, horrenbestez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzen da Lanbiden, jotzen delako ez dela baliatu eduki ekonomikoko eskubide bat.

**38. Eskubidearen titularrari eskatu ahal zaion ardura haztatzea, eduki ekonomikoko eskubideak ez baliatzeagatik prestazioa etetea edo iraungitzea eragin dezakeen edozein erabaki hartu aurretik.**

**39. Babes ofizialeko etxebizitza bat ukatzen denean, Lanbidek ukapen hori justifikatzeko arrazoiak egon daitezkeela baloratzea eta, hala badagokio, etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea soilik eta ez diru-sarrerak bermatzeko errenta.**

### *5.3.4. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzea lan-postu baterako langileak hautatzeko prozesuetan ez parte hartzeagatik*

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren araudiak ezartzen du enplegu-eskaintza bati edo lan-egoera hobetzeari uko egitea prestazioa azkentzeko arrazoia dela (eta horrek berekin dakarrela urtebetean beste eskaerarik ezin aurkeztu izatea). Arartekoaren ustez, lege-aurreikuspen hori aplikatzen ari den modua ez da behar adina berme ematen ari.

Izapidetu diren kexetan, ez da jaso lanpostu baterako langileak hautatzeko prozesu batean parte hartzeko eskaintza idatzizko jakinarazpen formal baten bidez helarazi denik. Ezagutu ditugun kasuetan gutxienez, hautapen-prozesu batean parte hartzeko jakinarazpena ez du Lanbidek egiten, baizik eta prozesua deitzen duen erakunde kolaboratzaileak, telefonoz.

Jakinarazteko modu horrek, diru-sarrerak bermatzeko errentaren espediente baten berezko izapideen parte den administrazio-egintza gisa hartu behar dena, gure ustez, diru-sarrerak bermatzeko errenta bezalako eskubide subjektibo bat iraungitzea eragin dezakeenez, ez ditu betetzen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40-46 artikuluek eskatutako baldintzak. Izan ere, horiek arautzen dute nola egin behar den jakinarazpena eta manu horiek espedientean jasotzeko eskatzen dute.

**40. Lanbidek modu bermatzaile batean jakinaraztea hautapen-prozesua, lan-eskaintzaren edukia eta eskaintzen diren lan-baldintzak. Horrez gain, ukatzeko justifikatutako arrazoirik ez badago, hautapen-prozesuan ez parte hartzeak edo enplegua ukatzeak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidean izan ditzakeen ondorioak jakinarazi beharko ditu.**

**41. Espedientean islatzea jasotako informazioa eta egindako jakinarazteko saiakerak, baita enplegua ukatzeko edo hautapen-prozesuan ez parte hartzeko arrazoiak ere.**

#### *5.3.5. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak iraungitzea Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan izena ez emateagatik (Etxebide)*

Lanbidek, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak berritzeko izapidea egitean edo espediente horiei dagokien edozein berrikuspen egitean, interesduna -Etxebide-Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan bajan dagoenaren berri badu, etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzen dio. Horrez gain, gutxiago izan badira ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa etetea erabaki den kexak jaso ditugu. Hala, horiek eten dira maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.b), f) edo j) artikuluan aurreikusitako betebeharra urratu dela jo delako.

Ukitutako pertsonek adierazi dute ez zekitela Etxebideko inskripzioan bajan zeudela eskaera ez berritzeagatik edo hori ukatzeagatik. Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du ez dagoela ados Eusko Jaurlaritzako Sailburuordetzaren jakinarazpenak egiteko araubidearekin. Izan ere, horrek iragarki-taulan argitaratzen zituen eta mantendu du, administrazio-egintza baten baliorik ezak, Etxebideko inskripzio baten ukapenaren edo baja baten jakinarazpen akastunaren ondorioz sor daitekeena, ukapen edo erregistroko baja horrekin zuzenean lotutako gainerako administrazio-egintzen balioari eragin ahal diola, besteak beste, etxebizitzarako prestazio osagarriaren etenaldia, etxebizitzarako prestazio osagarriaren iraungipena edo hori ez berritzea. Legegintzaldi honetan, gaur egun eskuduna den Ingurumen, Lurralde-plangintza eta Etxebizitzako Sailak Arartekoari helarazi dio jakinarazpenak egiteko sistema berri bat diseinatzen ari dela; sistema hori 2017ko martxorako ezartzea aurreikusi da. Ordura arte, jakinarazpenak iragarki-taulan argitaratzen jarraituko lirateke.

Bestalde, Lanbidek instrukzio bat adostu du, non Arartekoak helarazitako irizpidearekin bat datorrela adierazi duen.

**42. Jakinarazteko sistema berria ezarri arte, instrukzioa aplikatzea. Horrela, prestazioen berrikuspen bat egiten den bitartean, Etxebiden bajan dagoela antzematen bada, entzunaldi-izapide bat burutuko da, egoera erregularizatzeko, eta ez dira zenbatekoak eskatuko inskribatuta ez egoteagatik.**

## 6. ARAUDIA ALDATZEKO PROPOSAMENAK

### 6.1. Bizikidetza-unitate bereziei dagokien denbora-mugaketa

Bizikidetza-unitate bereziei eragiten dien denbora-mugaketak, batzuetan, zailtasun ugari eragiten ditu bizikidetza-unitateak eragozpenen bat duenean adingabeak zaintzeko edo mugaketa funtzional, ezgaitasun edo menpekotasun bat dagoenean. Izan ere, kasu horietan gomendagarria izaten da familia-loturak dituen beste bizikidetza-unitate batekin bizitzen jarraitzea. Kasu hauetan, funtsezkoa da Gizarte Zerbitzuekin koordinatzea.

**43. Ezohiko kasu batzuetan (zailtasunen bat dagoelako edo mugaketa funtzionala, ezgaitasuna edo mendekotasuna dagoelako) beste bizikidetza-unitate batzuekin bizitzeko aukera 24 hilabete baino gehiago luzatzeko aukera aztertzea. Nolanahi**

**ere, Gizarte Zerbitzuekiko koordinazioa eta informazioa hobetu behar dira etxebizitza-aldaketa errazteko eta autonomia sustatzeko, emandako epea igaro aurretik.**

## 6.2. Prestazioen ordainketa etetea eta prestazioak jasotzeko eskubidea etetea eta iraungitzea

Prestazioen etenaldia eta iraungipena ezartzen dituen eta prestazioen ordainketa geldiarazteko kausak arautzen dituen prozedurak, Arartekoaren ustez, gabeziak ditu. Beraz, uste da komenigarria dela hobetzeko proposamenak egitea, bai prozeduren bermeei dagokienez, bai kontu materialagoei dagokienez.

**44. Proposamen hauen egokitasuna aztertzea:**

- **Norberak bere gain hartutako betebeharren inguruko informazioa hobetzea.**
- **Eskubidearen titulartasunak daramatzan betebeharrak argitzea.**
- **Betebeharrak ez betetzeak dakarren ondorioen inguruko informazio egokitzea.**
- **Etenaldia ezartzeko kausak zehaztasunez eta esplizituki tipifikatzea.**
